


eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

**FACULTAD DE CIENCIAS SOCIALES
Y DE LA COMUNICACIÓN
Departamento de Periodismo II**

Tesis Doctoral

**Kazetaritza infografiaren garapena Espainiako prentsan.
'El Correo Español-El Pueblo Vasco'-ren kasua**

Directores:

**Dr. Jesús Canga Larequi
Dra. M^a José Cantalapiedra González**

Daniel García González

Leioa, 2011

*a mis padres,
Atanasio y Petri*

AURKIBIDEA

1.- SARRERA

| | |
|---|-----------|
| 1.0.- Ikertutako gaiaren interesa | 17 |
| 1.1.- Helburuak | 18 |
| 1.2.- Hipotesiak | 19 |
| 1.3.- Erabilitako Metodologia. | 20 |
| 1.3.1.- Sarrera. Bibliografia analisia | 20 |
| 1.3.2.- Teknika kualitatiboak | 21 |
| a) Elkarrizketa pertsonalak | 21 |
| a.1.- Estatu Batuetako 2004eko egonaldia | 22 |
| a.2.- Estatu Batuetako 2010eko egonaldia | 22 |
| a.3.- Gainontzeko elkarrizketa pertsonalak | 22 |
| b) Behatze partehartzailea | 23 |
| 1.3.3.- Ikerketa teknika kuantitatiboak | 24 |
| a) Aspektu orokorrak | 25 |
| b) 1985 baino lehen | 25 |
| c) 1985etik aurrera. Fitxa metodologikoaren deskripzioa | 28 |
| c.1.- Lehenengo zatia. Testuinguratzea | 29 |
| c.2.- Bigarren zatia. Infografikoaren disezioa | 30 |
| 1.4.- Lanaren plana | 35 |

2.- ATAL TEORIKOA

| | |
|---|-----------|
| 2.1.- Aspektu orokorrak. | 39 |
| 2.1.1.- Infografiaren definizioa | 39 |
| 2.1.2.- Infografiaren jatorria | 40 |
| 2.2.- Kazetaritza infografia | 42 |
| 2.2.1.- Kazetaritza infografiaren historia | 44 |
| 2.2.2.- Eskola ezberdinak | 48 |
| 2.3.- Infografikoa | 49 |
| 2.3.1.- Definizioa | 49 |
| 2.3.2.- Sailkapenak | 51 |
| 2.3.3.- Megagrafikoak | 52 |
| 2.3.4.- Infografikoaren zatiak | 52 |
| a) Titulua | |
| b) Testuak | |
| c) Gorputza | |
| d) Sarea | |
| e) Indikatzaileak | |
| f) Legenda | |
| g) Iturria | |
| h) Kredituak | |
| 2.3.5.- Infograma | 54 |
| 2.3.6.- Estatistika grafikoak | 55 |
| a) Jatorriak | |
| b) funtzioa | |
| c) Motak | |
| d) Datu kutxak | |
| e) Mapa ez estatistikoak | |
| 2.3.7.- Arreta deitzeko gaitasuna | 60 |
| 2.3.8.- Ilustrazioarekiko erlazioa | 61 |
| 2.4.- Infografikoa genero bezala. | 62 |
| 2.5.- Hizkuntz grafikoa prentsan. | 67 |
| 2.5.1.- Orotarikoak | 67 |
| 2.5.2.- Irakurketa ordena | 68 |
| 2.5.3.- Infografikoen testuak | 69 |
| 2.5.4.- Orrialdearekiko erlazioa eta diagramazioa | 70 |

| | |
|---|-----------|
| 2.6.- Zein informaziorekin publikatu behar den infografiko bat | 72 |
| 2.7.- Infografiagileak | 74 |
| 2.8.- Egunkarietako infografia departamenduak | 77 |
| 2.8.1.- Estilo liburuak | 79 |
| 2.9.- Infografia agentziak | 80 |
| 2.10.- Erabilitako teknologia | 82 |
| 2.11.- Infografiaren Etika | 84 |
| 2.12.- Grafiko estatistikoaren gorentasunaren Tufteren bost printzipioak | 84 |
| 2.13.- Kazetaritza infografiaren historia Espainian | 87 |
| 2.13.1.- Espainiako prentsako infografiaren garapena 90. hamarkadan | 88 |
| 2.13.2.- Egunkari erregionalak | 91 |

3.- 'EL CORREO ESPAÑOL-EL PUEBLO VASCO'-REN EBOLUZIO TEKNOLOGIKOA

| | |
|---|------------|
| 3.1.- Aitzindariak; 'El Noticiero Bilbaíno' | 96 |
| 3.2.- Hasierak; 'El Pueblo Vasco'-ren agerpena | 98 |
| 3.2.1.- Laburpen kronologikoa: 'Bederatzi zuzendari mende batean' | 99 |
| 3.2.2.- Laburpen kronologikoa: 'Orrialdearen tamaina eta inprimitutako area totala' | 102 |
| 3.3.- Espainiako Gerra Zibila eta 'El Correo Español'-ekiko fusioa | 103 |
| 3.3.1.- Laburpen kronologikoa: 'Orrialde kopuru ertainaren eboluzioa' | 106 |
| 3.3.2.- Laburpen kronologikoa: 'Urte osoan publikatutako orrialdeen eboluzioa' 110 | |
| 3.4.- 1960. hamarkada eta errotatiba berria | 112 |
| 3.5.- 1980. hamarkada eta aro modernua | 115 |

4.- 'EL CORREO'-KO INFOGRAFIAREN EBOLUZIOA 1980. HAMARKADA ARTE

| | |
|---|------------|
| 4.1.- 'El Pueblo Vasco'-ren infografiaren eboluzioa | 121 |
| 4.1.1.- Lehenengo hamarkadak. 1910-1920 | 121 |
| a) Lehen infografiko osoa | |
| b) Estatistiken grafikorik eza eta lehenengo salbuespena | |
| c) Kiroletako emaitzen lehen infografikoa | |
| d) Grafikoen bi erabilera bitxi | |
| e) Lehen Mundu Gerra | |
| f) Gerrarteko infografikoak | |
| 4.2.- 'El Correo Español-El Pueblo Vasco'-ren infografiaren hastapenak | 134 |
| 4.2.1.- Lehenengo mapak | 134 |
| 4.2.2.- Lehen mapa estatistikoa | 136 |
| 4.2.3.- Ilustrazioak | 137 |
| 4.3.- 'Benedí'. Lehen infografiagile osoa 'El Correo'-n | 138 |
| 4.3.1.- 'Benedí'-ren lehenengo lanak | 138 |
| 4.3.2.- Laburpen kronologikoa: 'Publikatutako infografikoen eboluzioa' | 140 |
| 4.3.3.- Laburpen kronologikoa: 'Grafikoen kokapena 1939an zehar' | 140 |
| 4.3.4.- Mapen garaia | 141 |
| 4.3.5.- Kolorearen agerpena | 147 |
| 4.3.6.- Dibertsifikazioa | 149 |
| 4.3.7.- Grafikoen txikitzea | 151 |
| 4.3.8.- Laburpen kronologikoa: 'Azalorrietan publikatutako grafikoak' | 154 |
| 4.3.9.- 'Benedí'-ren lehen ilustrazioa | 154 |
| 4.3.10.- Grafikoen heldutasuna | 155 |
| 4.3.11.- Errepikatzea ekidin saiatzen etengabe | 159 |

| | |
|---|------------|
| 4.4.- Bigarren Mundu Gerraren osteko hamarkadak | 163 |
| 4.4.1.- 'Benedí'ren osteko hutsunea | 163 |
| Laburpen kronologikoa: 'Publikatutako infografikoen eboluzioa' | 163 |
| 4.4.2.- 1950-1970; ilustratzaileen garaia | 164 |
| a) Manuel Ammannen agerpena | 168 |
| Laburpen kronologikoa: 'Estatistikako grafikoen proportzioa 1960. hamarkadan' | 172 |
| b) Ammannen sustitutoaren bila | 178 |
| 4.4.3.- Emilio García Ergüinen etapa | 179 |
| a) Ammannen infografikorik ikusgarrienak | 182 |
| b) Kolorezko lehen mega mapa bi orrialdetako tamainan | 183 |
| c) Statistikako grafikoen sendotzea | 184 |
| d) Hilabeteroko analisia | 185 |
| 4.4.4.- Argazki-euskarrien etapa | 186 |
| a) Gertakarien argazki-euskarriak | 190 |
| b) Euskarri pre-infografikoak | 190 |
| 4.4.5.- Atentatuen grafikoak infografiagile finkorik gabe | 193 |
| Laburpen kronologikoa: 'Euskal terrorismoaren atentatuetan hildakoak' | 193 |

5.- 'EL CORREO'-KO INFOGRAFIAREN ARO MODERNUA

| | |
|--|------------|
| 5.1.- Aurrekariak. 1980. hamarkadaren hasiera eta Oiz mendiko istripua | 201 |
| 5.2.- Lehenengo infografiagilearen kontratazioa. Tomás Ondarra | 205 |
| 5.2.1.- Infografikoak eskuz burutzeko prozedura | 206 |
| 5.2.2.- 'Zoom'-ak eta geziak nagusi | 208 |
| 5.2.3.- Lehen 'Breaking News' | 210 |
| 5.2.4.- Lehen estatistikoak | 211 |
| 5.2.5.- Ilustratzaile bezala ere trebea | 213 |
| 5.3.- 'El Correo'-ko Infografia departamentuaren jaiotza | 214 |
| Laburpen kronologikoa: 'El Correo'-ko infografia ataleko kideak | 215 |
| 5.3.1.- Tomás Ondarra | 216 |
| 5.3.2.- Javier Martínez Zarracina | 217 |
| 5.3.3.- Cristina Mur Herrero | 218 |
| 5.3.4.- Fernando Gómez Baptista | 219 |
| 5.3.5.- Aitor Eguinoa Isasmendi | 220 |
| 5.3.6.- Carlos Zahumenszky Hierro | 221 |
| 5.3.7.- Daniel García González | 222 |
| 5.3.8.- José Miguel Benítez San Blas | 223 |
| 5.3.9.- José María Lema de Pablo | 224 |
| 5.3.10.- José María Estébanez | 225 |
| 5.3.11.- Gonzalo de las Heras Palmero | 226 |
| 5.3.12.- Isabel Toledo Viscasillas | 227 |
| 5.3.13.- -Alberto Lucas López | 228 |
| Laburpen kronologikoa: 'Infografisten jatorria' | 229 |
| Laburpen kronologikoa: 'Urtero sinatutako grafikoak' | 230 |
| 5.4.- 1989; Macintosh konputagailuen aroa | 231 |
| 5.4.1.- Hedapena Espainian: Iruñeko lehen tailerra | 234 |
| 5.5.- 'Freehand' aplikazioko 3. bertsioaren agerpena | 235 |
| 5.5.1.- Menu nagusiak | 236 |
| 5.5.2.- Erraminta paletak | 238 |
| 5.5.3.- Koloretako paleta | 240 |
| 5.5.4.- Geruzak leihoa | 241 |
| 5.5.5.- Estiloak leihoa | 241 |
| 5.5.6.- Testuen kudeaketa | 242 |
| 5.5.7.- Objektuen barrukaldeak eta lerrotak | 244 |
| 5.5.8.- Beste erramina erabilgarri batzu | 246 |
| 5.6.- 1991 eta Golkoko Gerra | 248 |
| -Laburpen kronologikoa: '1991eko lehen hiruhilabetetan zehar publikatutako grafikoak' | 249 |
| 5.6.1.- Eguneroko gerraren inguruko orrialdearen analisia | 251 |
| 5.6.2.- Golkoko Gerraren osteko bultzakada | 256 |

| | |
|--|------------|
| 5.7.- Informazio meteorologikoko infografikoen eboluzioaren analisia | 259 |
| 5.7.1.- Hamaika bertsio | 260 |
| a) 1989-1990 | |
| b) 1991 | |
| c) 1992 | |
| d) 1993 | |
| e) 1994 | |
| f) 1995 | |
| g) 1996 | |
| h) 1997 | |
| i) 1998-1999 | |
| j) 2000-2004 | |
| k) 2004tik aurrera | |
| 5.8.- Hauteskunde emaitzetako grafikoak | 265 |
| Laburpen kronologikoa: 'Demokrazian izan ditugun 38 bozkapenak' | 265 |
| 5.8.1.- Hasierak; bi egun itxaron behar eta oso grafiko gutxi | 266 |
| 5.8.2.- Tomás Ondarraren iraultza | 271 |
| 5.8.3.- Bigarren artistaren eragina; infografikoen multiplikazioa | 272 |
| 5.8.4.- Kolorearen agerpena | 273 |
| 5.8.5.- Heldutasuna | 275 |
| 5.8.6.- 'El Correo-200' eraldaketa | 276 |
| 5.8.7.- Maketazio elementuen laguntza | 276 |
| 5.8.8.- Ondorioak | 280 |
| 5.9.- El Correo 2000' birdiseinua eta Infografiako 'Estilo liburua' | 281 |
| 5.9.1.- 'El Correo 2000' birmoldaketa | 281 |
| 5.9.2.- Infografiako 'Estilo liburua' | 282 |
| a) Orotarikoak | |
| b) Grafikoen presentziari buruzko lau aipu | |
| c) Grafikoen sailkapena eta beraien ezaugarriak | |
| c.1.- Mapak | |
| c.1.a.- Kokatzaileak | |
| c.1.b.- Mapa ilustratuak | |
| c.1.c.- Hiriko mapak | |
| c.2.- Estatistikoak | |
| c.2.a.- Barrak | |
| c.2.b.- Tartak | |
| c.2.c.- Fiebrekoak | |
| c.2.d.- Taulak | |
| c.3.- Diagramak | |
| c.4.- Formato handikoak | |
| 5.10.- Vocento taldearen egunkarietako Infografia departamentuak | 290 |
| 5.10.1.- Sarrera; departamentu ezberdinak, emaitza ezberdinak | 290 |
| 5.10.2.- 'El Comercio de Gijón' | 290 |
| 5.10.3.- 'La Rioja' | 291 |
| 5.10.4.- 'El Diario Montañés' | 291 |
| 5.10.5.- 'El Norte de Castilla' | 292 |
| 5.10.6.- 'El Sur de Málaga' | 292 |
| 5.10.7.- 'Ideal de Granada' | 293 |
| 5.10.8.- 'La Voz de Cádiz' | 293 |
| 5.10.9.- 'El Diario Vasco' | 294 |
| 5.10.10.- 'Las Provincias' | 294 |
| -Eskema laburtzailea 'Vocento'-ren egunkari erregionalen infografia departamenduak | 295 |
| 5.10.11.- '-ABC' | 296 |
| -Eskema laburtzailea 'Vocento' taldearen infografia departamenduen funtzionamendua | 297 |
| 5.10.12.- Dokumentazioa eta barne bidalketa sistema | 298 |
| 5.11.- Nazioarteko 'Malofiej' sariak | 299 |
| 5.11.1.- 'SND-e'-ren sortzea eta 'Malofiej' sariak | 299 |
| -Laburpen kronologikoa: 'Sarien eboluzioa' | 299 |
| -Laburpen kronologikoa: 'SND-e'-k xedatutako Malofiej sarien distribuzioa | 300 |
| 5.11.2.- 'El Correo'-k lortutako dominak | 301 |
| a) 2004; lehenengo urrezko domina | |
| -Laburpen kronologikoa: 'El Correo'-ko sarien eboluzioa | 308 |
| b) Portfolio hura osatzen zuten 13 megagrafikoak | |
| c) 2005; 'Peter Sullivan' sari bereziaren urtea | |
| d) 2006; azken partizipazioa | |
| 5.12.- Megagrafikoen burutze prozesua. Hiru adibide | 319 |
| 5.12.1.- Nazioarte mailako gai baten inguruko erreportai propioa | 321 |
| a) Dokumentatze lana | |
| b) Lehenengo zirriborroak eta lanaren banaketa | |

| | |
|---|------------|
| c) Marrazketa prozesua | |
| d) Gainontzeko elementuen burutzea | |
| e) Azken urratsak | |
| 5.12.2.- Gaurkotasunezko gertakari bat edo 'Breaking News' | 328 |
| a) Dokumentatze lana | |
| b) Zirriborroak eta Diagramazio departamentuarekiko koordinazioa | |
| c) Marrazketa prozesua | |
| d) Emaiza finala | |
| 5.12.3.- Gai hurbil baten inguruko sakontasunezko erreportai bat | 338 |
| a) Dokumentatze lana | |
| b) Marrazketa prozesua | |
| c) Iturri zuzenen zuzenketak | |
| d) Emaiza finala | |
| 5.12.4.- Zeramikako ereduen erabilera | 347 |
| 5.13.- Atentatuen infografikoak | 351 |
| 5.13.1.- 1980ko hamarkada | 351 |
| 5.13.2.- Atentatuak grafikoekin eta grafiko barik | 355 |
| -Laburpen kronologikoa: 'Euskal terrorismoaren atentatuen infografikoak'. | 355 |
| 5.13.3.- Javier Zarracinaren eskua | 356 |
| -Laburpen kronologikoa: 'Atentatuen infografikoen tamaina ertaina' | 357 |
| 5.13.4.- Pertsonaiei hurbilketa | 358 |
| 5.13.5.- Azalorriko lehen atentatuko infografiko osoa | 361 |
| 5.13.6.- Axonometrikotik ikuspegi konikora | 362 |
| a) Ikuspegi axonometrikoa | |
| b) Ikuspegi konikoa | |
| 5.13.7.- Eskuzko marrazketaren fasea | 364 |

6.- ONDORIOAK

| | |
|--|------------|
| 6.1.- Bi ondorio metodologiko | 369 |
| 6.2.- Ondorio nagusiak | 370 |

7.- BIBLIOGRAFIA **377**

1.- SARRERA

1.- SARRERA

90. hamarkadan 'El Correo'-ko infografia departamendua jaio zenetik beronen grafikoen ekoizpenak erreferente garbia izan da nazio mailan zein gure mugetatik kanpo ere. Errekurtso mugatuak izan arren –jardunaldi osoko gehienez hiru kide– azken urte hauetan zehar jasotako nazioarteko sari kopurua oso handia izan da. Are gehiago, egunkari erregionalaren nahi mugatuak dituela gogoratzen badugu, kontrastea zabalagoa da ere. Guzti honek kasu paradigmaticoa bilakatu du egunkari bilbotarraren infografia mundu osoko egunkarien artean. Ikerketa honen helburua Espainiako infografiaren eboluzioa aztertzea kasu zehatz honen jarraipena egiten, Bilboko 'El Correo Español - El Pueblo Vasco' egunkariarena, bereziki 1991etik 2001erako epeari arreta berezia ematen. Ikerketaren abiapuntu nagusia errotatiboaren infografikoen produkzioa da, baita eta berauek ekoiztu duten profesionalak; erabilitako errekurtsoak, lan metodoak, errutinak eta baldintzak komunikabidearen barruan. Jarraian, epigrafe honetan lanaren egitura nagusia aurkezten da, gure ustez beronen elaborazioa interesgarria bihurtu duten arrazoiak eta justifikazioa, erdietsi nahi izan diren helburuak, hasierako hipotesiak baita lanean zehar erabilitako metodologia ere, hala nola bukatutako lanaren planteamendu orokorraren aurkezpen laburtua ere.

1.0.- Ikertutako gaiaren interesa

'El Correo' egunkariaren infografiaren inguruko ikerketa hau Zientzia-komunitatearentzat interesgarritzat jotzen dugu bi mota ezberdinetako arrazoiengatik.

-Lehenengoa; mota honetako ikerketen faltagatik. Espainiako infografiaren garapen historikoaren inguruan oso lan gutxi plazaratu dira. Doktrinak hartutako iritzi hedatuena infografikoak informazio azpigeneroa direla dirudi, zein ordenagailuarekiko dependentsia dela eta, berauek ez agertu arte aurreko mendearen amaieran ez zen jaio eta hedatu komunikabide inprimatuetan. Baina infografikoen erabilera etengabekoa izan da prentsan beronen agerpenetik bertatik. Kazetaritza idatziari zuzendutako informatikaren agerpenak bultzakada kuantitatiboa zein kualitatiboa suposatu zuela argia da, egun bilakatu direnarantz. Hala ere, grafikoak gure egunkarietako orrialdeetan agertzen ziren jadanik berauek agertu ziren momentutik eta analisi sakon oso gutxi egin dira honen inguruan, bai bere historiaren inguruan zein azken hamarkadetan zehar izandako garapenari buruz.

-Bigarrena; Bilboko egunkari honen infografia departamentuaren ibilbide berezia dela eta, zeinek erreferente garbia izan da nazioarte mailan arlo profesional honetan. Gehienez jardunaldi osoko hiru kidek osatuta izan arren, kalitatezko bere grafikoen ekoizpen oparua hainbat aldiz goraiatua izan da; bai lortutako sari internazionalen kopuru harrigarriagatik zein bere estilu definigarriak hainbat profesionariengan izandako eragin handia dela eta Espainian zein nazioarte mailan ere. Egunkari erregional honen infografikoek beste errotatibo handiagoek –hainbat errekurtso eta pertsona gehiagorekin lan egiten dutenek– egindako infografikoekin parekatu egin dira behin eta berriz. Eraberean, 'El Correo'-ko infografia departamenduak izan dituen buru ezberdinek egindako lana hain destakatua izan da mundu mailan ezen beste komunikabide oso inportanteek fijas diren ere eta bere egoitzetan hitzaldiak eta mintegiak emateko eskatu diete, hala nola lan eskaintzak luzatu ere. Guzti honen beste froga argia dugu lehen bere hiru atalburuek izandako arrakasta, 'El Correo'-ko atalburuak izan ondoren Buenos Aireseko 'La Nación', Madrilgo 'El País', Kaliforniako 'San José Mercury News' edota 'Boston Globe' eta 'National Geographic Magazine' izan baitira hiru profesionari hauen destinu profesionala Bilbon jardun ostean. 'El Correo'-ko infografia departamendutik pasatu ostean jautzia eman dute aipatu bost komunikabide horien grafikoen atalburuak izatera pasatzeko.

1.1.- Helburuak

Ikerketa honen bidez hurrengo helburu hauek erdiestea bilatzen da:

1- Bere ehun urtetako historian zehar 'El Correo'-ren aktibitate infografikoaren inguruko ikuspegi orokorra lortzea; iragan mendean bere hasieretatik egun arte, egungo infografia testuinguratu ahal izateko. Helburu orokor hau lortzeko asmoz beste helburu partzial batzu erdietsi beharko dira, honako hiru hauek, hain zuzen:

-Prentsako infografikoa zer den definitzea, egunkari baten orrialdeak osatzen duten gainontzeko elementuetatik ezberdindu eta zenbatu ahal izateko, honela, landa lana osatu eta era objektiboki egunkariaren orrialdeetan bere presentzia eta pisua denboran zehar neurtu eta kuantifikatzeko.

-Infografikoak osatzen dituzten zatien zerrenda sakona osatzea, beraiek diseziotatu ahal izateko eta bere unitate minimo hauek neurtu ahal izateko. Honela, fitxa metodologiko posible bat lortzea litzateke helburua, zeinekin infografikoak sailkatu, baita bere atributu nagusiak informazio diskretoko unitatetan adierazita konputagailu bitarteko datu base batean erabiliak eta kudeatuta izan ahal izateko.

-Aurreko mendean zehar infografikoak sortzeko erabiliak izan diren teknikak eta metodoak aztertzea, honela, aro historiko bakoitzean berauek infografikoen ekoizpenarengan nola eragin zuten neurtu ahal izateko.

2.- Aztertzea bai infografikoen departamendua bera zein beronek sortutako infografikoak 1991etik 2001era bitarteko hamarkadan zehar, 'El Correo' bezalako egunkari erregionala munduko infografiaren erreferentea bilakatu zuten arrazoiak aurkitzeko. Bigarren helburu hau lortu ahal izateko beste bi azpigelburu hauek erdietsi beharko dira:

-Bilboko egunkari honen infografiagileek gehien erabilitako lan errutinak, organizazioa, teknikak eta teknologia ikertzea, baita aztertzea zeintzuk izan ziren baldintzarik garrantzitsuenak bere lana nazioarte mailan goimailako puntan kontsideratua izan ahal zedin.

-Espainia osoan hedatuta dagoen 'Vocento' komunikazio talde handiaren egunkari erregional guztien artean 'El Correo'-ko infografia departamentu honek jokaturako errola aztertzea.

1.2.- Hipotesiak

Ikerketa honek hurrengo lau hipotesi hauek hartu ditu hasiera puntu bezala

- 1.- Prentsak publikatutako infografikoak publikoak erabat onartutako produktua dira gaur egun. Irakurlegoa ohitu egin da berauek kontsumitzeko gainontzeko elementu informatiboak bezala, eskaintza mediatikoan sartuta. Hala ere, doktrinak oraindik kontsideratzen ditu teknologiaren bitartez ekoiztutako produktu oso zehatza, irizpide informatibo eta Kazetaritza arauen bitartez sortutako elementuak baino.
- 2.- Doktrina zientifikoaren hurbilketak prentsako infografiari hainbat sailkapen ezberdin izan dituztenez emaitzatzat, baita infografikoen osagaien inguruko zerrenda oso ezberdinak ere. Hori dela eta, beharrezkoa izango da hasi baino lehen aurretiko lan metodologikoa burutzea eta ekarpen guzti horiek bateratzea eta tipologia osoa erakitzea, eskaintza teoriko guzti horietan ematen diren gainjartzeak ekiditzeko eta landa lana behar bezala burutu ahal izateko. Hori dela eta ikerketa kuantitatiboa aurrera eraman ahal izateko infografikoen ezaugarri kuantifikagarri guztien zerrenda osoa burutuko da, baita berauen osagaien sailkapen exhaustiboa ere.
- 3.- Espainiako prentsako infografiak pairatutako behin betiko bultzakada 90. hamarkadaren hasieran ematen da mundu mailan gertatutako bi zirkunstantzia garrantziren batuketagatik; alde batetik Golkoko lehen Gerraren gainean gertatutako zentsura informatiboa eta, bestetik, Macintosh konputagailuak eta edizio grafikoko lehen aplikazioen agerpena. Espainian gertatutako eztanda infografikoa eta zehazki 'El Correo'-koa ere epe horretan gertatzen da ere.
- 4.- Egunkari erregional baten infografia departamentu txiki bat nazioarte mailan tamaina handiagoko komunikabideentzako erreferentea bihurtzeko zeintzuk ziren arrazoiak aztertzea lagundu zezake etorkizunean mugarri arrakastatsu hau errepikatu zedin beste komunikabide batzuetan ere. Eraberean, egunkari batek bere infografikoak hobetzerakoan teoriar eman beharreko urratsak eta jarraitu behar den ibilbidea argitzeko.

1.3.- Erabilitako metodologia

1.3.1.- Sarrera. Bibliografia analisia

Prentsako infografiaren inguruan komunitate akademikoaren iritzia analizatu ahal izateko, iturri bibliografikoak bilatu ziren gero aztertu eta filtratu egiteko. Infografiaren inguruan gazteleraz argitaratutako bibliografia komunikabideen inguruko beste esparruetakoa baino askoz urriagoa da. Kontsultatutako lan gehienak anglosoiarrak ziren, non aktibitate honen inguruko doktrina askoz oparagoa baita. Honela, komunikazio grafikoa eta komunikabide inprimatuek erabilitako hizkuntz bisualaren inguruko teoria aztertu ziren, baita esistitzen diren infografiko ezberdinen tipologiak ere. Marko metodologikoa sortu ahal izateko kontzeptu ezberdin batzu definitu behar ziren; bai Prentsako 'infografia' berba bera, zein 'infografikoak' ere, komunikabide idatziek eskaintako gainontzeko produktu informatiboetatik ezberdinuak. Horretarako beharrezkoa izan zen materia honetan sakondu duten teoriko ezberdinen aportazioak bildu eta amankomunean ipintzea. Haien lanen bitartez posiblea izan zen ere Prentsako infografiak aurreko bi mendeetan zehar bizi izan dituen mugari nagusiak biltzea eta laburpentxo bat prestatzea. Bilduma hau, orden kronologikoan aurkeztuta, mendebaldeko prentsaren bitartez bizi dugun komunikazio grafikoan oinarritutako mamien transmititzearen joera ebolutiboak analizatzea permititu du. Guztihonek laguntzen du marrazten 1990. hamarkadan infografia zegoen testuingurua, behin betiko bere bultzakada jaso zuen momentu hura.

Ikerketaren hasieran markatutako helburuek ere Prentsako infografiaren munduaren inguruko bibliografia zabalaren aztertzea exijitu zuten, baina bigarren kasu honetan, ikuspuntu teorikoago batetatik, kontzeptuen definizioei begira baita ikerketaren hurrengo urratsak ematerakoan beharrezkoak ziren oinarritzko kategorien finkapena burutzeko. Doktrinak gaur egun oraindik ez du infografia kontsideratzen kazetaritza generorik. Eraberean, ikerketa aurrera eraman ahal izateko oinarritzko kontzeptu batzuk finkatzea zail xamar gertatu zen batzutan, egile ezberdinek argitaratutako teorien arteko akordio eza dela eta. Eta hau gertatzen da bai infografikoen inguruan zein egunkari baten orrialdea osatzen duten gainontzeko elementuekin ere. Eraberean, infografikoen sailkapen baten onarpen zabaldurik ez dago. Berez, esparru honetaz ikertu duten teoriko guztiek bere sailkapen propioa eskaintzen dute, horregatik, oso kointzidentzi gutxi aurkitu ditugu haien artean. Are gutxiago, onartuena zein den erabakitzeke ere ez gara ausartuko. Eraberean, infografikoak unitate minimoetan zatitzerakoan ere, doktrinak ere ez dauka iritzi edota irizpide normalizaturik. Guzti honengatik, kontzeptualizazioa eta kategorien sortzearen inguruko tesiaren epigrafe honek hainbat egile ezberdinen aportazioak fusionatzeko obligatu egin gaitu, tesiaren helburuentzat baliogarriena sortu arte.

1.3.2.- Teknika kualitatiboak

Ikerketa kualitatiboko bi motatako teknika erabili ziren 'El Correo'-ko infografia departamentuaren sortze eta garapena analizatzeko; elkarrizketa pertsonalak eta behatze partehartzailea. Helburua, kalitate hain kontrastatuko lantaldea nola osatu eta garatuz joan zen jakitea zen, eta horretarako beharrezkoa zen lan errutinak eta aspektu subjektiboak aztertzea.

a) Elkarrizketa pertsonalak

Egunkariaren kazetari beteranoen laguntzarekin posiblea izan zen ikertzen hasten zein zen bizirik zirauren infografiagilerik zaharrena, eta honela aurkitu genuen Emilio Garcí a Ergün marrazkilari bilbotarra, 60. hamarkadaren amaieratik aurrera 'El Correo'-ko infografikoak egin zituen, ia hamabost urtez, eta jadanik jubilatua zegoena. Aurkitu eta kontaktatu eta gero, bi elkarrizketa izan genituen berarekin 'erdi-estrukturatu' motatakoak. Honela, oinarrizko datu historiko eta teknikoekin batera –objektibo eta kontrastagarriak–, bestelako faktoreak ere analizatu ahal izan genituen –pertsonalagoak–, zeinek eragina izan zituzten infografiagile bezalako bere lan eta ibilbide profesionalean. Egunkariaren erredakzioetan erredaktoreak eta marrazkilarien artean eman ohi den inkomunikazioa kontutan hartzen badugu–berauren lana bakarka eramaten baitute aurrera, gainontzekoentzat aparteko mundua izango bailitzan–, konturatuko gara nola ez zegoen informazio iturririk egokiagoa garai hartako infografikoak nola egiten ziren aztertzeke. Hogeita hamar urte baino gehiago ziren Emiliok 'El Correo' utzi zuenetik, eta denbora guzti honetan behin bakar batean sartu zen berriro bilboko egunkarian; 1985ean Oiz mendian gertatutako hegazkin istripu larri huraren megagrafikoak marrazteko, hain zuzen. Berarekin kontaktatu eta sakontasunezko bi elkarrizketa hauek burutzea lagun handikoa izan zen hamarkada horiei dedikatutako epigrafea osatzeko.

80. hamarkadatik aurrera sortua izan zenetik, 'El Correo'-ko infografia departamentutik pasatu diren gainontzeko 13 infografiagileei ere elkarrizketa erdi-estrukturatu egin zaie tesi hau burutu ahal izateko. Hauetako gehienek beste komunikabideetako infografia departamentutan jarraitu dira lan egiten, batzutan ospe oso handikoak, bai nazio mailan zein gure mugetatik kanpo. Beraiekin erabilitako galdetegiak bi zati ezberdinak izan ditu; lehenengoa 'itxi' edo 'murriztua' motatakoa, aldaerarik zenbagarrienei dedikatua:

- Denbora motatakoak, bakoitzak betetako garaia inguruan, atalean sartu ahal izateko gaintu beharreko prozesua, mantendutako lan kontratu mota eta amaiera data.
- Atalaren barruan izandako funtzioak eta posizio hierarkikoa.
- Erabilitako teknologia eta etapa horretan zehar lan teknikak izandako garapena.

Bigarren zatia, ordea, 'irekia' edo 'ez murriztuta' motatakoa izan zen, bakoitzaren lanean eragina izan zituzten natura subjektiboagoa duten gainontzeko aspektuei dedikatuta, baita bere pertzepzio personalaren arabera zer izan zen eragina izan zuena gainontzeko kideen lanaren gainean, bigarren honetan mota libreko erantzunak onartzen.

Honela, 'El Correo'-ko aro modernuko lehen infografia departamentukidea, eta egun 'El País' egunkariko infografia burua dena, Tomás Ondarrak, Madrilgo egungo bere lanpostutik atenditu egin gintuen eta bere disponibilitate osoa eskaini zigun ikerketa burutzeko. Gainera, Argentinan izandako eskarmentua dela eta, baita nazioarte mailan punta puntako infografiagile bezalako bildutako bere esperientzia dela eta, bere ekarpenak garrantzi handikoak izan ziren honako tesi hau aurrera ateratzeko. Datu historikoak edota erreferentzialetatik harantzago ere, ikerketarentzat balio handiko hausnarketa pertsonalak izan ziren ere.

'El Correo'-ko infografia departamentuak izan zuen bigarren buruarekin, Javier Zarracinarekin, izandako bilerak hainbat izan ziren. Atalaren garapenean kazetari bilbotar honek jokatutako errol erabakigarria izan zen. Karguan denbora gehien aritu den pertso-

na da eta, gainean, garai erabakigarrienean zehar egin zuen. Horregatik, bere aportazioak –bai datuak, iritziak zein dokumentuak ere– asko aberastu dute tesiaren zenbait kapitulu. Javier Zarracinak burutu zuen infografia departamentuko birmoldaketarik inportanteenak, eta guzti horrekin batera, bere kideek erabilitako estilo-liburu bakarra osatu zuen ere. 2004ean Bilboko egunkaririk Estatu Batuetara joan egin zen Kaliforniako 'San José Mercury News' egunkariko infografia departamentuko burua bihurtzeko eta, 2005etik aurrera Boston Globe errotatiboan lan egitera pasatu zen.

a.1.- Estatu Batuetako 2004eko egonaldia

Javier Zarracinarekiko azken elkarrizketak bi egunkari amerikar hauen egoitzetan egin ziren. Honek ere lagundu zuen prentsako infografiaren inguruko ikuspegi zabalagoa lortzen. Estatu Batuetako egunkari hauei bisitak egin ostean, zenbait kontaktu berri ere lortu ziren, eta berauei esker, beste infografia departamendu ezberdin barrutik ezagutzea ere; adibidez 'San Francisco Chronicle', 'Orange County Register' eta 'New York Times'-ena, non arduradun nagusiekin elkarrizketatzea ere posiblea izan zen; Nanette Bisher, Larry Nista eta Steve Duenes, hurrenez hurren, baita zuzenean lehen mailako hogeina profesional ezberdinen lana ikustea ere. Eraberean 'University Studies Abroad Consortium'-i esker (USAC) Euskal Herriko Unibertsitatearekin kolaborazio akordioak mantentzen dituzten hiru unibertsitate amerikaretako diseinu eta infografiako irakasleekin elkarrizketatzea posiblea izan zen; Renon (Nevada), Fresnon eta Chicon (Kalifornia) hurrenez hurren. Pertsona hauek izan ziren; Luis F. Costa –Fresnoko Unibertsitateko Arte eta Humanitateetako Fakultateko dekanoa–, William T. Lerch –Chicoko California State Unibertsitateko irakaslea–, Jeam M. Trumbo, Claudia E. Ortega-Lukas eta Jean Dixon –Nevadako Unibertsitateko Kazetaritzako Fakultateko irakaslea–, Robert Speer –Chicoko 'News and Review' egunkariaren editorea–, Greg Traverso –'The Orion' unibertsitate aldizkariaren arte arduraduna, zeinek 2003ko 'Nazioko Egunkaria' saria jaso zuena–.

a.2.- Estatu Batuetako 2010ko egonaldia

Kronologikoki 'El Correo'-ko infografia departamenduko hirugarren arduraduna izan zena, eta bere lana hainbat aldiz sariak jaso dituena, Fernando G. Baptistarekin ere dozena aldiz elkarrizketatzea izan da beharrezkoa ikerketa hau burutzeko. Gainera, eta nola 2007-tik aurrera onartutako ospe handiko profesionari honek Washingtongo 'National Geographic Magazine'-ko egoitzan egiten duen lan, aldizari honi egindako bisita ere burutu zen. Hizkuntz eta edizio gehienetan publikatzen den komunikabide honetara egindako bisitak permititu zuen analizatutako objektuarekiko distantziamentu bat lortzea eta ikeritutako gaiarekiko ikuspegi objektiboagoa lortzen. Bere ezaguerak, esperientziak eta iruzkinak konpartitzeaz gain, Fernando G. Baptistaren beste ekarpen inportantea izan zen berak egindako megagrafiko berezien burutze prozesuaren fase guztiak azalaraztea. Nazioarteko sariak jasotako grafiko handi horiek ejekutatatu ahal izateko erabilitako teknikak eta emandako urratsak ez zituzten ezagutzen bere lankideak 'National Geographic'-en, eta horregatik ikerketa honek interes handia piztu zuen haiengan ere. 'DC'-n izandako beste elkarrizketa bat 'Washington Post'-eko Infografia arduarekin gertatu zen. Alberto Cuadrak egunkari handi honen erredakzioa erakutsi eta bere hausnarketak konpartitzeaz gain 'data visualization'-eko profesionariekin harremanetan jarri egin gintuen. Kazetaritza joera hau oraindik ez da existitzen Espainiako prentsa idatzian eta horregatik bere ekarpenak balio handikoak izan ziren infografiaren gerokoa zein izango den somatu ahal izateko.

a.3.- Gainontzeko elkarrizketa pertsonalak

'El Correo'-ko Infografia departamentutik pasatu diren gainontzeko kide guztiekin ere elkarrizketa pertsonalak mantendu ziren 'erdi estrukturatuak' motatakoak. Guztira, hamairu pertsona izan dira hiru hilabete baino gehiagoko lan kontratua izan dutenak bertan azken 25 urteetan zehar. Aipatutako hiru atalburu horiekin batera, kronologikoki ordenatuta beste hauek izan ziren; Cristina Mur, Aitor Eguinoa, Carlos Zahumenszky, Daniel García, José Miguel Bení tez, José María Lema, Joé María Estébanez, Gonzalo de las Heras,

Isabel Toledo eta Alberto Lucas. Haiekin batera ere, posiblea izan zen kontaktatu eta elkarrizketatzea 10 bekadunekin 'El Correo'-ko infografia departamentutan guztira aritu diren 13etatik. Guztiauek ez dute lan egonkor edota binkulazio altukoa 'Diario El Correo, S.A.' enpresarekin baina grafikoaren atalean aritu dira hiru ezpa bost hilabete inguru ikasle moduan jarduten. Denbora horretan zehar bere infografikoak sinatu ere egin baizituzten. Gehienak Euskal Herriko Unibertsitateko edota Nafarroako Unibertsitateko ikasle zein ikasle ohiak ziren lan egin zuten epe horretan zehar. Egunkarira heldu ziren orden kronologikoan honako hauek ziren; Susana McLoughlin, Iñaki Letamendia, María Llorens, Fátima Artesero, Leire Fernández, Sandra Serrano, Jorge Dragonetti, María Almela, Saioa Etxeazarra, Xan Sabarís, Marta Garrido, Leticia Pecero eta Irantzu Carral.

Aipatu profesionari eta bekadun hauekin batera, beste elkarrizketa batzu ere mantendu ziren grafikoaren atalarekin erlazionatuta dauden beste pertsonekin ere. Bere karguagatik edota dedikazio motagatik jakimen bereziak izan baitezaketen. Honela, errotatibo honetan 'Arte Zuzendari' kargua lehenengo aldiz bete zuen pertsona, Jesús Aycart, Madrilgo bere oraingo destinuan -'ABC' egunkariko Arte zuzendari bezala- hartu egin gintuen eta bere iruzkinak eta hausnarketak konpartitu zuen gurekin. Aycartek bizi zuen garaia 90. hamarkadaren bigarren erdia izanik -Tomás Ondarraren alde egitearen ostean-, Infografia departamentuko garapena lehenengo pertsonan ikusi eta eragin ahal izan zuen. Eraberean elkarrizketatu behar izan dugun beste pertsona batzuk 'El Correo'-ko Dokumentazio ataleko kideak izan dira, Mauricio Martín Cordero bere atalburutik, baita José Luis Abendaño, enpresako informatikako departamentukoa, bigarren kasu honetan aurrerakada teknikoak analizatu ahal izateko 80. hamarkadatik gaur arte.

b) Behatze partehartzailea

2001etatik 2005erako epean ikerketa honen egilea bera pertsonalki erabat sartu egin zen 'El Correo'-ko infografia departamentuko lan errutinean, gutxienez bi aldiz hila-betero. Denbora horretan zehar grafikoaren egileen taldeko parte izan zen eta posiblea izan zitzaion eguneroko beraren kontzepzio eta ejekuzioan partizipatu, ataleko beste kide arrunt bezala kolaboratzen. Ikerleak ikertutakoekin haien testuinguru naturala konpartitu zuen, haien esperientzia eta lan bizitza barnetik hobe ezagutzeko, eta gizatalde txiki horretan konpartitzen den informazioa zein den bere errealitatetik bertatik lehenengo pertsonan ezagutzeko. Lantaldean barrena inmersio total batetatik hainbat datu eta informazio lortu ahal izan ziren. Guztihau ikertutako azken hamarkada inguruko epeari dedikatutako epigrafeetan garatzen da, batez ere infografikoak sortzerakoan erabilitako metodoei dedikatutakoa.

1.3.3.- Ikerketa teknika kuantitatiboak

'El Correo Español - El Pueblo Vasco' egunkariaren hasieratiko infografiaren analisi historikoa ikerketa hemerografikoaren bitartez burutu zen. Horretarako mota kuantitatibo-deskriptiboko landa-lana aurrera eraman zen hasierako hamarkadetan inprimatutako aleak behatzearen bitartez. Publikatutako infografikoak zenbatu egin ziren eta kontutan hartu ziren aldaera kuantitatiboak honako hauek izan ziren batez ere; bere tamaina, koka-pena, infografiko mota, egilea, erabilitako teknika, kolorearen erabilera eta osagaiak.

Guztiau aurrera eraman ahal izateko berebiziko garrantzia izan zuen egunkariak baimena emateak bere bi iturri hemerografiko nagusietara; alde batetik, errotatiboaren biblioteca, non Dokumentazio departamentuak 1910etik aurrera argitaratutako ale guztien artxibo fisikoa ordenatuta mantentzen du. Hasieratik, 'El Pueblo Vasco' bezala izendapenarekin, gaur arte. Bestaldetik, bilatzaile digitala ere, zeinekin konputagailu bitartez egunkariaren barruan erabiltzeko datu base erraldoian bilatzeko aukera izan genuen. Bertan daude sailkatuta ehun urte hauetan zehar argitaratutako ale guztien orrialdeak, testu guztia digitalizatuta eta labelen bitartez filtratzeko posibilitadearekin ere. Pasa den mendeko ale guztien orrialdeak banan banan aztertzeko aukera eman zigun paperezko artxiboak. Pentsatu behar dugu garai hartako diseinua eta orrialdearen disposizioak lan hau zailtzen zuela, kokapen modularraren esistentzia eza zela eta. Itxura bisual zahar honetan infografikoak mimetizatu egiten dute orrialdeen gainontzeko elementuen artean esa honek zaildu egiten du bilatze lana, baita akatsak egiteko posibilitadeak multiplikatu ere. Irregularitasun hori dela eta, mendearen hasierako hamarkadetakoa aleak fisikoki aztertu ziren, bere tamaina errealean, eta ez ordenagailu baten pantailan tamaina txikiago batean. 'El Correo'-ko bere artxibo fisiko honetara sartzeko baimena emateaz gain bere egoitzako gainontzeko errekurtsio dokumentalei ere sarrera permititu zigun. Mugimendu libertate honi esker, barne bilatzaile digitala erabiltzeko aukera izan genuen –zein normalean bakarrik erredakzio bere kideek erabili dezaketena– bai enpresako langileen ordutegian zein ordutegi honetatik kanpo ere. Horri esker erabilera intentsiboa egin zen azken bi urte eta erdian zehar. Beronen bitartez, posiblea da bilaketak burutzea bai kronologikoki zein hitz edota label zehatzen bitartez. 2000 urtetik atzerakoak bakarrik eskaneatutako orrialdea dago ikusgai, baina urte horretatik aurrera eta urte hartan burutu zen eraldaketa tekniko handia dela eta, posiblea da orrialde bakoitzeko 'pdf' formatuko artxiboa maneiatzea ere. Bigarren interfaze honen bitartez burututako kontsultak erredakziokideen lanorduetatik kanpo burutu ziren nagusiki, gau eta goizalde ordutegietan, hain zuzen. Eraberean, Dokumentazioko departamenduko kideen laguntza baliogarriari esker ere bere kolaboraziorik gabe ezin zitezkeen hainbat informazio ere bildu ahal ziren, gero ikerketan zehar erabilgarriak izan zirenak.

Infografikoen analisi kuantitatiboa burutzeko goian aipatutako aldaera diskreto nagusiak hartu ziren kontutan, baina epe zehatz konkretu batzutan, non infografiko batzuen joerak oso deigarriak ziren, neurketa individualizatuak burutu ziren ezaugarri hori edota horiek bakarki eta individualki neurtzen.

Infografikoen kuantifikazioa grafiko kopurua, tamaina eta pisu erlatiboa orrialdietan, baita beraien osagaien analisi estatistikoan oinarritu egin da. Hiru fase ezberdinak izan ditu. Lehenengoan egunkariaren historian zehar errepikagarriak ziren aspektuak hartu dira kontutan. Bigarrenean 1910etik 1985era bitartean –infografia departamentua agertzen denean– publikatutako infografikoak analizatzeko analisi berezituak egin dira nagusiki, hau da, bakarrik interesgarri edota deigarriak suertatzen ziren joera haiek analizatzeko. 'El Correo'-ko historian zehar bizitutako une berezi horiek aparte analizatu dira behar bezala tendentzia horien eragina isladatu ahal izateko. Hirugarrenean, ordea, 1985etik aurrera egunera arteko infografikoei dagokio. Azken epe honetan publikatutako infografikoak datu base exhaustibo baten bitartez aztertu dira.

Jarraian hiru atal hauetan hartutako urratsak deskribatzen dira banan banan:

a) Aspektu orokorrak

Beharrezkoa zen egunkariaren historiari emandatea errebasua bere ikuspegi teknikoak. Produktu fisikoaren neurketaren bitartez –orrialde kopuru eta tamaina– bere historian zehar publikatutako orrialde kopuru totala aztertu zen, baita area eta mantxaren tamainaren eboluzioa. Mendean zeharkako analisi honetan ale inprimatuaren orrialdearen bost tamaina ezberdinak hartu ziren kontutan, sei hilabete baino gehiago iraun dutenak kontuan hartuz, eta albo batera uzten gainontzekoak –bereziki 1965eko maiatzak 7tik abuztuak 14era iraun zuena– behin behinekoak kontsideratu behar izan baitugu, edota akzidentalak errotatiboaren historian. Neurketa egiterakoan egunkariaren 'mantxa' hartu zen kontutan, hau da, orrialdearen zonalde inprimagarria bakarrik, eta albo batera uzten gehigarri bereziak edota enkarteak eta ale bereziak.

Bestaldetik, urteroko orrialde kopuru totalari buruz egindako kalkulua orekatua gerta zedin, Bizkaiko edizioan publikatutakoak hartu ziren bakarrik, gehigarri bereziak edota enkarteak albo batera uzten. Eraberean, historian zehar izandako edizioak asteko aldatuz joan dira ere asteburuetan lan egiten zen ala ez kontutan hartuz. Urteko batz besteko ertaina kalkulatzeko hilabeteroko muestren bitartez egin da, eta lagin hauek mairagoak ziren 1960tik aurrera, non paginazioa irregularragoa izaten hasten baiten.

Urtero inprimatutako area totalaren kalkulua egiteko –aurrean aipatutako bi ikerketak gurutzatuta, hain zuzen– paperezko metro karratua hartu zen neurritzat. Emaitzak indikatzen duenez, denboran zehar izandako espazio hazkundera ikusten da. Urtez urte zenbat beteko luketen horrialde horiek ikusten da emaitzetan. Bestaldetik, area horiek ere konparatu dira errotatiba bakoitza lanean egon zen epeekin. Ezberdindu dira ere igandeko lan etenaldiko aroak eta gainontzekoak, egunkaria sei ala zazpi egunez publikatzen zen ere bere eragina izan baitu kalkuluetan. Kasu honetan neurri unitatea guztira inprimatutako orrialde kopurua urteko izan da.

b) 1985 baino lehen

Egunkariaren bizitzaren lehenengo hiru laurdenetan zehar –gaur ezagutzen dugun grafikoen departamendua agertu baino lehen– errotatiboaren itxura nagusia irregularra izaten da. Izandako gorabehera tekniko zein politikoen, baita estandar grafiko baten eza edota 'diseinu' bate esistentziarik ezak obligatu zigun gure ikerketa kuantitatiboa zehazteko epealdi konkretuetara. Joera bereziak somatzen ziren une konkretu haietan egin zen sakontasunezko landa-lana 1910etik 1985rako epean. Guztira, hurrengo hamaika analisi kuantitatibo hauek egin dira.

1.- Egunkariaren bizitzako lehen urteetan zehar publikatutako argazki kopurua. Hemen hartu dira kontutan informazio artikuluekin batera argitaratu diren argazkiak. Hauen artean, ezberdindu dira aurpegi edo erretratu antza zeukatenak besteengatik, bere garrantzi erlatibo altuagatik. Kuantifikazioa hilabetez hilabete egin da lehen kasu honetan eta neurri unitate bezala hilabetero publikatutako argazki kopurua izan da.

2.- Lehenengo bi hamarkadetan zehar argitaratutako argazki kopurua. Bigarren kasu honetan urtez urteko laginak hartzea izan zen beharrezkoa, 1913tik 1919ra gertatutako bat-bateko desagerpena isladatzeko. Gainera, lehen hamarkada horietako joera grafiko delat eta ilustrazioak eta infografiak diskriminatzea eskatzen zigun –epigrafe teorikoan emandako definizioari jarraituz–, honela analisi kuantitatiboaren interesa maximotzeko tesi honi begira. Erabilitako neurri unitatea, berriro, hilabeteroko argitaratutako argazki kopurua izan zen.

3- Lehenengo bi hamarkadetan zehar publikatutako infografiko kopurua. Infografikoen ekoizpenean lehenengo Mundu Gudak suposatu zuen jauzi kualitatiboa zela eta hazkunde horren analisi objektiboa exijitu zuen. 1910etik 1929ra arte argitaratutako

infografiko horien analisia egiteko bi mota ezberdinetan sailkatu ziren gatazkaren ingurukoak alde batetik eta gainontzeko guztiak bestetik adierazten. Lehenengoan artean gerraren inguruko mapak ez ezik, borrokan ziharduten herrialdeen inguruan zein gatazkaren ondorio ekonomiko eta politikoen inguruak ere kontutan hartuz. Erabilitako neurri unitatea egunero argitaratuko infografiko kopurua izan zen, eta honen barruan sartu dira ere tesiaren epigrafe teorikoan aipatutako guztiak.

4.- 1930tik 1949ra arte argitaratutako infografiko kopuru ertaina

Bigarren Mundu Gerra iritsita –eta ondorioz erabilitako grafikoaren hazkundera zela eta– berriro zenbakietara itzuli behar izan zen ageri agerian publikatutako infografikoaren hazkunde zabala zena. Ikertutako epe honen erdian astelehenetako edizioa agertzen denez eta horrek emaitzak eraldatu zitzaizkenez, kasu honetan erabilitako neurri unitatea publikatutako eguneroko infografikoak izan zen. Eraberean, ezberdindu egin zen lehen infografiagile osoaren lan egindako epea, 'Benedí', zeinek 1939tik 1944ra eragin oso altua izango zuen agertutako grafiko kopuru altu horretan. Gainera, ondorengo epean zehar bere eragina ere nabaritu da. Kasu honetan, eta nola ikerketaren interesa grafikoak produzitzeko errotatiboaren gaitasunean fijasen denez, estatistika honetatik kanpo utzi dira beste komunikabideek burututako infografikoak, edota atzerriko egunkarietatik itzulpen hutsak, non argazki baten bitartez kopia eta birpublikatu egin ziren 'El Correo'-n.

5.- 1939an zehar argitaratutako 122 infografikoaren kokapena.

Urte honen berezitasunagatik, 1939an zehar agertu ziren infografiko guztien analisi zehatzagoa egin zen. Lehenengo Mundu Gerraren hasierarekin eta aipatutako infografiagile berriaren agerpenarekin batera 'El Correo Español - El Pueblo Vasco'-n. Horregatik hazkunde handi horrekin batera, infografikoaren kokapena azalorrian ala gainontzeko orrialdeetan kokatuta zeuden hartu zen kontutan ere.

6.- Bigarren Mundu Gerraren hasieraren eraginez infografikoaren tamainaren eboluzioa eta gainontzeko irudiekiko proportzioa.

Hilabetez hilabete argitaratutako infografikoaren tamaina zentimetro karratutan neurtzen eta pixkanaka argazkien desagerpena 'El Correo'-n kontutan hartuz ere, analizatutako infografiko kopurua igoz joan zen berriro. Gainontzeko irudiekiko proportzioa ikertu zen ere. Konputatzerakoan, kontutan hartu ziren artikuluko informatiboekin batera agertutako irudi guztiak -ilustrazioak barne-, baita egunkariak berak ez ekoiztutako infografikoak ere kasu honetan.

7.- 1940tik 1980ra argitaratutako infografiko hilabeteroko kopuru ertaina

Bigarren Mundu Gerraren hasitako analisiaren jarraipen bezala, hurrengo lau hamarkadei ere antzeko azterketa egin zitzaion. Urtez, urte, hilabetero zenbat infografiko publikatu ziren. Nola garai honetan hasten da ilustratzaile eta infografiagile finkoen presentzia argia, kasu honetan denbora esparrua zatitu egin zen egileen sinaduraren arabera. Honela, hiru mota ezberdinetako urteak ezarri ziren; lehenengoak, egunkariak infografiagile propioa izan zuenak. Bigarrena, urte haiek non agertutako sinaduraren arabera bakarrik ilustratzaile finkoak somatu ditzakegun. Eta hirugarren motatakoan ez infografiagile ezta ilustratzaile ez zegoenak. Gurutzutako emaitzen arabera garai bakoitzean publikatutako infografiko kopuruaren eboluzio kuantitatiboa nabari daiteke.

8.- Bi epe ezberdinetan izandako mapen proportzioa gainontzeko infografikoekin konparatuz.

Hautatutako epeak honako bi hauek izan ziren; alde batetik Bigarren Mundu Gerra –'Benedí' infografiagile finko batek kubritutako lehenengo izateagatik–, eta, bestetik, 50. hamarkada –bigarren infografiagile finkoaren presentzia aurkitzen baitugu bertan, Manuel Ammann, baina ez Gerrarik–. Honela, erreferente informatibo garrantzitsu hauek zein eragina duten publikatutako infografikoaren kopuruan konparatu ahal izateko.

9.- Gai zehatz baten inguruan publikatutako infografikoak bi urtetan zehar

Epealdi zehatz batetan zehar interes informatibo osoa hartzen duen gai bezala 1960 eta 1961ean zehar gertatutako Afrikako deskolonizazioa hautatu zen. Hogeita lau hilabete horietan zehar agertutako infografiko guztiak kuantifikatu ziren –berdin bere tamaina- bai Afrika kontinente osoa zein bertako edozein herrialderi dedikatuta.

10.- 1960. hamarkadan zehar publikatutako estatistikako infografikoen proportzioa Bi motatako infografikoak ezberdinduz hurrengo neurketari ekin zitzaion; alde batetik errealitate fisiko edota geofisiko –ikugarriak– azaltzen dituzten infografikoak (mapak edota azalpen bisualak), eta bestetik estatistika infografikoak –kontzeptualagoak– zera ikertzeko; publikoaren onartzea halako produktu abstraktuagoi. Epigrafe teorikoan hartutako definizioa hartuz, bi azpitalde handi hauetan banatu ziren infografikoak. Estatistika honetatik kanpo utzi ziren Burtsako informazioko eguneroko infografikoak, informazio mota honetako elementu grafikoak jadanik oinarrituta baizegoen epe honetatik baino hamarkada batzu aurrerago. Analsiak bakarrik ikertu zituen era ez aurrikusgarritan gertatutako berrien inguruko infografikoak, erreportaiak edota berriekin batera publikatuta, eta konparatu egin ziren 1960tik 1970ra bitarteko epeko gainontzekoekin.

11.- Hilabetero publikatutako infografiko kopuru ertaina 1960. hamarkadan zehar. Aurrean aipatutako analisia betetzeko burututako landa-lanak berriro balio zigun ezartzeko beste datu interesgarri bat; ba al dago hilabeterik non infografiko gehiago publikatzen diren? Hilabete naturalak kontutan hartuan epealdi guzti horren zehar ikusi zenez, ez dago ezberdintasun aurrikusgarririk datei begira, esta patroï bat ezartzeko susmorik ere.

c) 1985etik aurrera. Fitxa metodologikoaren deskripzioa.

'El Correo'-ko organigramaren barruan infografia departamentua agertu eta gero, ordenagailuen agerpena eta egunkariaren diseinu modularra finkapenarekin batera, infografiaren garai modernua hasten da eta, horregatik momentu horretatik aurrera publikatutako infografikoen analisia estandarizazio handiagoa ere permititzen du. 1985etik aurrera publikatutako infografikoen landa-laneko analisia burutu ahal izateko datu base zabala sortu zen, non publikatutako infografiko bakoitzagatik sarrera bat egin zen -'FileMaker Pro' aplikazioaren bitartez sortuta-. Fitxa honek honako hamabost eremu hauek aurrikusten zituen, zeinetatik lehenengo lauak grafikoaren testuingurua deskribatzeko zuzenduta zeuden, eta gainontzeko hamaikak beronen mamia disezcionatzeko:

| | | | |
|---|---|---|--|
| Fecha | 12/02/1992 | Sección | Vivir-Cultura |
| TAMAÑO NOTICIA | | | |
| <input type="text" value="5"/> | cols. x | <input type="text" value="10"/> | mód.=(cm2) 875 |
| | | | <input type="checkbox"/> Breaking |
| TÍTULO | | | |
| JUICIO A MIKE TYSON | | | |
| <input type="checkbox"/> Untitled | <input type="checkbox"/> Entradilla | <input type="checkbox"/> Color | Recurrente: |
| TAMAÑO DEL GRÁFICO: | | | |
| <input type="text" value="5"/> | cols. x | <input type="text" value="3"/> | mód.=(cm2) 65 |
| ELEMENTOS GRÁFICOS | | TECN. PREDOMIN. | |
| <input type="radio"/> <input type="checkbox"/> Estadística | <input type="radio"/> <input type="checkbox"/> Manual | PALABRAS CLAVE/COMENTARIOS | |
| <input type="radio"/> <input type="checkbox"/> Tabla | <input type="radio"/> <input type="checkbox"/> Vectorial | | |
| <input type="radio"/> <input type="checkbox"/> Icono descrip. | <input type="radio"/> <input type="checkbox"/> Renderizado | | |
| <input checked="" type="radio"/> <input checked="" type="checkbox"/> Icono evocat. | <input type="radio"/> <input type="checkbox"/> Fotografía | | |
| <input type="radio"/> <input type="checkbox"/> Logos/escudos | <input checked="" type="radio"/> <input type="checkbox"/> Tipografía | | |
| <input type="radio"/> <input type="checkbox"/> Organigrama | Fimas: | | |
| <input type="radio"/> <input checked="" type="checkbox"/> Mapa | <input type="checkbox"/> Tomás | <input type="checkbox"/> Carlos | <input type="checkbox"/> Jose Mari |
| <input type="radio"/> <input type="checkbox"/> Explicación | <input checked="" type="checkbox"/> Javi | <input type="checkbox"/> Dani | <input checked="" type="checkbox"/> GRAFÍA |
| <input type="radio"/> <input type="checkbox"/> Escena | <input type="checkbox"/> Aitor | <input type="checkbox"/> Josemi | <input type="checkbox"/> EL CORREO |
| <input type="radio"/> <input type="checkbox"/> Foto | <input type="checkbox"/> Fernando | <input type="checkbox"/> Isabel | <input type="checkbox"/> AP |
| <input type="radio"/> <input type="checkbox"/> Megagráfico | <input type="checkbox"/> Cristina | <input type="checkbox"/> Gonzalo | <input checked="" type="checkbox"/> REUTERS |
| | | <input type="checkbox"/> KRT | <input type="checkbox"/> SIN FIRMA |

Lehenengo zatia. Testuinguratzea: Infografikoa laguntzen duen artikulua (Kanpoak: 1etik 4era)

1- Argitaratze **data**. Eguna / hilabetea / urtea

2- Egunkariaren **Atala**. Ikertutako epealdia luzea zenez egunkariaren departamendu batzuk izenez aldatu ziren baita beste batzurekin fusionatu, horregatik, datu basearen eremu hau honako kategoria finko hauetan estandarizatu zen:

-Lehenengo orria edo 'azalorria'

-Tokiko informazioa, Bilbo eta Bizkaiko berriak hartzen dituen eta, 2000. urteko birdiseinuaren ostean 'Ciudadanos' izena hartu zuena.

-Politika, zein politikaren inguruko berriak hartzeaz gain -2000. urtetik aurrera 'Actualidad' izenpean- nazio mailako besteak ere hartu zituen 'Ciudadanos/General' izenpean, hain zuzen.

-'Economía'. Atal honen izendapen eta mamiak ez dira aldatu ikertutako epean zehar.

-'Mundo'. 2000. urtetik baino lehen 'Internacional' deitutakoa, atal honetan sartzen dira nazioarte mailako politika, ekonomia eta gertakarien berriak, non Espainiako Estatuak zuzenean ez dagoen inplikaturik.

-'Kirolak'. Atal honen izendapen eta mamiak ez dira aldatu ikertutako epean zehar.

-'Vivir'. Kultura eta gizarte asuntuak hartzen ditu, zein 2000. urtea baino lehen 'Cultura y Sociedad' atalpean sartzen ziren. Atal honetan ere kontsideratzen dira telebistaren munduaren inguruko infografikoak, nahiz eta egunkariaren orrialdean bere errotulu propioekin ezberdinak izan, departamentu honek betetzen baititu.

-'Azken orrialdea'. Egunkariaren kontra-azalorrian argitaratutako infografikoak. Nahiz eta 'Vivir' departamentuaren pean dagoen atala izan, orrialde honetan publikatutako infografikoak aparteko atala kontsideratu ziren, bere ezaugarri bereziak zirela eta, adibidez, hauen artean, beti kolorea onartzea.

3.- Artikuluak betetako **tamaina** orientatiboa. 'El Correo'-ko orrialdeen diseinu modularri eutsiz hamar zabalera posible ezarri ziren horizontalean, artikuluak betetako zutabeen arabera (gutxienez 1etik, gehienez 10 zutabetaraino, orrialde bikoitzeko gai batentzat). Bertikalki, ordea, orrialde bakoitza zatitzen den 10 moduluak, zeinek bai birzaitu zitekeen dezimaletan (gutxienezko 0,5 modulutatik, gehienezko 10 modulutaraino). Bi eremu hauen konbinazioa automatikoki kalkulatu zuen artikuluak okupatutako area zentimetro karratutan. Era honetan, bi helburu lortzen ziren, alde batetik notizien pisu erlatiboa neurtzea orrialdea eta alean barruan, eta, bestetik, infografikoaren presentzia artikuluarrekiko.

4.- '**Breaking News**'. Azkenik, 'berritasunezko gertakaria' eremua prestatu zen interes informatibo altuko eta aurrikustezinezko gertakarietako berriak ezberdintzeko. Bere garrantzi altuagatik mota honetako gertakariak gainontzeko berrien pisua desorekatzen dute eta hasieran prestatutako lan erritmoak eraldatzen dute egunkariaren erredakzioan.



Bigarren zatia. Infografikoaren disezioa

(Eremuak 5etik 15era)

Gainontzeko hamaika aldaerak infografikoaren ezaugarri hauek deskribatzen zituzten:

5.- '**Titulua**'. Bertan adierazten zen literalki infografikoaren buruan agertzen zen titularra. Halako funtziorik ez zeukan testu kutxarik ez bazegoen, infografikoa 'titulurik gabekoa' kategorian sartzen zen, hurrengo laukitxoan adierazgarria.

6.- '**Sarrera**'. Eremu honen bitartez adierazten zen infografikoak azpтитulu moduko testu adierazgarri-rik ala sarrera moduko esaldirik zeukan ala ez. Bigarren hau ez zen literalki osoki transkribatu, baizik eta bakarrik bazegoen ala ez adierazi 'bai/ez' motatako eremu baten bitartez.

7.- '**Kolorea**'. Eremu honen bitartez -hau ere 'booleano' motatakoa'- adierazten zen infografikoak kolore errekurtsoa erabiltzen zuen ala zuri beltzeko matizekin bakarrik. Nahikoa zen edozein elementuk errekurtso hau erabiltzea 'kolorezko' motatakoa izendatzeko.

8.- '**Errepikaria**'. Eremu honen bitartez adierazten zen infografikoa egunean bertan egin da zen ala, aldiz, maiz edo karitasun aurrikusgarri batekin prestatzen direnetarikoak. Ezaugarri hau gehitu zitzaion datu baseari mota honetako infografikoak burutzerakoan aurretik egindako beste batean oinarritzen baita beti infografiagilea. Honela, atal honetan honako hamaika aukera prestatu ziren:

- 'Mendiak'. Asteroko infografikoa, non asteburuari begira ibilaldi bat grafikoki esplikatzaren diren.

- 'Langabezia'. Hilabeteroko infografikoa, Lan Ministeritzako datuekin burututa Espainiako enplegu zerbitzuetan erregistratutako langabetuei buruz. Nahiz eta hilabetean zehar beste estatistika batzuk ere publikatu daitezkeen langabeziari buruz, edota aldaera zehatz bat sakondu, bakarrik kontsideratu da 'errepikaria' hilabetero Ministeritzako datuekin publikatutakoa, normalean erreferentziako hilaren ostekoaren hasieran argitaratuta.

- 'Kontsumorako Prezioen Indizea / IPC'. Hilabeteroko infografikoa, Estatistitako Instituto Nazionalaren datuekin burututa kontsumorako prezioen eboluzioarekin. Nahiz eta hilabetean zehar beste estatistika batzuk ere publikatu daitezkeen langabeziari buruz, edota aldaera zehatz bat sakondu, bakarrik kontsideratu da 'errepikaria' hilabetero Institutoaren datuekin publikatutakoa, normalean erreferentziako hilaren ostekoaren erdian argitaratuta.

- 'Populazio Aktiboko Inkesta / EPA'. Hiruhilabeteroko infografikoa, Estatistitako Instituto Nazionalaren datuekin burututa lanean diharduten biztanleei buruz. Nahiz eta hiruhilabetean zehar beste estatistika batzuk ere publikatu daitezkeen langabeziari buruz, edota aldaera zehatz bat sakondu, bakarrik kontsideratu da 'errepikaria' hiruhilabetero Institutoaren datuekin publikatutakoa, normalean erreferentziako hiruhilabetearen ostekoaren hasieran argitaratuta.

- 'Populazioa Aktibitateari Begirako inkesta / PRA'. Hiruhilabeteroko infografikoa, Euskal Estatistika Erakundearen datuekin burututa lanean diharduten biztanleei buruz. Nahiz eta hiruhilabetean zehar beste estatistika batzuk ere publikatu daitezkeen langabeziari buruz, edota aldaera zehatz bat sakondu, bakarrik kontsideratu da 'errepikaria' hiruhilabetero erakunde honen datuekin publikatutakoa, normalean erreferentziako hiruhilabetearen ostekoaren hasieran argitaratuta.

- 'Barne Produktu Gordina' (BPG / PIB). Hiruhilabeteroko infografikoa, Espainiako Bankuaren datuekin burututa makroekonomiaren inguruan. Nahiz eta hiruhilabetean

The screenshot shows a software interface for configuring an infographic. At the top, it displays the date '12/02/1992' and the section 'Vivir-Cultura'. Below this, there are fields for 'TAMAÑO NOTICIA' (5 columns, 10 rows) and 'TAMAÑO DEL GRÁFICO' (5 columns, 3 rows). The main area is divided into two columns: 'ELEMENTOS GRÁFICOS' and 'TECN. PREDOMIN.' (Technical Predominance). Under 'ELEMENTOS GRÁFICOS', there are checkboxes for 'Estadística', 'Tabla', 'Icono descrip.', 'Icono esocat.', 'Logos/escudos', 'Organigrama', 'Mapa', 'Explicación', 'Escena', 'Foto', and 'Megagráfico'. Under 'TECN. PREDOMIN.', there are checkboxes for 'Manual', 'Vectorial', 'Renderizado', 'Fotografía', and 'Tipografía'. To the right, there is a section for 'PALABRAS CLAVE/COMENTARIOS' and a list of 'Firmas' (Signatures) including 'Toniás', 'Javi', 'Alor', 'Fernando', 'Cristina', 'Carlos', 'Dasi', 'Jesús', 'Isabel', 'Gonzalo', 'Juan Mari', 'EL CORREO', 'AP', 'REUTERS', 'SIN FIRMA', and 'NRT'. The title of the infographic is 'JUICIO A MIKE TYSON'.

zehar beste estatistika batzuk ere publikatu daitezkeen langabeziari buruz, edota aldaera zehatz bat sakondu, bakarrik kontsideratu da 'errepikaria' hiruhilabetero ban-kuaren datuekin publikatutakoa, normalean erreferentziako hiruhilabetearen ostekoaren erdian argitaratuta.

- 'Kotxen salmenta'. Hilabeteroko infografikoa, Espainiako ibilgailuen kontzesionarioen datuekin burututa saldutako kotxeen kopuruaren eboluzioarekin. Nahiz eta hilabeteen zehar beste estatistika batzuk ere publikatu daitezkeen langabeziari buruz, edota aldaera zehatz bat sakondu, bakarrik kontsideratu da 'errepikaria' hilabetero kontzesionarioen datuekin publikatutakoa, normalean erreferentziako hilaren ostekoaren hasieran argitaratuta.

-'Burtsako kotizazioak'. Asteartetik larunbatera egunero publikatutako infografikoa aurreko eguneko Espainiako lau Burtsen indizeen datuekin. 2000. urteko birdiseinua- ren ostean grafiko hau ez zen berriro 'El Correo'-ko infografia departamenduan buru- tu, baizik eta egunkaririk kanpoko beste enpresa bati azpikontratatu zitzaion bere eje- kuzioa.

-'Txirrindularitzako etapak'. Txirrindularitza itzuli nagusiak (Frantziako Tourra, Italiako Giroa eta Espainiako Vuelta) baita egun batzuetan zehar irauten zuten beste batzuen kasuetan altimetriako informazioa mota honetako grafikoren bitartez adierazten zen. Bere formatuagatik -derrigorrez erraz aurrikusgarria-, eta lagundu dituen informa- zioak ere errepikagarriak direnez, infografiko txiki hauek beti tamaina eta itxura aldaezina mantentzen dute.

-Partiduetako aurrekariak / alineazioak. Infografiako departamenduak bere hasieretan ekoiztutako beste infografiko tipikoa futbol partiduen aurrean taldeetako alineazioena zen. 2000 urteko birdiseinutik aurrera, infografiko hau 'QuarkXPress' aplikazio infor- matikoaren bitartez editagarria zen fitxa batez burutzen hasi zen, hau da, erredakto- reek beraiek bete eta aldatzeko gaitasuna izanik, infografiako departamenduari bete- kizun honetaz liberatu zitzaion.

-Partidu-ondoko grafikoak. 90. hamarkadan zehar tokiko futbol taldeko partiduen kro- nikekin batera infografiko bat ere argitaratu ohi zen. Infografiko errepikagarri honek aldaketa gehienak sufritu zuena izan zen, bai bere mamietan zein forma eta itxuran ere.

9.- 'Infografikoaren **Tamaina**'. Goian artikuluekin aipatutako neurketa sistema berbera erabili zen berriro hemen, hau da, zabalera zutabetan neurtuz eta altuera moduluetan. Kasu batzutan, non orrialdeak zatiketa berezia edota irregularra zeraman -adibidez baka- rrik lau zutabetakoa-, area totalaren emaitza orekatzeko altuera modifikatu zen, behar bezalako area zentimetro karratutan adierazi ahal izateko.

10.- '**Elementu grafikoak**'. Hautaketa anitzeko menu honetan ere adierazi ziren infogra- fikoa osatu zezaketen osagaiak. Hauxe izan zen, zalantzarik gabe, definizio metodologiko- ko lanik neketsuenetarikoa. Gai honen inguruan teorikoek emandako sailkapen guztiak errepasatu ostean eta hauetako batzuk ere erabili eta gero, praktikan ikusi zen nola haue- tako bat ere ezin zuen erabat osagai guztiak hartu, eta gure osagaien zerrenda propioa osatzeari ekin genion landa-lana aurrera zihoan ehinean. Jarraian aurkezten diren hamar kategoria posible hauetan geratu zen. Guzti hauek infografikoa izan daitezke berez ala grafiko handiago baten parte izan:

-'Estatistika'. Honela definitzen dugu elementu grafikoa zeinen funtzioa datu kualitati- boen konparazio grafikoa den. Berau lortzeko, aldaera baten islada grafiko anitz adie- razten dira batera, bai beste aldaera batzuekin, zein bere eboluzioa denboran zehar, edota proportzioak osotasunarekin batera. Adibiderik pazifikoenak barrak, esferak edota fiebreak ditugu, baina beste batzu ere, horren agerikoak ez direnak; txango baten altimetria bezala, edota txirrindularitza etapa baten, zeren eta haien bitartez er aldaera baten eboluzioa isladatzen ari da denboran zehar. Eraberean, hemiziklo bate- tako eskainuak, adibidez. Apartatu honen barrukoa ere kontsideratzen genuen 'mapa estatistikoa', zeinekin isladatzen dena ez da leku fisiko edo zonalde zehatz baten kokapena besteei begira, baizik eta datu numeriko batzuen distribuzio espaziala.

-‘Taulak’. Honen barruan sartzen diran elementu testual edota numerikoen multzoak alineatuta edo ‘tabulatuta’ ilara zein zutabeen bitartez bere irakurketa ordenatua errazteko. Irudien aportaziorik txikiena dakartzaten elementua dira, zeren eta, kasurik sinpleenean testu bloke guzti horien ordenazio hutsarekin ere, edota marra sinple batzuen gehitzearekin, nahikoa litzateke osatu ahal izateko.

-‘Ikono deskriptiboak’; Errealitate ukigarri baten itxura fisikoa sinplifikatzen duten elementuak, errekonozigarri bihurtzeko ala ezaugarriren bat adierazteko. Objektu horrekiko funtzio deskriptiboa betetzen dute, beraz, eta irakurlearen begiak lortu zezakeen ikuspegietakoren bat erreproduzitzen du. Adibidez zezen baten marrazkia animalien inguruko infografiko batean, edota Gobernuaren presidentearen karikatura iritzi politiko estatistika batekin batera.

-‘Ikono ebokatiboak’; Beste marrazki hauek, ordea, errealitate ez ikugarriak isladatzen saiatzen dira irakurlearen burmuinean ebokatzeko infografikoa irakurtzen duen bitartean. Funtzio estetikoa eta irakurketa erraztekoa betetzen dute, beraz, bakarrik ideien asoziazioetan oinarritzen baitira kontzeptu edota entitate baten gogora ekartzeko. Adibidez, gizon gibel baten irudia langabeziaren inguruko infografiko batean.

-‘Logotipoak eta ezkutuak’; irakurlearen begietara mota guztietako entitate edota instituzioak gogoratzeko kapazitatea duten sinboloak, ezagunak baizitzaizkio. Honela gertatzen da, adibidez, herrialdeen ikurrinekin, asoziazioak, klubak eta gainontzeko ezkutuak, kasu. Aurrean aipatutako ikono ebokatiboek ez bezala, bere esanahia objektibatu egin daiteke eta bakarra da, eta libertade gutxiago ematen diote infografiagileari bere forma, aspektua, koloreak eta plasmazio estetikoa erabakitzerakoan.

-‘Organigrama’; Osotasun abstraktu bat osatzen duten elementuen artean erlazio hierarkiko eta kontzeptualak adierazten ditu. Gobernu, organizazio edota enpresa baten agintarien koadroaren disposizioa, futbol talde baten joko eskema edota tenis txapelketa baten disposizioa dira adibide oso argiak. Beste batzuk, horren ez ageriak, egutegi edota kronogramak ditugu, non gertakari edota data konkretu batzu ordenatzen diren dimentsio eztaba daezina den denbora linearen arabera. Berau zatitu eta sailkatu egin da kategoria handiagotan, bere errepikapen zikloen arabera –orduak, asteak, hilabeteak, urtea, etab.–.

-‘Mapak’. Kartografikoak ez bezala –zeinen funtzio nagusia zonalde zehatz baten ezaugarri geofisikoak isladatzea den, irizpide objektibo eta aseptikoak aplikatuz–, mapa infografikoak errealitate fisiko eta geografikoen isladapen sinplifikatuak ditugu, ez ezagunak, eta bere helburua kokapenetaz informatzea da, irakurlearentzat ezagunak diren beste erreferentzi puntuetatik hasiz.

-‘Eskenak’. Gertakari inportanteen isladatzen dituzte irakurleak hartu lezakeen ikuspegi hipotetiko batetatik gertatutakoa zuzenean ikusteko gai izango bailitzan. Adibidez, istripu baten faseak edota atentatu baten errekreazioa. Ikuspegia lortzeko ikuspuntua gehiegi urrunduko balitz, aurrean aipatutako kategorian sartuko ginatke –mapa–. Bata ala bestearen kasuan gauden erabakitzeke erabili zen irizpidea honako hau izan zen; deskribatutako gertakariaren protagonisten ekintzak edota mugimenduak eta asmoak ezberdintzen baziren, ‘eskena’ baten aurrean geunden, bestela, mapa.

-‘Azalpenak’; prozesu baten faseak edota objektu baten zatiak sinplifikatu egiten dituzte helburu ia doze batetatik berauek erakutsi ahal izateko edota bere funtzio-namenduan ausnartzeko. Beste elementu oinarritzko edota errotundoagotan oinarritu daitezke –ikono deskriptiboak bezala, organigramak, estatistikak ala argazkiak– zeini narrazio esplizituaren dimentsioa gehitzen diete, ikono edota testu bitarteko azalpenak gehituz –geziak, ezeztapenak eta destakatuak–, ordenazio sekuentzialak –biñetak eta eboluzioak, nagusiki– eta errealitatean posibleak ez diren ikuspegiekin –korteak, transparentziak– helburu esplizitu horrekin; errealitatean posiblea den baino gehiago ikusi ahal izatea. Eskenekin ezberdintzen dira edota ikono deskriptiboetatik adierazpen esplizitu horien baita elementu narratiboen gehitze beharrean, zeren eta erakutsitakoaren irudi hutsak ez baitu behar bezala adierazten nahi dena.

-‘Argazkiak’; infografiagileak erabilitako azken errekurtsio honekin uko egiten dio objektu edota errealitatearen trazuak eta kanpoko itxura sinplifikatzeari, eta, ordea, giza begiak ikusiko lukeen bezala erreproduzitzen du kamara baten bitartez erretratatuta.

11.- '**Oinarrizko elementu grafikoa**'. Nola infografiko gehienak aipatutako osagai bat baino gehiagoz osatuta daudenez, hurrengo eremu honetan isladatu zen zein zen nagusia infografikoaren itxura orokorrari begira. Presentzia dominante hori zein zeukan adierazi zen jarraian. Horregatik datu baseko eremu hau 'radio' botoi edota aukera baztertzailerik motatakoa zen. Horretarako elementuen tamaina baita presentzia bisuala nagusia zein zen aztertu zen; adibidez, nahiz eta datu taula batek tamaina handiago izan alboko marrazkia baino, kasi horretan bigarren honek hartzen zuen presentzia bisual handiagoa 'oinarrizko elementu grafikoa' bezala.

12.- '**Megagrafikoa**'. Kategoria honetan sartu ziren infografikoak area handi bat okupatzen zutenak –gutxienez orrialde erdi batekoa– eta ondorioz elementu printzipala izan orrialde bikoitza hartan, eta, gainera, aipatu hiru oinarrizko elementu horien zerrendatik gutxienez hiru ezberdin erabili izana. Horregatik, nahiz eta oso handiak izan, baztertu egin ziren zerrenda erraldoiak edo mega-etaulak –90. hamarkadan zehar hainbat aldiz erabiliak izanda futbol taldeko plantilak adierazteko, hauteskunde zerrendak, egutegiak, etabar. Beraz 'megagrafiko'-en kategoria erreserbatu zen tamainuz argi oso handiak izateaz gain istorio edota erreportai osoa kontatzen zutenak.

13.- '**Teknika nagusia**'. Aukera bakarreko menu honen bitartez adierazten zen izan zen erabilitako marrazketa teknika nagusia goian aipatutako elementu nagusia sortu ahal izateko. Honela, ondorengo bost kategoria baztertzailerik sortu ziren:

- 'Bektoriala'. Figurak, karikaturak, ikonoak, kutzak, marrak, eta ordenagailu bitartez osatuta marrazketa bektorialeko aplikazioen bitartez 'MacDraw', 'Aldus Freehand' eta 'Adobe Illustrator' bezala. Estilu hau oso erraz errekonozigarria zen. Ezberdintzen da bere marra eta angulu garbi eta ondo definituengatik. Hauxe izan zen erabiliena ez bakarrik 'El Correo'-ko infografikoetan, baizik eta Espainiako egunkarien erredakzio guztietan ere.

- 'Renderizatu'. Beste kasu batzutan elementu nagusi hori 'Autocad', '3DStudio', 'Bryce' eta antzeko aplikazio informatikoetan izan da burututa aspektu tridimentsional eta errealistagoa emanez. Irudi hauek errekonozigarriak dira errealtate ukigarrien aspektu eta itxura errepikatzen saiatzen direlako. Oso gutxitan izan zen erabilia teknika hau 'El Correo'-ko infografia departamentuan. Gehienak, Javier Zarracinaren griñ eta esperimenezko helburuari baino ez zioten erantzuten. Kuantitatiboki infografiko hauek anekdota baino ez ziren izan.

- 'Eskuzkoa'. Marrazkiaren burutze prozeduran zehar edozein momentutan inprimutako paperaren gainean eskuzko edonolako tratamendua jaso babu –arkatzez, akuareletako kolorapena, iluntasunak, etab.–. Mota honetako edozein ikutu oso estilu ezberdinarria gehitzen dio marrazkiari. Dramatismo oso altua ere lortuz. Hauxe izan ziren 'Correo estilua' ezberdindu zuten 'Breaking News'-eko marrazkiek, hain zuten. Nagusiki eskenak burutzeko izan zen erabilia, baita infografiko haietan non, bere garrantzi altuagatik posiblea zen gainontzekoei baino denbora gehiago dedikatzea.

- 'Argazkia'. Non infografikoaren elementu nagusia argazki bat edota gehiago zenean, berdin tratatuak izan ziren, perfilatuak, errekoratuta, etab.

- 'Tipografia'. Non bisualki elementu indartsuena datu taulen presentzia zen, zerrendak, edota estadiloak, nagusiki testu kutxek osatuta.

14.- '**Sinadura**'. Atal hau adierazi zen aukera anitzeko menu baten bitartez kredituetan agertzen ziren pertsonen izenak. Egilearen izenari dedikatua, ez zen diskriminatu izendapenaren luzapena –inizialak, abizen osoak– edo kokapena. Kasu haietan non sinaduran 'El Correo' bakarrik agertzen zen honela adierazi zen esplizituki. Eraberean, egilea ezagutzen ez ziren kasuetan edota grafikoa ez sinatzea nahiago zuen kasuetan indikazio generiko honen bitartez adierazi zen. Nola profesional bakoitzak erabaki dezakeen libreki infografiko bakoitzaren sinadura nola indikatu eta parte hartu duen grafikoa haietan zer adierazi, izena agertzen ez ziren guzti haiek 'sinadurarik gabekoak' izenpetu ziren datu basean. Grafikoen kredituen beste ezaugarri bat egile anitzetako izanda, abizenen ordena dugu. Kasu horietan 'El Correo'-k beti honako irizpide honi jarraitu zion; infografiagileek enpresan izandako zaharkitasunari begira, beti beteranoenak eta departamentuko burua lehen

postuan agertzen dira, jarraian gainontzekoak orden berean, eta, azken postuan, bekadunak. Nola orden honek batzutan ez du erakusten nork egin duen lan gehiena infografikoan, askotan maila altuagoko egileak uko egiten zion agertzeari, honela, gehien lan egin zuen infografiagileari bere lekua utziz. Kortesia-arau ez idatzi hau beti errespetatzen zen. Guzti honengatik, datu basean ez zen adierazi sinaduren ordena, datu hau une bakoitzean jakin baizitekeen sinatzaile bakoitzaren antiguedadea aztertuta, eta ondorioz, ez zen fruitugarria denbora dedikatzea honi.

15.- **'Hitz gakoak / iruzkinak'**. Datu baseko azken eremua erabili zen barne erabilerako oharpenak gordetzeko, argibide propioak gehitzeko eta infografikoak hitz gakoekin label moduan etiketatzeko, honela bilatzean errazago aurkitzeko. Horregatik, azken apartadu honek funtzio erabat ezberdina betetzen zuen, gainontzeko beste guztiekin konparatuz, non bai datu kuantitatiboak gordetzen ziren.

1.4.- Lanaren plana

Ikerketa bost atal nagusitan sailkatu da. Lehenengoan kontzeptu eta metodologi-kategoriak mugatu dira gero landa-lanean erabiliak izan ahal izateko. Eraberean, prentsako infografiari hurbilketa historikoa egin zaio kazetaritzaren sorreratik, baita Espainiako prentsan ere. Lanaren gainontzeko lau atalak, 'El Correo'-ren ingurukoak dira.

Hasteko, errotatibo honen garapen teknologikoa aztertu da, bere jaiotzatik egun arte. Infografikoen buruketa zein inprimaketa hain lotuta dagoenez garai bakoitzeko gaitasun teknikoekin, beharrezkoa zen aztertzea zeintzuk ziren gaitasu horiek eta errekurso teknologikoak garai bakoitzean. Bilboko egunkariak izan dituen baliabide teknologikoak aztertu dira historikoki, baita aleen itxura ikugarria eta diseinu bakoitza.

Jarraian, 'El Correo'-ko infografiaren inguruko ikerketa bi atal handitan banatu da. Hauetako lehenengoan 1985era arte publikatutako infografikoetara mugatu da landa-lana, hau da, Tomás Ondarraren iritsi arte. Egunkariaren bizitzako lehen hiru laren hauetan zehar, non diseinuari aplikatutako informatikak ez duen eragiten errotatiboaren edizioan eta infografiko guztiak artisau-erara eginda dauden, hauen itxura eta forma oso ezegonkorra izaten da, baita burutzeko irizpideak, itxura, etabar. Guzti honek obligatu zuen landa lana fisikoki izanda izatera, publikatutako paperaren gainean, hemeroteka erabiltzen, bestela hamarkada horietan zehar argitaratutako infografikoen bilaketa eta analisisian akatsetan erortzeko posibilitateak multiplikatzen ziren.

Egunkariaren hasierako lehenengo bi hamarkadetan zehar infografiagilerik eza zela eta, infografiko gehienak gerrei buruzko mapak ziren nagusiki; Lehen Mundu Gerra lehen eta Espainiako Guerra Zibila jarraian. Garapen horren analisiari dedikatu zaio aipatutako epigrafea, non agerian geratzen den ere nola estatistikaren inguruko infografikoei oso gutxi ohituta zegoen publiko batek mota honetako grafiko jasotzen zituen ere. 40. hamarkada ez pasatu arte ia ez dira agertzen halakorik 'El Correo'-ko orrialdeetan. Bigarren Mundu Gerrarekin batera agertzen da lehenengo aldiz Bilboko egunkari honetan infografiagile finko bat: 'Benedí'. Epigrafea bukatzeko, egile honen osteko etapa aztertzen da, non beste bi infografiagilek bere lekua hartu zuten –Manuel Ammann lehe eta geroago Emilio Garcí a Egün–. Hauen ostean, eta Tomás Ondarraren iritsi aurreko urteetan, 80. hamarkadako hasieran, 'El Correo'-k kalitate handiko binetista zein hainbat ilustratzaile eta marrazkilari izango ditu, baina ez infografiagilerik. Horrek eraginda, infografikoen beharra beste bide batzutat osatu ziren, haien artean 'argazki-euskarriak', tarteko urte horietan zehar hainbat aldiz erabilia.

1985ean garai erabat berria hasten da 'El Correo'-ko infografiaren bizitzan Tomás Ondarraren kontratazioarekin. Momentu honetatik aurrera, lanaren fokapena argitaratutako infografikoetara ez ezik, infografia atala osatu dituzten infografiagileengana zuzenduko da ere. Azken hogeitabost urte hauetan egindako landa-lanari ikerketa kualitatiboko esfortzua gehituko zaio grafikoaren departamentuko kideen inguruan. Hemendik aurrera, lana ondorengo epigrafe hauetan zatitu da:

Hasteko, atalaren jaiotzaren inguruko sarrera txiki bat eta parte izan diren hamairu kideen bizitza profesionalaren laburpen bana. Jarraian, bere garapenaren inguruko datu historiko batzu, bereziki arreta ipintzen grafikoaren ekoizpenean eragin duten hitoetan, Nafarroako Unibertsitateko mintegien agerpena bezala, Golkoko lehen gerra eta Macintosh ordenagailuen agerpena, hala nola 'Wysiwyg' lan esparruak.

Ikerketak aurrera jarraitzen du infografiko mota zehatz batzuek izan duten garapen konkretua analizatuz –hauteskunde emaitzakoak eta eguraldiaren ingurukoak– eta jarraian bere historia osoan 'El Correo'-ko infografia departamenduak sortu duen grafikoaren estilu-liburu bakarra, 2000. urtean sortuta, aztertzen da. Departamendu honek jokatzen duen errol bereziak Vocento Taldearen barruan behartzen zuen aparteko analisia. Horregatik hurrengo kapituluak aztertzen du zein zen talde honetako egunkari erreional bakoitzeko egoera infografia aldetik, baita ABC egunkarian 2000 urteen hasieran. Urte horietan zehar 'El Correo'-ko jasotako sari kopuru altua zela eta, hurrengo epigrafea berauei dedikatzen zaie, bildumarekin batera kuantifikazio osoa egiten da ere. 'SND-e'-ko kongresuetan jasotako sari horien gehien-goia 'megagrafiko' motatakoak ziren, zeinen ekoizpen prozesu teknikoa zehazki deskribatzen den tesiaren hurrengo epigrafean. Bertan aztertzen da zein den ekoizpen prozesua urratsez urrats hiru adibidetan, baita beste bi adibide zehatz non erabilitako teknika keramikako eskulturak izan ziren. Atentatu terroristen inguruko infografikoen analisiari dedikatu zaio azken epigrafea, non 1985etik aurrera 'El Correo'-k publikatutako guztiak aztertzen diren.

2.- ATAL TEORIKOA

2.1.- Aspektu orokorrak

2.1.1.- Infografiaren definizioa

Esanahi anitzekoa dugu 'infografia' hitza. Espainiako Hizkuntzaren Akademia Errealaren arabera "1-Ordenagailu bitartez irudiak sortzeko teknika" dugu, baita "2-Aipatu teknika horren bitartez lortutako irudia". Akronimo hau ingelesezko 'infographics'-etik datorkigu, zeinek 'information graphics' daukan arbaso. Bere erabilera 80. hamarkadaren bukaeran hedatzen hasi zen, egunkarien erredakzioak ordenagailuz betetzen hasi ziren garaian.

Cairoren ustetan¹ [2008; 21] bere jatorri horretan datza hitzak sortu duen nahasmena espainiar hizkuntzako arlorretan, non erabili ohi den "sortze grafikoari zuzendutako aplikazio informatikoen erabilera" deitzeko.

Bi zentzu ezberdinekin erabili ohi dute teorikoek infografia hitza; lehenengoa ordenagailuz bitartez errealizatutako animatika modernuari dagokio, nondik ulertzen den bere 'info' aurrizkia 'informatika'-dagokio, eta 'grafia', ordez, animazioari. Bigarrena, ordea 'informazioa' gehi 'grafikoa' litzateke [BORRAS, 2000; 2]. José Manuel de Pablos katedradunak ere bi esanahi horiek egozten dizkio hitzari, hala ere, konputagailu bitartez egindako irudi zein animazioei 'infografia' deitzeko "imaginazio ejerzizio gogorra" egin behar dela intsinuatu ere egiten du² [1998; 2]. Berak beste esanahiarekin bat dator azaltzen duenean 'info' aurrizkia 'Informazio' hitzatik datorkiola, eta 'grafia', 'grafika'tik. Beraz, osatutako neologismoa nahiko "sentsatua" iruditzen zaio. Betiere insistitzen nola 'info' sustrai horrek ez datorkiola 'informatika'tik baizik eta 'informazio'-tik. Eta binomio horri 'bI+T' deitzen du; hau da, binomio Irudi + Testua.

José Luis Valero Sancho doktoreak³ adierazten duenez, hitza ez dator 'informatika' gehi 'grafia' uztartzetik, baizik eta 'informazioa' gehi 'grafia'-tik. Bi hitz anglosaxoietatik eratorriko kolokialismoa litzateke; 'informational graphics', hau da, grafika informatiboa. Zentzu berberan, Josep María Serrak esaten du "...zihuraski informatizazioarekin denboran izan zuen kointzidentziak probokatu du 'grafismo informatikoa' bezala ulertua izatea, eta ez egokiagoa dirudikidan 'grafismo informatiboa' bezala..." [1998; 5].

Carmen Rierak agertzen duen bezala, 'infografia' definitzerakoan berba honek "...amaigabeko aldaerak..." sortzen dira.

Raymond Colle irakasleak⁴ definitzen du infografiaren helburua: "...Hizkuntza bisualaz – hau da, adierazpen ikonikoetaz– baliatuz, eta hizkuntza berbalaz lagunduta –zehaztaperen ez ikusgarriak gehitzeko– informazio on bat lortzea..."

Nahiz eta batzutan publicitatearen munduan ere 'infografia' kontzeptua erabilia izana, Valero Sanchoren ustez pertsuasioko produktu horiek ez dute erlazio zuzenik informazioan oinarritzen direnekin eta bi mundu horiek ezberdintzeko 'publigrafia' kontzeptua erabiltzea proposatzen du [2000b; 3].

¹ CAIRO, Alberto. 'Infografía 2.0. Visualización interactiva de información en prensa', Alamut, Madrid, 2008. 21 orr.

² De Pablos irakasleak 1993an koordinatu zuen liburu kolektibo bat infografiaren inguruan, Fundeskok publikatua izan zedin eta Mario R. García doktorearen prologoarekin. Nahiz eta komite editorialak oniritzia eman, bildumak ez zuen inoiz argia ikusi eta bere kapituluak Latina aldizkariak argitaratu zituen 1998tik aurrean.

³ Valero Sancho, José Luis. La infografía. Técnicas, análisis y usos periodísticos. Bartzelonako Unibertsitate Autonomoa. Aldea Global, Bellaterra, 2001.

⁴ Colle, Raymond. 'Estilos o tipos de infógrafos'. Revista Latina de Comunicación Social, 12. 1998ko abendua

2.1.2.- Infografiaren jatorria

Aitzineko komunikazio idatziari lotzen dio José Manuel de Pablos katedradunak infografiaren jatorria. Lehenengo gizakiak marrazteko tresnak eta euskarriak batu eta komunikatzeko bide berria asmatu egin zutenetik hasi genizkien, komunikazio grafikoa garatzen. Gero, testu idatziei irudiak gehitzen hasi genien, zeinekin sortzen hasi zen, bere esanetan, "azpimarratutako komunikazioa". Aitzineko Egiptoan, Babilonian zein bestelako kultura historikoetan aurkitzen ditugu irudi eta testuak lotzen dituzten mezu grafikoak ere. Binomio honetan jarri beharko genuke infografiaren jaiotzea⁵. "...Aitzineko Egiptoko tenpluen paretetan zein hainbat papiroetan marraztuta aurkitzen ditugun mezuak testu idatzia gehi irudien arteko bikotea dira; alde batetik mezu literarioa eta bestetik irudietan esanahi berbera daraman irudi multzo bat, baina formatu ezberdin eta bisualago batekin...". Prozesu hau planeta osoko kultura askotan gertatu zela aldi berean, haien arteko inolako kontakturik gertatu barik, gizateri osoari naturaltasun osoz gertatutako prozesua izan balitz bezala. Gero, prentsa agertu zenean argi zegoen, egile honen ustez, infografia nonbait agertuko zela, zeren eta 'irudi gehi testua' ('bI+T') binomio horrek edozein irakurle normalak ulergarria baita, eta kazetariak beti izan dute argi, bai atzo bai gaur, bere mezua ahalik eta publiko zabalenganaino iristea dutela helburu. Hala ere, nahiz eta infografiko bat ondo eginda egon, batzutan irakurle goaren ehuneko ehunak ulertzen ez duela demostratu dutela ikasketak gogoratzen ditu ere.

Barnhurst irakasle amerikarrak ere Aintzinako Erromatar Inperioan xehetasun osoz batailei buruz horretan egindako marrazkiak 'kazetaritza pinturak' deitzen ditu. Pompeian Kristoaren osteko lehenengo mendean gertatutako motin bat deskribatzen duena bezala [1998; 4]. Eraberean, Erdi Aroan analfabetasuna dela medio pinturen bitartez informatzen zela populazioa dio⁶. 'Lehenengo egunkaria' deitzen du pintura Barhurstek eta adibiderik esanguratsu bezala Theodore Gericault margolari frantziarrak pintatutako 'Medusaren baltsa' ipintzen du. 1816an gertatutako hondoratze hau margozteko, Gericault bizirik atera ziren pertsona batzuekin hitz egin, zenbait mediku entrebistatu, baita itsasontzi txikiaren erreprodukzioa eraiki zuen. Guztia dokumentazio lana zein aspektu grafikoa zaindu nahiean. Erreperkutsio handia izan zuen gertakari hau eta bere aroko 'infografista' bezala aritzea tokatu zitzaion Gericaulti⁷. Koadroa Ingalaterran zein Frantzia erakutsia izan ondoren legeen modifikazioa aldarrikatzen zuen mugimenduaren helburuak lortzeko lagundu zuen ere.

Valero Sanchok ere [1999; 1] gizakiak infografikoen bitartez komunikatzean ez da ezer berririk egiten ari, "...historia osoan zehar konplexutasun gutxi ala gehiagoko irudiekin komunikatu baita...". Bere ustez, kazetaritza infografia esistitu da historikoki prentsaren hasierako faseetatik [2000a; 1], informatika agertu baino lehen.

Valeroren ustez, nahiz eta 200 urtetik hona infografiak publikatu diren, bere ustez, produktu aitzindari horiek oso urrun daude gaurko infografikoetatik "...inprimaketa tipografikoaren testuinguru hartan xilografikak burutzeak zekartzan zailtasun tekniko handiak direla eta..." [2000b; 3]. Horregatik, produktu 'aurrekariak' bezala bakarrik deitzea nahiago du. Hala ere, argi uzten du Bartzelonako Unibertsitate Autonomoko irakasle honek infografia ez zela jaiotzeko informatikarekin, berau erraminta bat baino ez delarik.

⁵ De Pablos Coello, José Manuel (1998): Siempre ha habido infografía (3). Revista Latina de Comunicación Social, 5

⁶ Barnhurst irakaslearentzat Leonardo da Vinciren grafikoa aitzindariak ditugu ere [1999; 3]

⁷ Jacques-Louis Davidek pintatutako Maraten hilketa, edota Goyak 1808ko maiatzaren 2ko exekuzioak ere adibidetzat jartzen dizkigu.

Prentsako infografiaren agerpenaren arrazoitzat Valero Sanchok bere 'erabilgarritasuna' azpimarratzen du⁸; ideia bat testu soil batekin esplikatzeke zaila denean eta irudi batek – adierazpen testual labur eta egokiekin lagunduta– informazio hori azaltzen du era bisualago, estetikoago, didaktikoago edota elementu berriak aportatzen adierazten baitu.

XX. mendean zehar infografikoen hedatze prozesuari buruz Mario García irakasleak honako hiru arrazoi hauek ematen ditu [1998; 2];

- 1.-Irakurleen ohitzea. Publikoa etengabe grafiko hauen presentziara moldatu egiten da aldizkarietan.
- 2.-Aurrerakuntza teknikoak. 1940 eta 50. hamarkadetan eskanerrak agertzen diren momentutik informazio grafikoa sortu eta prozesatzeko erraztasuna multiplikatzen da. Gero, 1970 eta 80. hamarkadetan ordenagailu bitarteko konposizioa ere agertu eta garatzearekin bultzakada handia jasoko luke.
- 3.- Bi iturri eragingarri; 'Time' aldizkariako Nigel Holmes infografistaren lana eta 'USA Today' egunkari amerikarraren eragina, zeinek demostratu egiten zuen hainbat informaziorekin infografikoak publikatu egin zitezkeela. Josep María Serraren iritziz [1998; 4], Holmes da lehen kazetariak kontzeptu berri hau eskenan sartzen duena: irakurleak informazioaren mamia iruditik jaso behar du –lehenengo begiradandatuetatik baino.

Josep María Serrak esaten du ez dagoela data zehatzik 'infografismo' berbak erabiltzen noiz hasi zenik, ezta hitzaren aita nor den ere ez. "...1988. urtetik baino lehen ez dut termino honen inguruko erreferentziarik aurkitu..." dio irakasle catalanak [1998; 5].

⁸ Valero Sancho, José Luis. La infografía de prensa. Revista Latina de Comunicación Social, 30. 2000eko ekaina.

2.2.- Kazetaritza infografia

Infografia orokorra eta kazetaritza infografia inprimatua ezberdintzen ditu Valero Sanchok⁹. Bigarren honek "...testu informatiboa lagundu edota sustuitu egiten duen aportazio informatiboa dugu prentsako kazetaritza infografia, zein elementu ikoniko eta tipografikoekin aldizkari idatzian elaboratzen den eta gertakariak, gaurkotasuneko gauzak edota elementu ezaugarriak ulertzen laguntzen edo permititzen duena...". Eraberean [2002; 5] "...Giza ekintza zein gertakizun garrantzitsuenetan beste inolako hizkuntzarik heltzen ez den hutsune bisualak betetzeko agertzen da infografia...".

'Clarín' egunkari argentinarraren estilo eskuliburuaren definizioaren arabera: "...Informazioaren erakuspen grafikoa aportatzen duen elementu bisualen konbinaketa da infografia...". Jarraian, bere erabilera deskribatzen du; "...Nagusiki informazio konplexua emateko erabiltzen da errepresentazio grafiko baten bidez, zeinek bere irakurketa sintetizatu, argitu edota erakargarriago bihurtu dezakeen...". (MINERVINI, 2005: 1)

Valero Sanchoren esanetan, prentsako infografiak zortzi ezaugarri berezi ditu:

- 1.- Informazio oso eta independente bati esanahia ematen dio
- 2.- Gaurkotasun nahikoko informazioa ematen du
- 3.- Jazotako gertakaria behar bezala ulertzen laguntzen du
- 4.- Forma tipografikoekin idatzitako informazioa dakar
- 5.- Baita elementu ikonografiko zehatzak ere
- 6.- Informatzeko nahiko kapazitatea dauka bere kabuz entitate propioa eta informatzailea izateko, edo informazio idatziaren osagarria zein sintesia izateko.
- 7- Sentsazio estetikoa ematea –ez derrigorrez–.
- 8- Ez dauka errakuntzarik edota konkordantzia faltak

Hala ere, zortzi hauek bitan kondentsatzen ditu autoreak 'prentsako infografia'-ren ezaugarriak; 1) aldizkari inprimatuen prentsan hedatzen diren informazioetarako erabilgarria da, eta 2) bisualitate ezaugarriak dauzka. Erabilgarritasunaren ezaugarria zentzu honetan ulertzen du "...infografiak errol garrantzitsua jokatu behar du irakurlearen zerbitzuan, bai inportanteena laburbiltzen edota sintetizatzen zein informazioaren testua sustuitzen edota, osagarri bezala, zabaltzen...". Hala ere, funtzio laburtzailea ere azpimarratzen du egile honek. Nahiz eta datu berririk ez ekartzea, infografikoaren funtzioa aurreko sintesi –edo ondorioen laburpen– bezala errol interesantea jokatzen duela ere onartzen du. Bestaldetik, bisualtasunaren inguruan, zerbait pertzibitu eta errekonozitzeko begibistak daukan gaitasuna izateaz gain, Gotenburgoko IDAG egunkariko infografia zuzendariaren, Jonas Dagsonen, honako ebazpen hau gehitzen digu¹⁰: "...Hitzak, zenbakiak eta ekintzak hartu eta horiekin informazio zati osoa osatzean datza, produktu bat burutuz zeinek publikoak gertatutakoa irakurtarazi baino lehen ikustarazi egiten du...". Hitzak eta testuen arteko sinergia aberastasun extra gehitzen dio konjuntuari.

Canga Larequi katedradunarentzat [1994: 141] kazetaritza infografia "...euskarri idatzi baten gainean era grafikoan espresatutako kazetaritza informazioak hedatzea permititzen duen teknika da, prozesu informatikoen bitartez, eta hartzaileari mezuaren esentzia era bisualez pertzibitzea uzten diona...".

Josep María Sierrarentzat, kontzeptuak definitzen du "...Grafikoak, marrazkiak, testuak, argazkiak edota ilustrazioen bitartez informazio transmititzean datzan kazetaritza ekintza, zein eskuz edota ordenagailu bitartez burutzen den..."[1998; 5].

⁹ Valero Sancho, José Luis: La infografía de prensa. Revista Latina de Comunicación Social, 30. 2000.eko ekaina.

¹⁰ Documento de innovación periodística, 122. Nafarroako Unibertsitatea. Aipatuta hemen: Valero Sancho, José Luis: La infografía de prensa. Revista Latina de Comunicación Social, 30. 2000.eko ekaina.

Eduardo José Pérez era simple honetan definitzen du bere helburua; "...argitasunez eta sinpletasunez informatzea..." [1999b; 3].

Poynter Institutetako Mario García irakasle kubatarraren aburuz infografia 'azpigai' bezala kontsideratu behar da prentsaren diseinuaren barruan. non esplizituki adierazten duen azpiatala direla [1998; 1].

Óscar Goñi infografista donostiarrak kazetaritza 'infografia', 'infografista', edota 'infografiko'-etaz hitz egitean esplizituki 'info' aurrizkiaren kontra agertzen da eta bakarrik 'grafismo', 'grafista' eta 'grafikoa' erabiltzen du [GOÑI. 1998; 5]. Hau oinarritzeko lau arrazoi ematen ditu; 1) EE BBetan agertutako hitz baten itzulpen literala izatea; 2) grafiko guztiak berez informatiboak badira, eta ondorioz aurrizki hori erabat erredundantea da; 3) 'grafista' hitza erabiltzen egokia iruditzen zaio diseinu grafiko eta grafikoak burutzen dituzten profesionalak aipatzeko; 4) 'Real Academia de la Lengua Española'-ren hiztegian halakorik ez zen oraindik agertzen. Goñik bakarrik defendatzen duen izen aldaketa hau desarmatu egiten du Abreu Sojo irakasleak [2000a; 57] azaltzen duenean; 1) anglizismoa izateak ez du zertan balorerik kendu behar edo erabiltezin bihurtzea hitz bat; 2) nahiz eta grafiko guztiak informatiboak izatea, infografia ez da hori bakarrik, eta aurrizkia beharrezkotzat jotzen hitzak izan duen jatorria eta bizitzen ari den aldaera historikoak direla eta; 3) grafismo eta grafista hitzak oso aberatsak ditugu eta hainbat esanahi ezberdin hartzen dituzte, beraz, eta Cebrián Herreros aipatzen ere [1992; 386], zehatzagoa suertatzen da 'infografismo' eta 'infografista' erabiltzea; 4) hiztegian oraindik agertu ez izateak ez du esan nahi erabili ezin daitekeenik, ezta, kontrakoa, esanahia horixe izatea ere ez.

2.2.1.- Kazetaritzako infografiaren historia

1740ko martxoaren 29an Londreseko 'Daily Post' egunkariak mapa bat publikatu zuen esplikatzeko Vernon almirantearen eraso Portobello hiriaren kontra. Peter Sullivanentzat [1987; 15] hau izan zen lehenengo mapa prentsaren historian.

1806. apirilaren 7an Londreseko 'The Times' aldizkariak bere azalorrian argitaratu zuen infografiko bat esplikatzeko gertatutako erailketa bat Tamesis ibaia ondoan. Bertan, hiltzaileak –Richard Patch– jarraitutako ibilbide posiblea eta hildako pertsonaren –Isaac Blighen– etxean nola sartu eta atera omen zen zehazten zen. Sullivanek egunkariaren historian lehen infografikoa deritzo honi.

1854an John Snow fisikari britainarrak grafiko oso ospetsua burutu zuen. Bertan, Londresen gertatutako kolera epidemia baten ostean hildako guztien posizioak plano batean indikatzen ur kontaminatuaren iturria zein zen demostratu zuen. Estatistika ere erabili zuen beste kasu batzutan ur kontaminatua eta kolerearen arteko erlazioa demostratzeko. Parsonsonen [2003, 47] aburuz, historia osoan infografiko eragingarrietarikoa dugu hau.

1860. hamarkadan Estatu Batuetako Sezesio Gudan zehar gertatzen zena xehetasunez kontatzen zuten infografiak egin ziren De Pablos katedradunak gogoratzen duenez¹¹. Egurrezko taulen gainean xilografiatutako estiloarekin eskuz grabaturik, hain zuzen.

1869an Charles Minard ingeniario frantziarra Napoleonen ejerzitoak Errusiako kanpainan sufritutako hilketak indikatzen zuen grafiko ospetsua burutu zuen. Ricardo Bermejo [2003, 37 orr.] zein George Roricken [2003, 37 orr.] ustetan, historiako infografiko estatistikorik osoena kontsideratu daiteke.

1875ko apirilaren 1tik aurrera Londreseko 'The Times' aldizkaria hasi zen erregulartasunez meteorologia mapa bat publikatzen, Syracuse Unibertsitateko Geografiako katedradunaren, Mark Monmonieren esanetan [hemen aipatuta; GARCÍA, Mario. 1998; 4, baita LESTER, Paul Martin. 2006; 178]¹². Estatistikako grafikoetan adituak, Francis Galtonen konposatu zuen mapa hau.

1876an 'New York Herald' egunkari amerikarrak EE BBetako lehenengo eguraldi mapa publikatu zuen aldi bateko esperimendu bezala. Herrialdearen tamaina handia dela eta, hango eguraldi txostenak lortzea oso neketsuagoa zen ere. Hiru urte geroago, 1879ko maiatzaren 9an 'New York Daily Graphic' izan zen lehena Estatu Batuetako eguraldiko grafikoa erregulartasunez argitaratzen hasi zena [LESTER. 2006; 178]¹³. Mapa Stephen Horganek egin zen.

1898ko otsailaren 15ean Kuban gertatutako 'Maine' itxasontzi korazatua amerikarraren hondoratzea infografikorik famatuenetarikoa bultzatu zuen, bi egun beranduago 'New York Journal' egunkariak bere azalorrian publikatu zuena erasoaren errudunen inguruko teoriak planteatzen eta, ondorioz, iritzi publikoa Espainiaren kontrako gudan sartzeko alde ipintzen. 'The World' New Yorkeko egunkariak ere bere azalorrian itxasontziaren esplosioaren bertsio grafikoa publikatu zuen ere. Hala ere, bigarren honek arrazoiak esplikatzeko grafikoa egin baino, ezandaren indarraren sentzazioa hedatzeko ilustrazioaren antza zuen.

¹¹ De Pablos Coello, José Manuel (1998): Siempre ha habido infografía (3). Revista Latina de Comunicación Social, 5

¹² Pentsatu behar dugu garai hartan eguraldi informazioa biltzeko behar ziren komunikazio baliabideek baldintzatzen zutela prozesua batez ere. Lesterek gogoratzen digu Londreseko 1850ko Erakustaldian 'Crystal Palace'-en, publikoak Ingalaterra osoko mapa batean eguraldiaren informazio gaurkotuta ikusi ahal zuen lehenengo aldiz.

¹³ Estatu Batuetako Eguraldi Bulegoa 1870an jaio berria zen Ejerzitoaren Komunikazio Bulegoaren adar bezala eta informazioa luzatzen zien 'New York Herald' eta 'New York Daily Graphic' egunkariei [LESTER. 2006; 178].

Valero Sancho irakasleak honela deskribatzen dizkigu hasierako grafiko hauek "...sinpleak ziren, indibidualak, infograma ezberdinik gabe, trama edota apaindura zein bestelako oinarrezko unitate minimo askorik gabe, testu kaligrafikoekin, perspektibarik gabe, etab. honen arrazoi partziala azkartasunez eta prentsak exigitzen duen zehaztasunez egiteko teknologia egokiaren falta zen...".

1910an EE BBetako Eguraldi Bulego berria Nekazaritza Departamentupean funtzionatzen zen. Telegrafo bitartez luzatzen zien informazioa 65 egunkariri. Bi urte geroago 147 eguraldiri 91 hiritan, baina "...beste berrikuntza askorekin gertatu zen bezala, eguraldi maparen popularidadea azkar jeitsi zen..." [LESTER. 2006; 178.].

1912an 'Titanic' itsasontzi erraldoiaren hondoratzean infografiak publikatu zirela gogoratzen digu Mario García irakasleak [1998; 1].

1927an Charles Lindbergh piloto aitzindariaren ibilbidea indikatzeke ere infografia bitartez baliotu zen 'The New York Times' egunkaria [GARCÍA, Mario. 1998; 1].

1931an Harry Beck Londreseko Metroaren mapa ospetsua diseinatu zuen. Bi urte geroago inprimatu zen lehenengo bertsioa eta 1959 arte aldaketak izan zituen. Holmesen ustez [2003, 43 orr.], mapa baino, 'diagrama' zen hau. Bere agerpenarekin infografiaren munduari bultzakada eta iraultza galanta eman zion. Eredu informatibo hura betirako mantendu zen.

1934ko abuztuaren 4etik aurrera 'The New York Times'-ek eguneroko meteorologia mapari bultzapen berria eman zion, lehenengoz publikatzen hasi baizen. Hurrengo urtean 'Associated Press' agentziaren 'Wirephoto' sareak eguraldi mapak bere egunkari bazkideei telefonikoki transmititzen hasi zen ere. "...Mapa hauek editoreen gustokoak suertatu ziren ia egokitze aldaketen beharrik gabe publikagarriak baizirelako...". [LESTER, Paul Martin. 2006; 178].

1940 eta 50. hamarkadetan eskanerrak agertu eta lehenengo aldiz egunkariak tinta erdiko irudiak sortzen hasi ahal zuten, grabatu bitarteko sistema garestiak erabili behar gabe [GARCÍA, Mario. 1998; 4].

1940. hamarkadan 'The New York Times' egunkariak publikatzen zituen mapak multiplikatuz egin ziren gerra garaiko momentura egokitzeko. Honela adierazten du Monmonier [1986, hemen aipatuta: GARCÍA, Mario. 1998; 5]

1960ko apirilean 'NASA'-k lehen eguraldi-satelitea jarri zuen orbitan. 'Tiros I'-ek Lurreko hodei argazkiak bidali zituen lehenengo aldiz. EE BBetako Eguraldi Zerbitzuak komunikabideei luzatu zizkien irudi hauek hedatuak izan zitezten.

1963ko urtarrilean Ivan Edward Sutherlandek 'Sketchpad' konputagailu bitarteko marrazketa sistema asmatu zuen. 'MIT' instituturako tesia burutzean bukatu zuen. Lehenengo aldiz ordenagailuarekin komunikatzeko interfaz grafikoa agertzen zen. Garai hartan hasi zen 'infographics' hitza erabiltzen.

1966an New Yorkeko 'The Herald Tribune' egunkariak desagertzeko zorian zegoelarik estrategia berri batean aitzindaria izan zen; orrialdeen diseinu berri bati ekin zion biziraun ahal izateko [ABREU SOJO. 2000a; 11].

1970. hamarkadan munduan grafiko gehienak eskuz egiten ziren egunkarietan, garai hartan Peter Sullivanen teknikaren erabilera oparoa 'salbuespen'-tzat jotzen du Serra kazetariak [1998; 2]. Eraberean, hamarkada horretan ere Estatu Batuetan grafikoak beraren kontzeptuarekin apurketa gertatzen da Nigel Holmesek bere planteamendu berriak indarrean ipintzen hasten denean. Abreu Sojoren hitzetan, hamarkada horretan hasi zen erabiltzen lehenengo aldiz 'explanatory graphic' edo 'grafiko esplikatzaile' hitza, Londreseko 'Sunday Times'-ek asmatuta.

1974an 'Chicago Tribune' egunkari amerikarrak kontratatu zuen lehen editore grafikoa. Errotatibo hau infografikoetan oso trebea zen Bigarren Mundu Gerratik aurretik ere [LESTER, 2006; 185].

1979an 'Gannett' konpainiak 78 egunkari zeuzkan EE BBetan. Bere garapen azkar horretan eragingarria izana zen Allen Neuharthek 'Florida Today'-ren zuzendari bezala aritzen zen urte hartan eta herrialde mailako egunkari baten proiektuan hasi zen lan egiten. Hiru urte geroago 'USA Today' izango zena burutzeko lantalde bat bildu zuen Floridan "...lehiorik gabeko bungalou batean, espiak ekiditzeko..." [LESTER, Paul Martin. 2006; 180]. Eguraldi mapa sortzeko espezifikoki kontratatu zuen George Rorick editore grafikoa.

1981eko martxoaren 30an Estatu Batuetako presidentearen, Ronald Reaganen, kontrako atentatuaren ostean 'Time' aldizkariako infografistek –Nigel Holmesen zuzendaritzapean– hain gogo bizia jarri zuten gertatutakoaz informatzean ezen kasua inbestigatzen zuen Poliziak onartu egin zuen kazetariak bildu eta erakutsitako informazioa haien espezialistek burututakoa baino hobe zela [SERRA, 1998; 4].

1982ko irailaren 15ean 'USA Today' egunkari iparamerikarra jaio zen. Infografikoen arrakastan eragin handia izan zuen publikazio hau mundu osoan [Leturia, 1998: 1]. Orrialde osoko bere eguraldi mapa 'mitoa' bihurtu egin dela adierazten dute hainbat egilek [GARCÍA, Mario. 1998; 5]. Josep María Serraren hitzetan "infografiko guztien aita" zen [1998; 5] egunkari honek. Nigel Holmesen ideiak hartu ez ezik, beronen kolaboratzaile batzuk ere kontratatu egin zituen. Gainera, baliobide askorekin egin ahal zuen. Karl Tate, 'Associated Press' agentziako kazetariak honela azalzen zuen 'boom' hau: "...'USA Today' bultzatu egin zituen gainontzeko egunkariak infografikoetan pentsatzera. Teknologia berriak ez dira izan arrazoia horrenbeste, baizik eta editoreak konturatu egin direla infografikoek istorio berriak kontatzen lagundu dezaketela..."¹⁴. Antzeko hitzekin espresatzen da 'Los Angeles Times'-eko editore zuzendariak, George Cotliarek¹⁵. George Roricken ustez [2002, 39.orr.), mapa hurak eraldatu egin zuen irakurleen jarrera eguraldien mapak irakurtzerakoan.

'USA Today'-ren jaiotza: Ekonomiaren inguruko 'Wall Street Journal' egunkaria izan ezik, Estatu Batuan ez zegoen herrialde osoko interesen inguruko errotatiborik –'Newsweek' eta 'Time' astekariak baiziren– eta 'Gannett' egunkari kateak, Allen Neuharthen gidapean ikusi zuen aukera negozioa egiteko. Hasieran kultura maila altuko hiritarrak, exekutiboak zein bidaiarientzat zuzenduta jaio zen 'USA Today', eta bakarrik aireportuetan saltzen zen eta hiriburu handiko erdialdeetan. Bere hasieratik sortu zen telebistarekin hazia zen belaunaldi batek irakurrita izateko. Isteria laburak kontatzen zituen, koloretan inprimatutakoak eta ilustrazio grafikoz beteta¹⁶.

1982an 'Xerox' konpainiak Californian –Palo Alto– zeuzkan ikerketa zentruan ('PARC') John Warnock eta Charles Geschke inprimatzea kontrolatzeko balio zuen hizkuntz informatiko berria –'Inter Press'– inbentatu eta gero, bi zientzilariek ezin zituzten konbentzitu zuzendariak lengoia komertzializatzeko. Horregatik, Xerox utzi eta bere kabuz 'Adobe Systems Inc.' sozietatea sortu zuten handik oso hurbil, San José hirian.

1985ean 'Post Script' orrialdeko deskribatze-hizkuntza garatu zuten John Warnock eta Charles Geschke matematikoez eta 'Adobe'-k 'Apple'-eko 'Laser Writer' inprimagailurako

¹⁴ Ebazpen hori 'Society of News Design' elkargoak argitaratzen duen 'Design' aldizkarian idatzi zuen 1989an eta Josep María Serrak aipatu egiten du 1992an idatzi baina sei urte geroago arte publikatu ez zen artikuluan [SERRA, José Luis. 1998; 5]

¹⁵ "...Zalantzarik gabe 'USA Today'-ren kazetaritzaren mundura egindako kontribuziorik handiena infografikoen erabilera da. Horrek lagundu zuen ainbat egunkari XX mendean sartzen..." [LESTER, Paul Martin. 2006; 177].

¹⁶ 'Cable News Network'-eko bertsio inprimatuarekin konparatzen du Paul Martin Lester [2006; 177], eraberean, saltzeko erabiltzen ziren kutxa automatikoak –Fred Gorek diseinatuta– telebistaren antza hartzen zuten ere.

lizentzia komertzializatu zuten. Honek autoedizioaren jaiotzea suposatu zuen. Josep María Serraren hitzetan "...garai hartan oraindik jaio berriak ziren diseinu aplikazioei inprimatze irteera ekonomikoagoa edukitzea permititu zien. Hortik aurrera, egunkariak hasi ziren erosten erredakzioetarako -hasieran zalantza askorekin- grafikoak egiteko balio zuten konputagailuak..." [1998; 5].

Egile askok infografiaren eztanda eta infografikoen ekoizpenaren multiplikazioa 1991an Golkoko gudan zehar [GARCÍA, Mario. 1998; 1] gertatutako informazio eta argazki faltari egozten diote [SERRA, Josep María. 1998; 5]. Garrantzi handiko halako gertakari baten aurrean egunkariak orrialde anitz bete beharizanaren aurrean, eta argazki gutxi aurkitzen zutenez, errekurtso berri honi ateak ireki zizkioten. Zentzu honetan Sancho Valerok ohartarazten duenez [2002; 6], "...batzutan infografiko gehiegiren agertzeak susmagarria suertatu daiteke ere, gertakizunen edo ekintza esanguratsuaren tokian argazki falta ere esan nahi baitezake...".

Raymond Colle irakasle txiletarrak ere honela adierazten du¹⁷; Txileko komunikabide inprimatuen infografikoen hedatzea 1991an gertatu zela, gudan zehar. Berak 'eztanda grafikoak' gertatu zela aipatzen du. Prentsa agentziak horren ostean zerbitzu infografikoen eskaintza finkoa ezartzen hasi ziren eta honela, gudan zehar zabaldu ziren mapak eta 'karto-infografiko'-ez gain, beste osagaiez burututako infografikoak agertu eta zabaltzen hasi ziren. "...Gero, pixkanaka pixkanaka ekoizpen nazionalekoak finduz joan ziren eta eredu eta estilu propioak oinarritzen joan ziren...".

Raymond Colle irakasle txiletarraren ustez¹⁸, jakina da ilustrazio ez-fotografikoak betidanik egon direla presente egunkarietan. Mapak eta estatistikako grafikoak ezagunak izan dira betidanik. Orduan, zertan datza 90. hamarkan gertatzen den berrikuntza? Bere hitzetan; "diskurtso berria" sortzen dela, zeinek: "...ilustrazioa eta testua uztartzen dituen espazio unitate batean, informatzeko kapazitate autonomoa daukana...".

2003eko martxoan EE BBek Irak inbaditu zuten. Aurreko hamarkadan Golkoko Gerrarekiko interes mediatikoa askoz altuagoa bazen ere, kasu honetan infografikoen ekoizpen eta presentzia egunkarietan askoz txikiagoa suertatu zen. Arrazoia; kasu honetan ehundaka kazetari kubritu ahal izan zuten notizia lekutik bertatik. Informazioa eta argazkiak eskuragarri, infografikoek ez zuten lehentasun berbera egunkarien orrialdeetan [LESTER. 2006; 186].

2004.eko otsaileko 24ean '**USA Today**' egunkariaren gainean burututako mami-analisi batek ondorioztatu zuen 48 orrialdeko edizio hartan, 222 istorio, 116 argazki eta 343 infografiko publikatu zirela [LESTER, Paul Martin. 2006; 181]. Hau da, guztira grafiko gehiago istorio eta argazkiak batera baino¹⁹. **Eguraldi orrialdea** konputagailuen erabilera efiziente eta berritzailearen adibide bezala goraiatua izan da hasieratik. Mapak orrialdearen herena hartzen du. Marra lodian margoztutako Estatu Batuetako irudia da, gris argiko fondu baten aurretik, tridimentsionaltasun itxura emateko. Kutxa bananduetan Alaska eta Puerto Ricoko estatuak agertzen dira. Kolore hotzek tenperatura baxuak adierazten dute. Horia eta gorri markatutakoak, altuenak. Taulek, pikogramak eta datu-kutxek betetzen dute mapa. Hedabideen kritikoa zen Peter Boylek deitu zuen mapa "Amerikako kazetaritzan gehien imitatu den mamia" [LESTER, Paul Martin. 2006; 177]. 1986an gehitu zen lehenengo aldiz publizitatea orrialdearen behelaldean. Eta 1987an egindako inkesta batean, egunkariaren editoreen erdia baino gehiagok eguraldiko informazioaren kobertura handi egin zuten infografiko hori agertu zenetik.

¹⁷ Colle, Raymond. 'Estilos o tipos de infógrafos'. Revista Latina de Comunicación Social, 12. 1998ko abendua.

¹⁸ Colle, Raymond. 'Estilos o tipos de infógrafos'. Revista Latina de Comunicación Social, 12. 1998ko abendua.

¹⁹ %84a (227 grafiko) ez estatistikoak ziren, hauetatik 164 taula, bi diagrama, 50 datu-kutxak, 2 ilustrazio, 8 kokapen mapak eta telebista gida (1). Gainontzeko %16a (55 grafiko) estatistikoak ziren, datu-mapak, barrak, eta tartak [LESTER, Paul Martin. 2006; 181].

Alejandro Malofiej Stoliaroff (Buenos Aires, 1938-1987) kazetaritza infografiako aitzindaria izan zen. Kazetari grafikoa eta kartografo bezala lan egin zuen zenbait aldizkarian; 'Panorama', 'Siete Días', 'Semana Gráfica', 'Armas y Geoestrategia', baita egunkarietan ere; 'Nueva Provincia', 'La Opinión', eta 'Tiempos Argentinos'. Eduardo Pérezen hitzetan, infografiko bakoitza lan nekagarria suposatzen zion, "...gaia sakonki dokumentatzeaz kezkatzen zen, bere biblioteka oparoaz balio zen, Buenos Aireseko liburudena espezialdu guztiak bisitatzen zituen, erredaktoreekin hitz egin eta espezialistak kontsultatu egiten zituen [PELTZER, Gonzalo 1995; 9]. Gero, lanean, ikono, toponimo eta erreferentzi minimoak erabiltzen mapa bakoitzean maisu-lana bat osatzen zuen. Ez zuen testu esplikatorik erabiltzen. Zalantzarik gabe sintesian egon den maisurik nagusia dela ebatzi dezaket..." [PÉREZ, Eduardo. 1999a; 2].

John Grimwade; 1993/94an Zilarra (Kolorezko portafolioa), 1994/95 Urrea (Kolorezko portafolioa), 1996an Brontzea (Kolorezko portafolioa). Eduardo Pérezen esanetan teknika oso sotila eta trebetasun plastiko izugarria du [PÉREZ, Eduardo. 1999a; 4]: "...bere infografiko bakoitza kazetaritza lezio bat da..."

2.2.2.- Infografia eskola ezberdinak

Infografiaren munduan bi tendentzia nagusi ezberdinak daitezke. Julio Alonso infografiagileak laburtzeaz gain, bakoitza egile ospetsu batekin lotzen du. Alde batetik, Nigel Holmesek, 'Time' aldizkarian bere lanengatik ezaguna, eta bestetik Peter Sullivan, 'The Sunday Times' igandekari britainarrean aritua 25 urtez [URABAYEN, 1996; 6 orr.]. Lehenengo tendentziaren ezaugarria sintetizatzeko kapazitatea da. Marrak eta irudien itxurak komikienaren antza hartu arte. 'USA Today' egunkariak finkatu eta hedatu egin zuen nagusiki joera hau. Bigarrenak, ordea, itxura konplexuago eta errealistagoa zen. Honen sustraiak aintzineko prentsa ilustratuan aurkitzen ditugu, argazkigintza hedatu arte komunikabide inprimatuetan nagusia zena. Estilo honen aitzindaria Londreseko 'Illustrated London News' eta gero Frantzia 'La Illustration Française' eta Espainian 'La Ilustración Española y Americana' izan zituen jarraitzaile. Alonsoren ustetan, European bigarren joera honen indarraren arrazoia usadio kultural batean aurkitu daiteke; hemengo irakurlea ohituagoa baitago egunkarietatik diru gehiago ordaintzeko eta formetan zainduagoa den produktua nahiago du -gauetik etxera itzultzerakoan oraindik mantentzen duen produktua-. Amerikako irakurleak, ordea, gehiago irakurtzen du, merkeagoa ere, erabili eta gaua iritsi baino lehen botatzeko usadioa dauka.

2.3.- Infografikoa

2.3.1- Definizioa

José Manuel de Pablosek azaltzen duenez 'infografikoa' Estatu Batuetatik datorkigun hitza dugu, non 'information graphics' deitzen dute bir-jaiotako genero honi, nondik 'infographics' datorren, eta hortik gure 'infografia' eta bere produktuak; 'infografikoak'; baita 'info' ere deituta edota infogramak –hau da; infografiko baten zatiak²⁰. Definizio bezala honela azaltzen zuen 1993an egile honek: "...Informazioa errepresentatzeko sistema modernua, ordenagailuz zein eskuz egindakoa, zeinek grafikoak eta testu esplikatioak uztartzen dituen..."²¹. Lau motatakoak dira infografikoak egile honen aburuz; 1.- Datu numerikoen errepresentazioa tauletan. 2.- Osotasun baten zatiak adierazten duen informazioa. 3.- Neurgarria den informazioaren gorabeheren segimendua eta, azkenez, 4.- Kazetaritza infografikoak 'por antonomasia'. Laugarren sail honetan sartzen omen du egileak infografiko konplexu eta osoenak, Carlos Abreu Sojoren ustez²².

Valero Sanchoren definizioari jarraituz, infografikoa "aportazio informatiboa da egunkari idatzi batean, elementu ikonikoak eta tipografikoak erabiliz, gertakariak, ekintzak edota gaurkotasuneko informazioak –edota berauen aspekturik garrantzitsuenetarikoak– ulertarazteko zein ulermen hori errazteko, eta testu informatiboarekin batera publikatzen da, hala nola batzutan testua bera sustituitu ere" [SANCHO, 2000b; 2]

Hala ere definizio honi bere kritikak egin dakizkioke. Hasteko, Caioren ustetan, infografikoa ez du zertan elementu tipografikorik derrigorrez eraman behar [Cairo 2008, 21]. Berak aportatzen duen definizio zehatzagoan beste aspektu batean sakontzen da; diagramatismoan. Bere definizio argi eta motzean, 'infografikoa' "datuen errepresentazio diagramatikoa da", eta jarraian gehitzen duen bezala "Diagrama formapean erakutsitako edozein informazioa infografia dugu". Hori izango da bere definizioaren ardatz nagusia; 'diagrama', eta berau bezala ulertzen duena: "konjunto edo sistema baten zati ezberdinen arteko erlazioak erakusten diren marrazkia".

Eta bere kritika horri jarraituz, infografikoa ez du zertan egunkari idatzi batean publikatua izan behar hala kontsideratua izan ahal izateko. De Pablosek (1998) ere agertzen duen bezala; "...berdin zein den euskarria non bikotekidetzatza informatibo hori gertatzen den; papera, plastikoa, pantaila... lokatza, pergaminioa, papiroa, harria...".

Peggie Stark-en hitzetan²³ kazetaritza infografikoak "...artikuluak kontatzen diren gertakizunak azaltzeko, baita istorioa edota bere protagonistak testuinguru zehatz batean kokatzeko hitzak eta elementu bisualen konbinaketa dira...".

Abreu Sojok gogoratzen duen bezala, gertatutakoaren 'bost W'-ei erantzun beharko lioke infografiak, eta Leturiak gehitzen duen bezala, infografiko batetatik informazio nahiko atera ahal daiteke berria idazteko ere²⁴. Antzeko norabidean Goñik [1998; 5] gogorazten digu infografikoa burutzerakoan dokumentazioa 'berebizikoa' dela. "...Berez, bada guztia...".

20 De Pablos Coello, José Manuel (1998): Siempre ha habido infografía (3). Revista Latina de Comunicación Social, 5

21 Vocabulario técnico recomendado. La Lagunako Unibertsitateko Udako Ikastaroa, 1993-ko uztaillak 19. Adefe. 24. orr.

22 Abreu Sojo, Carlos (2002b): ¿Es la infografía un género periodístico? - Revista Latina de Comunicación Social, 51

23 Lecturas para redactores escépticos sobre qué diablos sea eso de la infografía. 'Society of Newspaper Design'-eko Espainiako Ataleko dokumentazio infografikoa. Informazio Zientzietako Fakultatea. Nafarroako Unibertsitatea, 1991, 2. or.

24 LETURIA, Elio. ¿Qué es infografía?, en Revista Latina de Comunicación Social. 4. zb. 1998ko apirila, 1. orr.

Raymond Colleren hitzetan²⁵ infografikoa unitate espaziala da, non kode ikonikoak eta berbalak uztartzen diren informazio zabal eta zehatza sortu ahal izateko, non diskurtso berbal hutsa askoz konplexuagoa litzateke eta espazio luzeagoa beharko lukeen.

Jordi Clapersek, 'El País' egunkariko infografistak honela definitzen du infografikoa²⁶: "Notizia edota informazio (gertaera, ekintza edota kazetaritza gai) baten errepresentazio bisual eta sekuentziala".

Peter Sullivanentzat [1987; 41] informazio grafikoaren erarik sinpleena litzateke argazki batena gehi ikur, gurutze edo gezi bat –bertan zerbait indikatu edo indibiduatzeke–. Hala ere historiako lehen mapa eta lehen 'infografikoa' ezberdintzen ditu.

Bere kode bisual ezberdinetatik hasita, hizkuntz ikonikoak formen konbinazio anitz permititzen ditu bere helburua, errepresentazioa, lortzeko. Informatzerakoan hainbat adierazpen alternatibak sortzen dira, eta berauek eredu edo estilo oinarriko gutxi batzutan sailkatzen ditu Colle irakasleak. Bere sailkapen horretan honelako bost infografiko tipoak ezberdintzen ditu: diagramak, 'iluminista' estiloko infografikoak, 'karto-infografikoak', lehen mailako infografikoak eta bigarren mailako infografikoak²⁷. Lehenengoetan informazio estatistikoko infografikoak sartzen ditu. Bigarrenean testu idatziei gehitutako ikono ilustratibo hutzak dituztenak²⁸. Hirugarrenean geografi edo lekuaren errepresentazioa. Laugarrenean testu idatziekin aberastutako koadroak, eta, azkenez, infografikoaren erarik konpletuenean istorioak fasetan kontatzen dituztenak. Bukatzeko, eta sailkapen honen kanpotik baleude bezala 'Laburpen koadroak' deritzen infografikoak leudeke. Bertan, eta espazioa ekonomizatu gabe, grafiko hauek laburtu egiten dute testu baten informazioa. Gutxiagotan erabiliak dira ere eta normalean erreportai motatako testuekin, berauen forma eta estiloa egokiagoa baita halako laburpenekin lagunduak izateko.

Sancho Valero irakasleak honako ebazpen ausarta egiten du²⁹: "Ezin dugu kontsideratu infografia zenbakiak edo testuek bakarrik osatutakoak, inolako marrazkirik gabe". Bere ustez muga dago irudi informatibo edo bestelako forma ikonografikoekin gertakizunak kontatzearen asmoan. Eraberean, informazio idatzirik gabeko infografiarik ez dagoenik eta elementu definigarritza jo dezakegula uste duela argi uzten du egile honek.

Mario García irakaslearen aburuz, informazio grafikoak ez dira bakarrik marrazki politik orrialdiak apaintzeko; "...idazle, editore, ikertzaile, ilustratzaile, arte zuzendari, diseinatzaile, eta artista profesionalen ahalegin gogorra eta zainduaren ondorioa dira..." [1998; 4].

Leticia Borrasek aurkezten digun analisiaren arabera [2000, 6], erreferente askori buruz burutu daitezke infografikoak, hala ere batzuk aproposagoak ditugu grafiko baten bitartez adieraziak izateko. Honako zortzi hauek identifikatu zuten:

- Kokapen fisikoa
- Kokapen geografikoa
- Ibilbide geografikoa
- Objektu baten estruktura

²⁵ COLLE; Raymond. Estilos o tipos de infógrafos. Revista Latina de Comunicación Social. 12 zb. 1998ko abendua. La Laguna. Tenerife, aipatuta hemen: Abreu Sojo, Carlos (2002b) ¿Es la infografía un género periodístico? - Revista Latina de Comunicación Social, 51.

²⁶ Clapers, Jordi. Los gráficos desde fuera de la redacción. Revista Latina de Comunicación social, 9. 1998ko iraila.

²⁷ Colle, Raymond. 'Estilos o tipos de infógrafos'. Revista Latina de Comunicación Social, 12. 1998ko abendua

²⁸ Julio Alonso infografistak adjetibo bera erabiltzen du testuaren irakurketa arindu edo errazteko funtzio hutsa duten ikono eta sasi ilustrazioez betetako grafikoak direnak. Alonso, Julio: Gráfica. El trabajo en una agencia de prensa especializada en infográficos. Revista Latina de Comunicación Social, 8. 1998ko abuztua.

²⁹ Valero Sancho, José Luis: La infografía de prensa. Revista Latina de Comunicación Social, 30. 2000.eko ekaina.

- Prozesuak
- Proportzioak
- Gertaera baten errekonstrukzioa
- Meteorologia

Hiru infografiko eredu aurkezten dituzte Leticia Borrasek eta beste zenbait egilek grafikoen estruktura informatiboa analizatu eta gero [BORRAS, 2000; 7]; 'infototal', 'inforrelato' eta 'infopincel'. Lehenengoa, unitate informatibo osoaren antza dauka eta erreportaiaren itxura hartzen du. Bigarrena, maizago agertzen dena, kronikaren funtzio berbera dauka. Hirugarrenean, ordea, ez da istoriorik kontatzen, informazio aldetik eskasa da, kolore-notaren antza daukala. Eta deskriptiboa dela diote.

Estatistiken edozein aurkezpen era grafikok osatzen du infografikoa [GARCÍA, Mario. 1998; 3].

Abreu Sojo irakaslearen aburuz, 'grafiko' hitzaren erabileraren hedapenaren arrazoia iparamerikarrek kazetaritza ikonografikoaren edozein manifestazio deskribatzeko erabiltzen dutela da [2000a; 89], hala ere, jarraian mintzamen hispaniarra dutenek ere asko erabiltzen dutela onartzen duen arren. Londreseko 'Sunday Times' aldizkariak 1970 hamarkadan 'explanatory graphic' berba erabiltzen hasi ostean hitz ezberdin bana sortu zen ere grafiko mota ezberdin bakoitzari deitzeko [2000a; 90]. Gainontzeko egunkariak genero bisual guztiak izen berberan nahasten zituzten; 'graphic' [PELTZER. 1991; 192]. Geroago, 80. hamarkadan amerikarrek sortu zuten 'infographic' hitza, zein egunkari espainiar eta latinoamerikarretan erabiltzen hasi zen 90. hamarkadan; "...arazoa da batzuek hitz hau erabiltzen dutela deitzeko edozein errepresentazio grafiko non irudiak eta hitzak agertzen diren...". [ABREU SOJO. 2000a; 90].

KRT agentziaren zuzendariak esaten zuen bezala; "...Informazioa eta aurkezpenaren ezkontza dugu infografikoa...". [GARCÍA, Mario. 1998; 3].

Barnhurstek honela deskribatzen du nolakoa izan behar den infografikoa editoreak fijatu behar den lau aspektu oinarrizkotan. Honela, gainbegiratu behar da grafiko den ala ez: -Egokia, -Osoa, -Etikoa eta -Ondo diseinatua. Zuzentzaileak bere buruari galdetu beharreko lau aspektu hauetan datza grafikoaren perfektzioa: "...Hautatu al zuen grafiko mota egokia artistak? Informazio guztia adierazten du? Datuak exageratu ala desitxuratu egiten ditu? Ba al da diseinua kalitate onekoa kazetaritza arauen arabera?..." [BARNHURST. 1999; 4]

2.3.2.- Sailkapenak

Abreu Sojo irakasleak infografiaren honako sailkapen hauek proposatzen ditu [2000a; 74-77].

-Erabilitako teknikaren arabera; eskuz ala ordenagailu bitarteko infografikoak ezberdintzen ditu. Hala ere, nahiz eta konputagailua erabili, infografiko guztiek artisautza osagarria badutela esaten du Sojo "...artistak beti era artizanalean sartu beharko baitu okurritu zaion ideia hori..." [2000a; 74].

-Estetika nagusiaren arabera zuribeltzekoa ala kolorezkoak izan daitezkeela dio.

-Xedearen arabera De Pablosek aurkeztutako lau motak aipatzen ditu; geografikoak, istripukoak, kronologikoak eta posibilitatekoak (DE PABLOS. 1991; 168 eta 1992; 74).

-Morfologiaren arabera, Peltzerek [1991; 135-136] egindako zatiketa hau aurkezten digu; bistakoak, planukoak, mozketakoak eta ikuspegikoak.

Miguel Urabayen [2001, 2 orr.] Nafarroako Unibertsitateko Irakasle Emeritoak 'Estrukturako' infografikoak bereizten ditu, non objektu edo tramankulu baten ebatze imajinarioa egiten zaio beronen barneko zatiak erakutsi ahal izateko. "Imaginazioaren begiek bakarrik ikusi ahal zezaketena erakusten dute infografiko hauek".

2.3.3.- Megagrafikoak

Egungo infografiak bitan banatzen dira Eduardo José Pérez infografistaren hitzetan; alde batetik eguneroko lanak –ordu batzutan burutzen direnak, hauek bertigoa, akzioa eta nerbioa dira–, eta, bestetik, megagrafikoak, epe arrazionalagorekin planteatu eta ejekutatzen direnak. Bietan "...denbora eta lan teknikak erabat ezberdinak dira..."[1999b; 1], nahiz eta beti helburu berberarekin, "sinpletasunez eta era argian informatzea".

'Megagrafiko' hitz berbera erabiltzen zuen Mario García irakasleak zentzu peioratiboan 80. hamarkadan publikatutako zenbait infografikoren tamaina eta mezu konplexuegiak kritikatzeko [1998; 6]. Bere ustez '1-2-3' izeneko estrategia darabilten grafikoa dira onenak, hau da, hiru aktibitate bakarrik deskribatzen dituztenak, eta ez hainbat puntutan zatitu beharrekoak, zenbatua izan behar izan arte. Zentzu honetan, George Rorick KRT agentziako zuzendariaren hitzak aipatzen ditu. Beronek zenbait megagrafiko kritikatzeko ere 'intimidagarriak' suertatzen baizaizkio irakurleari, "...testu zutabe amaitezinezkoekin gerta litekeen bezalaxe...".

Eduardo Pérez aipatzen du nola 1980. hamarkadan prentsako megagrafikoek kritikatuak izan ziren irakurleari informazio mordoan ematen saiatzean, nahasgarri eta ulertezina bihurtzeagatik [1999a; 3].

Kontzeptu hau ere erabiltzen du Eduardo Pérez 'Coper' infografistak Alejandro Malofiejn infografikoak definitzeko [1999a; 2] "...nahiz eta garai hartan honela ez ziren deitzen...".

2.3.4.- Infografikoaren zatiak

Elio Leturiaren ustez³⁰ infografikoa osoa izan dadin honako bost elementu hauek izan behar ditu: Titularra, testu esplikatzailerik bat, informazio gorputza, iturria eta egilearen kreditua. Tituluak zuzena izan behar du, ahal bada sintetikoa eta koadroaren mamia azaldu era labur batez. De Pablosek adierazten duen bezala, titulurik gabe agertu daiteke ere infografikoak literatur masa handiago baten parte bezala aurkezten bazaigu, zeinek osotasunezko titular propioa daukan³¹. Egokia badirudi, eta estilo liburuaren arabera, tituluarekin batera azpitolua ere egon daiteke, azpielementu hau beti hautazkoa izanik, egile honen aburuz. Testu esplikatzailerik laburra izan behar da. Bere funtzioa, infografikoa ulertzeko irakurleak behar izan dezakeen informazio guztia ematea da. Hau da, grafikoaren gorpua azaltzen ez duen guztia, testuak esplikatu beharko du. Hirugarrenez, infografikoaren gorputza koadroaren esentzia da, informazio bisuala; barrak, tarta, fiebre lerroak, mapak, etab. Honek ere behar ditu testuak, etiketen bitartez informazio horri ordena eta esplikazioaz aberasteko; zenbakiak, datak edota hitz deskriptiboak. Egile gehienek gogoratzen dute nola infografikoaren gorputza eta notiziaren testuaren artean ez da erredundantziarik egon behar. Laugarren elementu beharrezkoa iturria litzateke, zeinek indikatzen duen nondik lortu den aurkeztutako informazio guzti hori, beraien jatorria. Azkenik, kreditua infografiaren egile edota egileak adierazten ditu, bai errealizazioa zein ikerketa lanekoak. Tipografia txiki batez idatzita, bere kokapenak ez lioke irakurleari arretra distraitu behar.

Barnhurst irakasleak grafikoak sei zati dauzkala adierazten du. Egile honek 'gorputza' alde batetik eta 'indikatzaileak' bestetik ezberdintzen ditu. Gainera, inprimatuta ez egon daiteke beste elementu bat aipatzen du; 'sarea' edo 'malla' [1999; 5].

a) Titulua

Osagarri nahitaezkoz jotzen du Sancho Valerok titulua infografikoetan. Elementu minimo hau gabe grafikoa "...aurkezteke geratzen zaigu, eta komunikazio sartze-aterik

³⁰ Leturia, Elio: ¿Qué es infografía? - Revista Latina de Comunicación Social, 4. Apirila 1998

³¹ DE PABLOS, José. La infografía, el nuevo género periodístico en Estudios sobre tecnología de la información. Editorial Sanz y Torres. Madrid, 1991. 82 orr.

gabe geratuko balitz bezala. Formalki sarrera elementua da eta mamiaren mugarrizalea; bere buru ikusgarria da eta, aldi berean, infografikoaren koadroaren barruan kokatu behar da, normalki goiko aldean, nahiz eta batzutan errotulo bezala kamuflatuta agertzen den ere..."³². Geroago ere [2002; 6] ideia honetan insistitzen du, eta esaten du infografikoek gainontzeko irudietatik ezberdintzen duen elementua dela titulua. Ondo elaboratuta dagoenean komunikazio horren mamia isladatzen du. Barnhurstek gogoratzen digu nola titulu hori ez den notizia batena bezalakoa [1999; 4]. "...Tituluak ez darama beti aditzik. Oso hitz gutxi daramate eta oso deigarriak dira. Ez dira kategoria orokorrekoak, hau da, ez dute indikatzen bakarrik koadro grafikoak daraman informazioa. Oso espezifikoa da eta arreta deitu behar du asko...". Eraberean, titularraren deigarritasuna azpimarratzen du egile honek, hitz astingarriez idazteko aholkua ematen ere [1998; 6].

b) Testuak

Datuen azalpen osoa dakarte testuek, baita bere esanahia esplikatu ere. Barnhurstek dio testuak ez duela beti esaldi osorik behar, eta honako irizpide hau luzatzen digu: [1999; 4] "...Testuak ebazpen bat edo bi baino gehiago behar baditu egunkariko irakurlearentzat konplikatuegia izango da...". Eraberean bi alboetatik pika bateko espazio huts bana utzi behar dela behar bezala irakurgarriak izan ahal izateko.

c) Gorputza

Hemen informazioa dator. Datuak 'Informazio multzo'-etan datorrela dio Barnhurst. Honela, taldeka datozen datu multzo hauek 'sarean' ordenatzen dira. [1999; 4] "...Adibidez, meteorologi mapek bi informazio multzo dakartzate. Alde batetik lekuak, maparen lerro eta mugekin indikatuta, eta bestetik tenperaturak edo aurikuspenak kolore edo ilunen bitartez adierazita...". Eta honelako muga ezartzen du Illinoisko Unibertsitateko irakasleak; koadro grafiko batek inoiz eduki dezake zazpi informazio multzo baino gehiago. Aldagai gehiago transmititu beharrean, ulertezina suertatuko baita irakurlearentzat.

d) Sarea edo 'malla'

Grafikoaren barruan lerro transbertsalek osatutako sarea dugu 'malla'. [BARNHURST, 1999; 4]. Beronek eskalak adierazten ditu koadro grafikoetan. 'Fiebre' motatako grafikoan agerikoa da oso, baina beste motatako infografikoetan zailagoa dugu nabaritzea. "...Batzutan es ikusi arren, sarea beti badago koadro grafikoetan...". Adibidez, tauletan zutabeak eta lerroak zatitzen dituzten marrak litzateke. Mapan eta diagrametan sarea ordea, eskala eta marrazkiaren perspektiban edo kartografian aurkitzen dugu. "...Izkutuak egon ala ez, sareek datu numerikoak kontrolatzen dituzte..." [1999; 5]. Hala ere, sarearen proportzio perfektuak finkatu ezinak direra onartzen du³³. Honek Tufteren testuingurutasunaren printzipioaren garrantzia gogoratzen garama³⁴. Infografikoa egiten duen kazetariak zein errebisatzen duen editoreak ere arreta ipini behar diote sare horrek informazioa exageratzen duen ala ez. "...Informazioa aldatzen baita sarea zeroan hasten ez denean, edota eskala salto egiten duenean edo unitate finko eta erregularrik ez dituenean..."[1999; 6]. Eraberean, zenbait irakurle sareak marra gehiegi daukanean arazoak izan ditzakeela gogoratzen digu.

e) Indikatzaileak

Informazioaren zati bakoitza indibiduatu eta seinalatu egiten dute indikatzaileek. Kevin G. Barnhurstek dionez, "...Berauen presentziarik gabe, datuak eta neurriak ezin daitezke ulertu..." [1999; 5]. Editoreak arreta ipini behar dizkie gramatikoki zuzenak diren ala ez baieztatzeko. "...Ondo kokatuta egon behar dira, argitasun eta erraztasunez irakurriak izan ahal izateko. Eskala indikatzaileak, adibidez, dagozkien datuekin ahalik eta hurbilen egon behar dira. Honela, irakurleak ez du grafikoa bisualki zeharkatu behar (...).

³² Valero Sancho, José Luis. La infografía de prensa. Revista Latina de Comunicación Social, 30. 2000eko ekaina.

³³ "...Zenbat milimetrot isladatzen dute hamar urte era fedegarrian? Ez dakigu..".

³⁴ [TUFTE. 2001; 77]

Batzutan hobe da indikatzaileak barren alboan kokatzea eskala erabili baino..." [1999; 5].

'Errotuluak' deitzen ditu Valero Sanchok kazetaritza infografikoan agertzen diren testu kutxak txikiak direnean –batzutan hitz bakarrekoak– irudiei laguntzen. "...Unitate ikoniko oinarritzkoen izenak ditugu, ohikoak mapetan; beharrezkoak dira marrazkietan bere identitatea finkatu eta anbiguetaterik geratzen ez direla ziurtatzeko..."

f) Legenda

Sánchez Valerok adierazten du nola askotan irakurlea ez dagoen ohituta halako sinbolo berri gogaikarri eta neketsu horiek irakurtzen, beraz ikonikoki espresatu ezin daitekeena legenda konplementarioen bidez azaldu behar da, bere esanahia argitzeko. "...Irakurketa ikoniko eta linguistikoak, lehen 'bisibilidadade' eduki behar dute hartzailearentzat inolako azalpen gehigarriaren beharrik gabe..."³⁵.

g) Iturria

Informazioaren jatorria indikatzen du iturriak. Koadroaren azken atalean egon daiteke tipografia txikagoan espazio gutxiago betetzeko, honela ez ditu testuak luzatzen

h) Kredituak

Profesionariak onartu egiten dute lanik onenak sinatu egiten direla, baina beste infografiko batzuetaz inork ez du nahi erantzutea; bai sinpleegiak direlako, baita infografiako profesionalen mailakoak kontsideratzen ez dituztelako. Honelaxe kontatzen du Valero Sanchok pertsonalki hainbat infografistarekin elkarrizketatu eta gero³⁶. Barnhurstek dio sinaduraren erabilera ez dela derrigorrezkoa egunkarietan [1999; 5]

2.3.5. -Infograma

José Manuel de Pablosek 'infograma' erabiltzen du adierazteko infografikoen barruan agertu daitezken zatiak, bere kabuz erabat ulergarriak eta egile ezberdinek sortuak izan daitezkeenak, guztiak batera infografikoa osatzen dute, unitate konplexuago bezala [1998; 3-4] "...Filme oso baten fotograma batekin gertatzen den bezala, hau da, unitate guztiak batuta zentzua ematen diotela konjuntoari ulertzen dugu infograma eta infografia...". Gonzalo Peltzerrek, ordea, bi hitzak sinonimo izango balira bezala erabiltzen ditu³⁷. Beste zenbait egilek ere biak aipatzerakoan hitz berbera erabiltzen dute –Julio Alonso, Elio Leturia, Carmen Riera eta Gonzalo Peltzer–. Abreu Sojok irakasleak berdintze horren kontra agertzen da: "...infografia bat osatzen duten unitate ikoniko-berbalak dira infogramak..." [2000a; 59] eta José Manuel de Pablosen argumentuak baieztatzen ditu.

³⁵ Valero Sancho, José Luis. La infografía de prensa. Revista Latina de Comunicación Social, 30. 2000eko ekaina.

³⁶ Valero Sancho, José Luis. La infografía de prensa. Revista Latina de Comunicación Social, 30. 2000eko ekaina.

³⁷ PELTZER, Gonzalo. Periodismo iconográfico. Ediciones Rialp. Madril. 1991.

2.3.6.- Estatistika grafikoak

Infografikoek datuak adierazten dituzte era grafikoan puntuak, marrak, koordinatuen sistemak, zenbakiak, sinboloak, hitzak, itzalak eta koloreen erabileraren bitartez. Paul Martin Lesteren hitzetan, infografiko guztiak bi motatan sailkatu daitezke; 'estatistikoak' eta 'ez estatistikoak'. Lehenengo errepresentazioek "datu kuantitatiboak eta enpirikoak aurkezten dituzte. Gainontzekoak, ordea, "oinarrizten dira informazio kualitatibo berbala zein bisualaren uztartze atsegingarrian" [2006; 186].

Abreu Sojo irakaslearen definizioan, estatistika grafikoak "...Edonolako datu numeriko zein estatistikoaren adierazpen kuantitatiboa dugu figura geometrikoen bitartez, zeinek ulermen hobeagoa permititzen duten...". Hala ere, irakasle Venezuelarraren ustez mapak, taulak eta grafiko estatistikoak –besteak beste– ez dira 'infografiak', 'antzeko figurak' bakarrik baizik. [2000a; 56-57]. Honela, Cebrián Herreros, Howard Finberg eta Bruce Itule, Dragnic, García, Lallana, Leturia, Rorik eta Peter Sullivanen iritzia kontra dihoala onartzen du. Bere postura honen aldekoak ordea aurkitzen du Marta Boterorena³⁸ zein Camps eta Pazos, baita De Pablosen sailkapena alde batetik mapak, taulak eta grafiko estatistikoetatik hitz egiten zuen, eta bestetik 'infografía por antonomasia' aipatu. Hiru hauekin batera, Gonzalo Peltzerek ere egiten zuen ezberdintzapen hau baita zenbait infografistek ere³⁹.

Abreu Sojok 'infografiak' eta 'antzeko figuren' arteko berdintasun batzu badaudela onartzen duen arren eta bere 'erabilera autonomoari' esker genero bezala tratatuak izateko parada badutela onartzen duen arren "...ekartzen duten informazioa gutxi izan ohi denez, ulergarria da gehienetan 'azpigenero' edo mezu nagusiaren osagarri bezala kontsideratuak izatea..." [2000a; 94]. Eta bien arteko ezberdintasunari nagusia azaltzerakoan bere 'funtzeko osagarrira' jotzen du; "alderdi ikonikoa". Hau da, infografietan "...marrazki figuratiboa 'oinarrizkoa' da gertakizunen esplikazioetan, 'antzeko figuretan' geometrikoa da, edo –analogikoa bada– bere funtzioa apaingarria edo estetikoa baino ez da, edota, gehienez, mezuaren ulertzean lagungarria. Eraberean, infografietan marrazkia erreferenteren antza hartzen du, gainontzeko figuretan –estatistika grafikoetan, kasu– ordea, abstrakzio gradu altua dauka...". Egile honek, beraz, bakarrik ulertzen du 'infografía' era ikonikoan kontatu daitezkeen mezuekin eta gainontzeko forma horiek –non abstrakzio bidez ideiak, kantitateak, datuak, lekuak etab. azaltzen diren– infografiarekiko 'antzekoak'. Geroago, sailkapen bat aurkezterakoan, 'grafiko' hitza bakarrik erabiliko du bigarren hauek aipatzeko.

a) Jatorriak

Kevin G. Barnhurstek azaltzen du nola Leonardo da Vinci bere koadernoetan lehenengoetariko koadro grafikoak burutu zituen. "...zenbaki eta puntuekin objektu baten erorketaren grafikoak egin zuen, espazio eta denboran..." [1999; 3].

Barnhurstek gogoratzen duenez, René Descartes filosofoak ekuazio matematikoak analizatzeko sistema bisuala garatu zuen. "...Bi lerrotan oinarritutako planu geometriko bat egin zuen, bata horizontala eta bestea bertikala, ardatz bakoitzak bere neurri sistemarekin..." [1999; 3]. Koordenada kartesianak jaio berriak ziren.

Zenbakiak adierazteko irudi ez-erreprestatibo, baizik eta abstraktuen erabilera nahiko berria dugu. Tufteren hitzetan harrigarria da, 1750-1800 arte grafiko estatistikoak

³⁸ Ikusi dugunez, Boterok literalki zioen "...Infografía ez da taulak eta grafikoak ikono zein marrazkitxoekin apaintzea...". Baina ez zuen esplizituki esaten infografikoak ez zirenik.

³⁹ Abreu Sojo irakasle Venezuelarrak 1995eko abuztuan Tomás Ondarra eta Mario Tascón Caracasen antolatutako mintegia aipatzen du 'Periodismo contemporáneo' titulupean Giza Komunikazio zenbait ikaslerentzat 'El Universal' egunkariaren egoitzan. Bertan 'infografía' zer 'ez' zen aipatzean, estatistika grafikoak, apaindutako taulak, ikono hutsak esaldi idatziekin zein ilustrazioak aipatzen zituzten [2000a; 56].

erabiliak ez izana, eta honen arrazoia beharrezkoak diren gaitasunak anitz izatean datza. Hamarkada horietan hasi ziren agertzen grafiko estatistikoak; luzeera eta areak kantitateak adierazteko; denbora-serieak; puntu hodeiak eta multibariablen adierazpena, hau da, matematiketan logaritmoak, koordinate kartesianak edota probabilitatearen kalkuluaren teoria agertu baino askoz beranduago.

Garai hartan William Playfairen lana (1759-1823) adierazgarria dugu. Ohiko zenbaki-taulen ordezkari bisual sistematikoak erabiltzen hasi zen. Berak hobetu eta garatu zuen infografikoen oinarriak. Barnhurst irakaslearen hitzetan, Playfairek Descartes filosofoaren 'sare-begia' erabili zuen lehenengoa izan zen. Koordenada kartesianak finantziaketa munduan aplikatzen ziren lehenengo aldia zen [1999; 4]. Berritasun hori zela eta, ohituta ez zegoen publikoak ulertu ahal zezan ardatzen esanahia espreski adierazi behar izan zuen. Behean idatzi zuen: "...oinarrian dagoen marra urtetan banatuta dago eta eskuinekoa ehun mila libratan..."

Europa, eta batez ere Frantzia XIX mendean zehar erabiliak izan ziren arren, Estatu Batuetan bere presentzia ez zen hedatu XX mendearen hasiera arte. Barnhurst irakaslearen aburuz [1999; 4], 'Depresio Handi'-aren ostean, ekonomiaren inguruko informazioaren interesa handitu zenean iparamerikan.

'USA Today' Estatu Batuetako engukariak ere eragina izan zuen estatistika grafikoen zabalkuntzean Barnhurst irakaslearen hitzetan⁴⁰.

b) Funtzioa

Egungo grafikoek zenbaki taulak ordezkatu baino funtzio konplexuagoa betetzen dituzte. Gaur informazio kuantitatiboari buruz arrazoitzeko tresna erabilgarria dugu. Tufteren hitzetan, askotan, biderik eraginkorrena deskribatu, esploratu eta laburbiltzeko zenbaki multzoetan –baita luzeenetan ere– izkutatu egiten zaigun informazioa infografikoei begiratzea da.

Hauek dira infografikoek bete beharko lituzketen bederatzi funtzioak, Tufteren ustez:

- 1- Datuak ezagutaraztea.
- 2- Ikuslearen arreta informazioaren substantzia eta mamiarantz bideratzea, diseinua, teknika edota erabilitako metodologiarantz baino.
- 3- Datuak esan beharra dutenaren distortsioa ekiditzea
- 4- Zenbaki asko espazio txiki batean presentatzea
- 5- Datu zerrenda erraldoiei zentzua ematea
- 6- Datuen zati ezberdinak konparatzera bultzatu begia
- 7- Datuak azal ezberdinetan agertaraztea, ikuspegi zabal batetatik, zehetasun maila arte
- 8- Helburu arrazoigarria eta argiari erantzutea; deskripzioa, ikerketa, tabulazioa zein dekorazioa
- 9- Ondo integratua egotea datuen eta estatistiken deskripzio berbalarekin

Jordi Clapers infografistaren esanetan, grafikoa ona izango da honako hiru ezaugarriak baditu⁴¹: 1.- Autonomia; hau da, artikuluan esaten denarekin erredundantea ez izatea edo informazioa errepikatzea. Ikuspegi ezberdin bat bilatu behar du. 2.- Zintzoa ere izan behar du: mezua ez hutsaldu, ez inbentatu datuak espazio bete nahian edota informazioen hutsuneak disimulatzeko. 3.- Argia: grafikoak lagundu behar dio irakurleari notizia ulertzen. Irakurketa errazekoa izan behar du, osotasunezko ikuspegia eman behar du eta gaiari ondo lotu.

⁴⁰ Editoreen artean infografiko hauek ikusmin hain handia sortu zuten, ezen inkesta baten emaitzen arabera berauen ustez "...etorkizunean argazki baino infografiko gehiago publikatuko lirake EE BBetako egunkarietan..." [1999; 4].

⁴¹ Clapers, Jordi. Los gráficos, desde fuera de la redacción. Revista Latina de Comunicación Social, 9. 1998ko iraila.

Barnhurstek oso hitz gutxitan adierazten du nolakoak diren koadro grafiko onak; "sinpleak dira" [1999: 7].

Valero Sancho irakasleak beste baldintza bat bete behar dutela gehitzen du [2000b: 5]: 'Konkordantzia', gogoratzeko infografikoen barneko elementu eta mamiaren arteko koherentzia egon behar izateaz gain, testu nagusiarekin ere mantendu behar dela. Grafikoak ezin du kontraesanetan erori erreportai idatziarekin.

Barnhursten ustez [1998; 6], kazetariak abilitadea badauka albo batean 'ekipaje astun'⁴² hori uzteko, taula edo koadro grafikoetan adierazita, libertadea izango du bere ahalegina kontzentratzeko zenbaki eta dau horien esanahian, lerro asko aurreztuz. "...Xehetasunetan galtzea ekiditzen du era horretan...". Eraberean, kazetari gehienok estatistikekin arazoak dituztela dio [1999; 1] berau "...pentsatzeko modu ezberdin bat delako, diskurtso berbaletik at dagoena...".

Julio Alonso infografistak bere harridura azaltzen du ekonomiaren inguruko grafikoak eskaera gutxi izaten zutela agentzian kontaktzen duenean. Bere esanetan, bakarrik gai ez berezituak edo interes oso orokorrak ikutzen zutenean lortzen zuten arrakasta; Kontsumorako Prezioen Indizea edota Langabeziaren ingurukoa, adibidez⁴³.

Holmesek dio estatistikek ez direla "...aspergarriak, beldurgarriak baizik (...). Infografistaren misioa ulermen hori erraztea da ilustratutako metaforen bitartez irakurlea erakartzeko eta bildur hori galduarazteko..."⁴⁴.

c) Estatistika grafiko motak

Peltzer [1991; 130-133] eta Leturiaren sailkapenari jarraituz [1998; 3-4] bost motatan sailkatu daitezke; linealak, lerrozuzenekoak, tartakoak, barrak eta polarrak.

Linealak edo Fiebreak. Marra-grafiko baten definizio teknikoa "lerrozuzen koordinatuen grafiko da" [LESTER 2006; 187]. Barnhurst irakasleak indikatzen duenez [1999; 4], Medikuntzan gaixoen gorputzaren tenperaturaren eboluzioa indikatzen erabilitako eboluzio marretatik datozkie izena hauei⁴⁵. "...Zenbakien mugimendua denboran zehar indikatzen du...". Paul Martin Lester-ek adierazten du estatistika grafiko hauek eta taulak Ekonomi eta Kirol ataletan bakarrik erabiltzen zirela 'USA Today' agertu zen arte [2006; 186]. Ingeleseko izena mota honetako infografikoentzat 'charts' izan arren, batzutan ere 'graphs' bezala ezagunak dira. Honek nahasmenera eramanez dezake batzutan. Fiebreak asmatu ziren "...informazio numerikoa era labur eta ulergarrian adierazteko, baita datuetako tendentziak erakusteko irakurlea aspertzen ez zuen modu baten..." [LESTER 2006; 187]. Abreu Sojoren ustez estatistiken errepresentazio ikonografikorako gehien erabilitako grafiko mota dugu honako hau [2000a; 96].

Tartak. Barnhurst irakaslearen hitzetan, Playfairek inbentatu zuen zirkuluko grafikoak, non biribilaren areak totala indikatzen duen, eta zatika banatutako zonaldeak, proportzio ezberdinak. "...Hauek 'gazta' edo 'tarta' grafikoak izena jasotzen dute portziotan banatuta agertzen direlako..." [199;4]. Lesteren aburuz, infografistek grafiko mota hau ekiditzeko joera dute, oso eragingarriak suertatzen ez duelako, batzutan adierazi beharreko informazio multzoa handiegia izateagatik, bestetan nahasgarriak suertatu daitezkeelako [2006; 187]. Dibisio gehiegi edota oso txikiekin irakurgaitzak ditugu tartak, eta Lesterek, jarraian, honako erregela

⁴² GARCÍA, Marioren hitzetan [1989]

⁴³ Alonso, Julio: Gráfica. El trabajo en una agencia de prensa especializada en infográficos. Revista Latina de Comunicación Social, 8. 1998ko abuztua.

⁴⁴ Holmes, Nigel, "Los infográficos según Nigel Holmes", Deadline Mac N-en; . 4, Society of Newspaper Design, Espainiako Atala. Nafarroako Unibertsitateko Informazioko Fakultatea, 1992, martxoa.

⁴⁵ Óscar Goñi infografistak 'sierrak' hitza erabiltzen zuen 1992an eboluzioak deitzeko [1998; 5].

oinarrizko hauek aipatzen ditu. Gehienez zazpi zati eduki behar du (onena, bost edo gutxiago litzateke) eta txikiena %1 baino gutxiago ezin izan. Zati guztien koloreak kontrastatuak izan behar dira eta guztiak ondo etiketatuak izateaz gain, ertzak ondo definituta eta zehaztasunez egina izan behar dira. Tridimentsionaltasun efektuak zein aldaketak bere forman zehaztasuna kendu diezaioke tartari.

Barrak. Playfairek grafiko mota hau ere erabili zuen arren, berak ez zuen inbentatu [BARNHURST. 1999; 4]

Taulak. Zerrenda moduko Gurutzatutako zutabe eta lerroen bitartez aurkezten dituzte datuek taulek Hauek erdi testu erdi grafikoak kontsideratuak dira [LESTER. 2006; 189]. Oso erabilgarriak dira datuak konparaezinak direnean [BARNHURST; 4]. Abreu Sojo, ordea, ez ditu kontsideratzen taulak grafiko estatistikorik direnik honako arrazionamendu hau jarraituz: "...Nahiz eta [taulek] informazio estatistikoa bai ekarri, ez dute hau egiten zenbakiak irudiez aldatzen edo gehitzen..." [2000a]. Beste era batean, mezu linguistikoak diren zenbakietaz aparte ez dute abstrakzio bisual baten bitartez ezer azalten.

Mapa estatistikoak. Kokapen geografikoa eta bestelako informazioa uztartzen dute mapa estatistikoek. Lesteren hitzetan, egun sortzen diren grafikorik esanguratsuenetarikoak. "..Irakurle arrunt batek bat-batean analizatu ditzekeen ehundaka datu erakusten dute..." [2006; 188]. Datu horiek "...koloretan, grisetan edota bestelako ikurren bitartez kokatzen dira. Ezagunenak eguraldikoak ditugu, baina edonolako informazioa irudikatu daiteke grafiko hauen bitartez..." [BARNHURST. 1999; 4]. Diagramatzean erabilitako marrazki teknikak eta datu kuantitatiboak uztartu egiten dute istorio konplexu bat era sinple batean kontatzeko [LESTER. 2006; 188]. Honen adibide klasikoak Dr. Snow eta Charles Minardek eginikoak aipatzen ditu Lesterek ere.

Diagramak. Nola ikusten den gauza bat erakusten digute diagraemek marrazki baten bitartez. Adibidez, objektu baten kanpoko itxura zein -margoztutako lehiu edo 'sekzio'-en bitartez- barnekoa ere. Hauen artean, Barnhurstek ezberdintzen ditu 'eztanda ikuspegiak', non objektuaren zati edo zehetasun ezberdinak alboan handitu egiten diren hobe ikusteko, baita 'animazio' diagrama, zeinek prozesu baten urratsak esplikatzeko dituen [1999; 4]⁴⁶. Lesteren esanetan "...Infografiko izugarri eta artistikoki hobe burututakoetariko batzuek diagramen erabilera dakarte..." [2006; 192].

Formato sailkagaitzak

'Miscellaneous formats' errotulupean Lesterek sailkatzen ditu egunkarien artista grafikoek ekoizten dituzten bestelako formato grafikoak. Haien artean epaiketen marrazkiak, telebistako programazio taula, egutegiak, ikono eta logotipoak, organigramak, denbora-lineak eta ilustrazioak [LESTER. 2006; 194].

d) Datu kutxak

Egile askok 'fact box' hauek ez aipatu arren, zenbait teorikok istorio nagusiaren mamia paragrafo, esaldi zein hitz zerrenda ordenatuen bitartez laburbiltzen edota informazio gehigarria eskaintzen duten testu kutxa independienteak infografikoak kontsideratzen dituzte ere. "...Datu-kutxa batek istorio nagusia laburbiltzen duen ebazpen multzo batez osatua dago..." [LESTER. 2006; 188] Grafiko mota hauek irakurlearen arreta deitzen dute era grafiko eta entretenituan. Lesteren hitzetan, kazetaritza idatziaren 'zatidura' gogoratzen dute [2006; 188] "...Bigarren Mundu Gerran zehar agertu ziren lehenengo aldiz. Asia eta Europako gerra-toki fronteei informazio asko zortzen zuten eta datu kutxa hauek ezinbestekoak bihurtu egin ziren..."

⁴⁶ Diagrama 'teknikoak' ere aipatzen ditu, non bere esanetan "hondamendien" inguruko informazioa azaltzen den. Adib. istripu baten arrazoiak, eraikin baten eraitsia, etab.

e) Mapa ez estatistikoak

Garai batean denbora asko zeraman mapen marrazteak gaur, konputagailu eta komunikabide teknologikoen bitartez minututan egin daiteke.

Bi motatako mapa ez estatistikoak⁴⁷ ezberdintzen ditu Lesterek; kokatzaileak eta esplikatzaileak [2006; 190].

Mapa **kokatzaileak** ezagutarazi nahi den kokapen fisiko bat jadanik ezagutzen direnekin erreferenziatuz funtzionatzen dute [BARNHURST. 1999; 4]. Paul Martin Lesteren aburuz, Gerra garaietan Estatu Batuetako egunkari eta telebista nagusietan hainbat mapa kokatzaile agertzeko arrazoia amerikarren geografi ezaguera faltan aurkitu daiteke, eta publikoari atzerriko kokapenei buruz 'hezitu' beharra zaio [2006; 190].

Abreu Sojok bere 'antzeko figurak' aipatzean, sailkapen bat sortzen ere saiatzen da, eta 'infografia' oso ez diren elementu hauek honako atal hauetan zatitzen ditu, 'grafiko' izenpean; 1) estatistika grafikoak; 2) mapak; 3) sareak; 4) taulak eta; 5) datu-kutxak.

⁴⁷ Lesterek deitzen ditu 'non-data map', estatistikoekin ezberdintzeko [2006; 190].

2.3.7.- Arreta deitzeko gaitasuna

'USA Today' egunkari amerikarraren argazki eta diseinu zuzendariaren, Richard Curtisen, arabera, publikoak "...lehen grafikoak irakurtzen ditu; batzutan irakurtzen duen bakararra da..." [Leturia, 1998: 1].

Michel Gafrék honela adierazten du nola gaurko irakurleak eskatzen duen komunikazio zuzen eta dinamiko hori: "...Testu 'sakrosantua'-k bakarrik parte bat komunikatu dezake, gure ingurunearen aspektu bat. Egun, eskola liburuak irudiez beteta daude, grafikoetaz, kronologietaz, koadroetaz. Ondoren, irakurle belaunaldi berri horiei ezin diegu informazio gehiagorik transmititu tradizio idatzizko era linealez; sarrera, garapena, ondorioa. Gure irakurleek ez dute denbora ezta patzientziarik metodo honi jarraituz. Orduan, gertakizun batetatik hasita, bere inplikazio guztiak bilatu behar ditugu eta testua zenbait unitatean segmentatu, irudiak eta grafikoak gehitu konjuntio osoa eskaintzeko, honela irakurleak orrialdean bilatu eta aukeraketa azkarrak egin ahal ditzala..." [1998: 2].

Leticia Borrasantzat [2000; 3] komunikabide inprimatuek irakurle gehiago lortzeko, zein gainontzekoekin konpetitzeko erabiltzen ari diren estrategia berrienetarikoa dugu mezua irudiaren ikuspegitik fokatzea. Zentzu honetan, Lesterek salatu egiten du nola infografikoaren funtzio nagusia arreta lortzea dela sinistek datuekin aurkezpen erroreak barkatzera eramaten duen zenbait infografista [2006; 194].

Eduardo Pérez 'Coper' adierazten du nola Alejandro Malofiejen megagrafikoek 'Tiempo Argentino' egunkariko irakurleek "...minutu batzu dedikatzen zioten...", bera Buenos Airesen pertsonalki konprobatu ahal zuenez [1999a; 3]. Eta Barnhurst irakasleak grafikoaren ilustrazioari buruz honako hau dio: "...Ilustrazio onak energia gehitzen dio koadroari, orrialdean hiru dimentsioko sentzazioa sortzen du eta irakurlearen arreta deitzen du..." [1999; 7].

Internet bidezko komunikabideen irakurketari dagokionez, kontrako ondoria ateratzen zen Normah Mustaffak zuzendutako ikerketatik [MUSTAFA, Norman. 2009]. Bertan 24 ikasleren joera analizatu zen pantailan mezu ezberdinez osatutako gerraren inguruko berriak kontsumitzen zuten ehinean. Argazki eta infografikoarekin zein elementu hauek gabe burutu zen esperimendua eta egileek ezin zuten probatu berriaren kokapenak eragina zeukan irakurketa joeran, ezta aipatu bi elementu horien presentzia ala falta⁴⁸.

Kevin G. Barnhurst irakasleak grafikoaren inpaktu bisualari tituluaren hitzak laguntzen diotela dio. Berba astingarriek indarra gehitzen diote grafikoari. Hitz zein ilustrazio sendoek tinta gehitzen diote koadroari eta horrek ere laguntzen du deigarri izaten [1999;7].

Egunkariaren orrialdearen testu zutabeen artean infografikoa bisualki galdu liteke. Hori ekiditzeko Barnhurstek ematen duen aholkua gutxienez grafikoaren arearen herenak tintaz beteta egotea. "...Gutxiago erabiltzen badute, tipografiaren 'ozeanuan' galdu egiten dira..." [1999; 6].

⁴⁸ Esperimendua zeukan xedea giza intereseko argazkiek nola eragiten zuten analizatzea zen nagusiki. Hala ere, fotografiarekin batera informazioko grafikoak ere erabili egin zituzten, eta beronen influentziarik ez zela somatu ondorioztatzen dute egileek.

2.3.8.- Ilustrazioarekiko erlazioa

Ilustrazioaren funtzioa dotoretzea da, ez informatzea, nahiz eta fondo bezala ilustrazio bat erabiltzen duen informazio testual baten testuinguruan askotan bi hitzak konfunditzen diren⁴⁹. Funtzio ezberdin hori egozten diote nagusiki egileek.

Zentzu honetan, agian ebazpenik esanguratsuena Kevin G. Barnhurstena da, zera baieztatzen duenean "...Datuak hain aspergarri edo hutsalak badira ezen ilustrazioa behar duten irakurlearen arreta deitu ahal izateko, agian ez lirateke publikatuak izan behar egunkarian..." [1999; 7]. Horregatik estetiko baina, kazetari irizpidea da inportanteena ilustrazioaren erabileraren inguruan.

Valero Sancho irakasleak behin eta berriz kazetaritza infografikoen funtzio informatiboa eta 'erabilgarritasuna'-ren printzipioa azpimarratu arren, osagai marraztuei buruz zera dio; "...sentzazio estetiko edota osagarri artistiko horiek (nahiz eta profesionariak gutxietsi, ez beharrezkotzat jotzen baitute) ez dauzkaten 'ere' infografikoek kalitate maila handiak lortu 'ditzake'..." [2000b; 7].

Michel Graféren ustez, komunikatu beharreko informazioa egunkari batek hiru hizkuntz mota dauzka diagramazio armoniosu eta dinamikoan; testua, argazkia eta infografia [1998; 1].

Leticia Borrasek infografikoen mamiei buruzko analisa beteta [2000; 4], honako lau ondorio ateratzen ditu irudiaren paperari buruz: 1.-Infografikoek testua zein irudia daukate, eta bi elementu hauek integratuta daude. 2.- Biek neurri berberan konbinatzen dira. Bata bestearen gainean gailentasunik edukitzekotan, irudia izan ohi da nagusi. 3.- Irudiak beti funtzio informatiboa betetzen du. 4.- Grafikoki infografiak diseinu autonomia dauka orrialdearen barruan.

Ilustrazio bat ez da berez informatiboa, gogoratzen digu Óscar Goñi, nahiz eta infografiagileak "...noizean bein ilustrazioak marrazten ditugun arren..." [1998; 10]. Zentzu berean, Barnhurst irakasleak adierazten du nola batzutan estatistikako grafikoa 'birpizteko' grafistak ilustrazio bat sartzen du. "...Hau ondo dago, baina arriskuak ere dakartza. Batzutan informazioa dotoretze nahian tinta eta datuen arteko erlazioa aldatzen da..." [1999; 5]. Geroago esaten du ere "...ondo diseinatutako grafikoa ez du ilustraziorik behar, baina eduki dezake. (...) Editoreak ekidin behar du ilustrazioak informazioarekin topo egitea...". Bere ustez ilustrazio onek ez dute irakurketa oztopatzen, lagundu baizik.

Infografia eta ilustraziogintzaren arteko parekotasuna nabarmendu nahi du Eduardo Pérez infografiagileak, hala ere lortzen duen konbergentzia puntua oso abstraktua dela esan daiteke: "...Ilustrazioa eta infografiak puntu bateragarria badute. Ontziaren tamaina albo batera utzi eta kalitateari ematen diote lehentasuna..." [1999a; 3].

Barnhurst irakasleak kritikatzeko dituzten ilustrazio handiko grafikoen non informazioa 'ito' eta txikitu egiten den [1999; 7] era honetaz espazioa alferrik galtzen. Eraberean, zentimetro bakoitzaren probetxuz; "...Zenbait koadro grafikok espazio gehiegi erabiltzen dute informazio gutxi aurkezteko. Egunkariko elementu guztiak efizienteak izan behar dira, infografikoak barne...". Eta jarraian honako oreka araua ematen du: "...koadroaren barruan informazioak gutxi gora behera espazioaren erdia bete behar du...". Bereziki berrietako orrialdeetan, non, bere ustez, ilustrazioari dedikatutakoa gutxienezkoa izan behar den.

Sancho Valerok gogoratzen duen bezala, infografistei argazkiak sartzea grafikoetan gutxi gustatzen zaiela nabaritzen da [2000a; 3] baina askotan elementu ikonikorik onena dira,

⁴⁹ Valero Sancho, José Luis. La infografía de prensa. Revista Latina de Comunicación Social, 30. 2000eko ekaina.

informazioari ondo lotzen diotenean. Hala ere, gehitzen du, "...infografiak ez dira derrigorrez hobe argazkiak sartuta daukatenean..."

2.4.- Infografikoa genero bezala

Kazetaritza generoen teoriaren baino lehenago jaio zen 'genero' kontzeptuaren definizioa literatur teoriatik. Honela, René Wellek eta Austin Warren⁵⁰ ulertzen dute berau "...kontzeptu araugarri bezala, azpiegitura eta konbentzio bezala, erreala eta efektiboa, testu konkretuak une konkretu batean moldatu egiten baitu...". Martínez Albertosek defendatzen duenez, literatur generoekin gertatzen den bezala, Kazetaritzako ikerlariak generoen esistentzia agertartazi dute⁵¹. Halako zerbait gehitzen du ere Pilar Diezhandinok kazetaritza generoei buruz "...idazleari idazten eta irakurleari irakurtzen laguntzen dietela..." esaten duenena⁵².

60. hamarkadan hasi zen agertzen 'kazetaritza generoaren kontzeptua' [ABREU SOJO. 2000a; 36]. Handik hona hainbat egilek jorratua izan da. Honen adibidea José Javier Muñoz dugu, zeinentzat kazetaritza generoak dira "...hizkuntz ekoizpen modalitate ezberdinak, zeinek bere egitura egokitu egiten duten giza komunikabideen bidez hedatzen diren iritzi eta berri ezberdinetara..."⁵³. Era berean Martínez Albertosek honela definitzen ditu "...ekoizpen literarioaren modalitate ezberdinak, edozein komunikabide kolektibo bitartez hedatua izateko helburuarekin..."⁵⁴. Bestaldetik, Lorenzo Gomisek denboraren poderioz pixkanaka sortuz joan direla azpimarratzen du zera esatean: "...Hedabide ezberdinetan egindako lan kolektiboaren esperientziaren sedimentazioa isladatzen dute generoek. Mezuaren hartzailearaino era azkar eta seguruz heltzeko gaitasuna, eta menperatze tekniko horrek bereiztu egiten du kazetari profesionala dena eta ez dena..."⁵⁵. Bere ustez, hain erabilgarriak dira kazetaritza generoek ezen lanbidearen pedagogiarako ezinbestekotzat jotzen dituen. Baina Leticia Borrasedek azaltzen du [1998; 3] oraindik ez dagoela adostasunik egileen artean informazioa aurkezteko formak nola sailkatzearen arabera. Abreu Sojoren arabera, postmodernitateak generoen garbitasunaren arazoarekin bukatu da, "...gaur egun onartzen baita kategoria ezberdinak nahasi egin daitezkeela, baina hau ere erlatiboki ulertu behar da..." bere ustez nahiz eta forma hibridoak agertu, berauen esentzia mantentzen baita [2000a; 11]⁵⁶.

Josep María Casasúsentzat Kazetaritzaren produkzio literarioa sistematizatzeko laguntzen du kazetaritza generoen teoriak, metodo induktiboaren bitartez diseinatutako prototipoen bitartez. Bere ustez, teoria honen fundamentazio teorikorako kazetaritza praktikaren "proiektzio analitikoa eta praktikoa" bezala ulertu behar da. Praktika horren dimentsio objektiboa eta subjektiboa uztartuz, lau ataletan banatutako generoak presentatzen dizkigu; informatiboak, interpretatiboak, argumentatiboak eta instrumentalak⁵⁷. Eraberean, erabilgarriak dira profesioa irakasterakoan, baina, horretaz gain, idazkera ereduak osatzen dituzte, zeinen betebeharrak nagusia publikoaren beharizan informatiboak asetzear datzan.

50 Wellek, Rene; Warren, Austin (1982). 'Teoría Literaria'. Madrid: Gredos. 271 orr.

51 MARTÍNEZ ALBERTOS, José Luis (1983). 'Curso general de redacción periodística'. Bartzelona: Mitre, 272 orr.

52 Diezhandino, Pilar (1994). 'El quehacer informativo'. Bilbao: Euskal Herriko Unibertsitateko argitalpen zerbitzua, 80 orr.

53 MUÑOZ, José Javier (1994). 'Redacción periodística. Teoría y Práctica'. Salamanca: Librería Cervantes, 121 orr.

54 MARTÍNEZ ALBERTOS, José Luis (1983). 'Curso general de redacción periodística'. Barcelona: Mitre, 36 orr.

55 GOMIS, Lorenzo (1997). 'Teoría del Periodismo. Cómo se forma el presente'. Bartzelona: Paidós Comunicación. 44 orr.

56 Abreu Sojok 'El Nacional' egunkariko 'Feriado' gehigarriaren kasua aipatzen du. Joera apurtzaile eta lotsagaberekin jaioa, itxura tradizionalera bueltatu behar zuen biziraun ahal izateko [2000a; 37].

57 CASASÚS, Josep María; Núñez Ladeveze, Luis (1991). 'Estilo y géneros periodísticos'. Bartzelona: Ariel, 91-92 orr.

Lorenzo Gomis en aburuz, literatur generoak baino askoz beharrezkoagoak dira kazetaritza generoak. Arrazoa mezuaren egile anitz egotean datzan. Literaturan egile bakarra daukagun arren, Kazetaritzan beti produktua hainbat subjektoren lanaz osatua da. Irakurleak erosi edo konsumitzen duen produktuak ekoizpen kolektiboa izanda, e-estruktura estandarizatuagoen beharra sortzen da. Gainera, ezin ahantz daiteke Literaturak errealitatea imitatu baino egiten ez duen bitartean, Kazetaritzak ordea, gertakizun errealak jakinarazten ditu, eta horrek behartzen du genero horiek formula estuagoz definitzen eta hobe mugatzen⁵⁸.

Zenbait autorek genero osoa bezala kontsideratzen dute infografia. Abreu Sojo doktoreak honako konpilazio hau aurkezten digu⁵⁹; Julio Alonso⁶⁰, Marta Botero⁶¹, José de Pablos⁶² baita Casasús eta Ladevéze⁶³, Adriana Romero⁶⁴ eta Mario Tascón zein Tomás Ondarra onartzen dute infografia kazetaritza genero badela. Guztiok ere bere 'berritasuna' aipatzen dute.

Julio Alonsorentzat genero berri honetan informazioa da nagusi, gainontzeko elementuen gaitetik, hau da; egiatasuna, zehaztasuna, adierazteko argitasuna eta ejekutatzeko azkartasunak agintzen dute. Eraberean, azpimarratzen du nola informazio hori adierazten den irudiez osatutako hizkuntza bisual batean. Beronen sintaxia formek, bolumenek, planuen interposizioak, ikuspegi anguluak, baita ilun-argiek zein koloreek osatua dago. Bukatzeko, guztiau exekutatu, manipulatu, metatu eta erreproduzitzeko ordenagailuak erabiltzen direla aipatzen du.

Botero andrearentzat, bere alde, infografia genero berria da ere, baina bere jatorria honako bi aspektutan oinarritzen ditu: alde batetik aurrerakada tekniko eta informatikoak, eta, bestetik, egunkariak bere orrialdeak bisualago bihurtzeko izan duten beharizana, irakurleen nahiei egokitu ahal izateko. Biek bultzatu egin dute genero berri honen agerpena. Bere hitzetan, asmoa ez da bakarrik datuak eta taulak apaindu edo dotoretzea marrazki huts edota ikonotxoekin, baizik eta informazio batzuk era grafikoa adierazi, zeren era idatzian egitea oso konplikatu eta aspergarria izan bailitzateke. Adibidez, Polizi-pertsekuzio bat, hegazkin, itsatzontzi zein errepide istripu bat, edota gertakizun sekuentzia bat. Eraberean, infografia erabili daiteke, Boteroren ustez informazioa testuinguratzeko, pertsonaiak kokatzeko, itxura geografikoa, edota ekileen arteko erlazioa. Bere hitzetan: infografiak "...gertakizunaren emozioa -zehatza-transmititu behar dio irakurleari, akzioaren lekua deskribatu, datuak eta informazio garrantzitsua ekarri testuingurua ulertzeko eta eskenan gertatutakoa birbizi...".

Casasús eta Ladevézek ere kazetaritza genero berrizat jotzen dute infografia, zein honako elementu hauek osatuta dago: argazki, informatika, diseinu eta mamietako "soluzioak". Guzti honen emaitza mezu informatibo argiagoa, irakurgarriagoa, azkarragoa, politagoa, zehatzagoa, osoagoa eta, "noski", eraginkorragoa.

58 GOMIS, Lorenzo. 'Teoría del Periodismo. Cómo se forma el presente'. Bartzelona, 1997: Paidós Comunicación. 76 orr.

59 Abreu Sojo, Carlos (2002b): ¿Es la infografía un género periodístico? - Revista Latina de Comunicación Social, 51

60 ALONSO, Julio. Gráfica. El trabajo en un agencia de prensa especializada en infográficos. Revista Latina de Comunicación Social. 8. 1998ko abuztua.

61 MARTÍNEZ, Maigualida (konpilatzailea). Seminario de Periodismo Contemporáneo. 1995ko abuztuko 16tik 25era. Andrés Mata Fundazioa, 1998. Caracas, 33 orr.

62 DE PABLOS, José. La infografía, el nuevo género periodístico en Estudios sobre tecnología de la información. Editorial Sanz y Torres. Madril, 1991. 159-160 orr.

63 CASASÚS, Josep María y Luis Núñez Ladevéze. Estilo y géneros periodísticos. Ariel Comunicación. Barcelona, 1991. 33 orr.

64 ROMERO, Adriana. La infografía, como nuevo género periodístico. Andrés Bello Unibertsitate Katolikoa. Humanitateen eta Hezkuntza Fakultatea. Giza Komunikazio Eskola. Caracas, 1996

De Pablos katedradunarentzat ere kazetaritza genero berria dugu infografia. "... informazioa espresatzeko azkenengoa eta berriena...", zein sendoki oinarritu daiteke informatika teknologian, baina ez bakarrik, betiere artisauro-lana bezala gorputzu bailiteke.

Adriana Romerok ere infografia kazetaritza genero berri bezala ikusten duelako, zera esaten digunean: "...marrazkiak, ilustrazioak edota argazkien konbinaketan datza genero berri hau, gertakizun batzuekin, eta era honetaz irakurlearen arreta deitu zein informatu egiten du aldi berean...".

Beste egile batzuek, ordea, ez diote ezaugarri hori ematen. Infografiaz hitz egitean 'genero' kontzeptua aipatzen ez dutenen artean honako zortzi hauek biltzen ditu Abreu Sojo doktoreak⁶⁵: Raymond Colle, Sibila Camps eta Luis Pazos, Mariano Cebrián Herreros, Jordi Clapers, Olga Dragnic, Félix Pacho Reyero, Gonzalo Peltzer eta Carmen Riera. Bakoitzak ezaugarri ezberdinak azpimarratzen ditu infografiaren inguruan, baina ez 'genero' izatearena.

Honela, Raymond Collek esaten duenez⁶⁶, infografia diseinu grafikoaren disziplina litzateke, hitz-ikoniko unitate informatiboak sorzeko zuzendua, 'infografikoak' hain zuzen. Sibila Campsek eta Luis Pazok infografikoei buruz hitz egitean 'ilustrazioak' direla aipatzen dute⁶⁷ edo "ilustrazioen sortak" testuan kontatzen den gertakaria edo egoera esplikatzen dutenek, guztiau datu informatibo edo erreferentzialekin osatua. Campsek eta Pazosek ezberdintzen dituzte infografiak eta mapak, planuak eta grafikoak, baina ez dute azaltzen zertan datzan alde hori. Bestaldetik, Mariano Cebrián Herrerosentzat kazetaritzako infografiak kantitateen konparazioa errepresentatzeko zutabe bertikal zein horizontalen bitartez errekurtsor multzo bat aportatzen du, baita portzentaiak errepresentatzeko sekzioen bitartez, edota bolumen ezberdinekin zifrak azaldu. Datu estadistiko edo kuantifikagarriak bisualizatzeko errekurtsorik onena dela gehitzen du, baita errealitate geografikoak, mapa politikoak edo atmosferikoekin. Abreu Sojok ere zerrenda honetan sartzen du Jordi Clapers 'El País' egunkariko infografistak, infografia definitzerakoan ez baitu aipatzen generoa denik. Bestaldetik, Olga Dragnicek, bere Giza Komunikazioko Hiztegian⁶⁸ definitzen du infografia konputagailu bitartez egindako prozedimenduari, grafikoak, mapak, datu estatistikoak, geografi eta hiri kokapena, baita bestelako aspektu informatiboak, bisualki errepresentatua izan daitezkeela. Bere ustez informazio grafikoa ez da bakarrik irudimenezko marrazkiak edota ikuspegi alaieko asuntua. Aitzitik, kazetaritzaren ikuspegitik justifikagarria izan behar den komunikazio forma bat, eta, gutxienez, hain ulergarri, serio eta informazio-eramailea, idatzitako testua bezala. Eraberean, irudiekin batera hitzekin ere komunikatu behar duela aipatzen du. Antzeko deskribapenak egiten dituzte Félix Pacho Reyero, Gonzalo Peltzer eta Carmen Riera egileak.

Abreu Sojok honako lau ezaugarri hauek aurkezten ditu infografia genero osoa dela arrazoitzeko; 1.-Egitura argi definituta 2.-Xede bat 3.-Lan ezberdinetan errepikatzen diren marka formalak 4.-Berez zentzu osoa badauka ere.

- 1- Egitura osatzen duten elementu bezala Elio Leturiak aipatutakoak gogoratzen ditu; Titulua, testua, gorputza, iturria eta kreditua.
- 2- Xedeari buruz, argi dago egile honen ustez; irakurleari informatzea. Gertatutakoaren bost 'W'-ei erantzutea.
- 3- Hainbat lanetan zehar errepikatuz joan diren zenbait marka esanguratsuk genero bezala egonkortasuna eman diote infografiari. Aipatu titularra, testua, gorputza,

⁶⁵ (op. cit.)

⁶⁶ COLLE; Raymond. Estilos o tipos de infógrafos. Revista Latina de Comunicación Social. 12 zb. 1998ko abendua. La Laguna. Tenerife

⁶⁷ CAMPS, Sibila eta Luis Pazos. Así se hace periodismo. Manual práctico del periodista gráfico. Paidós. Estudios de Comunicación. Buenos Aires,artzelona eta Mexico.

⁶⁸ DRAGNIC, Ola. Diccionario de comunicación social. Editorial Panapo. Caracas, 1994.

iturria eta kredituaz aparte, gorputza horretan sartutako irudiak aurkitzen ditugu, berauek irudi dokumentalek osatuta egon ohi dira. Informazio idatziaren osagarri bezala erabilia izateak infografia genero baino 'teknika' dela argumentuaren kontra Abreu Sojok zera erantzuten du: "...Hasteko, beste zenbait forma espresiboek erabiliak dira ere testua laguntzeko, adibidez, karikaturak, eta egun inork ez du ukatzen generoa denik. Ezberdina da batzutan azpigeneroa edo mezuaren konplementu eta osagarri bezala erabiltzen denean. Bestaldetik; genero guztiek suposatzen dute nolabaiteko tratamendu teknikorik. Badagoz, adibidez, teknika ondo definituak elkarrizketak egiteko, modalitate ezberdinen arabera, eta beste teknika batzuk erreportaigintzan –generorik garrantzitsuenetakoak aipatzeko–, beraz ezin adierazi daiteke, beraz, teknika egoteak generoa dagoela ezeztatzen duenik...".

4.- Infografiak, nahiz eta testu idatzi baten akonpainamendua izan ia beti, berezko zentzua badu. Beste era batean esanda; unitate informatibo osoa osatzen du. Berak kontatzen duenarekin gertakari informatibo oso bat ulertu liteke beste unitate informatiboren beharrik gabe. Irakurle batzuek testu nagusia irakurtzea erabakiko dute eta beste batzuek, ordea, nahikoa izango dute grafikoa segitzearekin. Are gehiago, zenbait infografikok publikatu ahal litezke soilik, inolako testu nagusiren akonpainamendu bezala. Berauei "infografiko perfektuak" deritze Julio alonsok⁶⁹, baina gutxitan aurkitu daitezkeela ere gehitzen du. Oraindik "salbuespena" badirela dio. Antzeko ideia somatzen da Raymond Colleren hitzetan⁷⁰, infografiko on batek informatu behar du era sintetikoan "...irakurleak kazetaritza istorio idatziari errekurritu behar izan gabe...". Honi 'ideiala' deritzo, eta gutxitan gertatzen dela onartzen du ere. Geroago egile honek 'grafiko perfektua' bezala aipatzen du halako ezaugarria lortzen dela definitzeko. Graduazio bat ezartzen du; alde batetik diagrama eta ilustrazio sinpleen artean –testu nagusiaren laguntzaile huts bezalako funtzioa betetzen dutenok– eta, bestetik, infografiko 'perfektua'-ren artean, konbinazio asko daudela dio, testuarekiko dependentziaren arabera, eta osagarri informatiboen karakterizazio ikonikoaren egokitasunare arabera. Valero Sancho irakasleak, bere partez, infografiko autonomo hauek 'megainfografiak' deitzen ditu. Bere funtzionaltasun handia azpimarratzen du ere, ez baitira beharko bestelako titular, testurik eta honelako elementu ohiak⁷¹.

Abreu Sojok 2002an egindako ikerketa lanaren ondorioz⁷², inkestutako 40 diagramatzaileen artean, 29-k uste zuten infografia kazetaritza generoa bazela. Aipatutako lau arrazoi horiek aurkezten zuten haien erantzuna gorpuzteko, hala ere gutxik aipatu zuten arrazoi horietako bat baino gehiago. Gehienetan aipatu zen argumentua (bederatzi aldiz) berezko zentzua izatearena zen. Zazpik ebaztu zuten informazio bere funtzioa betetzen duela.

Agertu zirenetik hainbat eratan sailkatuak izan dira kazetaritza generoak. Klasikoki sailkapen sinple eta erabilgarriena berauek bi multzo haunditan banatzean datzana da⁷³; Informazio generoak eta Iritzi generoak. Honela, lehenengoan artean lau aurkituko genituzke: informazioa, erreportaia, elkarrizketa eta kronika, eta bigarrenen artean, ordez; artikulua, iruzkina, editorialak, zutabeak eta kritikak.

⁶⁹ Alonso, Julio: Gráfica. El trabajo en una agencia de prensa especializada en infográficos. Revista Latina de Comunicación Social, 8. 1998ko abuztua.

⁷⁰ Colle, Raymond. 'Estilos o tipos de infógrafos'. Revista Latina de Comunicación Social, 12. 1998ko abendua

⁷¹ Valero Sancho, José Luis. La infografía de prensa. Revista Latina de Comunicación Social, 30. 2000eko ekaina.

⁷² Caracas hiriko zazpi egunkaritan lan egiten zuten 40 profesionalen arteko inkesta bidez egin zuen 2001an. Abreu Sojo, Carlos (2002b): ¿Es la infografía un género periodístico? - Revista Latina de Comunicación Social, 51

⁷³ LARRONDO URETA, Ainara. 'El reportaje se reinventa en la red: estructura del reportaje hipertextual'. Revista Latina de Comunicación Social, 57, 2004.

Dellameak ere laburbiltzen ditu aitzineko kazetaritza teoriak planteatutako sailkapenak bikoiztasun horrekin [1994; 166]. Informazio generoen barruan berria, kronika, erreportai, elkarrizketa eta bibliografia lirake. Bestaldetik, Iritzi generoen barruan; Iruzkina, artikulua, oharra, soltea, zutabea eta editoriala leudeke.

Dualtasun horri Martínez Albertosek hirugarren atal bat gehitzen dio; 'interpretazio generoak', bere ustez hiru baitira gertakizun informatiboak tratatzeko kazetaritza moduak; informazioa, interpretazioa eta iritzi edo komentarioa. Concha Edok ere hirugarren atal bat irekitzen du, baina informazio generoen barruan bigarren sail bat sortzen. Egile honen aburuz, bertan kronika eta erreportai interpretatiboa lirake, bi hauek ezaugarri oso bereziak baitituzte⁷⁴: "... zentzu estuan ezin daitezke definitu ez kontakizun ezta komentario bezala, informazio eta iritziaren arteko mugan aurkitzen baitira...". Honela, gaur egun gero eta egokiagoak suertatzen ari dira genero hauek informazioari zenbait datu eta testuinguratzeko xehetasunak gehitu behar zaizkionean. Gainera, egungo publikoa "...informazio gehiegi jasotzen ari da, kopuru asimilagaitza zeinek analisi lasaiagoa, osoagoa, exigitzen duen, internet eta ikustentzuteko komunikabideetan jasotzen duen tratamendua baino...".

⁷⁴ EDO, Concha. 'Periodismo informativo e interpretativo. El impacto de Internet en la noticia, las fuentes y los géneros'. Sevilla: Comunicación Social, 2003. 63 orr.

2.5.- Hizkuntz grafikoa prentsan

2.5.1.- Orotarikoak

Barnhurstek iragartzen duenez "...mundu guztiak onartzen du pentsamendua bi eratan esistitzen dela; irudia edo marrazkia eta hitza. Alde batetik hitzak modu batez komunikatzen duela eta irudia beste batez..." [1999; 1]⁷⁵.

Valero Sanchok esaten digunez, egungo publikoak pantailen bitartez ikasten du eta egunkariaren irakurlea ikusentzuteko sistemen informazio bisuala eta ikonikoetara ohitzen ari da [1999; 5], eta horrek ere bultzatu du komunikabideen egokitzea komunikazio kontsumo testuinguru berri honi [2000a; 1].

Bi motatako hizkuntzen ezberdintzapen oso argia egiten du Raymond Colle irakasle txiletarrak; Berbala eta bisualaren artean⁷⁶. Biok konplementatzen direla agerikoa dela dio. Lehenengo analitikoa da; denboran ordenatzen diren faseetan zatitu eta konparatu egiten du, eta zati horien analitiko eta haien loturaz dator ulermena. Hizkuntz bisuala, ordea "sintetikoagoa da, begibistatik atzematen den forma bere globaltasunean dauka zentzua. Ulermen prozesuak hemen kontrako norabidea hartzen du; konjuntutik hasi egiten da, gero zatiak ikertzeko. Baina bildumaren atzematea berehalakoa da, unean bertan lortzen da, zatien analisia baino lehen eta independienteki...". Hala ere, ulermen inmediato horrek sintaxi arau batzuen aplikatzea suposatzen du -hizkuntz berbalaren arau gramatikalekin gertatzen den moduan- baina arau horiek batzutan ez dira ezagutzen edo txarto aplikatzen dira, eta horren ondorioa bere funtzioa betetzen ez duten ilustrazioak, mapak, eta eskemak dira, eta horrela irakurleak analisi esfortzu handiagoa egin behar du hizkuntz formalarekin baino. Hizkuntz grafikoaren sintaxi arau horiek 'Gestalt' eskolaren 'Formaren teorian' azaltzen direnak lirake. Eta honela adierazten du Barnhurstek koadro grafikoaren ezaugarri onena; 'sinpletasuna'-z hitz egiten duenean: "...Bere ideia nagusia, hau da, bere zentzua, berehalako argitasuna izan behar du..." [1999; 7].

Infografiaren arrakastaz Valero Sanchok esaten zuen "...teknologiaren baita kultura ikonikoaren arrakastan pentsarazi..." egiten ziotela [1999; 2], bereziki irakurketari gutxi ohitutako maila soziokulturaletako pertsonak, baina ohituagoak irudiak dekodifikatzen. "...Istorioak grafikoki kontatzeko beharra gero eta handiagoa da komunikazioan, bereziki aro honetan zeinek, askorentzat 'daukan tendentzia grafikoa da, bisuala, literala baino; gauzak gainbegirada batez ulertzea, berdin zein konplexuak diren' eta horrek suposatzen du hizkuntz berri baten agerpena, bisuala eta nahiko konplikatu errealizatzeko, egun behar den komunikaziorako...". Barhurst irakasleak zenbait adibide ere ipintzen ditu non historian zehar zientzia teoriak edota aurkikundeak aurrera ateratzeko zientzilariek eta ikerleek hizkuntz grafikoa erabili behar izan duten⁷⁷.

De Pablos irakasleak ikerketa bat eraman zuen aurrera infografikoaren eragin komunikatiboa neurtzeko [DE PABLOS, 1999: 219]. Berri baten aurrean irakurlearen ulermenaz esperimintatzeko La Lagunako Unibertsitateko (Tenerife) ikasle batzuk hiru taldetan banatu eta haien artean gertakari berberaren esplikazioa banatu zuen hiru orrialde mota ezberdinetan adierazita. Lehenengoak testua bakarrik zekarren -Osagai grafiko guztiak kenduta (infografia eta argazkia) eta berauen hutsunea beste testu

⁷⁵ Artikulu horretan egileak adibidea ipintzeko problema lojikoak planteatzen du; egun batean mendira igotzen den monjearena eta ondorengo egunean jeitsi. Planteatzen duen galdera interesgarriari soluzioa emateko derrigorrez informazioa era grafikoan bisualizatu behar da.

⁷⁶ Colle, Raymond. 'Estilos o tipos de infógrafos'. Revista Latina de Comunicación Social, 12. 1998ko abendua

⁷⁷ Honela, Da Vinci zein Thomas A. Edisonen marrazkiekin batera Einstein, Nikola Tesla edota James D. Watson teoriak eta aurkikundeak garatzeko zientzilaria hauek behar zituzten ideia bisualak aipatzen ditu [Barnhurst, 1998; 4], baita Rene Descartes filosofoak ere [1999; 3]

batekin bete zen-. Bigarrenak testu nagusi berbera zeukan eta argazkia ere mantendu zen. Hirugarrenean testu nagusia eta infografia irakurri zezakeen. Galdetegi bati erantzun ostean konprobatu zen nola hirugarren motako orrialdea jaso zuen ikasle taldeak hobe ulertu zuen berriaren mamia eta xehetasunak⁷⁸.

Abreu Sojo irakasleak kazetaritza irudiren ondorengo sailkapena intsinnatzen du beraien ikonizidade graduaren arabera zortzi ataletan [ABREU SOJO. 2000b; 5], gutxienetik gehienera ordenatuta:

- 0.- Taulak eta testu kutxak
- 1.- Organigramak
- 2.- Estatistika grafikoak
- 3.- Piktografiak
- 4.- Karikaturak eta marrazki sinbolikoak
- 5.- Mapak
- 6.- Marrazki errealistak
- 7.- Zuribeltzeko argazkiak
- 8.- Kolorezko argazkiak

Honela, infografiko mota ezberdinak maila batzuren artean mugituko lirateke.

Barnhurst irakasleak gaitasun bisuala pixkanaka garatzen dihoala dio [1998; 2] eta hau hiru mailatan zehar gertatzen dela adierazten du:

- 1.- 'Apreziazioa'. Oinarrizko maila dugu hau. Komunikazio bisuala hauteman dezakeen pertsonak mezu bisualak esistitzen direla konturatzen da; egunkarietan, arte munduan, eta eguneroko gauzetan. Baloratu ere egiten ditu, eta erreflesionatzen du gauza bisualak nola influitu edo aldatzen duen ingurunean. "...Maila artistiko hau erdietsi duten erredaktoreek, nahiz eta forma bisualaren hizkuntza ez menperatu, artistaren lana bultzatzen dute egunkarian...".
- 2.- 'Funtzionatzea'. Alfabetatze bisualaren bigarren maila honetan aritzen denak komunikazio grafikoaren elementuak eta estruktura identifikatzeko gaitasuna dauka. "...Elementuen espresibotasuna identifikatu dezake. Forma bisualak bere kazetaritza misioan nola funtzionatzen duen dakiten erredaktoreak lan egiten duten egunkarietan etengabeko elkarriketa gertatzen da, zeinek mezu interesgarriagoak ekoizten dituen, ondoren, egunkari biziagoa aurkitzen dugu...". Eta bigarren maila hau da kazetari guztiek lortu beharko luketeena.
- 2.- 'Komunikatzea'. Mailarik altuena dugu hau, non diseinatzaile eta infografistak ditugu. Berauek komunikatu ditzakete mezu bisualak estilo egokia era konstzientean hautatzen. Maila hau lortzen dute komunikatzaile bisualek "...urte askotako entseguen ostean, non intuizioa garatzen den. Kazetari gutxi erdiesten dute maila hau, baina Europa eta Ipamerikako hainbat egunkaritako arte departamenduetan lan egiten dute infografista-kazetariak...". Editorerik onenak bigarren mailan aritzeko kapazitatea dute eta artista hauek kontratatzen dituzte.

2.5.2.- Irakurketa ordena

Mendebaldeko kultureko irakurleok goitik behera eta ezkerretik eskuinera hasten gara orrialdea behatzen gogoratzen digu Barnhurstek [1999; 7].

Grafikoa osatzen duten osagarrien arteko hierarkia bisual bat egon behar da garrantzi informatiboarekin batera era irakurketa ordenarekin bat etorriz [BARNHURST. 1999; 7].

⁷⁸ Antzeko esperimendua eraman zuen aurrera Minervini irakasleak hezkuntza orokorreko ikasle gazteen talde batzuekin eta 2005an publikatutako emaitzen arabera [MINERVINI, 2005, 3] emaitzek ere demostratzen zuten nola laguntza grafikoari esker gai konplexu huraren inguruko ulermena -giza genoma zen kasu hartan- zein interesa ere igotzen zela nabarmenki gazteen artean.

2.5.3.- Infografikoen testuak

Julio Alonsoren hitzetan, infografikoen testuak "irakurtzeko" badira. Bere ustez, konplementarioak izan arren –eta orokorrean "behar bezala zaintzen ez diren arren"– ezin daitezke testua kontsideratu adornua, dekorazioa edo betetze hutsa bezala. "...Osagarria izateak ez du esan nahi garrantzibakoa direnik..."⁷⁹. Horregatik, araua mantentzen dute infografiko baten testuek era ordenatu eta errazenean irakurriak izateko kokatuak izan behar dira. Orden horri buruz, zenbait arau sinple ematen ditu; Garrantzi gehienetik gutxienera, goitik behera, ezkerretik eskuinera, tipografia lodi edo pisu gehiagokotik meheeneraino. Irakurgarritasunak, ordea, aipatu faktore guzti horiekin batera eta erlazionatua, tipografia aspektuak dira; letraren diseinua, gorpua, lodiera eta zutabeen tamaina, letrarteko, hitzarteko eta lerroen arteko espazioa ere, etab. Hala nola errekurtsu tipografiko guztiak erabiltzen jakitea. Guzti haien artean, bat azpimarratzen du Julio Alonsok; espazio zurien erabilera.

Honako hamabost arau zehatz hauek ematen ditu testu kutxen erabilerari buruz:

- 1.- Erabilitako familia tipografiko bakarra 'Helvetica' kondentsatua dugu. Batzutan iruditxo ezberdinak (izarrak, zirkulutxoak, etab.) margozteko ere 'Zapf Dingbats' ere erabiltzen dituzte. Batez ere testua era marrazkitxo aldentzea sahiestu nahi denean, honela kutxa berberan bidaiatzen baitute testuarekin batera.
- 2.- 'Helvetica' tipografiaren kasuan batzutan letra lodi '-negrita'- edota 'bold' izenekoak erabiliak badira ere, kontu handiz egiten da, moderazio eta beti irizpide bat kontutan hartzen. Ezin daiteke abusatu errekurtsu honetaz, bestela, abusatzeak kontrako efektua eragin baitezake. Hainbat destakatu nahian, azkenean ez baita ezer destakatzen. Hala ere, letra lodia derrigorrezkoa da testua negatiboan agertzen denean; letra zuria fondo baten gainean, adibidez.
- 3.- 'Oblique' edo italikoa izeneko aldaerari buruz –zeinek irakurketa zailagoa duen–, bakarrik erabiltzen da infografikoaren iturriak adierazteko. Nahiz eta zenbait egunkaritan estilo hori erabiltzen den neologismoa, barbarismo edota zentzu figuratuan erabiltzen den hitza markatzeko, Grafian hori komatxo sinpleen bitartez adierazten da.
- 4.- Testu oso laburrekin ez ezik (bizpahiru hitzetakoak, mapa baten toponimoak adibidez) permititutako testu minimoa 9 puntutakoa da.
- 5.- Hitzekin batera dihoazen sinboloek (parentesiak, komak, etab.) tipografia ezaugarri berberak eraman behar dute.
- 6.- Testuak beti albo batean justifikatuak egongo dira, eta ahal bada ezkerreko aldean. Erdian justifikatuko da bakarrik hiru lerro baino gutxiagokoa bada, eta eskuinean beste aukerarik ez dagoenean bakarrik.
- 7.- Testu baten hitzek irudi baten kontorneoa jarraitzen badute eta horrek eragozten badu lerro guztiak ezkerretara lerroatuta joatea, orduan eskuineko alineazioa erabili daiteke.
- 8.- Hitzak ezin daitezke erditik zatitu lerroaren amaieran.
- 9.- Esaldi bat lerro anitzetan zatitzea ere saihestu behar da ulermena ez zailtzeko, baita zabalera bereko lerroak gertatzea. Ideiala, bi lerro badagoz, luzeena lehenengoa izatea da. Eraberean, lerro anitz ateratzen badira, eskailera efektua sahiestu beharko litzateke.
- 10.- Lerroarteko distantziak ezin du letraren tainaren berbera edo txikiagokoa izan. Gutxienez puntu bat edota bi gehitu beharra zaio.

⁷⁹ Alonso, Julio: *Grafía. El trabajo en una agencia de prensa especializada en infográficos*. Revista Latina de Comunicación Social, 8. 1998ko abuztua.

- 11.- Letrarteko espazioei buruz, bi kasutan bakarrik onartzen da berau modifikatzea. Tituluetan edota hitz gutxietako testu kutxetan, adib. toponimoak mapa batean.
- 12.- Paragrafoek ere separazioa behar dute. Bizpahiru puntutakoa, hain zuzen.
- 13.- Testu laburreko paragrafoak izan ezik (laupabost lerrotakoak gehienez) konposizioaren lodiera hitz kantitae ertainak baldintzatuko du (gutxienez hiru eta gehienez hamabi).
- 14.- 'Ladiloa' edo 'tartekia' goitik separatu behar da (berez, behetik datorren testuari dagokio beti eta honekin lotuta mantendu behar da).
- 15.- Paragrafo hasierak ez dira 'sangratu' behar.

Eduardo José Perezek infografistak deskribatzen du grafikoen testuak prestatzerakoan jarraitzen zituen irizpideak. Inolaz ere zati solteak bezala tratatu behar dira, orrialdean zehar ordenik gabe botata baleude bezala, haien artean era koherente batean batuta baizik [1999b; 4] "...Beti ondo mediatuak izan behar dira, sinpleak eta beti didaktikoak. Istorio bat gorpuztu behar dute, argumentu bat hiru zutabe hauetan oinarrituta; Sarrera, haria eta errematea...". Baina aldi berean, grazia, ingenioa, originalitatea eta estilu pertsonalarekin ere.

Elementu erredakzional guztien (tituluak, tituluarekoak, azpitoluak, sarrerak, ladiloak, argazki oinarriak, errekoadroak, etab.) tipografia aukerak armonizatu egin behar dira "...erloju baten mugimenduen zehaztasunarekin..." [GAFRÉ, 1998: 3].

2.5.4.- Orrialdearekiko erlazioa eta diagramazioa

Egunkariaren diagramazioa definitzean, Barnhurstek dio [1998; 6] epizentroa dela, non mamia eta forma uztartzen diren; "...Diseinatzaile grafikoak ohituta daude orrialde osoko diagramazioan pentsatzera, liburuen, 'afichen', eta aldizkariaren diseinutik jaio zen lanbidea delako, non azal oso baten gainean gai bakarra tratatzen den. Gauza berbera gertatzen da iragarki baten mugatutako koadroaren arearen barruan. Baina prentsan (...) orrialde osoa -nahiz eta egunkariaren pertsonalitatea somatzen laguntzen duen- zentzurik gabe geratzen da hori, mezu indibidualak, eguneko notiziak dagozkenez. Kazetariak pentsatu behar du artikulua bakoitzaren diagramazioan baita nola erlazioatzen den bere mamia eta forma. Egunkariaren editoreak eta diseinatzaileen ustez, notizia bakoitzaren diagramazioa, orrialdearen diagramazio osoaren gaitetik egon behar da. Bigarren maila bisualean ['funtzionatze' mailan] murgiltzen den editorea mezu bakoitzaren diagramazioan kontzentratzen da eta, honela, orrialdeak ezberdinak dira egunero, berri horiek ezberdinak diren ehinean. Editorearen formazio bisualak laguntzen dio lan honetan...".

Infografiko inprimatu gehienek testu idatzi nagusi baten akonpainamendu bezala agertzen zaizkigunez, bietan informazioa errepikatu behar den ala ez eztabaida sortzen da.

Julio Alonsok oso argi uzten digu nola praktikan datuak bietan -testu idatzian zein infografikoan- errepikatuko direla⁸⁰, baina errore horren arrazoa, bere ustez: "...subkonstzientean dagoen ustea; bakarrik hitz idatziak baliogarriak direla..." da.

Argazkiarekiko erlazioari buruz, De Pablosen ustez bi kasutan gertatzen da infografia eta fotografia arerio izan beharrean, ahatik, elkarkide beharrezkoak suertatzea⁸¹; "...alde

⁸⁰ Alonso, Julio. 'Gráfica. El trabajo en una agencia de prensa especializada en infográficos'. Revista Latina de Comunicación Social, 8. 1998ko abuztua.

⁸¹ De Pablos Coello, José Manuel (1998): Siempre ha habido infografía (3). Revista Latina de Comunicación Social, 5

batetik erredakzioraino argazkirik heltzen ez direnean, beraz ez dago fotografia argitzeko posibilitaderik, eta besteetan, non nahiz argazkia egon, hain elementu analogikoa izan arren, bertan ikusten duguna interpretatzeko ezinezkoa denean, eta ez du ezer berririk ekartzen. Irudi mikroskopioak edota espaziokoak kasu...". Testu idatziarekiko erlazioaz Valero Sancho⁸² irakasleak onartzen du interes osokoa dugula infografia ekintzak ulertzeko balio duenean informazio gehigarririk beharrezkoa izan gabe, eta eraberean; "...ez beharrezkotzat jo dezakegu ezer berririk ekartzen ez duenean eta testu nagusiarekin gainjartzen denean, honek distortsioak eta disfuntzioak probokatu baititzake ere gertakizunen edo ekintzen esplikazioan...".

⁸² Valero Sancho, José Luis. La infografía de prensa. Revista Latina de Comunicación Social, 30. 2000eko ekaina.

2.6.- Zein informaziorekin publikatu behar den infografiko bat

Galdera honi erantzun arrazionala eman beharko bagenio irizpide informatibo eta kazetaritza ikuspuntu soil batetatik pentsatua emaitza hainbat egilek adierazi bezala teorikoki perfektua litzateke. Hala ere, praktikan etengabe demostratzen den bezala, infografikoa publikatzeko arrazoiak askotan oso ezberdinak dira.

Barnhursten aburuz, bi bakarrik dira kasuak non infografikoa publikatu behar den [1999; 7]. Zenbaki mordoak irakurlea ikaratu egin dezakeen kasua da Lehenengoa, eta bigarrena datu bisualek informaziorik garrantzitsuena dakarten kasua da. "...[bi egoera horietan bakarrik] editoreak informazioa era bisualean destakatu ahal -edo behar- du...".

Profesionalek etengabe adierazten dutenez, praktikan berri baten testuari infografikoa dedikatzeko arrazoiak askotan argazkien falta baino ez da. 'El País' egunkariko infografistak, Gustavo Hermoso Ranerak, azaltzen duen bezala⁸³: "...egunkariaren departamendu ezberdineko atalburuek askotan erabiltzen dute infografikoak prekaizio koltxoia bezala, akaso haien orrialdeetarako azkenean inolako fotografiarik aurkitu ezin izango duten. Batzutan grafikoak eskaintzen duen 'animazioa' eskatzen dute nabarmenki, testu lerro gehiago bete ditzan, baina gero, argazkia agertzen denean, infografikoak sufritzen du gehien...". Eta ondoren, galdera gakoa egiten dio bere buruari: "...Grafikoak informazioa ekartzen bazuen, zergatik kentzen da?. Eta ekartzen ez bazuen, zergatik eskatu zen? Agian grafikoari gertatzen ari zaio betetze-hutseko materiala bihurtzen ari dela, komenentziaren arabera eliminatu daitekeen elementua...". Antzeko ideia azaltzen du Julio Alonso infografistak egunero 'Grafía' agentzian erabakitzen zutenean zein notiziei bai eta zeintzuei ez prestatu behar ziotenean grafikoa. Kobertura fotografikoa zen irizpide bat askotan, bere ustez argazkia beti irabazten duelako "...nahiz eta bigarrenak -grafikoak- informazio osotuagoa edukitzea..."⁸⁴.

Jeff Goertzenek ere aipatzen du funtzio 'betetzaille' huts horretaz zera esaten digunean, "...ilustrazio faltagatik hutsunea bete baino balore altuagoa dute infografikoek...". Eta Knight Rider Tribune Graphics-eko editore grafikoak gogoratzen duenez, orrialde batek "arte pixka bat" behar zuelako grafiko bat eskatu ziotenean, bere ibilbide profesionalaren esperientzarik txarrenetarikoa izan zen⁸⁵.

De Pablos irakaslearen aburuz gaurko egunkariak gero eta bisualago bihurtzen ari dira. Prozesu honi 'arrevistamiento' deritzo, hau da, eguneroko publikatuak izateko aldizkariak bihurtzen ari dira; gero eta argazki handiekin, guztiz koloretakoak, eta abar. Horrek infografikoen agerpena bultzatzen ari da, halabaina, testu idatzien profesionalen "kultura bisual" ertaina igo beharko lukeelakoan dago.

⁸³ Hermoso Ranera, Gustavo (1999): Infografía, espectáculo e información. Revista Latina de Comunicación Social, 19

⁸⁴ Honen adibide tristea jartzen du Bartzelonako 1992.eko Joku Olinpikoei begira agentzian 242 grafiko prestatu egiten zutela eta hauetatik gehienak publikatzeke geratu egin zirela. 'Novatada' izan balitz bezala, haiek uste zuten arreta nagusia fokatuko litzatekeela atleten esfortzuaren gainean, eta kirolarien arteko konparazioan, baina gertatu zena ez zen hori: "...Egunkari gehienok Jokuen inguruan egin zuten kobertura grafikoa argazkian oinarritu zen nagusiki (helmuga gurutzatu osteko alaitasuna, nekea edota poza harmailetan) informazio sekuentziala baino (nola gauzatu zen garaipen hori, denborak, desgastea, teknikak, etab.). Hitz gutxitan; kirolaren ikuskizuna azpimarratu zen lehiakortasuna baino gehiago...". Alonso, Julio: Grafía. El trabajo en una agencia de prensa especializada en infográficos. Revista Latina de Comunicación Social, 8. 1998ko abuztua.

⁸⁵ Leturia, Elio: ¿Qué es infografía? - Revista Latina de Comunicación Social, 4. Apirila 1998

Félix Pacho Reyerok halako pertsonalitatea erreibindikatzen du infografiarako zera esaten digunean⁸⁶: "...Ordenagailu bitartez egindako informazioaren tratamendu originala, grafikoa eta berria dugu infografia, eta inolaz ere definitu gabeko orbanik edo marrazkitxo erresidualik, ezta dekorazio elementu betetzailerik edo notziaren konplementu hutsik...". Bere ustez osotasunezko aktibitate bezala, ogibide osokoa, pertsonalitate propioa duen informazio baten aurrean gaude. Gertakizunen bertsio plastiko baten aurrean, hain zuzen.

Julio Alonso infografistak 'Grafía' agentzian grafikoa egingo zen ala ez erabakitzeke honako filtro hau aplikatzen zutela esplikatzen zuen⁸⁷: "...Alde batetik gaia gure bezeroen (egunkari abonatu) interesekoa izatea, edo gehienena gutxienez. Bestaldetik grafiko moldagarria izatea eta azkenik informazio nahiko lortzea posiblea izatea...". Honela, irizpide honi jarraitzen, bi motatako grafikoak ekidin egiten zuten; testu 'iluminatuak', hau da, ilustrazioz betetako testutakoak, eta bestetik, sasi-sekuentziak direnak. Lehenengo motakoak ditugu esaldi zerrendak (demagun, partidu politiko baten programa) iruditxo batez adornatuta. Nahiz eta halako grafikoek bere funtzioa bete – irakurketa alaitu eta arintzea– bere esanetan, nahiago izaten zuten benetan tratamendu grafikoa merezi zuten notiziei bere lana dedikatzea.

Eraberean, ohartarazi nahi du nola askotan grafiko sekuentzialekin halako erroreetan erortzeko arriskua handia den, eta datuekin 'fantaseatzea' baino egingo genukeena adierazten du: "...Presoa deskolgotu egin zela prisioaren patioraino badakigu bakarrik, oso gutxi dakigu, hala ere berehalako erreakzioa izan ohi da ohial batzuk bere puntuetatik lotuta marrazten hastea. Honela, benetan era horretaz ez bazen gertatu – tutueria erabiliz egin lezake ere–, eta narrazio bisualaren ondoreno binetak halako informazioarekin eraikitzen badira, egiten ari garena ez da gertakizun batzuk kontatu, 'fantaseatzen' baizik...". Berrero, berriaren testu idatzia prestatzeko nahikoa den datu hori ez da nahiko infografia prestatzerakoan, zeren eta informazio bisuala burutzerakoan, 'deskolgotu' egin zela plasmatzeko modu bakarra 'nola' egin zuen kontatzen baino ez da. Askotan fede onez eginda badira ere, grafiko sekuentzial hauetan da non gehien gertatzen diren egiatasun ezak. Berrero, hortik inportantzia, Alonsoren ustez, filtroa behar bezala egiteko zein berriei grafikoa egin dakieke eta beste zeintzuei ez. Arrakasta gehiena lortu zutenak kiroletakoak eta dibulgazio teknikokoak ziren.

Julio Alonso adibide hain argi honen bidez esplikatzen digu nola erredaktore batek behar duen informazioa eta infografo batek behar duena oso diferenteak dira. Hain dira ezberdinak, ezen notizi osoa idazteko nahikoak liratekeen datuak bilduta ere –demagun errepide istripu batekoak–, oraindik ez litzateke nahiko izango infografikoa burutzeko datu zehatzen falta dela eta, ohiko iturriak ematen dituzten datuak kontutan hartuta. "...Honela, eta istripuaren adibide horrekin jarraituz, ibilgailuak zubiaren petrilaren kontra jo egin zuela jakitea, eta ibaiaren ohantzeraino erori zela, zenbait bidaiari hil egin zirela eta beste zenbait bizirik irten, gehi kotxearen modelua, istripuaren arrazoiak, ordua eta puntu kilometrikoa, etab. agian nahikoak genituzke berria idazteko, baina ez infografikoa egiteko. Jakin behar da nolakoa den zubia, errepidea puntu horretan zuzena den ala bihurgunerik dagoen, baita aldaparik dagoen ala ez, zein ibilbide jarraitu zuen ibilgailuak, zein posizioan erori zen, nondik eta nola irten ziren salbatu zirenak, hainbat xehetasunen artean..."⁸⁸.

⁸⁶ PACHO REYERO, Félix. Dimensiones informativas de la infografía, en La imagen en la prensa. AEDE, Espainiako Egunkarien Editoreen Elkartearen Argitalpena, 17. zb. Madril. 1992, 20. orr.

⁸⁷ Alonso, Julio: Grafía. El trabajo en una agencia de prensa especializada en infográficos. Revista Latina de Comunicación Social, 8. 1998ko abuztua.

⁸⁸ Alonso, Julio. 'Grafía. El trabajo en una agencia de prensa especializada en infográficos'. Revista Latina de Comunicación Social, 8. 1998ko abuztua.

2.7.- Infografiagileak

Peter Sullivan infografiagile ospetsuak⁸⁹ 1995an esaten zuenez⁹⁰, Nafarroako Unibertsitateak martxan jarritako SND-ko Espainiako Kapituluak eta bere urteko Kongresua zen munduko bakarrenetarikoa kazetaritzako ikasle edota profesionali mundu honetan sartzen laguntzeko. Esparru honetan ikasketak burutzeko zailtasuna nabaritzen zuen infografiagile britainiarrek.

Sancho Valerok salatzen duen bezala [2000a; 5] infografistek askotan ez dira ondo tratatuak komunikabideetan eta diskriminazioa pairatzen dute haien lankide idazleengandik, zeinek batzutan ez dituzte kontsideratzen kazetari oso eta besteetan informazioak burutzeko haien laguntzaile bezala baino ez dituztelako ikusten. Horregatik ezinbestekoa ikusten du kazetarien lantalde berriak osatzea ilustrazioaren lanbidea kalitate altuz burutu dezaten. "...Profesional mota hau ezinbestekoa da bere ezaguerarekin informazioari bizitza emateko testu pixka batekin. Profesional hauek, gainera, espazioa, kolorea, tipografia, argazkigintza, aerografia eta zenbait tresna erabilgarriren gaineko konozimenduak eduki behar dituzte, hala nola, noski, marrazki eta konpilazio zenbait aplikazio informatikoen gainekoak ere...".

Oscar Goñi infografistaren aburuz [1998, 1] gainontzeko erredaktoreentzat "...gu ez gara haiek bezala, ez dugu egiten haiek egiten dutena (...) Ez dut esan nahi gure lana errespetatzen ez denik -nahiz eta hainbat egunkaritan honela gertatu-, baizik eta 'arraroak' garelak...".

'The Detroit Free Press' (EE BB) egunkariko diseinatzaileak Elio Leturiak esaten digunez, "...infografistak kazetaria izan behar du, halabaina, dakigunez, kazetariak orohar ez dute bisualki pentsatzen. Azkenengo urteetako esperientziaren arabera gero eta Kazetaritza fakultate gehiago sartzen ari dira bere ikasketa planetan diseinu kurtsoak, diagramazioa eta baita ilustraziokoak ere..."⁹¹.

Antzeko ideia aurkezten du Sancho Valerok esaten digunean infografistak askotan egunkarira heltzen dira "...pintura edota marrazkia ezagutzen duten pertsonak bezala, eta komunikabideak gainontzekoa erakusten die; baina egunkariak erakusten diena eguneroko lana eta erraminta informatikoa baino ez da. Gainontzekoa, haien kualitate pertsonalak eta intuizioa da. Oinarrizko hezkuntza falta dute, hain beharrezkoa lanbide konplexuetan, eta honako hau bada konplexua..." [2000a; 4].

'El Periódico de Catalunya'-ko grafikoaren aholkularitzaile ohiak, Jeff Goertzen-ek, bere partez, kontrako bidea defendatzen du: "Esentzian infografista kazetari bisuala dugu. Oinarrizko infografista ilustratzailea izan behar du. Errazagoa da artista bati kazetaritzako informazioa ikertzen irakastea, erredaktore bati margozten irakatsi baino (...) Infografiak artista baten margoztu zein diseinatzeko trebetasunak eta kazetari baten gaitasunak bateratzen ditu". Jaime Serrak ere halako ideia planteatzen du diseinua, ilustrazioa eta kazetaritzaren uztartzetik ateratzen dela infografia [1998; 15].

Jordi Clapers infografisten ustez derrigorrezkoa da hizkuntz grafikoaren menderatze osoa. Bere ustez infografiako profesional batek honako hiru ezaugarriak eduki beharko lituzke⁹²: 1.-Artista baten sormena, 2.-Diseinatzaile batek duen ezberdintzeko gaitasuna, eta 3.-Kazetari baten gaitasun eta buru arintasuna. Guzti honekin batera, bere inguruan gertatzen den guztia ulertu era irakurtzeko irekia egon behar du.

⁸⁹ Corrie Parsonsonen ustez, Sullivan "kazetaritza grafiko modernuaren aita" zen.[1996; 7 orr.] Antzeko iritzikoak ditugu Giner [1996; 5], Urabayen [1996; 6], Gray [1996; 8] eta Holmes [1996; 8]

⁹⁰ SULLIVAN, Peter (1995) 7 orr.

⁹¹ Leturia, Elio: ¿Qué es infografía? - Revista Latina de Comunicación Social, 4. Apirila 1998

⁹² Clapers, Jordi. Los gráficos, desde fuera de la redacción. Revista Latina de Comunicación Social, 9. 1998ko iraila.

Jordi Clapers infografistak honela definitzen du nola izan behar den infografistaren lana gertakariaren lekura etorri eta grafikoa prestatu behar duenean⁹³: "...Gertakariaren lekuan bertan hartu behar dira marrazki apunteak, eta datuak erregistratu bai buruan zein paperean ere. Grafikoa mentalki landu behar da, gizendu eta forma ematen. Bozetoaren fax bat bidaltzen badugu, hartzaileak bakarrik ikusiko du bertan marraztutakoa, eta ez beharrezkoak diren benetazko informazio eta datu gehigarriak. Grafikoa 'enkuadratu' behar da, hau da, notiziaren 'zergatia' hobe fokatzen duen ikuspuntua lortu..."

Erredaktoreek egiten duten bezala ikertu behar dute infografistek, Valero Sanchezek honela baieztatzen du ere [2000a; 3] "...Ideiak, edozein informaziorako lortzen diren bezalaxe erdiesten dira ere infografiagintzan, eta azken finean, testu idatziko kazetariak egiten duten bezalaxe; irakurtzen edo akzioen eta gertakizunen lekuetara bertaratzen, gauzak ikasten, artxiboetara eta informazio iturrietara jotzen..."

Michel Gafré diseinatzaileak El Mundo egunkarian izandako esperientzia pertsonalaz kontatzen duenez, bertan diseinu eta infografia departamenduko profesionalek ez ezik, erredakzioko kazetari guztiek ere grafikoan lanarekiko interesa eta inplikazioa erakusten zuten "...atentatu terrorista baten lekutik bueltatzerakoan erredaktoreek gertatutakoaren zirriborro bat ekarri ohi zuten grafistei pasatzeko asmoarekin..." [1998, 4]. 'Kazetari grafikoa'-ren profila idealaz esaldi oso esanguratsua erabiltzen du Gafrék "...Irizpidea, urrunetik garrantzitsuena, 'kazetari' moduan pentsatzeko gaitasuna da. Baina margozten ere jakin behar du. Anbibalentzia honetatik dator zailtasuna; aldi berean kazetari eta artista izatean; testu eta irudiaren pertsona izatean. Gure kulturari biak banandua daude, burmuinari bi hemisferioak bezala. Ona litzateke Kazetaritza eskolek errealitate hori aldatzen laguntzea..."

Julio Alonsoren ustetan kazetari-margolariak beti bisitatu behar du gertakariaren eskena; bere kabuz ikustatzea lekua eta gertatutakoa, eta behar dituen datuak bilatu. Batzutan bere lankideen laguntza izango du ere; erredaktorea eta argazkiarenak, baina bi hauek ikusitakoa eta hartutako datuak beti ezberdinak izango dira, bere hitzetan, hitz idatzia eta enkuadre fotografikoa "hizkuntz ezberdinak baitira", nahiz eta haien artean osagarriak, infografikoarekiko ere osagarriak dira.

Raymond Colleren ustez⁹⁴ infografiak ikaste espezifikoa eskatzen du, bereziki kazetaritza eremuan aplikagarria izan ahal izateko. Baina Kevin Barhnurstekek adierazten duen bezala, [1998; 1] kazetari askok uste dute infografistaren formazioa "...talentutik dator, ez ikastetik, eta horregatik ez dute ahalegina egiten hezkuntzan. Mito handia da pentsatzea bakarrik talentua daukaten pertsonak eduki dezaketela ezaguera bisuala (...) Jakintzaren beste arloetan bezala, ezaguera bisuala ulertu, analizatu eta ordenatu daitekeen zerbait da..."

Antzeko ideian insistitzen du Sancho Valerok [1999; 6] kazetariak era ikonikoan idazten ikasi beharko duela esaten duenean eta "...mezuak irudien bitartez komunikatzen. Horregatik diseinua eta informatika ezagutu behar du eta, gainera, informazioak idazten bere ohiko lanari eutsi ere..."

Goñi profesionalak azpimarratzen du infografistak ez duela 'inbentatu' behar, "...ez baita artistarik. Kazetaria baizik..." [1998; 5].

⁹³ Clapers, Jordi. Los gráficos, desde fuera de la redacción. Revista Latina de Comunicación Social, 9. 1998ko iraila.

⁹⁴ Colle, Raymond. 'Estilos o tipos de infógrafos'. Revista Latina de Comunicación Social, 12. 1998ko abendua

Kevin G. Barnhurst irakaslearen ustez kazetaritza infografia dozentzian baino, praktikaren bitartez ikasi daiteke⁹⁵. Horregatik ere berak ez zuen jotzen beharrezkotzat halako irakasgaiarik martxan jartzea Kazetaritzako fakultateen ikasketa planetan. Bere hitzetan, praktika etengabe eta hain azkar aldatzen da ezen ez da behar tailer moduko irakasgaiak jarri. Bai, ordea, oso beharrezkotzat jotzen du prentsan forma bisualen inguruko materia orokor bat edukitzea Kazetaritzan. Bestaldetik, zein konozimendu oinarrizkoak lortu beharko lituzke kazetaritza infografiako ikasle batek galdetuta, hona bere erantzun ezin argiagoa: "...Nola pentsatu, nola espresatu bere burua mintzameneko eran zein idatzian. Gainontzekoa enpresetan ikasten da, lan egiten, eta ez Unibertsitatean ikasten...". Hala ere kontrako iritzia azalarazten zuen urte batzu aurrerago [1998; 4]⁹⁶ kazetaritzako fakultateetan artea ere ikasten ez zela damutzen zenean: "...Kazetari gehienek ez dute inolako interesik Artean ezta irakasgai bisualetan. Haien hezkuntza eta eguneroko praktikak hitzaren garrantzia azpimarratzen die, bere esanahia eta informazioa idatzi eta prozesatzeko era. Kazetaritza ikasleek ia inoiz ez dute artearen inguruko kurtisorik. Hauxe da, behintzat EE BBetan egoera negargarria..."

1998an Michel Gafrék diseinatzaileak infografiak oraindik hizkuntza berria zen egunkarietan, editoreak oraindik ohituta ez baizeuden grafikoetara "...Bertan irudia eta testua batzen dira alkimia konplexu batean, zeinek editore eta erredaktore buru asko harrিতта uzten dituen. Joera hau ulergarria da, zeren eta disziplina hau ez zaie irakatsi eta bertan ez dute inolako entrenamendurik..." [1998; 4].

Eduardo José Pérez infografisten inplikazioari buruz zera deskribatzen du; gainontzeko komunikabideetako profesioekideek gai berberaren inguruan beste grafikoak prestatzen ari diren ziurtasuna pizgarria badela eta ondoren "...punteria gehiago afinatu behar dela..." sentitzen da [1999b; 3].

⁹⁵ Barnhurst, Kevin G. 'Reflexiones sobre infografía periodística. Respuestas (13) sobre infoperiodismo'. Revista Latina de Comunicación Social, 55. 2003.

⁹⁶ 1992an idatzia.

2.8.- Egunkarietako infografia departamenduak

Ezin egokiagoa den lehenengo pertsonako ikuspegi batetatik Gustavo Hermoso Ranera 'El País' egunkariako infografistak deskribatzen du infografía sailak egunkarietan betetzen duten funtzioa⁹⁷. Nola infografia departamenduek ez dute espazio propio bat betetzeko egunkariaren eguneroko orrialdeetan, baizik eta gainontzeko sekzioek utzitakoa⁹⁸, "...zerbitzuen-sekzioak ditugu infografiakoak, beraz bere 'bezeroen' eskaeren menpe, eta bezero horiek ez dakite zeintzu diren infografiaren beharrak, honela konfliktuan sartzen da eta azkenean asko landuta, zorte gehiago ala gutxiagorekin, konpromezuzko soluzioetara heltzen da, zorroztasun informatiboak inolaz ere onartuko lukeena, hain zuzen...".

Julio Alonsok esaten duenez⁹⁹, infografikoen sortze prozesuan parte hartzen duten guztiek –marrazkilariek, dokumentalistek, kazetariak eta informatikoez– ez dute ideia berbera zer izan behar den prentsari zuzendutako infografiak, edo ez diote garrantzi berbera ematen aspektu bakoitzari. Eta hortaz, 'mentalidade' aldaketa baten beharraz hitz egiten du. Beste aldetik, baliobideen falta salatu egiten du, argazkilariek eta erredaktoreek dituzten sare oparoa ere komenigarria litzateke dio, gertakarien lekura kazetari-margolariak bidali ahal izateko, baina agentziek ez dute inoiz ere halakorik martxan jarri. Ez bakarrik EFE Espainian, baizik eta nazioarteko agentzia handiek ere ez baitute inoiz egin –Reuter, Associated Press, France Press–. Bere hitzetan, hori frogatzen da nola oraindik ibilbide luzea geratzen den ibiltzeko.

Michel Gafré diseinatzailaren hitzetan, infografia departamendu bat antolatzeke egunkari batean ez da nahikoa ordenagailu batzuk erosi, erredakzioaren toki bat egokitu eta 'operatzaile' batzuk erabiltzen ipintzearekin. "...Infografiarengana jotzea joera eta organizazio eraldaketa suposatzen du. Egunkarietan erabakitzeke boterea dutenek aho betez konprometitu beharra dute espiritu berria bultzatzeko..." [1998; 3]. Baita zuzendaritzaren babesaren beharra ere Peter Sullivanen hitzetan.

Josep María Serraren hitzetan, kazetari idazle eta jaioberriak ziren infografiako departamenduko kideen arteko erlazioan laguntzeko Estatu Batuetan 90. hamarkadaren hasieran 'editore grafiko'-ren kargu berria agertzen da.

Óscar Goñi infografistaren esperientzia propioa deskribatzen [1998; 3], erredaktoreek ez dute beharrezkoa litzatekeen mentalidade grafikorik. "...eta hau ez da inolaz ere kritikarik kide kazetariengana. Ez dira grafistak, eta ez dute zertan izan beharrik. Ahatik, gakoa honako hau da; erredaktoreak erakusten duen duintasun berberarekin, grafistak bere lana bete ahal izateko beharrezkotzat jotzen dituen datuak eskatu ahal izatea ez al litzateke nahitaezkoa?...".

Infografia departamendu bat egunkari batean zerotik nola sortu deskribatzen zuen Michel Gafré [1998; 4] eta lehenengo urrats bezala 'txori arraroa' aurkitu eta bere habiatik atera 'makina hau funtzionamenduan' ipini dezala atera behar dela zioen. Zonalde batzuetan, non infografia jadanik garatu den beste komunikabide batzutan, lan merkatuan bilatzearekin nahikoa izango zela zioen, baina beste zenbait herrialdeetan, non 'savoir faire' hori oraindik ez den esistitzen–eta Latinoamerika ipintzen zuen adibide bezala– profesionalak prestatu beharko zirela zioen. Eraberean, azpimarratzen du gainontzeko erredaktoreek izan behar duten errekonozimendua kazetari hauen inguruan "...edizio bileretan parte hartu ahal dezala gainontzeko atalburuekin batera; eguneko gai guztiak ezagutu, baita aurrikusitakoak ere, eskaintzak hartu eta grafikoak iradoki ere...".

⁹⁷ Hermoso Ranera, Gustavo (1999): Infografía, espectáculo e información. Revista Latina de Comunicación Social, 19

⁹⁸ Honen salbuespen ohoragarri bezala aipatzen du 'El Mundo' egunkariak iganderoko gehigarrian argitaratzen duen osasunaren inguruko atal grafikoak.

⁹⁹ Alonso, Julio: Gráfica. El trabajo en una agencia de prensa especializada en infográficos. Revista Latina de Comunicación Social, 8. 1998ko abuztua.

Infografistak edukitzea aurrepausua da, baina inportanteena zuzendaritza eta erredakzio atalburuak kontzientziatzea da, haiek erabakiko baitute zer publikatuko den eta zer ez.

Michel Gafrék beste arazo garrantzisu bat aipatzen du; tradizio sindikal handikoko herrialdeetan –eta Italia zein Frantzia ipintzen ditu adibidetzat– grafikoek ekoizpena tailerreko langileek errebindikatua dago. Bere ustez, infografistak kazetaria izan –edo izatera iritsi ahal– behar du.

Askotan egunkari txikietako infografia departamenduetan infografista bakarra dagolea gogoratzen digu Óscar Goñi infografistak, eta horrek eragozten du departamendua utzi eta gertakarien lekura hurbildu ahal izatea. Eguneroko lanean sortu daitezkeen infografikoek eskaerei erantzun gabe geratuko bailirateke [GOÑI. 1998; 4].

Honelako organigrama tipo iradokitzen zuen Michel Gafrék egunkari handi batean infografia departamendurako [1998; 5]. Zazpi pertsonak osatua –hala ere, egunkari txikigo baterako pertsonen kantitatea gutxitu beharko dela onartzen du–: Infografia Erredaktoreburua, Erredaktore Inbestigatzailea, Infografia Burua, eta lau infografista.

Óscar Goñi infografiagilearen aburuz ere, inportantea da departamentuko infografiako buruak 'erredaktore buru' maila izatea. Hierarkia horren beharraren arrazoia bi argumentutan laburbiltzen ditu: eguneroko lana burutzerakoan filtro lana burutu ahal izateko –zein grafikoak publikatu daitezkeen edota erredaktoreei zein informazio behar zaion eskatu erabakitzerakoan hauekiko berdintasun maila batean aritu ahal izatea–. Bestetik, edizio bileretan presente egon ahal izateko eta publikatuko diren gaiak aldeztu aurretik ezagutu eta partizipatzeko [1998; 8]¹⁰⁰.

Knight Ridder Tribuneko (KRT) Grafikoek agentziaren zuzendariak adierazten zuen bezala [GARCÍA, Mario. 1998; 3] "...Holmes eta 'USA Today' konturatu ziren grafikoek departamentu bati lan grafiko bat asigmatzea baino askoz gehiago dela. Grafikoaren erabileraren beharra kontzeptu bezala sortu behar zen..."

José María Serrak gogoratzen digu infografia eta erredakzioaren gainontzeko departamendu ezberdinen arteko ulertze ona nahitaezkoa dela kalitatezko infografikoak sortu ahal izateko, eta 1992 Bartzelonako Joku Olinpikoek aurrean bizitutako griña gogoratzen du [SERRA; 1998; 6].

Óscar Goñi infografiagilearen ustez egunkari batean grafikoek departamendu bat antolatzerakoan, berebizikoa da profesional grafikoek beraiek baliobideak hautatu ahal izatea [1998; 8] eta horien artean honako hauek aipatzen zituen: "...1.-Haiek nahiago duten 'hardware' eta 'software', 2.-Kanpoko agentzietako zerbitzuen kontratazioa beharrezkoa den a la ez, eta 3.-Beharrezkoa den dokumentazioa (kartografia, enziklopediak...)..." Eraberean, erredakzioak egunero eskatu beharreko grafikoak arratsaldeko seirak baino lehen komunikatu beharko lituzketela kazetariak uste zuen, honela infografistek arratsalde osoan zehar sufritu behar duten 'isurtzea' gertatu ez zedin.

Dokumentazio propioa:

Infografia departamenduek eskuetara gorde behar duten zenbait material propioaren artxiboa deskribitzen du Sancho Valero [2000a; 2]; "...mapa ofizialak, turismo mapak, ibilbideak, eraikin eta museoen planoak zein foiletoak, marrazkiak, zirriborroak, logotipoak, argazkiak..."

Eduardo José Pérezek megagrafiko baten eraikitze prozesua hasi baino lehen bilatu beharreko informazioa eta dokumentazio fasearen garrantziaz hitz egiten digu [1999b; 3]. Bakarrik gaia erabat menperatuta daukanean hasi behar du infografistak grafikoaren planteatzen. Edozein xehetasunik, nahiz eta txikiena irudi arren, albo batera utzi eta

¹⁰⁰ Espainian 'La Vanguardia' izendatu zuen lehenengo aldiz 'Zuzendari adjuntua' bezala arte zuzendaria, Carlos Pérez de Rozas.

ikertzen ez bada lan guztia asko konplikatu dezake, eta esperientzia txar zein eskarmentu propioetan oinarritzen du ebazpen horiek.

Egunkari erregionaletan [GOÑI, Óscar. 1998; 4] dokumentazio hori teletipoa eta eskura lortu zitezkeen enziklopediak dira. Eta berau 'berebizikoa' dela dio espreski grafikoa behar bezala burutu ahal izateko [1998; 4]

2.8.1.- Estilo liburuak

Michel Gafrék dionez [1998; 5], egunkari bat birdiseinatzeak estilo liburu grafiko berria sortzea dakar, eta horrek infografikoak hartzen ditu ere. Komunikabidearen pertsonalitatea errespetatuz oinarritzko jarraibide batzu jarri behar dira. Honek grafiko sinpleentzat balio behar du baina baita ere malgua ere izan behar esperimentazioa permititzeko. Uniformatu daitezkeen elementu bezala honako hauek aipatzen zituen: "...Tipografiaren erabilera, kurben estiloa, barrak, tartak, grisen erabilera edoa kolorearena. Bigarren kasu honetan, tonuen paleta bat definitu behar da, egunkari osoan erabiliko direnekin batera egin dezala...".

2.9.- Infografia agentziak

Julio Alonsok infografistak 'El País' egunkarian lan eta gero 'Grafia' agentziako arte zuzendaria izan zen. Espainian komunikabide inprimatuentzako grafikoetan espezializatua izan zen lehenengo agentzia dugu. Alonsok 1998an esplikatzeko zuenez¹⁰¹, 'Knight Rider Tribune' (KRT) baita 'Chicago Tribune'-k -garai hartan bere zerbitzu infografikoak 'Grafia'-k hedatzen zituen Espainian- bi agentziek bere bezeroekin sinatuta zeukaten kontratuen arabera, egunkari horiek konpromezua hartzen zuten urtean zehar zenbait grafiko propio sarean ipintzeko konpartituak izan ahal izateko. Honela, kobertura ona bermatzen zuen eta beti gastu maila arrazionala mantentzen. Garai hartan 'Grafia'-k maila txikiago batean antzeko sistema erabiltzen zuela azaltzen du Alonsok. Adibidez 'La Voz de Galicia' egunkaria abonatua zeukaten eta bere kontribuzioaz balio zitekeen. Beste adibidea Milanen egoitza nagusia zeukan 'Publishing & Grafica / P&G' agentzia zen edota Espainiako 'Colpisa' eta 'Serviprensa' ere.

Honela funtzionatzen zuen 'Grafia'-k 1998an. Abonatutako hamazortzi egunkari abonatuak zeuzkan -bestelako bezero ez finkoetaz aparte-, haien artean Espainiako prentsako inportanteenak, Alonsoren hitzetan. Sistema oinarritzen zen eskusiba erregionaletan edo tokiz tokikoetan, kasu bakoitzaren arabera, eta kuota kalkulaterakoan bi aldaera hartzen du kontutan; kuota finkoa eta kontsumoa. Lehenengoa ez zen berdina guztiontzat, baizik eta irakurlegoaren arabera kalkulatuta ('OJD'ko datuak kontutan hartuta¹⁰²), eta bigarrena kalkulatzeko, bidalitako artxibo informatikoaren tamaina hartzen zen kontuta, behin konprimituta. Orokorrean, artxibo hori zenbat eta handiagoa izan, infografikoa ere konplikatuagoa bazen. Azkenez, kontsumoa gero eta altuagoa izanda, unitatezko prezioa ere jeisten zen.

Eguneroko funtzionamendua aurrikuspenen bitartez egiten zen; egunero zein grafikoak eskainiko lirarteke publikatzen zen eta gero -gehienez arratsaldeko zazpiak arte- infografiko horiek bezeroen eskuetan ipintzen ziren prebidualizazio orri baten bitartez¹⁰³, bakoitzak nahi zituztenak hartu ahal zituzten. Eraberean, dokumentazio zerbitzu bezala funtzionatzen zen, artxibo kronologiko baten bitartez arestian publikatua izan zena ere eskuragarria baizen, bai publikazio data zein gaiaren arabera bilatzaile baten bidez. 1998an 15.000 fitxero baino gehiago bazegoen bere datubase hartan.

Bidalitako grafikoak beti editatu eta moldagarriak baziren. Egunkari bakoitzak bere tipografia, tamaina edota koloreak erantsi ahal izateko, eta honela gertatzen zen ia beti.

Óscar Goñi infografistak kexatzen den bezala, batzutan agentzia batek bidalitako grafikoa komunikabidearen letra tipoak, tramak eta formatora egokitzea berandutze luzea suposatuz, batzutan egunkarian bertan osoki elaboratua izan balitz baino gehiago [GOÑI, 1998; 4].

Internet oraindik hedatzeko zorian zegoen garai hartan, beraz bidali eta errezeptzio sistema zen kezka nagusia bai agentzia zein bezeroentzat. Garai hartako ohiko 'modem' bitartez igorri ahal izateko 100etik 130ra kilobyteko grafiko ertaina minutubete behar zen, beti linea telefonikoaren okupazioaren arabera.

Egunero zortzitik hamarrera arte Grafia eskaintzen zituen grafikoaren prebisioa, bi ataletan banatuta; Zerbitzuak eta Gaurkotatua. Lehenengoen artean erregulartasun eta aurrikusgarritasuna zeukaten grafikoak aurkitzen ditugu (Burtsetako informazioa edo

¹⁰¹ Alonso, Julio: Grafía. El trabajo en una agencia de prensa especializada en infográficos. Revista Latina de Comunicación Social, 8. 1998ko abuztua. Artikulu hori Menéndez y Pelayo Nazioarteko Unibertsitateko Kuenkako egoitzan kazetaritza infografiari buruz emandako lezioan dauka jatorria.

¹⁰² 'Información y control de publicaciones, S.A' enpresak publikatutako datuak.

¹⁰³ 'El Diario Vasco' egunkariko infografiagileak, Oscar Goñik, aurrikuspenetako epe horiek batzutan betetzen ez zirela kexatzen zen 1992an [1998; 4]

loteriak, baita sasoiko beste batzuk; eski estazioen informazioa, suteen arriskua, enbaltzen egoera, etab.)

Kanpoko iturri nagusia EFE agentzia zeukaten. Eta grafikoen itxura honako hau zen.

- 1.- Figura guztiak perfilatuta dira, zuriz edo beltzez, daukaten fondoaren kolorearen arabera
- 2.- Tonu erdiak, bai beltzak zein beste edozein koloretakoak, gutxienez %15eko trama daukate, bestela galdu egiten dira inpresioan. Eta intentzioa kolore puroa (%100) izan ezik, tramak ez %55a baino gehiago, bestela nahastu egiten baitira.
- 3.- Kolore bereko tonu erdien arteko eskala urratsak gutxienez %10ekoak izan behar dira, gutxiagokoak badira ezin baitaitezke nabarmendu nabarmen. Honen salbuespena degradatuak dira, non portzentaiak aldatu egiten diren tarteko pausuen kantitatearen arabera.
- 4.- Fondoak ez du espazio guztia bete behar, bestela infografikoa amatatu egiten du, indarra kentzen baitio. Beraz ez da kolore plano izan behar, degradatua baizik, eta, hobe ere, zuria eta beltzaren kontrastea erabiltzen badugu.

Arau konplementarioak, diseinuzkoak, infografikoei "pertsonalitate gehiago" ematen laguntzen dutenak.

- 1.- Infografikoen limiteak markatuta egon behar dira pika puntu erdiko lodierako marra batez. Hauxe dugu hain zuzen marra lodierarik txikiena, hortik behera zailtasun handiz inprimatzen baitira.
- 2.- Grafikoen limiteak ere barnetik hiru milimetroko espazio huts batez banandua daude. Salbuespen bezala grafikoak nonbait gaintitu dezake, baina inolaz ere testu kutxek. Tarte horixe da ere testu zutabeek haien artean errespetatu behar dutena.

Batzutan, infografiko baten errematea kanpoko kutxatik atera daiteke, baina gaintitze horrek ezin du lau milimetroak gaintitu. Gehienezko muga hori da ia pika edo zizero bat, hau da, egunkariak zutabearteko 'kale' bezala erabilitako espazioa baino pixka bat gutxiago. Honela ekiditzen dugu grafikoa tamainaz aldatua izan beharra, edota ondoko testu zutabea gutxitua edo 'kosk' egina behar izana. Diseinu grafikoan 'recorrido' / ibilbide bezala ezagutzen dena.

Testu beltz normal batek ezin du atzetik %20 baino trama ilunagoa eduki, bestela, irakurtezina suerta zitekeen.

Hala ere, agentzietatik hartutako grafikoak maiztasun gehiegiz publikatzea egunkariaren pertsonalitate grafikoaren kontra joan daitekeela azaltzen digu Óscar Goñi, 'El Diario Vasco'-ren infografiagile bakarrak. "... Egunkari batek bere grafiko propioak ekoizten dituen momentutik, bere langileek burututa, sigilu bat, ezberdintzapen sinadura baten aurrean gaude, bere argazki propio edota erredaktoreekin gertatzen den bezalaxe. Agentziako grafikoak sistematikoki publikatzeak bere pertsonalitatea dinamitatu egiten du eta egunkariaren produktua konpentetziarenarekin berdintzen du..." [GOÑI; 1998, 4]¹⁰⁴. Antzeko ideian insistitu egiten du Kevin G. Barnhurstek esatean grafikoak, dinamikoak izateaz gain, 'bereizgarriak' direla esatean [1999; 7] "...Koadro grafikoak 'klixek' edo fabrikako itxura ekidin behar du..."

¹⁰⁴ Ezberdina iruditzen zaio "batzutan bakarrik" agentziako elementuren bat erabiltzea. Hala ere, infografistak horren kontra agertzen da ere.

2.10.- Erabilitako teknologia

Jordi Clapers infografistak adierazten du¹⁰⁵ "...ordenagailu bat maneiatzen jakiten edota zenbait programa erabiltzen ezagutzeak ez du esan nahi marrazten ezta informatzen jakitea. Teknologiai talentu falta konpentsatu dezake, baina konozimendu artistikorik gabeko pertsona askoren mugapenak, bai, baina kultura bisuala eta sentsibilitate artistikoa duten haiek lortuko dute emaitza egokiakoak bere ezaguerak transmititzen dakien beste profesional batek gidatuak badira..."

Ezin ahaztu dezakegu ere inprimaketa sistemek jaso duten hobekuntzak azken hamarkadetan. Valero Sanchok 2000an esaten zuenez, egunkari gehienek Espainian erabiltzen dute 'offset' inprimaketa sistema, baina Europa zein Amerikako beste zenbait egunkarik ezin dute inpresio xehetasun guztiak erakutsi 'flexografia' izeneko sistema erabiltzen dutelako. "...Eraberean, azpimarratzekoa da arte grafikoetako sistemek lortu duten agilitadeari esker denbora gehiago dedikatu dakioke kazetaritzari, eta ondoren, infografiari..." [2000a; 6].

Valero Sanchok ere ondo bereizi nahi du infografia, informazioaren bide bezala, eta informatikatik, egungo bere senide horretatik. Honela, 1994an Aragoiko Instituto Teknologikoan 'IV Congreso Nacional de Informática Gráfica'-n aurkitu zuen ambientea zela eta -hitzaldi erabat informatikoekin eta kazetaritzaren inolako erlazioa zeukaten profesionalekin- konturatu zen "...mami bat komunikatzeko grinarik gabe, ez dagoela ezer, eta tamalez kongresuz erratu nintzen, baina horrek balio zidan informatika eta kazetaritza bereizten hasteko...". Ezin argiago deskribatzen du adibide honekin: "...aulki bat espazio hutsean giraka oraindik ez da komunikazio produktu bat, produktu informatikoa baizik [2000a; 1]. Eta berriro ideia honetan insistitzen du esaten duenean [2000b; 1] "...Baieztatu daiteke arestian infografiaren profesionalak esistitu direla teknika informatikoetaz ezer ez zekitenak, eta batzuk eskuzko marrazkiak eta errealizazio teknikak ez zirenen kontra egon direla ere, baina gaur inork ez du defendatzen artisaua ekoizpen sistema bakarra bezala...". Onartzen du ere teknologia grafiko modernuak asko lagundu egin duela infografiaren garapenean, eta horri esker, gero eta gehiago erabiltzen dela egungo prentsan.

Julio Alonsoren hitzetan, "...errazagoa da erramintaz aldatzea mentalidadeaz baino..."¹⁰⁶. 'Grafía' bere agentzian infografikoak egiteko 1998an erabiltzen zuten aplikazio informatikoen artean honako hauek aipatzen ditu; 'Adobe Illustrator' marrazki programa nagusi bezala (eta 'Freehand' ia ez zutela erabiltzen¹⁰⁷). Programa laguntzaile bezala beste hauek; 'Satellite', 'Swivel' eta 'DeltaGraph' marrazkientzat; 'Photoshop' eta 'MacView Plus' irudiak digitalizatu eta tratatzeko; 'QuarkXPress' diseinu eta maketazio lanentzat, 'WireFlash' teletipoa hartu eta kontsultatzeko; 'Stuffit Deluxe' eta 'Capture' datuen konpresiorako; 'FileMaker Pro' eta 'Microsoft Excel' administrazio gestiorako eta 'TeleFinder' eta 'PressLink' komunikazioentzat.

Infografia irakasgai bat nola antolatu eta zein baliabide teknikorik beharko lirateke halakorik martxan jarri ahal izateko Barnhurst irakasle estatubatuarrek honela erantzuten zuen¹⁰⁸: (dotazio teknologikoari buruz) "...aulkiak, mahaia, klarionak, arbela, arkatzak eta papera. Noski erabili daitezkeela proiektorik, baldin badaude, posta elektronikoa, internet eta giza zientzatan eta humanitateen irakaskuntzan erabili ohi diren elementu guztiak. Unibertsitate irakaskuntzan gertatzen ari den berezitatuko

¹⁰⁵ Clapers, Jordi. Los gráficos, desde fuera de la redacción. Revista Latina de Comunicación Social, 9. 1998ko iraila.

¹⁰⁶ Alonso, Julio: Grafía. El trabajo en una agencia de prensa especializada en infográficos. Revista Latina de Comunicación Social, 8. 1998ko abuztua.

¹⁰⁷ Óscar Goñi infografistari hau 'harrigarria' iruditzen zitzaion 1992an, garai hartan egunkari gehieneko infografistek 'Aldus Freehand'-ekin egiten baizuten lan. [1998; 11]

¹⁰⁸ Barnhurst, Kevin G. 'Reflexiones sobre infografía periodística. Respuestas (13) sobre infoperiodismo'. Revista Latina de Comunicación Social, 55. 2003.

teknologiaren inbasioaren kontra nago erabat, eta beronek dakartzan kostu teknikoak ere...".

Michel Gafrek dionenez, askotan infografistak kontratatzerakoan 'Macintosh' ordenagailuak erabiltzen jakitea saritzen da, baina irizpide hori erratua dago [1998, 5]. "...Konputagailua denbora irabazten permititzen duen erraminta baino ez da, eta berau erabiltzen oso azkar ikasten da -maneu onak denbora samar behar duen arren-. Horregatik egokiagoa da epe luzeko apostua egitea eta kazetari bisual bat formatzea, tekniko bat eraldatu baino, bigarren honek ez baitu inoz lortuko behar diren fakultateak...".

'Macintosh' ordenagailuen erabilera aipatzen du Michel Gafré [1998; 5] hauek sor dezaketen arazo bat aipatzeko; ordenagailu hauek 'uniformatu' egiten dutela esaten du -estilo liburu grafikoaz hitz egiterakoan-.

Eduardo José Pérezek gogoratzen digu nola teknikari buruz ezin daiteke joera bakar bat unibertsalizatu; "...bai Mac ordenagailuekin zein antza tradizionalako ilustrazioak, collageak, maketak, argazkiak...". Aspektu honetan sormenak agintzen duela dio, hori bai, beti kalitate informatiboari errespetuaren barruan. Eta Argentinan ilustrazio erreferente bezala Julio Freire jartzen du, zein dokumentalista trebatua den ere. "...Bere ilustrazioak bikainak dira eta konjuntutik nabarmentzen dira begibisitari plazerra ematen. Gogokoak ditu, hala ere beraiekin ere ikasten ditu gauzak, informatzen didatelako, beraz, infografia baten oinarrizko funtzioa betetzen dute..." [1999b; 5].

Mario García irakasleak zioen 'Macintosh' ordenagailuen erabilerak efektu positibo hau eragin duela; "...artistak ez diren pertsona askok grafiko sinpleak burutu ahal izateak, honela, artistak direnei denbora libre asko uzten, bigarren hauek infografiko konplexuenetan lan egin ahal izateko..." [1998; 6]. Eraberean, 1993an idatzitako artikulua berean esaten zuen oraindik erredaktoreburu gutxik maneiatu ahal zitzaketela ordenagailu mota hauek eta honako profezia hau ere luzatzen ausartzen zen: "...90. hamarkadaren amaieran, grafiko txikien errealizazioa erredaktoreburu guztien lan formazioaren parte izango da...".

Josep María Serrak 'El Periódico de Catalunya' jartzen du adibidetzat, zeinek 1987ko udal hauteskundeei begira bere lehen 'Macintosh' ordenagailua erosi zuen. "...beronen lehen ekoizpena barretako 120 grafiko izan ziren, 'Cricket Graph' izeneko aplikazioarekin sortuta, eta, nahiz eta oso sinpleak izan, irakurleari estatistika kantitate harrigarria eskaini zioten. Ordenagailu hori gabe ezin izango lituzkete hainbeste grafiko egin denbora gutxi hartan..." [1998, 5].

Serra kazetariaren aburuz, teknologia berri horiek erositara, enpresariak konturatzen hasi ziren halako inbertsio altu hori amortizatu ahal izateko profesional egokiak ere kontratatu beharko lituzketela, horrek bultzatu zituen grafisten fitxaketak "...dirutza galanta kostatzen zuten konputagailu berri horiei probetxua atera ahal izateko eta lan sistemetan eraldaketak onartzeko..." [SERRA, Josep María. 1998; 5].

Nahiz eta teknologia bere errol inportantea jokatu eta konputagailuek berebiziko laguntza eman dioten infografiaren garapenari, De Pablos irakasleak adierazten du infografikoen sortze prozesua inoiz ez dela izango erabat automatizatu "...ez dago, orduan, automatismo osorik edota oinarrizkoa infografiaren hasiera eta burutzean, beti beharko baitu pertsonaren bultzada..." [DE PABLOS. 1991; 168].

2.11.- Infografiaren Etika

Bai errorez zein ezagutza falta edota intentzio txarragatik datuen errepresentazio bisualek irakurle ez adituak edo sineskorrenak engainatu ditzakete. Honen atzean teorikoek bi arrazoi nagusi aipatzen dituzte; 1.-Infografista gutxi daukate esperientzia handia informazio estatistikarekin. 2.-Nola infografista askok sinisten dute grafikoaren funtzio ilustratiboan bakarrik eta irakurleagoaren atentzioa deitzea baino ez den helburu, aurkezpen akatsak edota ornamentazio gehiegikeriak permititu daitezke [LESTER. 2006; 194].

Nahiz eta askotan banala eta apolitikoa irudi arren, mapek eta mapagintzak eztabaida asko sortzen dituzte. Lurreko irudia, adibidez, hainbat proiektio bidimentsional ezberdin posible dauzka bere forma biribila dela eta. 'Groenlandia arazoa' deitutako problema honi aurre egiteko bi proiektio nagusiak 'Mercator' eta 'Peters' ditugu. Lehenengoak 1569an sortu zuen Gerhard Kremer kartografo flamenkoak "...Proiektio honek handitzen du herrialdeen tamaina Ekuadorekik aldentuta dauden ehinean. Munduko ikuspen hau ona zen Europako kolonialistentzat, hauen herrialdeak handiagoak isladatzeaz gain munduaren erdian ipintzen bai zituen...". 1974an Arno Peters historiagile alemaniarraren proiektzioa, ordea, zehatzagoa da tamainak eta proportzio erlatiboak adieraztean, baina ez berauen forma eta antza [LESTER. 2006; 192].

2.12.- Grafiko estatistikoen gorentasunaren Tufteren bost printzipioak

Edward Rolf Tufte (1942, Kansas City) hainbat komunikazio konpainiarako aholkularia izan da datu eta estatistiken adierazpen grafikoaren inguruan 'CBS', 'NBC', 'Newsweek', 'New York Times', EE BBetako Errolda Bulegoa eta 'IBM'-n. Autoargitaratutako bere liburuak klasikoak bilakatu dira informazio kuantitatiboaren errepresentazioaren munduan. Egun, Tufte munduan zehar bidaiatu egiten du mintegiak ematen diseinu grafiko eta estatistiken errepresentazioa hobeto uztartzen laguntzeko.

Tufte defendatzen du aukera kontserbatzailea diseinuaren inguruan; aurkezpena ezin daiteke izan istorioa baino inportanteagoa. Era ideialean "diseinua beti albo batera desagertu beharko litzateke informazioaren alde". Dekorazio hutsez betetako infografikoentzat izen berria asmatzen du; 'chartjunk' ('infozaborra' bezalako berba) eta irakurlea entretenitzeko hezitzeko baino burututa direla esaten du¹⁰⁹.

Honako bost printzipio aipatzen ditu 'graphical excellence'-ren inguruan:

- 1- Gorentasun grafikoak datu interesgarrien ondo diseinatutako presentazioa da. Hau da, hiru osagaien asuntua; mamia, estatistika eta diseinua.
- 2- Idei konplexuak gardentasunez, zehaztasunez eta eraginkortasunez komunikatzean datza gorentasun grafikoak
- 3- Gorentasun grafikoak ematen dio irakurleari ideia gehienak denbora gutxienean eta tinta gutxienean, eta espazio txikienean. ('Data-ink', Datu-tinta printzipioa)
- 4- Gorentasun grafikoak ia beti multibariablen da
- 5- Eta datuen inguruko egia azaltzea exigitzen du gorentasun grafikoak. (Zintzotasun grafikoak)

¹⁰⁹ Tufte ere 'Powerpoint' bezalako aurkezpen grafikoentzako aplikazio informatikoarekin egindako presentazioen kontra agertzen da. 'Wired' aldizkarian 'Powerpoint is Evil' ('Powerpoint gaiztoa da') titulupean argitaratutako artikulu batean. Diapositiba hauen bitartez haritutako hitzaldiak informazioa 40 hitz inguruk osatutako mezu laburrez osatuta da, eta horrek zailtzen du informazioa testuinguratzea eta erlazionatzea, eta audientziaren errespetu bezala, programa hau interakzioaren sustitututzat ez erabiltzeko eskatzen zuen [LESTERS. 2006; 195].

Bostgarrenari ('Telling the truth about the data') 'Zintzotasun grafikoa' deritzo. Hau da, beste ezer baino lehen, grafikoek egia esan behar dute, magnitudeak eta konparazioetan ez engainatu edo distorsionatu. Baina halako printzipioa behar bezala betetzen ari denentz neurtzeko zailtasuna ageria denez, honako sei erregela praktiko hauek aipatzen ditu [TUFTE. 2001; 77]:

- Zenbaki eta kantitateen errepresentazioa, grafikoa beraren azalera parte bezala agertzen zaizkigunean, zuzenean proportzionala izan beharko litzateke errepresentatutako kantitateei.
- Etiketazio argia, zehatza eta zuzena erabili behar da datuen inguruko anbiguidade edota distorsioa ekiditzeko. Idatzi azalpenak eta indikazioak grafikoan bertan, datuekin batera.
- Erakutsi datuen aldaketa, ez diseinu aldaketa.
- Denboran zehar dirua edota monetarizatutako balioen sortak, ia beti inflazioa kontutan hartzea eta estandarizatzea hobe da, unitate nominalak baino.
- Grafikoan marraztutako informazio barietateak datuetan agertzen direnak baino gehiago ez dira izan behar.
- Grafikoek datuak bere testuinguruan agertarazi behar dituzte.

Honela azaltzen du Nigel Holmesek bere kezka morala infografikoen inguruan:

"...Infografikoak etikoa izan behar du errealitatearekin bat datorren edukiera objetiboa, zintzoa eta egiazkoa adierazterakoan. Ez da nahitaezkoa infografikoa elementu bisualetaz betetzea erakargarriago bihurtzeko, edota informazio distorsionatzea ezberdina izateko asmo hutsarekin. Tridimentsionaltasuna erakargarria izan daiteke, baina engainagarria ere bai..."¹¹⁰

Kevin Barhursten ustez ere¹¹¹ "...diseinatzaile onek informazio numeriko zehatzarentzako forma egokiak sortzen dituzte eta batzutan dekoratu ere. Ornamendu hori erabilgarria izango da tratatutako informazioa argiagotzeko izan dadin balio badu bakarrik..."

Baina Julio Alonsok¹¹² onartzen duen bezala, ornamendu eta dekorazio gehiago duten grafiko horiek dira azkenean bezeroek gehien eskatzen dituztenak, eta zorgin kurubila horretan erortzen da behin eta berriz.

Infografiaren etikari buruzko aspektu ezberdina azpimarratzen du Jordi Clapersek¹¹³; "Infografistak interpretatu behar du lortutako informazioa, eta ez kalkatu". Berak salatzen duen intrusismo profesionala dela medio, gero eta gehiago gertatzen ari da liburu, aldizkari edota bestelako komunikabide bitartez lortutako irudiak eta argazkiak eskaneatu, inolako sortze lanik gehituz. Eta, bere esanetan, askok konfunditzen dute dokumentazio lana argazki edo marrazki kopiatze hutsarekin.

Óscar Goñi infografistak salatu egiten zuen informazio aproposik gabe askotan erredakziotik presionatu egiten zaiela infografistei grafikoak burutzeko. "...Eta negargarria da ikustea amaitezinezkoa dela daturik gabe grafikoak publikatzen ditugun kasuen zerrenda..."[1998; 5].

Barnhurst irakasle estatubatuarrak editoreei leporatzen die grafikoen osotasun etikoaz zaindu beharra [1999; 5] eta bereziki honako aspektu hauetan atentzioa ipintzea exigitzen die: konparazio kuantitatiboen kasuetan marrazkien neurri aldaketa datuekin bat etortzea. Area baten tamaina proportzionalki handitzen edo txikitzen denean

¹¹⁰ Nigel Holmes, 'Cómo (no) mentir con estadísticas'. Documentación infográfica de la Society of Newspaper Design, Espainiako Atala. Nafarroako Unibertsitateko Informazioko Fakultatea, 1991, 3. orr.

¹¹¹ Barnhurst, Kevin, Handbook for visual Journalism. Hawthorne Books, Champaign, Illinois, 1990, 39. orr.

¹¹² Alonso, Julio: Gráfica. El trabajo en una agencia de prensa especializada en infográficos. Revista Latina de Comunicación Social, 8. 1998ko abuztua.

¹¹³ Clapers, Jordi. Los gráficos, desde fuera de la redacción. Revista Latina de Comunicación Social, 9. 1998ko iraila.

aldaketa hori bi dimentsiotan gertatzen ari dela gogoratzen digu; horrek ere bikoizten du hasiera eta amaierako irudien arteko aldea, beraz irakurleari konfunditu diezaioke. Antzeko arazoa gogoratzen du gertatzen dela itxura tridimentsionala ematen zaien grafikoekin, edota diagonaletako tramekin beteta daudenak. Kasu hauetan begibistari isladatu dakioken sentzazioa gerta daiteke ez izatea datuek matematikoki izaten dutena [1999; 5]. Infografiko mota hauek ingelesez 'pictographs' deitzen dira eta askotan kritikatuak dira "...irakurlearen inteligentziari insultatzeagatik. Hala ere asko erabiltzen dira prentsan..." [LESTER. 2006; 188]. 'USA Today'-k atal bakoitzaren azalorriko behealdean argitaratzen dituenak ditugu aipagarri. Edward R. Tuftek inork baino hobe azaltzen zuen oinarrizko akats hau adibideren bitartez, baita honela deskribatzen duenean "...Magnitudeak erakusterakoan areak erabiltzen dituzten saiakera askotan oinarrizko akats elementala egiten dute bi dimentsioak simultaneoki aldatzean datu unidimentsionalen aldaketei erantzuteko..." [2001; 70]. Eta, eraberean, soluzio teoriko argiena aurkezten zigun ere infografikoen 'integritadea'-ren inguruko bere sei printzipio haien artean, bostgarrenena esaten zigunean "...Grafikoan marraztutako informazio variableak datuetan agertzen direnak baino gehiago ez dira izan behar..." [2001; 77].

2.13.- Kazetaritza infografiaren historia Espainian

1638ko 'Prodigioso Volcán'-eko kasua deskribatzen du Mario Tascón 2011ean aurkitutako Espainiako kazetaritzaren infografiko aitzindaria¹¹⁴. Madrilen Franciso Martínezen inprimategian sortuta, gertakarien 'Erlazio' honetan Azores irletan -garai hartan Espainiako erreinuaren parte- gertatutako erupzioaren berri ematen zen. 'Erlazio'-ak bi orrialde ditu. Lehenengoan testuarekin kontaktzen zen notizia, eta bigarrenean infografikoa sumendia eta zatien azalpenarekin legenda batean. Grafiko hau agertu arte 1723ko beste bat kontsideratzen zen zaharrena ('Gazeta de Lisboa'-n, urtarrilak 7an publikatutakoa, non bale erraldoi baten deskribapena egiten zen).

1940. hamarkadan Bartzelonako 'La Vanguardia' egunkariak Sanz Lafite ilustratzaile eta karikaturagilea -baita Fisikan lizentziatua- kontratatu zuen mapak eta marrazkiak egiteko. Josep María Serrak [1998; 1] aitzindari bezala kontsideratzen du; berrogei urtez lan egin baizuen egunkari hartan, jubilatuta arte, mapak, marrazkiak, karikaturak eta logotipoak egiten. "...Urte askotan zehar bera bakarrik aritu zen, enpresak beste pertsona batzuk kontratatu zituen arte, honela oporrak hartu ahal zitzakeen...". Bigarren Mundu Gerran zehar bere mapak informazio oso zehatza eta onez eginda zeuden. Espainian Francisco Franco generalaren diktadurako datu ofizialak baino informazio hobearrekin eginda, eta Serraren aburuz, irakurleek garai hartan interes handiz jarraitzen zuten. "...Nazioarteko informazioko erredaktore batekin batera jarraitzen zuen egunero 'BBC'-ko berriak, eta horien arabera, frentean marrazten zituzten..." [1998; 2]. Egile honen hitzetan, Espainiako gainontzeko egunkarietan egiten zenaren antzekoa zen, eta infografikoen itxura ez zen aldatu hiru hamarkadaz. Bere ustez, marrazkilari eta ilustradoreen presentziak egunkarietan "...infografismoarekin konfunditu daitekeen ilustrazioa egitea permititzen zuen, baina gehienetan gertakizunen errekreazioa baino ez zen, informazio baino imajinario gehagorekin sortuta..."

1950. De Pablos katedradunak errepasatzen ditu aurreko mendearen erdian egindako lan infografikoak prentsan. Honela 50. hamarkadan 'Blanco y Negro' ABC-ko astekarian agertzen ziren zientzia arloko infografiak aipatzen ditu. Jadanik hilda den Emilio Novoak eginak, profesore honek ilustratu egiten zituen bere testuak benetako infografia zein mapa infografikoekin, beti testuak ahalik eta hobe esplikatzeko intentzioarekin.

1977an 'El País'-eko zuzendariak, Juan Luis Cebriánek, ponentzia bat irakurri zuen 'Relación lenguaje-imagen en el periódico' titulupean. Josep María Serrak beronen lerro batzuk transkribatzen ditu, non Cebriánek elementu grafikoak aipatzen dituen, eta honako hauei baino ez zien aipu egin "...argazkiak, komikiak, publizitatea eta titularrak -berauek ere askotan ikur grafikoa izan ohi baitira gehiago, kontzeptu berbala baino-..." [1998; 4]. Hau da, Serrak azpimarratzen duenez, prentsako irudiaren inguruko hitzaldi batean zuzendariak ez ditu ezta aipatu ere infografikoak edota antzekorik.

1982an Espainiako egunkariko erredakzioetan "...infografista bat, edo gehienez bi baino ez zegoen, normalean eguraldiko mapa zein barren estatistika grafikoak egiteko dedikatuak..." [SERRA, Josep María. 1998; 4] eta publikatzen zen gehiena mapak eta grafiko estatistikokoak baino ez zen, batzutan ilustrazio alegorikoekin baino ez.

1984: Madrilgo 'Cambio 16' egunkariko astekarian Arturo Juez infografistak egindako lanak -gaurko erramintak erabili gabe- De Pablosen hitzetan; "lan horiek egun publikatzen ari direnen kalitatea bazeukaten"¹¹⁵.

1985an Mario Tascón infografistak 'Macintosh Plus' bat erosi -Europar saldu ziren lehenengoetariko- eta, Juan Antonio Ginerek kontaktzen duenez, garai hartan 28 kilobyte,

¹¹⁴ TASCÓN, Mario (2011), 22 orr.

¹¹⁵ De Pablos Coello, José Manuel (1998): Siempre ha habido infografía (3). Revista Latina de Comunicación Social, 5

eta disko gogorrean 400 zeuzkan konputagailu hark, [Giner, 2010a] ibilbide sinestesina hasiko litzateke; lehen 'El Mundo' egunkariaren infografia eraldatzen eta beronen 'web' orria 'ElMundo.es' munduan gaztelerazko 'site' garrantzitsua bihurtuko luke, eta gero 'Prisa.com' Europako mamien ekoizle inportanteenetariko bihurtuko zuena.

1985tik 1990ra Espainiako prentsako 'ikasketa urteak' deitzen ditu Josep María Sierrak [1998; 5] non 'infografismo' kontzeptua bera asimilatzen hasi eta ulertzen hasten den "...Hala ere, teknika hori zertan zetzan ez zuten argi ezta infografia departamenduak jaiotzen ari ziren egunkari haietan ere; 'La Vanguardia', 'El País' eta 'El Periódico de Catalunya', kasu...".

1989ko azaroaren 20an Madrilen Josu Muguruza abokatuaren hilketaren ondorioz 'El Mundo' egunkariak gertakizunen lekuko –taberna baten barruko- informazioarekin argitaratu zuen infografiko bat. Óscar Goñi infografista donostiarraren hitzetan hauxe izan zen lehenengo aldia Espainian infografista batek –Jordi Clapers– erredakzioa utzi eta gertakari baten lekuetara ailegatu izan zela gero infografikoa prestatzeko [1998; 11].

1989an 'La Vanguardia' egunkariak izendatzen du lehenengo aldiz 'Arte zuzendari' bat; Carlos Pérez de Rozas¹¹⁶, 'Zuzendari adjuntua' mailarekin¹¹⁷, eta honek antolatzen duen departamendua hiru ataletan zatitzen du; konpajinazioa, infografismoa eta fotografia [SERRA. 1998; 6]. Garai hartan errotatiba aldaketa aprobetxatuz, egunkariak koloretara pasatzeaz gain eraldaketa sakona egin nahi zuen eta Milton Glaser diseinatzaile amerikar ospetsuari¹¹⁸ aholkularitza eskatu zion birsortze bisual hau aurrera eramateko. Bi urteren ostean Milton Glaser eta Walter Bernard New Yorken –bertan María José Oriol Roca lotura bezala lan egiten ere– eta Pérez de Rozas Bartzelonan eraldaketa burutu zuten. Mario Benito diseinatzailearen ustez [2007; 1] "...zerbait ezberdina egin nahi zuten, azken egunkarietako eskema alemaniarraren antzatik urrun...".

2.13.1.- Espainiako prentsako infografiaren garapena 90. hamarkadan

1990an 'El Mundo' eta 'El Sol' egunkariak jaio ziren. Hasierako momentutik infografia departamentu sendoak izateko asmoa agertu zuten biek. Serraren hitzetan [1998; 6] honek ekarri zuen "...lan merkatuan eskaera handia eta kalitatezko infografikoak burutzeko pertsonalgora kontratatzerakoan zailtasunak...".

Josep María Serraren ustez, 'El Mundo' jaio berria zen egunkarira Jeff Goertzen heltzea oso esanguratsua izan zen bi arrazoigatik. Alde batetik Pedro J. Ramírezek egin zuen fitxaketak suposatu zuen lehenengo aldiz Espainiako egunkari baten zuzendariak infografiako ataleko buruari erantzunkizun maila altua ematea, eta bestetik goraipatuak izanak ziren irizpide infografikoak aplikatzen hasiko liratekeela. "...momentu hura arte gainontzeko zuzendariak ezagutu bai baina oraindik kasu asko egin ez zutenak. Berrero ere, kanpoko norbait etortzea beharrezkoa izan zen.." [1998; 6]. Hurrengo urtean Jeff Goertzen 'El mundo' utzi eta 'El Periódico de Catalunya'-rekin lanean hasi zen.

1991ean Golkoko Gerrak suposatu zuen Espainiako prentsako infografiaren dotoretze prozesuaren hasiera [SERRA, Josep maría. 1998; 5]. Nazioarteko informazioko

¹¹⁶ Senideen artean kazetaritza argazkilari anitz dauzka familian Carlos Pérez de Rozasek, Bartzelonan oso ospetsuak. Aita 1950. hamarkadan hil zitzaion Espainiako soldaduen Errusiatik itzultzearen inguruko kazetaritza lanak betetzen. Anaiak –Emilio– egun 'El Periódico de Cataluña'-ko kirol zuzendari ezaguna da ere.

¹¹⁷ 2007ko irailera arte aritu zen, ia bi hamarkadaz, kargu horretan eta egunkaririk botatzean bere bigarrena zen, José Alberola, sustituto bezala izendatu zuten 'arte zuzendari' bakarrik, ez zuzendaritzako karguan.

¹¹⁸ Milton Glaser diseinatzaile amerikarrak 'I Love New York'-eko logotipoa sortzeagatik ezaguna izateaz gain, hainbat disko eta kartel ospetsu diseinatu ditu. 1974an bere estudio propioa sortu egin zuen 'Milton Glaser Inc.'.

departamenduarekin estuki lan egin behar zen emaitza onargarri eta infografiko hain onak argitaratu ahal izateko.

1992ko Bartzelonako Joku Olinpikoen aurretik Espainiako egunkarien infografia departamendu ezberdinen arteko amorrua eta lanik onena lortzeko griña gertatu zela azaltzen digu Josep María Serrak. "...Nire iritziz, infografismoko sailek sumindura olinpiko bezalako zerbait sufritu zuten Jokuen kobertura planteatzerako unean, kiroletako atalak albo batera utzita ere. 'Guda' bat planteatzen hasten ari zen eta guztiek irabazle atera nahi zuten..." [1998; 6]. Grina horrek kalitate eta ikusgarritasun altuko zenbait produktu ekarri zuen.

José Luis Valero Sancho irakasleak 2000 urtean adierazten zuen iritzi zabaldua zela infografiak "...prentsaren inguruan hain komentatua den gaurko krisiaren barruan¹¹⁹, bizirauteko erramintarik onenetarikoak dugu..."¹²⁰.

Eguneroko lanetik aldendu daitezkeen infografikoak eta denbora gehiagorekin lan egiteko parada dutenen artean, Óscar Goñi 'El Diario Vasco' egunkariko infografiagileak 'La Vanguardia' egunkariak hamarkadaren hasieran publikatzen hasi zen 'Medicina y calidad de vida' titulupeko gehikarian osasunaren inguruko grafikoak goraiatzeko ditu [GOÑI. 1998; 4]. Honen kalitatearen arrazoen artean Carlos Pérez de Rozas egindako birdiseinu lana aipatzen zuen infografista donostiarrak. Serrak ere [1998; 7] azpimarratzen ditu igandekari horren infografikoak, hala nola 'El País' egunkariak 'Futuro' aldizkako gehikarian zientziaren inguruan argitaratzen zituenak bezala.

Zoritxarrez desagertua den 'El Sol' Madrilgo egunkaria aitzindaria izan zen ohiko alearekin batera bilduma moduko erreportai infografikoko kolekzionagarriak oparitzen. Tabloide bikoitzeko formatoan, Golkoko Gerran zehar argitaratu zituen [GOÑI, 1998; 6].

Bartzelonako 1992eko Joku Olinpikoen zehar 'Grafia' agentziak prestatutako eta 'Ya' egunkariak publikatutako orrialde osoko infografiekin batera, 'El País' ere honelako estapak ere argitaratu zituen¹²¹. Berauekin batera, esponsorrak ere agertu egiten ziren.

'El Periódico de Cataluña'-k ere megagrafikoaren bilduma argitaratu zuen Joku Olinpikoen inguruan. Egileen artean; Antonio Franco, Javier Serra, Xavier Conesa, Jeff Goertzen zeuden. Lan hau Eduardo Pérez [1999a; 4] zein Juan Antonio Gineren hitzetan [2010a] "mundu osoan errekonozitua" izan zen. Bilduma Madrilgo 'El Mundo' egunkariarekin batera prestatu zuten -'Magazine' igandekariarekin opari zuen errotatibo honek uztailak 19ean- eta 'Associated Press' agentziak mundu osoan zehar zabaldu zuen ere eta nazio zein nazioarteko sariak jaso zituen. Hala ere, Josep Maria Serraren ustez [1998; 7] Espainian ez zuten behar bezalako inpakturik lortu, egun bakar batean publikatu zirelako, aldeztu aurretiko publizitaterik egin gabe. "...Andrew Lucasen Ilustrazio ederrak, trazuaren originaltasuna eta hiru kokapen ezberdinetatik ekoiztuak izana azpimarratzekoa da - koordinazio lan honek ekarri zituen konplikazioekin-. Faktore negatibo bezala; inork ez zuela pentsatu nola helarazi irakurlearengana dugu, eta azkenean presaka banatu egin zela. Amaiera duinagoa merezi zuen lanak..."

Donostiako 'El Diario Vasco' egunkariak ere Joku Olinpikoen inaugurazioaren aurreko igandean kolorezko gehigarri berezia oparitu zien irakurleei, non infografiko anitz agertzen ziren "...agian horren kalitate handikoak ez, baina bai oso dibulgatiboak..." [SERRA. 1998; 7]. Bartzelonako prentsak Madrilgoa baino infografiko gehiago publikatu zuen Olinpiadetan zehar eta bi aste horietan Espainiako infografikorik onenetarikoak

¹¹⁹ XX mendeko azken hiru hamarkadetan EE BBetako egunkariak irakurlearen %20a galdua zuten. [ABREU SOJO. 2000a; 11]

¹²⁰ Valero Sancho, José Luis: La infografía de prensa. Revista Latina de Comunicación Social, 30. 2000.eko ekaina.

¹²¹ Josep María Serra irakasleak 'El País'-ek publikatutakoei bi akats ikusten zizkien; fotografia moduko ilustrazio handi bat erabiltzeak informazioari espazioa kentzen zio, eta orriaren bi aldeetatik inprimatuak izanda 'poster' bezala eskegia izateko interesa kentzen zitzaien. "...Edonola ere, lan miresgarri eta kalitate profesional handikoa izan zen..." [1998; 7]

sortu ziren 'El Periódico de Catalunya' erredakzioan, Serraren aburuz [1998; 8], zeinek batzutan eragin amerikarra somatzen du ilustrazio handi eta karikaturetan eta bestetan ahalik eta informazio gehiena sartzeko asmoa.

1992an ere 'Marca' kirol egunkariak Frantziako 'Tour' zein Espainiako 'Vuelta'-ri buruzko txirrindularitzako infografikoak destakatu egiten ditu Serrak. Errotatibo honek eta 'El Mundo Deportivo'-k garai hartan ahalegina egin baizuten haien orrialdeetaraino diseinua ekartzeko. Eduardo Pérez 'Coper' infografistaren ustez, 'Marca' kirol egunkari espainarraren infografikoak mundu osoko kirol aldizkariak jarraituak izan dira [PÉREZ, Eduardo. 1999a; 4].

Bi esfortzu infografiko hauen ostean –Golkoko Gerra eta Bartzelonako Joku Olinpikoenak– Espainiako infografia lasaitze zein biharamun fase batean sartzen dela somatzen du Serrak [1998], "ez kalitatean, kantitatean baizik" epe motzeko erreferenterik gabe geratuak ginelako ez bakarrik prentsan, gizarte osoan ere. Eta behin aldi hori pasatuta berriro bide onera bueltatzen da infografia.

Zientziaren inguruko infografikoak hasiko dira nabarmenduz une honetatik aurrera. 'El País', 'La Vanguardia' eta 'El Mundo'-ko zenbait gehikaritan osasuna eta zientziaren inguruko gai atemporalak hasiko dira hutsune hori betetzen kalitate handiko infografikoekin, baina Serrak galdetzen zuen bezala, zergatik ez eguneroko berri eta istorioekin? Hau da, kazetaritzaren azkenengo funtsa denarekin? Bere ustez arrazoia infografisten jatorria kazetaritzatik kanpokoa izatean datza, "...eta kazetaritza oinarri bat faltatzen zaie, lanbide honen 'nerbio' bereizgarri horren eza, hain zuzen..." [1998; 7]. Bi mundu horien arteko 'zubia' edota lotura lana egiteko 'editore-grafikoa'-ren figura agertzen hasi zen. 'El Periódico de Cataluña'-k garai hartan kontratatu zuen lehenengoa Espainian, eta Serraren ustez horrek lagundu zuen infografisten eta erredaktoreen arteko erlazioak arintzen baita infografikoen ekoizpen fluxua berriro estabilizatzen. "...[infografiako] Departamenduak ekintza propioak hartu ditu, infografikoen bitartez kubritu zitezkeen gaiak proposatuz eta, horrekin, egunkarien gainontzeko atalen artean 'beste bat' bezala bere errola finkatzen..." [1998; 8] eta bere ustez "Hemendik aurrera hauxe izango da Espainiako gainontzeko prentsak jarraitu beharreko ibilbidea"¹²².

1994ko maiatzaren 15ean, 'El Mundo' egunkariak bere 'Magazine' igandekarian zazpi orrialdetako megagrafikoa publikatu zuen zezenketaren munduaren inguruan. 'Del arte del toreo' izenburupean Mario Tascónek diseinatutako laminak, Victoria Martosen ilustrazioak eta Fran Álvarez eta Modesto Carrascoren grafikoekin. Infografikoak 'Society of News Design'-eko 'The Best of Newspaper Design' 16. edizioan saritua izan zen, baita Espainian Malofiej infografia sarietan.

Mario Tascón 'El Bierzo' aldizkarian hasi zen argiltapen txiki bateko eginkizun gehienak betetzen. 'SND'-ko Espainiako atalean sartu eta Juan Antonio Gineren hitzetan "infografiaren iraultza espainiarraren aitzindaria" izan zen [Giner, 2010a] Madrilgo 'El Mundo' egunkarirako beronen lehenengo zuzendaria, Pedro J. Ramírezek fitxatu egin zuenean. Gero 'El País'-eko infografia zuzendari bezala lan egingo luke eta 'Prisa.com' komunikazio talde erraldoiaren webgune korporatibo eta mamien dokumentazio zentrua antolatuko luke. 'Innovation' agentziako aholkulari bezala latinamerikan aritu zen zenbait mintegiren bitartez bertako egunkari garrantzitsu askotako infografia departamentuak martxan jartzen.

Juan Antonio Giner 'SND'-ko sortzaile eta lehenengo presidentea izan zen. Hortik 'Innovation' prentsa nazioarteko aholkularitza agentziaren sortzaile eta ko-zuzendaria da.

Alberto Cairo Espainiako 'El Mundo' egunkariko interneteko infografia departamenduko burua izan zen 2000tik 2005era. Urte horietan zehar nazioarteko sari galanta irabazi zituzten haien infografikoak eta mundu mailan aitzindaria kontsideratua izan zen

¹²² 1992ko azaroan idatzitako testua dugu, nahiz eta –beste artikulu batzuen kasuan ikusi dugun bezala– sei urte beranduago arte, 1998 arte, argia ez ikusi.

prentsako informazioaren bisualizazio interaktiboan. Madrilgo Carlos III. irakaslea izateaz gain, Chapel Hilleko unibertsitateko (Iparraldeko Karolina, EE BB) 'James H. Shumaker' irakaslea izan da bost urtetan zehar. Hitzaldiak, mintegiak eta aholkularitza tailerrak irakatsi ditu hainbat herrialdeko egunkari eta unibertsitatetan.

Tomás Ondarra 'El Correo' egunkariaren lehen infografia zuzendaria zen. Madrilgo 'El Mundo'-ko eskaera jaso zuen bertako grafikoaren departamentua antolatzeko. Eskaintza errefusatu eta Bilbon geratu zen¹²³. Gero Buenos Aireseko 'La Nación' egunkariak kontratatu zuen eta azkenean Mario Tascón Espainara bueltatzeko konbentzitu zuen 'El País'-en lan egiteko.

2.13.2.- Egunkari erregionalak

Óscar Goñi infografistak nazio mailako egunkarien infografia baliabideak eta erregionalek dauzkaten arteko ezberdintasunak analizatzean bien arteko alde handia azpimarratzen zuen 1992an. Sei urte beranduago argia ikusi zuen artikulua hartan [GOÑI, Óscar. 1998, 3] Espainiako egunkari erregional askotan infografistarik ez zegoela deskribitzen zuen. Garai hartan 'El Diario Vasco' egunkariak salmenta oso altua eduki arren -1992an ertaina 92.441 alekoa izan zen¹²⁴- pertsona bakar batek -berak- infografia departamentuko eginkizun guztiak bete behar zituen. Hala ere "...handiekin konpetitu beharrean gaude. Egunkariak behartzen gaitu eta...".

'El Diario Vasco' egunkariak 1986an hasi zen maiztasunez grafikoak publikatzen [GOÑI ALFARO; 2]. Hau da, nazio mailako beste zenbait egunkari baino lehenago. Garai hartan, 'Diario16', 'El Correo' eta 'El País' hasiak bazinen grafikoaren publikatzean.

¹²³ Deskribapen bitxia egiten du Juan Antonio Giner [2010a] 'euskaldun burugogor hau' 'El Correo'-ko bere kideburuak nola konbentzitu zuten bertan geratzeko haien ustez 'El Mundo'-ko proiektuaren futuro eza zela eta.

¹²⁴ 'Información y control de publicaciones, S.A' enpresak publikatutako datuak 'OJD' markapean.

3.- 'EL CORREO ESPAÑOL - EL PUEBLO VASCO'-REN EBOLUZIO TEKNOLOGIKOA

3.1 - Aitzindariak. 'El Noticiero Bilbaíno'

1875eko urtarrilak 8an Bilbon 'El Noticiero bilbaíno'-ko lehen aleak argia ikusi zuen. Hiriburuko kaleetatik saldu zen lehen egunkaria izan zen¹²⁵. Manuel Echevarría tipografo errioxarrak sortua¹²⁶, "oso informatiboa eta independientea zen" [SAIZ VALDIVIELSO, 1977; 18 orr.]. Egitura enpresarialaren gainean oinarritu baizuen familia fundatzaileak. Aipatu sortzailearen hiru semek erantzunkizun lanak hartu zituzten. Alde batetik Ramón eta Alejandro zuzenbide lanak asteroko turnoarekin, eta bestetik Ricardok tailerren ardura zeukan. Gainera, Manuel Echevarriaren beste bi lobek erredakzioaren parte ziren. Aleak 'bi cuarto' kostatzen zituen. Bertan idatziko luke Miguel de Unamunok 'La unión hace la fuerza' bere artikulu ospetsua 1880an [SAIZ VALDIVIELSO, 1977; 29 orr.]. Hasieran 'zuritan' makina batean -hau da, alde bakar batetik- inprimatzen zen. 'Marinoni' markakoa, 2.500 kilotako pisukoa eta eskuz mugitu beharrekoa zen. 500 ale orduko ekoiztu zezakeen. Hasieran bi orrialde bakarrik zeuzkan, hiru zutabe zabaletakoak, guztiz testu hutsez osatuta.



1975ko Urtarrilak 20ko azalorria

Lehenengo ale haietako mantxa inprimagarriak 25 zentrimetoko lodiera zeukan eta 41 zentimetrotako altuera. 1876ko abuztuak 15ean testua lau zutabetan zatitzen hasi zen. Aleak ekoiztu ahal izateko inprimategi batean kontratatu behar ziren zerbitzuak denbora gutxi pasatu eta Pariseko 'Marinoni' markako lehen inprimagailuak erosi zen arte. Eskuz mugitzen zen lehenengo makina hau. Bidebarrieta kaleko egoitzetan instalatu zen makinok 2.500 kiloko pisua zeukan eta 600 ale orduko¹²⁷ inprimatzen omen zituen¹²⁸.

1879an bigarren inprimagailua erosi zuten. Lehenengoaren antzeko eredukoa, baina azkarragoa. Garai hauetan egunkariak bi orrialdetakoa zen jadanik eta bi makinok aldi berean lan egin behar zuten gauero inprimaketa burutzeko. 1880ko urtarrilak 1ean inprimatutako paperaren tamaina aldatzen da lehenengo aldiz. Neurriak 31,5 x 47,5 zentimetrotaraino igotzen dira, baita zutabeen kopurua, bostgarrena agertzean.

Aipatu bi makinei motorra gehitu zioten 1880ko hamarkadan. Bartzelonatik ekarritako 'Escuder' konpainiako gas bidezko motorra. Halako aurrerakadaren garrantziaz ohartarazteko, "Bilbon instalatzen zen bigarrena" iragartzen zuen egunkariak¹²⁹. Garai hartan agertzen ziren ilustrazio bakartuak iragarkiak ordaintzen zituzten enpresen ezkuak eta sinboloak baino ez ziren.

¹²⁵ 'El Noticiero Bilbaíno' baino lehen Bilbon izandako beste proiektu aitzindariak: 'La Gaceta de Oficio del Gobierno de Vizcaya' (1810-1813), 'El Bascongado' (1813-14), 'El bilbaíno' (1839-1841), 'El Vascongado' (1841), 'El Vizcaíno originario' (1841), 'El amigo de Vizcaya' (1843), 'Irurac Bat' (1852), 'El Avisador Bilbaíno' (1853), 'Villa de Bilbao' (1858-1860)', azken hau gero 'Euskalduna' izenapean eta 1860tik aurrera 'El Eco Vascongado'. 'Diario de Anuncios' (1860), 'El Correo del Norte' (1868), 'Laurac-bat' (1869), 'El Correo Vascongado' (1873), 'La Guerra' (1873). (SÁNCHEZ ARANDA, 1986; 486)

¹²⁶ 'El Pueblo Vasco' agertu baino lehen beste errotatibo garaikideak Bilbon honako hauek ditugu: 'El Norte' (1881-1916), 'El Basco' (1883-1897), 'El Porvenir Vascongado' (1886), 'Diario de Bilbao' (1888), 'El Euskaro' (1888-1890), 'El Nervión' (1891), 'Eco de Bilbao' (1893), 'Bizkaitarra' astekaria (1893-1895), 'La Lucha de Clases' (1894), 'Euskalduna' (1896-1909), 'Baserritarra' (1897), 'El Correo Vasco' (1899), 'El Diario de Bilbao' (1900), 'La Gaceta del Norte' (1901), 'El Liberal' (1901), 'Euzkadi' (1901), 'La Patria' (1901), 'El Coitao' (1908) eta 'Luz y taquígrafos' (1910)

¹²⁷ Saiz Valdivielsoren arabera, 500 ale orduko (1977; 29. orr)

¹²⁸ 'El Noticiero Bilbaíno', 1909ko abuztuak 25a. Lehenengo orrialdea

¹²⁹ 'El Noticiero Bilbaíno', 1909ko abuztuak 25a. Lehenengo orrialdea

1885ean mantxa inprimagarritik kanpo geratzen ziren marjinak handitu egiten dira zentimetro bana inguru. Urtebete geroago egunkariak 'Jardines' kalean zuen egoitzan eta hartaraino eraman zuten hirugarren inprimagailua. Berrero 'Marinoni' markakoa baina kasu honetan 'erreakzio bikoitzekoa'. 4,5 tonako pisukoa, makina honek 4.000tik 5.000raino ale inprimatzeko kapaza zen, baina motorra indartsuagoa behar zuen ere. Horregatik 'Escuder' lehenengo motor huraren lekuan marka bereko bigarren bat, indartsuagoa, instalatu zen.

1889ko urtarrilak 1ean beste tamaina aldaketa garrantzitsua gertatzen da. Orrialdearen mantxa inprimagarria 53 x 36,5 zentimetrokoa izaten hasten da eta testua sei zutabetan banatzen hasiko litzateke ere. Hiru urte geroago, 1892an, Bilboko 'Gran Vía'-n eraikin berria altxatu zen gero eta gehiago hazten ari zen egunkari huraren beharizanei erantzuteko. Bertaraino eraman zen inprimagailu hura. 1895ko urtarrilak batean tamaina errekorra hartzen du inprimatutako orrialdeen mantxa; 57 x 37 zentimetrokoa.

1896an Alemaniako 'Koenig & Bauer' markako inprimagailu erraldoia erosi zuen 'El Noticiero Bilbaino'-k. 8.000 kiloko pisua zeukan eta paperezko bobina bakar batekin lan egiten zuen. 18.000 ale orduko inprimatzeko gai zen. Errotatibarekin batera beharrekoa zen estereotipiako tailerra ere instalatu zen. Gaseko motorra zaharra alde batera utzi eta Ingalaterrako 'Robey' markako bat jartzeaz gain, baperezko makina ere erosi behar zen, 'Tangies Limited' konpainiakoa, hain zuzen.

Zutabeen kopurua aldagarria dugu oraindik. Orrialdeak osatzen dituzten testu bloke ezberdinek ez dute egonkortasunik. Tamaina eta tipografia mota ezberdinak agertzen dira inolako aurrikusgarritasunik gabe. 1908ko otsailean testuak konposatzeko makina berritzaileak erabiltzen hasi zen 'El Noticiero Bilbaíno'. Bere hitzetan, New York-eko 'Mergenthaler' etxeko konposatzaile berri hauek bezalakorik ez zegoen Espainian. Teknologia berri honek 'kajisten' lan nagusia ordezkatu egin zuen¹³⁰. Hemendik aurrera bere lana titular handietan eta orrialde osoko iragarkiei gutxitu zen. 1909rako hiru konposagailu ipamerikar funtzionatzen zuten egunkarian. 1909an Alemaniako Frankenthal hiriko 'Albert' markako errotatiba berria erosi zen. 17 tonako pisukoa, tramankailuok 80.000 ale orduko inprimatu zitzakeen. Paperezko hiru bobinarekin lan egin zezakeen eta 8 orrialdetako aleak inprimatu zitzakeen. 34 urteak beteta, 'El Noticiero Bilbaino' egunkariko orrialdeak hasieran 2.494 zentrimeto karratu izatetik 12.798raino iritsi ziren.

¹³⁰ Aurreko urteetan gremio honek greba jardunaldi batzuk probokatu zituzten, eta horregatik, errotatiboaren hitzetan poztekoa zen operadore hauekiko dependentzia jeistea teknologia berriari esker, "irakurleen intereserako".

3.2.- Hasierak; 'El Pueblo Vasco'-ren agerpena

1907tik 1909ra De Ybarra y De la Revilla anaiak fijasen hasi ziren Donostian Rafael Picaveak 1903an sortutako 'El Pueblo Vasco' egunkaria egiten ari zen lan ideologikoan Antonio Mauraren defentsan eta antzeko proiektua Bilbon aurrera eramateko ideia gorpuztuz dihoaz.

Ybarra anaiak –Gabriel, Fernando eta Emilio– foruen aldekoak dira eta eskuineko indar politikoen batasuna nahi dute. 1910eko maiatzak 1ean 'El Pueblo Vasco' jaio zen. Lehen ale hartako editorialean egunkariaren printzipioak aldarrikatu zituzten esatean egunkaria izango zela:

- 1- Inspirazio Kristauekoa
- 2- Espainola eta euskal autonomiaren aldekoa
- 3- Enpresa askatasunaren aldekoa
- 4- Monarkikoa, Alfonso XIII eta Borbonen Ierro dinastikoan

Ondasunen Elkartean baten sorrerarekin finantziatu zuten proiektua hiru anaien artean, nahiz eta legalki izkribuetan Fernando eta Gabrielelek agertu ez nahi. 28 urte iraun zuen entitateak ez zuen etekinik eman. Aldiz, galera galantak suposatu zituen beti¹³¹. Lehen presidente bezala Rafael Picavea izendatu zuten, eta argitalpenaren zuzendaritzan Juan de la Cruz Elizondo irundarrak.

Hogei ta sei urtez aritu zen Elizondo egunkariaren zuzendaritzan. Errotatiboak izan duen ehun urtetako bizitzan gehien iraun zen zuzendaria Antonio Barrena izan zen (30 urtez, 1960tik 1990ra).



'El Pueblo Vasco'-ren lehen azalorra

¹³¹ SAIZ VALDIVIELSO (2000, 47 orr.)

Hamar zuzendari mende batean

'El Correo'-ko zuzendari guztien agintaldiak, haien jaiotze eta heriotza dataekin



Juan De la Cruz Elizondo




Santiago Nadal Gaya



Joaquín de Zuazagoitia Azcorra



Ramón Sierra Bustamante



Alejandro Echevarría Zorrozúa



Antonio Barrena Ballarín



Antonio Guerrero Troyano




José Antonio Zarzalejos Nieto



Ángel Arnedo Gil



Juan Carlos Martínez Gauna





Fernando, Gabriel eta Emilio de Ybarra anaiak. Argazkia: 'El Correo'-ko artxiboa

Lehen tailerra 'Plaza Circular y Estación'-eko 5. zenbakian zegoen. Egutero 3.000 ale inguru argitaratzen zuen. Zuazagoitiak geroago esango zuenez, "iritziko egunkaria zen, inprimaketa handiagokoa baino". Garai hartan Bilbok 93.000 biztanle zeukan eta hiriburuan beste bost egunkari publikatzen ziren

- El Noticiero Bilbaíno (Zuzendaria; Manuel Echevarría)
- El Porvenir Vasco (Lafarga)
- El Liberal (Aranaz Castellanos)
- El Nervión (Tomás Camacho)
- La Gaceta del Norte (Aureliano López Becerra)

Bost zentimotan saltzen zen eguneko alea, eta hiruhilabeteko suskripzioa 4 pezeta kostatzen zuen. Sei orrialdetakoa zen, sei zutabetara, eta formatu handikoa (61 x 45 zm.). 'Marinoni' errotatiba batean inprimatzen zen. Makina hau Parisko 'Le Petit Journal' eresia zen, garai hartako 1.920 frankotan, eta 'Plaza Circular'-ean instalatu zen. Bertan 22 hilabeteko bizia izango zuen.

1911ko ekainak 14ean egunkariak 13 hilabeteko bizitza bazeukan hasierako Ondasun Elkarte hura Elkargo Zibial batean bihurtu zenean 'Sociedad Civil El Pueblo Vasco de Bilbao', zeinek egunkariaren gainontzeko 28 urteko bizitza osoa iraungo zuen. Bertan mila akzio emititzen ziren, baihoitza 500 pezetako balio nominalekoa – guztira, milio erdiko pezetako kapital sozialakoa–. Bazkide sortzaileak Gabriel eta Emilio anaiak izan ziren, ez ordea beste anaia –Fernando– zeinek Partidu Kontserbatzailearen burua zen orduko. Bi hauekin batera Rafael Picavea, Luciano Zubiría, J.J. Zayas eta J.L. Goyoaga ere agertzen dira estatutu haietan.

1912ko apirilak 6an Ledesma kalera, 6. zenbakira, trasladatu zuten egoitza. Bertako beheko solairua eta eraikineko pisu 'printzipala' erabili zuen egunkariak. Kokapen horretan 1965 arte iraun zuen. Egoitzaren aldatze lanak zirela eta orrialdeen kopurua jeitsi behar izan zuten zenbait astetan zehar bakarrik 4 orritaraino, eta 'El Nervión' egunkariaren makinean inprimatu behar zuten.



Ledesma kaleko egoitza. Argazkia: 'El Correo'-ko artxiboa

Hurrengo urtean linotipietako langileak 'a destajo'-ko lana kendu eta bere ordeztu soldata trukekoa ezarri exijitu zuten. Enpresa eta linotipiako langileen arteko lehen konbenioa sinatu zen. 1913an ere 'Euzkadi' egunkaria jaio zen Bilbon.

1914ean, 'Guda Handia'-n zehar -honela deitzen baizuten garai hartan egunkarietan- 'El Pueblo Vasco'-k mapa asko publikatu zituen informazioekin batera. Espainia neutrala mantendu zen gudan zehar eta hala egin zuen ere egunkariak. Urte horretan ere 'La Tarde' arratsaldekoa agertu zen eta horrek bultzatu zuen beste arratsaldekoa 'El Porvenir Vasco' desagertzea.

1918ko kronikek gertakari bortitz batez kontatzen digute. Bilboko Udalean bilduta zegoen Bizkaiko udalen asanblada bat iskanbiletan bukatu zen. Handik Ledesmara trasladatu ziren zenbait manifestatzaile eta tailerretan sartu ziren errotatibaren gelditzea eta egungo aleak esijitzen. Erregentea mehatxu eta tiroak ere gertatu ziren eta -balaren errebotek linotipisten laguntzaile bat zauritu zuen-. 'Txibaletek' ere lurrera botata izan ziren. Hurrengo egunean egunkaria ezin zen kaleratu. Kexak direla heta, handik gutxira Bilboko alkatea bota egin zuten ere.

1918an zehar egunkari batzuk kolore berdetan inprimatzen ziren. Adibidez 'El Pueblo Vasco' eta 'El Noticiero Bilbaíno'

1922ko, martxoak 15ean tipografoen greba hasi zen. Bilbo egunkaririk gabe utzi zuen protestak. Kalera atera lortu zuen egunkari bakarrak 'El Noticiero Bilbaíno' izan zen, bere erredaktore eta zuzendarien eskuz egindako lanari esker. Ia hiru hilabete horietan zehar gainontzeko bostok ('El Nervión', 'La Gaceta del Norte', 'El Pueblo Vasco', 'Euzkadi' eta 'La Tarde') zozketatu egin zuten notario aurrean nola burutu guztien artean egunkari bakar bat. Beronen izena 'Prensa Bilbaína' izan zen, 6 orrialdetakoa, argazkirik gabekoa, eta erredaktoreak nortzuk izango ziren ere zozketatan erabaki zen¹³². Non inprimatu ere zozketan erabaki zen -'Euzkadi'-renean tokatu zen- eta lortutako bere arrakastari esker orrialde kopurua 8taraino igo zuen. Grebaren amaierarekin desagertu egin zen.

1923an 'El Pueblo Vasco'-k errotatiba berria inauguratu zuen. Alemanian ekoiztutako 'Plausen'-eko 'Vomang' batek, zeinek 'Marinoni' zaharraren lekua hartu zuen. Inprimagailu berriak 16 orrialdetako 20.000 ale orduko ekoiztu omen zitzakeen, baina urte hartan gutxiago inprimatzen zituen; hamar orrialde. Makina berriaren iristek formatua arinki estutuarazi zuen, baina ohiko 6 zutabeak mantendu ziren. Maiatzak batean, 13. urteurrena bete zela eta, zenbaki berezia kaleratu zen. Aurrerakada teknikoak deskribatzeaz gain, beste motatako aurrerapen bat ere aipatzen da. Sozialagoa. Laguntza Sozialeko entitate baten sorrera, hain zuzen, enpresaren pertsonalgora laguntzeko xedearekin.


Garai horretan ere bere sei zutabetako zabalera txikitu egingo da zuzerua bat eta erdi (14,5etik 13ra), hau da, 63 milimetrotatik 57ra. Orrialde kopurua hamarrera igo da eta jadanik 10 zentimotan saltzen ari da.



1923ko 'Vomang' errotatiba berriaren inaugurazioa. Argazkia: 'El Correo'-ko artxiboa

¹³² SAIZ VALDIVIELSO (2000, 47

Orrialdearen bost tamainak eta inprimatutako area totala



***Orrialdearen tamaina:** Erabilitako neurriak egunkariaren oinarritzko mantxarenak dira. Ez dira kontutan hartu, beraz, gehigarri berezienenak. Grafikoan adierazitako tamainetatik aparte, beste kasu batzutan orrialdearen tamaina aldatu zen egonkortasun handirik gabe. Luzeena, 1965eko maiatzak 7tik abuztuak 14era, non mantxaren neurriak 38,4 x 54,7ra arte igo ziren (2.100,5 zm²)

****Urteko area totala:** Inprimatutako espazioa paginazio ertainaren arabera kalkulatu da, gehigarri berezirik edota Bizkaitik kanpoko edizioak konputatu gabe.

1924ko martxoak 31ean 'Excelsior' kirol egunkaria agertuko da. Espainia osoan gai honetaz eskusiboki tratatuko duen lehen errotatiboa. Javier Gortázarek bultzatuta, 'Euzkadi' egunkariaren talde editorialean sartu zuen. Aldi berean, gainontzeko bere bi egunkariaren bat itxiko balitz emergentziako aukerako zerbitzua eman liezaieke. Egunkari honek antolatu zuen lehen Espainiako txirrindularitza 'Vuelta'. Barneko gatazkak direla eta desagertu zen, baina arraskastatsua zenez, bere partaideak antzeko proiektu berria jarri zuten martxan; 'Excelsior' izenekoa, zeinek 1931eko urriak 11ean ikusi zuen argiak eta ibilbide arrakastatsua ere jarraituko zuen 1937 arte¹³³.

1931eko otsailak 23an lehen 'Hoja del Lunes' agertu zen Bilbon eta lau urte geroago, 1935eko maiatzak 1ean, 'El Pueblo Vasco'-k 25. urteurrena ospatu zuen ale berezi batekin, 22 orrialdetakoa.

3.3.- Espainiako Gerra Zibila eta 'El Correo Español'-ekiko fusioa

1936ko uztailak 16ean zentsurarik gabeko azken artikulua argitaratzen du 'El Pueblo Vasco'-k, Ramiro de Maeztuena, '¿Y después qué?' titulupean. Uztailak 17tik aurrera ohiko zutabetako sinadurak desagertuko dira. Egunkaria baliabide hutsak jarrita ditu errepublikanoen eskuetan. 'La Gaceta del Norte'-ri ere antzekoa gertatuko zaio. Biok interbenituta daude Errepublikaren aldeko erredaktoreengatik. Urte horretan, irailak 25ean, Bilboko Ibaizabal ibaian dagoen 'Quilates' presondegi-itxasontzian ejekutatuak izango dira dozenaka atxilotu. Haien artean Fernando de Ybarra y de la Revilla – Arriluzeko Markesa- eta bere semea, Fernando de Ybarra Oriol. Egun berean ere Emilio de Ybarra y de la Revillaren semea eta beste senideak ere erahildak izango dira. 'Sarraski Gorria' izengoiti goibela izango zuen data hura.

Abenduak 11ean 'Euzkadiko gobernua' inkautatu egin zuen 'El Diario Vasco de Bilbao' Elkargo Zibilak. 'Junta Calificadora Central'-aren erabakita eta 'Euzkadiko Gobernu'-ren dekretu batean deklaratu zuen entitate hau erantzunkizun "Errepublikaren kontrako altxamenduekin kolaboratzen laguntzeagatik"¹³⁴. Baina bere ondasun eta eskubide guztien interbenzioa jadanik gertatua zen uztailak 18an. Une horretatik aurrera Ledesma kaleko instalazio guztiak 'Acción Nacionalista Vasca'-k erabiliak izango dira eta batez ere 'Euskal Langileen Alkartasuna' (ELA-STV) sindikatuak. 'El Pueblo Vasco'-ren errotatiban beste hiru aldizkari hasiko dira inprimatzen. Hirurak jatorri gipuzkoakoak:

- 'Tierra Vasca', 'Acción Nacionalista Vasca'-rena. Goizeko egunkaria (zuzendaria; Ortúzar)
- 'Euzkadi Roja', Alderdi Komunistarena. Goizekoa hau ere (Zuzendaria; Ormazábal).
- 'Unión'. Arratsaldeko egunkari errepublikarra.

1937ko otsailean 'Lan-Deya', 'ELA-STV'-ren organua, 'La Gaceta del Norte'-ren tailerretan inprimatzen zen. Hauek ere 'Euzkadiko Gobernu'-ren agindupean. Bertan ere 'La Lucha de Clases' inprimatzen zen.

1937ko ekainak 19an Francoren ejerzitua Bilbon sartzen da. Bederatzi egun geroago, ekainak 28an 'El Pueblo Vasco'-ren egoitza eta tailerren inkautazioa dekretatzen da berau berriro publikatua izan ahal dadin. Berragerpeneko aleko bere editorialean esaten zenez, kalera bueltatzen zen "hamaika hilabetez ez existitzeko fortzatua izan eta gero". Uztailak 6an, asteartea, gertatzen da hau. 'El Correo Español'-en agerpenaren egun berean eta 'Hierro'-ren agerpenaren egun bat geroago. 'El Pueblo Vasco'-ren mantxetan agertzen zen 'Diario independiente' azpititulua aldarazi egingo diote eta bere ordean 'Diario Nacional' agertuko da. Juan Cruz Elizondo mantenduko da zuzendaritzan. Eta lehen 'Alde

¹³³ Sáiz Valdivielso irakaslearen aburuz bi egunkari hauen kalitatea ez da oraindik gairatu (2000, 73 orr.)

¹³⁴ SAIZ VALDIVIELSO, 2000; 83. orr

Gorria'-en zentsura sufritzen bazuen, hemendik aurrera kontrako bandoaren zentsura hasiko da pairatzen ere. Guzti hau Ledesma kaletik mugitu gabe.

Berragerpeneko hilabete haietan egunkaria 15 zentimotan saltzen zen. Zortzi orrialdetakoa zen. Eta bere ekoizpenerako profesionalak aurkitzea oso neketsua izan zen. Oso langile gutxik lan egin zuten eta batzutan zuzendariak Juan de la Cruz Elizondok berak laguntzen behar zuen transkribatzen irratiz jasotako berriak.

Ondorengo bederatzi hilabeteetan Gabriel de Ybarra Revilla mantenduko da bere irizpide ideologikoen gidatzaile bezala 'El Correo Español'-ekiko fusioa gertatu arte. Egun horretan kargua utziko bazuen era fortzatuan. Egunkariaren erdia da bakarrik fuerista. Beste erdia 'FET y de las Jons'-ekoa baizen¹³⁵.

1937an ere, uztailak 11ean, 'La Gaceta del Norte'-k berragertuko da. Egunkari honek lortu zuen bereganatzea 'El Noticiero Bilbaíno'-ren diru iturri garrantzitsua; hitz bidezko iragarkiak.

1937an ere 'El Correo Español' jaio zen, 'FET y de las Jons'-en bateratzaile eta bultzatzailea, baina tradizionalistek inspiratuta falangistek baino. Uztailak 6an, hau da, Francoren ejerzitoaren sarrera eta 17 egun geroago. Lehenengo zuzendaria Eusebio Zuloaga izan zen, 'La Tarde'-ren zuzendari ohia. Zortzi orrialde izan ohi zituen baina urtebete baino gutxiago iraun zuen. Tipografia eta ekoizpen teknika berriekin jaio zen hasieratik. 'Correo' kalean, 17. zenbakian egiten zen 'Hierro' bezala-. Biok 'Euzkadi' huraren egoitza berean eta beronen 'Goss Tubular' inprimategia erabiltzen zuen ere¹³⁶. Bere inspirazioa Madrilgo 'Correo Español' zen. Nazio mailako berriak 'Faro' agentziaz hartzen zituen.

'El Noticiero Bilbaíno'-ren desagertuaren ostean 'Nueva España' agertu zen bere lekuan eta ondoren 'Hierro'-k azken hau absorbitu egin zuen diru arazoak pairatu zituenean bere pertsonalgu guztiari errenuntziatzearen truke. Oraindik lan egiten zuen 'El Noti'-n Alejandro Echevarría Zorrozuía -jabeen loba-.

Biztanlegoaren arabera hiriburu bakoitzari egunkari kopuru bat tokatua zitzaion. Bilbori, hiru egotzi zitzaizkion; goizaldeko bi eta arratsaldeko beste bat. 1938ko apirilak 12an 'El Pueblo Vasco'-ri inposatu¹³⁷ egiten zaió 'El Correo Español'-ekiko fusioa eta 8326 zenbakian bere irakurleei agur esaten die. Hurrengo egunean, 13an izen bateratuarekin 'El Correo Español-El Pueblo Vasco' publikatuko da lehenengo aldiz. Izendapenean, gainera bere izena bigarren posiziora atzeratu geratuko da. Azpititulak 'Diario de Falange Española Tradicionalista y de las Jons' 40. hamarkadaren erdira arte iraun zuen. Gainera, bere etekinaren %25a 'Falange Española Tradicionalista'-rentzat izango dira derrigorrez estatutuan ezarriko baita.

Fusioaren ostea emaitzak tipografikoki 'El Correo Español'-en antza izango du 'El Pueblo Vasco'-rena baino. Honela erabaki zuen Juan de la Cruz jaunak¹³⁸.

Fusioarekin bi zuzendariak dimititu egiten dute (Juan de la Cruz eta Eusebio Zuloaga) eta zuzendari berria Santiago Nadal izan zen, baina hoge hilabeteetan -1939ko abenduak 15ean- berriro aldatuko zen. 1939ko abuztuan oraindik mantentzen zen lehen Administrazio Kontseilua -'El Pueblo Vasco de Bilbao' Elkargo Zibilekoa- hildako bi Fernando de Ybarrak (aita eta semea) izan ezik. Abuztuak 11ean ospatutako batzar batean Elkargoa deuseztatu eta likidatu egiten da.

¹³⁵ SAIZ VALDIVIELSO, 2000; 94. orr

¹³⁶ Inprimategi hau William Randolph Hearst magnate iparamerikarrak oparitu egin zion 'Euzkadi'-ri.

¹³⁷ Joaquín de Zuazagotia eta Carlos Saiz de Valdivielsoren aburuz.

¹³⁸ 1960ean, 50. urteurrenean itxura tipografiko horrek 'aldaketa gutxi' izan dituela esaten da egunkariak data horren omenez prestatutako gehigarri berezian.

Lau hilabete geroago, abenduak 15ean, merkatal sozietate berria; 'El Pueblo Vasco de Bilbao, S.A.' sortzen dute Gabriel de Ybarra Revilla, Emilio de Ybarra Revilla, Pedro Galíndez Vallejo, José María Zayas Lafarga eta Javier de Ybarra Bergé, Gabriel jaunaren semea hain zuzen. Azken honek presidentea izendatu zuten eta karguan mantendu zen 1977an 'Euskadi Ta Askatasuna'-ko terroristek hil zuten arte. Notario aurreko sortze izkribu hartan ezartzen zen 'FET' eta 'Jons'-ei finantzatzeko obligazio hura¹³⁹, baita mantxeta zaharra berreskuratzeko posibilitadea onartzen zen ere. Ideologi orientazioari buruz, Erredakzio Kontseilu bat ezarri zen.

Bost egun beranduago, abenduak 20an akziodunen lehenengo batzarra ospatu zen eta bertan hautatzen da zortzi kideetako Administrazio Kontseilu bat. Javier de Ybarra y Bergék –kontseilari delegatuak- komunikatzen du bere aitak ezin duela kargua onartu mota ezberdinetako arrazoiengatik. Presidente bezala izendatuko zen José María Zayas y Lafarga. Zuzendari bezala, Joaquín de Zuazagoitia Azcorra izendatu zuten.

Zuazagoitia 'El Pueblo Vasco'-n editorialisa bezala lan egin zuen aurreko bi urteetan. Karguan hiru urte egon zen, 1942 arte, azaroak 6an Bilboko alkatea izendatu zutenean.


Pixkanaka 'El Correo Español'-eko erredaktoreak aldegiten joan ziren eta ondorioz egunkaria bere 'El Pueblo Vasco'-ko bere fisionomia errekueratuz joan zen. Francoren diktaduran zehar hiru egunkari publikatu ziren Bilbon: 'La Gaceta del Norte', 'El Correo Español-El Pueblo Vasco' eta 'Hierro'.

1940an, irailak 15ean Juan de la Cruz Elizondo jauna hil egiten da, 61 urterekin. Urte horretan ere egunkariak lau orrialdetara jeisten du bere paginazioa, Espainian paperaren gabeziagatik eta presio internazionalagatik. Hamarkada osoan zehar mantenduko da mugapen legal hau. Une larrietan bi orrialde bikoitzetara jeitsi zen tamaina. 'Kupoa' deitzen zen mugapen hau, zeinek 1950.eko hamarkada arte iraun zuen.

¹³⁹ Etekinen %25 hori 'Falange Española Tradicionalista y de las Jons'-en ' Delegación Nacional de Prensa'-ren eskuetara joan behar zen.

Orrialde kopuru ertainaren eboluzioa

Orrialdeak eguneko*




*gehigarri berezirik edota Bizkaitik kanpoko edizioak konputatu gabe.
 1981 arte egunkaria asteartetik igandera argitaratzen zen. Epe horretako ertaina kalkulatu da asteartetik ostiralera ko orrialdeekin.
 1981etik aurrera astelehenetan argitaratzen hasi zen eta bost astegunekin kalkulatu da ertaina.

Bigarren Munduko Gerraren inguruko informazioa 'EFE' agentzia zein egunkariak bidalitako erredaktoreen bitartez bideratu zen. Haien artean, 'Garriga' ospetsuak, zeinek bere kronika telegrafikoa bidaltzen zuen Berlinetik. Komunikatu britainiar, frantzes eta alemaniarrek publikatuko dira.


1945ko maiatzak 25ean 'El Pueblo Vasco de Bilbao, S.A.'-k bere izena aldatu zuen; 'Editorial Vasconia, S.A.' izena hartuz eta hemendik aurrera bukatu ziren ere bere obligazio guztiak 'FET y de las Jons' eta bere 'Prentsa Nazionalaren Delegazioa'-rekiko. 'Editorial Vasconia, S.A.'-k 'El Correo Español' izenburua eta ustiapen eskubideak erosi zuen 30.000 pezetagatik. Astebete geroago, ekainak 1ean beste kontratu bat sinatu zuten 'El Noticiero Bilbaíno'-ren ordezkariekin bi entitateak fusionatzen. Batuketa horretatik 'Bilbao Editorial, S.A.' sortuko da, zeinen %56a 'Editorial Vasconia'-rena izango da eta gainontzeko %44a 'El Noti'-rena. Bi mantxetak 'Bilbao Editorial, S.A.'-ren eskuetara pasatuko dira, hala nola Ledesma kaleko eraikinaren propietatea ere. Eraikina 'Inmobiliaria El Pueblo Vasco'-rena zen, zeinek lehenago Gabriel de Ybarra Revillari erosi zion.

Akzioen sindikazio paktu baten bitartez, aipatu portzentaiak - 56/44- ez aldatzeko adosten da, baita Administrazio Kontseiluan hamar kide egoteko -6 eta 4 hurrenez hurren-. Akordioak 1969 arte iraun zuen. Gainera, Kontseiluaren Presidentea eta Kontseilari Delegatuaren karguak 'El Pueblo Vasco'-ren eskuetan geratu beharko liriteke, eta Presidenteordea eta Gerentearena 'El Noticiero Bilbaino'-renetan. Hasierako errepresentazio hori Alejandro Echevarría Zorrozúa (Gerentea), Félix Zalbide (presidenteordea), Luis Bergareche Maruri, Roberto Canales eta Pedro Canales izango dira. Momentu honetatik aurrera Alejandro Echevarría presentzia eta eragin oso handia izaten hasiko da.



Alejandro Echevarría Zorrozúa (ezk.) eta Luis Bergareche Maruri. Argazkiak: 'El Correo'-ko artxiboa

1945ko azaroak 7an errotatibaz aldatuko da. 1941an adostutako truke baten ondorioz, 'El Pueblo Vasco'-ren Vomag makina Burgosera eramango zen Estatuaren Boletín Oficiala inprimatzeko eta horren truke 'Euzkadi'-ren 'Goss' inprimategia 'FET y de las Jons'-ek erosi eta eta 'El Correo Español-El Pueblo Vasco'-ren eskuetan ipiniko da Ledesma kaleko bere egoitzetan. Oraindik 1947an 'El Correo Español' ez zen jabe bere errotatibaz, 'FET y de las Jons'-ek jabetza mantentzen baizuen.



40. hamarkadan erabilitako 'Goss Tubular' inprimategia

1947an 'Bilbao Editorial, S.A.'-k erosi zuen Donostiako 'Sociedad Vascongada de Publicaciones, S.A.'-ren akzioen bi herenak. Alejandro Echevarría diseinatu eta bultzatu zuen Operazio hau, Luis Bergareche eta Javier de Ybarrarekin batera. Jarraian ere 'Avante' kirol egunkaria absorbitu egin zuten eta egunkariarekin batera publikatzen hasi ziren. Beronen formatu txikiagoa mantenduz lehen, eta geroago 'El Correo Español-El Pueblo Vasco'-ren parte bezala. 1948n egunkariak sei orrialderekin jarraitzen zuen.

1950an Zuazagoitia kargua utzi eta Ramón Sierra bere lekua hartuko du martxoak 15ean urtebeterako. 1951 berau botata izan zen eta Erredaktore Buruak, Juan María Pena donostiarrak, hartu zuen kargua behin behinez zortzi hilabetez Alejandro Echevarría sartu arte, azaroak 8an. Penak 'Diario Vasco'-ko zuzendaritza hartuko luke gero, 1952tik 1979ra arte. Momentu horretan ere Antonio Barrena Erredaktore burua bilakatu zen. Echevarría Barrenarengan fijasitu zen kiroletako orrialdetan idazten hasi zenetik, 'K-nastas' atalean, hain zuzen.

Urte batzuk aurrerago, 1949n, lehen korrespontsalia sortu zuen 'El Correo Español-El Pueblo Vasco'-k; Vitoria-Gasteizeko. Echevarriaren agintaldian zehar hiriburu horretako 'Heraldo de Vitoria' gainditzen hasi zen.

Alejandro Echevarriaren eskutik arreta handiagoa ipiniko da irakurlearengan. 'El Noti'-n, bere aitona sortutako egunkarian, erredaktorea izanda zen, eta 'Hierro'-n erredaktore burua. Aipatu bezala, 'El Correo Español-El Pueblo Vasco'-n gerente bezala sartu zen eta une honetatik aurrera kargu hori eramango du aurrera egunkariaren zuzendaritzarekin. Bere bikotekidea proiektu honetan garai hartako kontseilari delegauta, Javier de Ybarra, izan zen.


SAIZ VALDIVIELSO eta APARICIO azpimarratzen duten bezala, ikuspuntu aldaketa gertatuko da. iritzizko kazetaritza batetatik berrien kazetaritza batetara pasatuko da egunkari honetan. "Bilbon hasia berria zen kazetaritza modernu bat ezartzeko guda sutua, Espainiako gainontzeko Prentsak oraindik debekatua zena". '1951eko aldaketa'-k hitz egingo dute zenbait egilek.

Helburu garbia 'La Gaceta del Norte' gaintzea zen. Merkatuaz jabetzeko guda hasiko da. Esparru honetan eskelak interes handia suposatu zuten. 'La Gaceta del Norte'-k bazuen esparru hau irabazita. Difusioa askoz altuagoa zuen 'Gaceta'-k garai honetan.

1953an Euskaditik kanporako lehen proiektua jarriko du martxan 'Bilbao Editorial, S.A.'-k. 10,8 milioi pezetako mailegua jaso ondoren 'Prensa Castellana, S.A.'-ko akzioen %60a erosi zituen. Argitaletxe honek Madrilgo 'Informaciones' egunkaria kaleratzen zuen eta difusio arazoak bazuen. Horrek lagunduko dio Bilboko egunkariari Ekonomiako orrialde baliotsuak argitaratzen.

Hamarkada honetan ere banatze prozedurak modernizatu egingo dira. Ezaguna zen 'soka eta goitik-bera' sistema errudimentarioa¹⁴⁰ edota zenbait udal urrunetara heltzeko zailtasunak gaintzeko garraio bideak ere albo batera utzi ziren –Bermeora bidaltzen zen taxia, kasu– furgoneta berriak indarrean jarri zirenean.

50. hamarkadan 'El Pueblo Vasco'-k erabiltzen zituen 'Creed' teletipo zaharrak –linea telegrafikokoak, eta Madrilgo delegazioarekin konektatuta zeudela– aldatu egin ziren, huts asko egiten baizituzten 'Siemens' batzuegatik –zazpi karakter segunduko transmititu zitzaizketenak– eta 'Olivetti' beste batzuegatik. Antonio Guerreroren hitzetan, garai hartako 'bonba' teknologikoa zirenak. 'La Gaceta del Norte'-rekiko guda sutua irekia zegoen gehiago modernizatzeagatik. 'La Gaceta'-k izan zen lehena 'Telefoto' bat instalatzean argazkiak telefonoz jaso ahal izateko eta handik gutxira 'El Correo'-k ere berea erosi zuen.



1950. hamarkada arte erabilitako 'Creed' teletipo zaharra. Argazkia: 'El Correo'-ko artxiboa

'El Correo'-k izan zen lehen egunkaria Bilbon –eta Espainia osoan lehenetarikoa ere– 'Telex' instalatzean. Honek permititzen zion mundu osoan edozein abonaturekin komunikatzea agentzien teletipoaren zurruntasunarik gabe. Eraberean, argazki panoramikoa erabili zuen Espainiako lehen egunkaria izanzen ere. 'Claudito' argazkilariak estreinatu zuen San Mames futbol zelaian egindako argazki batzuekin. 'Panox-Panoramic' kamera


¹⁴⁰ Eskuz egindako patinete handi baten gainean jartzen ziren egunkarien paketeak eta soka batekin bultzatuz, bilboko kaleetatik garraiotu egiten ziren.

hura, Antonio Guerreroren hitzetan, 'Alechu' bultzatutako beste tramankulu bat. 6 x 12 zentimetroko negatiboak eta 180 graduko birako objektibo mugikorra erabiltzen zuen.

1953an Ledesma kaleko egoitzan bederatzia lino tipia zegoen eta fotograbado propioa. 'Goss Tubular' imprimategiko lau gorputzek zortzina orrialde inprimatu zitzaizkion. Beraz, teoriarik, 15.000 ale orduko inprimatu zitezkeen, formato handiko 32 orrialdetakoak. Praktikan, eta Gobernuak mugapenak zirela eta, 10 orrialdetako egunkaria egitea lortzea bazen meritua, Antonio Guerreroren hitzetan.

Urte osoan publikatutako orrialde totalaren eboluzioa

Bizkaiko edizioan



*gehigarri berezirik edota Bizkaitik kanpoko edizioak konputatu gabe.

1952tik 1956ra bitartean 'Gaceta de la Prensa Española' elkarteak –kazetarien organu profesionala– hamabi sari eman zion 'El Correo Español-El Pueblo Vasco' egunkariari bere orrialdeen edertasunagatik.

1955an Espainiako Txirrindularitza bira berpiztu zuen berriro egunkari bilbotarrak. Hurrengo bost urteetan zehar kirol gertakaririk arrakastatsuen bilakatu zen. Urte horretan ere lehenengo aldiz 'kirolak' atal osoa bezala definitu zen, kazetari propioekin. Gai honi dedikatu orrialde kopurua ere handitzen da.

Atzerrian ezarritako korrespontsaliak multiplikatzen hasiko ziren. Kronikak hasten dira heltzen kablegramaz, radiotelegramaz, telefonoz eta posta aereoaz ere. Korrespontsal horien artean 'Fiel' agentziakoak ere agertzen dira.

Zabaltze prozesu guzti hau Angel Guerrereko laburbiltzen du honako lau gako hauetan:

- Teknologiaren aldeko apustua
- Tokiz tokiko hedatzea (Arabako edizioa, kasu)
- Kirol gertakizunak
- Agentziako berriak elaborazio propioarekin konjugatzea

3.4.- 1960. hamarkada eta errotatiba berria

1955ean batzbesteko 33.403 ale inprimatzen ziren egunero eta 6,4 milioi pezeta fakturatu ziren publizitateagatik. Hurrengo urtean saldutako egunkariak %23,1 igo ziren, egunero 41.120 aleraino eta publizitatea %15,1, 7,3 milioi pezeta arte.

Halako proiektzio positiboekin, 1958ko ekainak 16an sozietateak kapital handitze bati ekin zion, 5,2 milioi pezetatik 13 milioi arte. Hurrengo urtean arazo ekonomikoak zituen 'El Correo de Zamora' egunkaria erosi zuen egunkari bilbotarrak. Ledesmako tailerretako arduradunak, Lorenzo Mateos, egunkari horren konposizio tipografikoa hobetu egin zion eta inprimaketa igo zen.

Garai hartan Ledesmako egoitzetako atearen gainean 'El Pueblo Vasco' errotulua irakurri zitekeen bakarrik. Bertan bazegoen; bi bulego (zuzendaria eta erredaktore zuzendaria), gela zabala (erredaktoreekin) eta kabina telefonikoa.


Administrazioak, ordea, pisu zabal huraren beste hegala betetzen zuen. Garai hartako deskribapenen arabera, nolabait kaotikoa zen. Idazkariaren, Amelia Azkonaren, idazkaritza lehentasunezko tokia hartzen zuen bertan. Erredakzioa eta Administrazioaren artean bulego handi batean lan egiten zuten Alejandro Echevarría –zuzendari eta gerentea–, Javier de Ybarra –kontseilari delegatua– eta Luis Bergareche. Bertan ere biltzen zen administrazio kontseilua. Bertaraino heltzen omen zen estereotipiako kalderatik ateratzen ziren gasen usaina, non beruna eta antimonioko nahasteko bizpahiru tona pilpilean zeuden. Ledesma kalean bertan bizi ziren garai hartan erredaktore nagusienetarikoa batzu.

1960ko apirilak 7an Alejandro Echevarría Zorrozuía dimisioa aurkeztu zion administrazio kontseiluari eta berak eskatu zuen ere Antonio Barrenari bere kargua uztea eta Luis Bergareche Maruriri –bere koinaturi– gerentzia. Hemen hasiko da 'Bilbao Editorial'-aren bigarren hedatze teknologikoa; eremuak bilatu bertan eraiki eta errotatiba instalatzeko. Echevarria mantendu zen zuzendaria eta gerentearen aholkulari bezala. Gasteizko 'Industrias del Motor, S.A.'-n –Imosa– hasiko da lan egiten. Enpresa honek 'DKW' furgonetak ekoizten zituen eta handik gutxira, furgoneta hauetan hedatuko ziren egunkariaren aleak. 'Bilbao Editorial'-eko kontseilaria izaten jarraituko zen eta georago lehendakariordea.

'El Correo'-k oraindik 'Euzkadi' egunkariko 'Goss' inprimategi zahar hura erabiltzen du 1960an. Maiatzak 5ean 'La Gaceta del Norte'-k errotatiba berria inauguratu zuen, 'Koening an Bauer' markakoa, baina bere 'ohiala' tamaina mantenduz.

Publizitatea hirukoiztu zen lehenengo bost hamarkadetan

Elaborazio propioa egunkariak 1959an argitaratutako datuekin



1960an ere egunkariak 50 urte bete zuen eta ekainak 19an ale berezia argitaratu zuen, 80 orrialdetakoa, urtekaria ospatzeko. Egun berean, Antonio Barrena zuzendaria izendatu zuten. Beronen ideia izan zen urte horretan, abenduak 15ean, Holandako erregearen, Balduinoren ezkontza kubritzeko bi argazkilari Bruselara bidaltzea hegazkin berezi batekin, laborategi fotografikorekin. Gero, bueltatzean aireportutik taxi hartu eta egun berean argazkiak Bilbon egon zitezten.

1962 oraindik zentsurara inprimaketa frogak bidali beharra zegoen, Bilboko Bide Nagusiko 62. zenbakian egoitza zeukana, hala ere, egunkariak 'autozentsura' praktikatzen zuen, Antonio Guerreroren hitzetan.

1964ean egunkariak 'perforatzaileak erabiltzen hasi zen.

1965eko martxoak 23an, oraindik Ledesmako 'Goss' hartan inprimatuta, egunkariak helbide eta telefono aldaketa iragarri zuen -17810 zaharra utzi eta 333000 berria hartuz-. Ledesmatik 'Berdel' kalera mugitu zen Bolueta auzoan -gero 'Pintor Losada'/'Losada margolaria' kalea, 7. zenbakia-. Igande gaua erabili zen trasladoa burutzeko. Apirilak 2an argitaratu zen lehenengo alea Boluetako inprimategian. Bertan orrialde kopuru eta ohiko ezaugarriak mantenduko ziren. 1965ko Maiatzak 7an errotatiba berri batean, 'Goss Head Liner' batean, hasiko zen inprimatzen. 'La vieja sueca' bezala ezaguna 1982ra arte funtzionatu zuen. Sei unitate zeuzkan, hauetak bi kolorerekin. 25.000 bira ordukokoa zen. Ba zeuzkan bi tolesgailu, beraz bi errotatiba ezberdin bezala funtzionatu zitekeen. Amerikan eraikina zen baina Suediako egunkari sozialista batetatik zetorren; 'Stokholm-Tidningen'-etik, non 29 urtez funtzionatu zuen. Estokolmon desmontatu egin zuten Lorenzo Mateos, Iñaki Bilbao eta Alejandro Melero makinistak. Tekniko ingeles batzuek berpiztu egin zituzten eta Bilbon, 'Pintor Losada'-n birreraiki. Makina berriak paginazio posibilitate berriak ere ematen zituen. 16 orrialdeak mantendu ziren, baina 5 zentimetroko handitu zen altuera, beti 'ohiala' formaturekin. Horrek 10 zizerotako zinta zuria uzten zuen Ledesman inprimatutako orrialdeetan.

1965ko maiatzean 20 orrialde taraino igotzen da paginazioa. Bi pezeta kostatzen zuen egunkariak garai hartan. Abuztuko 15ean, 18178 alean, 'tabloide'-ra aldatu zen formatua, hau da, 'La Gaceta' baino bost urte lehenago. Luis Bergareche aldaketa honen bultzatzaile izan zen ere. Proiektuan Antonio Barrena eta Armando Fernández-Xestarekin batera lan egin zuen. Arrakastatsua izen zen apostua eta salmentak igo ziren.

Hurrengo urtean, ekainak 6an Alejandro Echevarría Zorrozuía hil zen 52 urterekin. Urte horretan ere 'Fraga' legeak Zentsura desagertarazi zuen. 'El Correo'-k zeuzkan 14 linotipiak automatizatzeko proiektua martxan jarri zuen. Honela tailerrak testuak konposatzeko bere gaitasuna handitu zuten. Aldi berean ekoizpena handitzeko esfortzuari ekin zioten. Hurrengo urtean, 'La Gaceta'-k bere salmenta ertainarik altuena lortuko zuen; 96.242 ale egunero¹⁴¹.


1968an Madrilan 'Sapisa' agentzia sortzen zuten hamabi egunkari independentetek, haien artean 'El Correo' eta 'El Diario Vasco'.

1969ko martxoak 20an 'Bilbao Editorial, S.A.'-ko akzioen sindikazio paktua bukatzen da. Honela, 'Echevarria' taldea izeneko akziodunen taldea desagertuko litzateke, Hemendik aurrera, bi taldeek paktu homogeneo eta konpaktua osatzen dute. Administrazio Kontseiluko presidente bezala Javier de Ybarra Bergé izendatzen dute -Gabriel de Ybarraren semea zena eta zein zortzi urte geroago ETA-k erahil zuen- eta Luis Bergareche presidenteordea.

Hurrengo hilabetean, apirilean, fitxaketa garrantzitsua gertatzen da; Luis Olmok margolari eta idazleak 'La Gaceta del Norte' utzi eta 'El Correo'-rekin kontratatzen du.

¹⁴¹ LERCHUNDI AYÚCAR, 608. orr.

1970tik aurrera egunkariak irekiera ideologikoa ipiniko du martxan. Javier de Ybarra y Bergéren lehendakaritzapean, herrialdea bizitzen ari zen askatasun berriein batera. Teknologiaren arloan linotipiak desagertaraziko dira eta perforatzaileak eta fotokonposizioa agertzen da. Estereotipiak aldatuko dira fotomekanika eta 'letter-flex' ekipo batekin 1973an. Plantxa inprimatzaileak ekoizteko sistema berria genuen hau, zeinek permititzen duen fotokonposizioaren teknika aprobetxatzea, tipografiako errotatibari aplikatzen. 'El Correo' izango da lehen egunkaria Espainian, eta hirugarrena Europa osoan prozedura hau erabiltzen. Inprimatzerakoan berunezko teila alde batera uzten da aleazio arinezko laminengatik. Taillerretako pertsonalgoari ikastaroak ematen hasten dira. Prozesu guzti honen azken helburua 80. hamarkadaren hasieran 'offset'-en inprimatzea da, behar bezalako errotatiba izango dutenean. 1971an lehenengo aldiz 'El Correo'-ren eguneroko salmenta ertainak 'La Gaceta'-rena baino altuagoa izatea lortzen du. 1974ko otsailak 5ean aipatu inpresio sistema berriarekin -'letter-flex'- inprimatzen da egunkari osoa lehenengo aldiz. Bi hilabete geroago, apirilean, José María Bergareche Busquet sartzen da egunkarian gerentearen laguntzaile bezala.



70. hamarkada arte erabili ziren linotipiak. Argazkia: 'El Correo'-ko artxiboa

1975aren martxoak sortzen dituen informazio politikoei esker egunkariaren salmentak asko igoko dira, nahiz eta alearen salneurria aski altxatu ere. Maiatzako datuen arabera, eguneroko salmentak 80.491 aletakoak dira. Apirilean eta maiatzean espazio publizitarioa ere hazten da. Egunero 'La Gaceta'-k baino 1.552 ale gehiago saltzea lortzen du. Franco hiltzean 'La Gaceta'-k posizio kontserbatzaileagoak hartuko ditu, 'El Correo' eta 'Hierro'-k, ordea irekiera zentristagoa izango dute.

1977an, maiatzak 21ean 'Euskadi ta Askatasuna' euskal organizazio terroristak Javier de Ybarra y Bergé bahitu egiten du eta bi egun geroago erahil. Urte horretan ere bi egunkari lehiakide agertuko dira; Bilbon 'Deia', profesional talde oso on batekin –ekainak 8an lehenengo alea argitaratu zuen– eta Donostiako 'Egin'. Deia-aren agerpenarekin 'El Correo'-ko 14 erredaktore egunkaria utzi eta beste honetara pasatzen dira. Egunkari honen agerpena 'La Gaceta'-ri irakurle asko kenduko dio, 'El Correo'-ri baino, hala ere, profesionalen alde egite horretatik berriz osatzeak urte asko eramango ditu.

1977ko irailan 'El Diario Vasco' tabloidera jeisten du bere tamaina, eta hurrengo hilabetean, urriak 11ean 'La Gaceta'-k ere gauza bera egiten du.

1978ko urtarrilak 14ean Antonio Barrenak eraso bat sufritzen du eta begi bat galdu.

1979ko azaroak 22an Al Alejandro Echevarría Busquet 'Bilbao Editorial'-eko kontseilari delegatua izendatzen dute eta Luis Bergareche Marurik hasitako berrikuntza teknologikoko prozesua bukatuko du.

3.5.- 1980. hamarkada eta aro modernua

1980ko urtarrilean 'El Correo'-k 'Deia' baino 20.000 ale gehiago saltzen ditu egunero. Urte horretan ere Ezkerraldeko edizioa jartzen du martxan 'pantailak' bitartez burututa. Handik gutxira, sistema hau ere hartuko dute Eibar eta Arabako edizioak ere. Honela, ekainean edizio guztiak fotokonposiziora zuzenean konektatuta egongo dira.

1981ko otsailak 27an 'El Correo'-k 'offset' errotatiba bat erosten dio 'Nohab' enpresa suediarri. Inprimaketako bost gorputz bikoitz dauzka eta koloreak sartzeko kapaza da, inprimaketa bikoitzean, gehienez 80 orrialde tabloide ekoizteko, 60.000 ale orduko.

1982ko urrian 'El correo'-k gehigarri berezia argitaratuko du, 'Nohab' inprimategi berria ekoiztuta. Guztira 255.000 ale botatzen dira. Egunkariko agintariak harro daude inprimategi hau lehen eskukoa izatea. Baina egun batzu geroago, urriak 24an, inprimatutako 129.000 aleetan arazoak daude. Lehenengo aldiz ezin zen bukatu gaueko inpresio osoa eta 'Goss' zaharra erabiltzen hasi zen berriro erositako errotatiba berria txukundu arte. Honela, 'Correo' berriaren agerpena atzeratuko da hiru egun gehago, 27ra arte. Hala ere, bertan argazkiak oraindik 'adaptatzeke' zeudela ohartarazten zen. Bi egun geroago hauteskunde orokorreko emaitzak publikatzen ditu errotatiba berriarekin. PSOE-k garaipen historikoa lortuko du bertan. Garai hartan, Ángel Arnedo jadanik zuzendariorde izendatua zen.



Za mudioko egoitza berrietan instalatu zen 'Nohab' inprimategi berria. (Argazka: 'El Correo'-ko artxiboa)

Azaroaren lehenengo astean lehenengo aldiz testua ordenagailuz sartzen hasten da. Honek eraldaketa handia suposatzen du titularrak, sarrerak, ladiloak eta testuan.

Uztailean, salneurria 30 pezetara igo dute. Irailean, 'Deia'-k tradizio luze bat apurtuko du lehenengo aldiz asteleheneko edizioa publikatzean. 'La Gaceta' jadanik krisialdi garrantzitsuan zegoen. Bi hilabete geroago, azaroak 22an 'El Correo'-k lehenengo aldiz astelehenean publikatzen da.

1983ko otsailak 14ean 'Hiero' desagertu zen eta bost hilabete geroago, uztailak 15ean, 'La Gaceta' ere hil egiten da¹⁴².

1984ean eguneroko salmenta ertaina 108.834 aletakoa zen.



1985etik aurrera funtzionatzen hasi ziren teletipoak. Argazkia: 'El Correo'-ko artxiboa

¹⁴² Hurrengo urtean, 1984ko azaroak 15ean berragertu zen industrial batek erosita, baina hiru urte gehiago bizi zen bakarrik.

4.- 'EL CORREO'-KO INFOGRAFIAREN EBOLUZIOA 80. HAMARKADA ARTE

4.1.- 'El Pueblo Vasco'-ren infografiaren eboluzioa

4.1.1.- Lehenengo hamarkadak. 1910-1920

Elementu grafiko gutxi aurkitzen ditugu egunkariaren bizitzako lehenengo urteetan zehar. Iragarkiek erabilitako grabatuak ziren salbuespen bakarrak. Sei zutabetan organizatzen ziren informazio haien artean agertzen ziren argazki eta ilustrazioak –eskelak albo batera utzita– zenbait ilustrazio eta humore grafikokoak baino ez ziren.

1910eko irailak 28



1910eko abuztuak 14



1910eko irailak 29



1910ean publikatutako lehen iragarkietan grabatuak agertzen ziren jadanik. Berauetan erabilitako grabatuak berritzaileak ziren garai hartan. Batzuk Ehundaka aldiz publikatu ziren, iragarkien itxura oso gutxitan aldatzen baizen



1910ean zehar berriekin batera agertzen diren elementu grafikoaren %75a ilustrazioak dira. Gaurkotasan politikoaren inguruko bertsio alaiak aurkezten duten interpretazio umoratsu hauek ia egunero aurkitzen ditugu urte haietako orrialdeetan. Egileek marrazkiaren barruan gehitzen zuten sinadura kaligrafikoa eta hori dela eta, elementu grafiko sinatu bakarra izango zen egunkari osoan zehar.



Argazkiak, ordea, sinatu gabe agertzen dira lehenengo bi hamarkada hauetan. Gehienetan argazki oin propio batekin publikatuko dira fotograbatu hauek eta azalorrian bertan. Egileak ez aipatzeaz gain, jatorria ere oso gutxitan aurkitzen dugu, nahiz eta askotan argia izan atzerriko beste egunkarietara egindak direla.

1910eko urriak 9

1910an erabilitako argazkien %81a protagonisten aurpegiak dira. Politiko garrantzitsuenak agertzen dira nagusiki orrialdeetan. Gehienetan erretratuetatik aterata edota atzerriko prentsatik kopiatuta. Eskuineko orrialdean ikusten denez, Portugalen urriak 5ean Errepublikak aldarrikatu zuen iraultzaren protagonistak erakusten zaizkigu.



1910eko urriak 9ko azalorri honetan aurkitzen dugu 'El Pueblo Vasco'-k publikatu zuen lehenengo infografikoa. Bertan laburbiltzen dira urriak 4ean Lisboan gertatutako enfrontamendua Manuel II Erregearen tropak eta Errepublikaren aldekoen artean. Hurrengo egunetik aurrera, herrialde lusoan Errepublikak aldarrikatua zen eta Erregea Gibraltarera erbesteratu behar zen itsasontziz.

'El Pueblo Vasco'-ren historian agertutako lehen infografikoa Lisboako 'Palacio das Necessidades'-eko inguruneko plano batean azaltzen du urriak 4ean gertatutako liskarrak.

Mapa eskuz eginda dago. Titulurik gabe agertzen zaigu. Lurra zuritan mantentzen da eta ura -Tajo ibaia- bai ilunduta. Errotulu baka-rrak lekuen izenak baino ez dira. Kale bat, Palazioa, bi Plaza, ibaia eta bi 'dock' -kaiak- ibaia beraren izenarekin. Planoan ez dira marraztu iskanbilen bestelako indikaziorik, '1', '2' eta '3' zenbakiak baizik, azalpenak gero, mapatik aparteko testuan emateko.

Lisboako kokapeneko maparik ez da sartzen, ezta hiriburuko plano nagusirik zati hau kokatzeko ere. Nahiz eta eskuz eginda izanda, ez darama sinadurarik, eta 'Rio' hitzari gaztelerako tildea faltatzen zaio, zeinek indikatzen digu seguraski egilea erredaktorerik ez zela.



Cartografiaren zenbait ohitura erabiltzen dira marrazkiaren itxuran lekuen natura adierazteko; adibidez; trenbidearen marra berezia, parkeen arbolak eta destakatutako eraikin berezien grisa. Grafikoak ez dakar 'iparrorratza' ezta tamainaren eskala edo titulurik.

Oinean, ordea, bai azaltzen dira mamiak. 'Croquis' deitzen zaio planoari eta bertan azaltzen da tipografiarekin hiru leku berezi horien izena baita berarekin gertatutakoa.

Gainontzeko bi argazkiak zutabe bakar batetara publikatu zirela kontutan hartuta, lehen infografiko hau azalorriaren elementu grafikorik nagusia izan zen arren, azpimarratzekoa da behelaldean sartuta agertzea.

Egunkariko tipografia ordenik gabe agertzen zaigu lehen hamarkada hauetan. Orrialde bakoitzeko elementu orok itxura tipografiko ezberdina dauka eta diseinu irizpiderik ez dira erabiltzen testuak kokatu edota egokitzerakoan.


Elementu grafiko landuenetariakoak eskelak dira. Batzutan hildako pertsona bakar batek azalorriaren herena ere betetzen zuen. Kasu horietan publikatutako eskelak zeukan presentzia handiena egunkari osoan.

Lehenengo urte hartako hilabeteak pasa ahala publikatutako argazkien kopurua hazten dihoa ere.

Informazioa grafikoa lortzeko zailtasun ageriak direla eta, fotografatu horiek koadroetatik zein estudioko argazkietatik ateratako pertsonai boteretsuen aurpegiak dira. Bostetik lau, hain zuzen, mota honetakoak dira (%81a) egunkariaren bizitzako lehenengo bi urteetan zehar.


Publikatutako argazkiak 1910 eta 1911an

Informazioko artikuluetan argitaratutako fotografatuak lehenengo 20 hilabeteetan



Eraberean lehenengo urtetatik ere argazkiekin jolasten eta kokapen bitxiak asmatzen ere hasiko da. Honela, lehen hogei hilabete hauetan konposizio libreko dozena bat nahasketa aurkitzen ditugu.

Batzutan informazioa diseinu artistikoagoko itxurarekin aurkeztea zen helburu. Ikusten denez, ornamentazioko elementuak erabiltzen ziren askatasun osoz. Konposizio hauek oso gutxitan aurkitzen dira lehenengo bi hamarkadetan eta inoiz ez infografikoa sortzeko helburuarekin.



1910eko urriak 5



Baina gehienetan helburua gertakari bereko ikuspegi anitz ematea izango da. -Ezkerreko adibidean, kontzentrazio katoliko baten bi une ezberdin-. Horrek beti behartzen zuen kazetariak oinean esplizituki zirkunstantzia hau argitzeko argazki oin bikoitza idatziz.

b) Lehen infografiko osoa

1911ko maiatzean Paris eta Madrilen artean hegazkinen lasterketa ospatu zen. 'Raid' honek bi aste baino gehiago iraun zuen eta hilaren 17an Euskaditik pasatu zen. Nahiz eta bakarrik Gipuzkoa eta Araba gainetik gurutzatu, norgehiagokak piztu zuen interesa hain zen altua ezen Bilboko 'El Pueblo Vasco'-k ere bere orrialdeetan dedikatu zion espazioa oso zabala izan zen. Egun horretako azalorrian lehen infografiko osoa aurkitzen dugu 'Donostia - Vitoria' ibilbidearekin.



1911ko maiatzak 17



1.- Grafikoak informazio unitate bakarra dugu. Ez darama alboan erredaktorearen testurik. Tituluak goian eta oinak behean tipografia badaramate, baina barneko mami guztiak beste pertsona batek eskuz idatzita daude.

2.- Sarreratxoan azaltzen da egilea ('De Jorge' ilustratzailea aipatzen da) baita informazioaren iturria (bost piloto partehartzaileei luzatutako bidaia-planoa).

3.- Jarraian titulua eta azpititulu propioa agertzen da, 'Croquis'-a dela aipatzen.

4.- Legenda kartografikoa agertzen zaigu berriro. Egileak zortzi azalpen egiten ditu hemen. Ibilbide posiblearekin batera, errepideak, eremuaren altuera etabar indikatzen.

5.- Behetik gora irakurria izateko marraztuta dago. Ulergaitza dirudien arren, iparra behekaldean jarri da eta bidaiaren norabidea gora. Honen arrazoia mapa pilotoei ikusita izateko pentsatuta zegoen bere jatorria, eta forma berbera hartu du ilustratzaileak egunkarirako bertsioa egokitzean.

6.- Argazki oinean berriro adierazten da grafikoaren mamiaren laburpena. Halako erredundantzia ulertzeko mota honetako produktu informatiboekiko erredaktore eta irakurleen ohitura-eza gogoratu behar dugu.

Astebete geroago, maiatzak 25ean hegazkiniek protagonizatu zuten berriro aktualitatea Bilbon. Egunkariak 'collage' bat montatu zuen lau monoploen argazkiekin, guztira lau makina publikatzen. Argazkiok halako multzo berezia hau osatzen zuten lehenengo aldiz 'El Pueblo Vasco'-n. Gainera, irudi bakoitzaren gainera eskuz idatzita ereduaren izendapena irakur daiteke. Egunkari osoaren hisotiran 'Irudi+testu' binomioaren lehen adibidea aurkitzen dugu hemen.

1911ko maiatzak 25



b) Estatistiken grafikorik eza eta lehenengo salbuespena

Datu taulak askotan erabiliak dira egunkariaren orrialdeetan. Lehenengo urteetatik aurrera ez bakarrik iragarkietako prezio tauletan, Burtsaren inguruko informazioetan ere. Akzioen kotizazioak, tenperaturak, informazio ofizialetako datu zerrendak, etab. direla eta, irakurlea ohituta zegoen datu tauletara. Eskuineko irudian Bartzelona eta Pariseko Burtsetako kotizazioak, kasu, 'Burtsa, Industria eta Komertzio' atalaren barruan.

Datu taula anitz aurkitu ditzakegu egunkari osoan zehar lehenengo bi hamarkada hauetan, hala ere, estatistikako grafikorik ez da agertzen

1911ko maiatzak 31

| De Barcelona | | Indi. |
|---------------------------|--------|--------|
| Botador 4 % m. de mos. | 53.00 | 85.62 |
| Amortizable 4 % | 60.90 | 60.00 |
| Id. 4 % | 60.00 | 60.00 |
| Acciones D. Hip. Colonial | 66.25 | 60.00 |
| Id. Norte de España | 94.35 | 94.45 |
| Id. Madrid Zaragoza Ala. | 87.93 | 88.10 |
| Id. id. ad. ad. ad. | 95.57 | 96.50 |
| Id. id. Alameda especial | 80.00 | 79.87 |
| Id. id. id. id. id. | 105.00 | 105.00 |
| Id. id. id. id. id. | 80.00 | 80.00 |
| Id. id. id. id. id. | 600.00 | 600.00 |
| Id. id. id. id. id. | 84.62 | 84.62 |
| Id. id. id. id. id. | 103.20 | 103.10 |
| Id. id. id. id. id. | 27.58 | 27.55 |

| De Paris | | Indi. |
|----------|---------|---------|
| Paris | 81.70 | 82.20 |
| Paris | 84.50 | 84.30 |
| Paris | 1821.60 | 1827.00 |
| Paris | 1484.00 | 1482.00 |
| Paris | 707.00 | 714.00 |
| Paris | 1192.00 | 1192.00 |
| Paris | 583.50 | 560.00 |
| Paris | 311.00 | 312.00 |
| Paris | 78.00 | 79.00 |
| Paris | 787.00 | 78.00 |
| Paris | 1485.00 | 14.2.00 |
| Paris | 835.00 | 820.00 |
| Paris | 80.00 | 80.00 |
| Paris | 119.00 | 118.00 |
| Paris | 600.00 | 600.00 |
| Paris | 42.00 | 42.00 |
| Paris | 835.00 | 835.00 |
| Paris | 600.00 | 600.00 |
| Paris | 61.00 | 61.00 |
| Paris | 61.00 | 61.00 |
| Paris | 67.17 | 67.35 |
| Paris | 104.00 | 104.45 |
| Paris | 105.00 | 102.50 |
| Paris | 58.00 | 58.00 |
| Paris | 1095.00 | 1095.00 |
| Paris | 624.00 | 619.00 |
| Paris | 479.00 | 480.00 |
| Paris | 414.00 | 414.00 |
| Paris | 430.00 | 429.00 |
| Paris | 1735.00 | 1731.00 |
| Paris | 147.00 | 147.00 |
| Paris | 463.00 | 463.00 |
| Paris | 25.30 | 25.30 |
| Paris | 662.00 | 661.00 |
| Paris | 255.00 | 260.00 |
| Paris | 85.00 | 80.00 |
| Paris | 132.00 | 132.00 |
| Paris | 492.00 | 490.00 |
| Paris | 196.00 | 195.00 |
| Paris | 486.00 | 486.00 |
| Paris | 600.00 | 600.00 |

Hala ere, estatistikako grafikorik ia ez ziren publikatu lehenengo bi hamarkadetan. Bakarrenetariko bat honako hau izan zen Frantziako tropen inguruan. Herrialdeko soldatuen kopurua konparatzen da bertan Alemaniakoarekin. Infografiko hau izan zen elementu grafiko bakarra egun hartako azalorrian. Frantziako komunikabide batetatik kopiatuta dago itzultzeke eta iturri edo egilerik ez da aipatzen bertan.



1913ko martxoak 2



Eboluzioa adierazteko hautatuako eredu marra da. Ardatz horizontalean denbora adierazita dakar eta bertikalean kantitateak. Infografiagile berri eta eskarmenturik gabekoek egin ohi dituzten grafiko abigarratuen itxura hartzen du beronek. Urteak eta kantitateak indikatzen dituzten marrek presentzia exajeratua dute. Urteen lerroa goitik agertzen zaigu, zenbait errakuntzarekin, eta eboluziko marran zehar puntu bakoitzeko kantitatea zenbakiz idatzi ditu hiru zifrekin –espazioa aurrezteko, bakarrik milatan adieraziz–. Agerikoa zenbait urteren datua falta dela. Kasu horietan marraren puntuak linealki batzea erabaki du. Hasierako urteetako datuen kasuan, marra bertikalak kentzearekin argi uzten du informazio eza hori. Grafiko osoa eskuz idatzi eta marraztuta dago. Titularra eta oina, ordea, tipografikoki gehitu diote egunkariko tailerretan.

c) Kiroletako emaitzen lehen infografikoa

1913ko 'foot-ball' liga txapelketa bateko emaitzak adierazteko 'El Pueblo Vasco'-k infografiko berritzaile eta oso berezi hau prestatu zuen lehenengo aldiz. 'Gráfico del campeonato' titulupean, taula ulergaitz hau astelehenero publikatua izan zen igande bakoitzeko emaitzekin. Talde bakoitzak irabazitako norgehiagokak 'V' letrarekin indikatua ziren eta berdinketak 'E'-rekin. Neurketa ez posibleak 'X' handi batez.

1913ko abenduak 22

| | Athletic | Arenas | Real Sociedad | Irún Sporting | Racing de Irún | Deportivo | Número de puntos |
|---------------|----------|--------|---------------|---------------|----------------|-----------|------------------|
| Athletic | X | V | | | | | 10 |
| Arenas | | X | | | | V | 6 |
| Real Sociedad | | | X | V | | | 9 |
| Irún Sporting | | | | X | | | 5 |
| Racing | | | | V | X | | 6 |
| Deportivo | | | | | | X | |

GRAFICO DEL CAMPEONATO
 Las letras insertas en los cuadrados horizontales frente al nombre del Club, significan: V, vencedor; E, empatado. El vencedor se apuntará dos puntos por partido. El empate vale un punto a cada bando.
 Queda entendido que los Clubs que figuran en las columnas verticales, y en cuyos cuadrados aparece una V, han sido derrotados por el Club del cuadrado horizontal a quien corresponde la dicha letra. X, significa descalificado.

Ordena geografikoa
 Ez alfabetikoa, ezta sailkapenaren arabera, baizik eta Bilborekiko distantzia fisikoa

Zazpigarren lerroa hutsik

Bigarren buelta bakarrik
 Orduan, deduzitu beharra zen taldeek aurreko partiduetan lortutako puntuak

Sailkapenik ez
 Puntuak kontutan hartu gabe, taldeek desordenatuta agertzen dira. Asteak pasata, ordena hori ez zen aldatzen.

Neurketa ezinezkoak
 'X' handi batez adierazten dira ('Deportivo-Deportivo') laukia hutsik geratuko dela

Azalpen baten beharra

Infografikoaren azpikaldean legenda batek azaltzen zuen nola irakurri beharra zen taula ondo ulertua izateko. Honela, 'porrotak' ez ziren indikatzen esaten zuen, arerioaren garaipenarekin deduzitzen zirelako

1914an zehar ere erabilia izanda, infografiko bitxi hau birmoldatua izan zen 1915an informazio gehiago eskaini ahal izateko. Eraberean aurreko bertsiok zeuzkan gabezi batzuk ere konpondu ziren bigarren itxura honekin:

| | Arenas (Guecho) | | Ariñ Sport (Bilbao) | | Athletic Club (Bilbao) | | Jolasoklata (S. Stian) | | Real Racing Club (Irún) | | Sporting (Irún) | | de puntos Número | |
|------------------|-----------------|-----------|---------------------|-----------|------------------------|-----------|------------------------|-----------|-------------------------|-----------|-----------------|-----------|------------------|-----------|
| | 1ª vuelt. | 2ª vuelt. | 1ª vuelt. | 2ª vuelt. | 1ª vuelt. | 2ª vuelt. | 1ª vuelt. | 2ª vuelt. | 1ª vuelt. | 2ª vuelt. | 1ª vuelt. | 2ª vuelt. | 1ª vuelt. | 2ª vuelt. |
| Arenas | | | X | V | X | | V | V | X | | D | V | 2 | 6 |
| Ariñ Sport | X | D | | | X | D | X | D | D | | X | | | |
| Athletic Club | V | | X | V | | | V | | V | E | V | V | 3 | 5 |
| Jolasoklata | D | D | V | V | D | | | | D | D | D | D | 2 | 2 |
| Real Racing Club | V | | V | | D | E | V | V | | | V | D | 6 | 5 |
| Sporting | V | D | V | | D | D | V | V | D | V | | | 6 | 4 |

GRAFICO DEL CAMPEONATO
 Las letras insertas en los cuadrados horizontales frente al nombre del Club, significan: V, vencedor; E, empatado. El vencedor se apuntará dos puntos por partido. El empate vale un punto a cada bando.
 Queda entendido que los Clubs que figuran en las columnas verticales, y en cuyos cuadrados aparece una V, han sido derrotados por el Club del cuadrado horizontal a quien corresponde la dicha letra. X, significa descalificado.

Informazio errepikatua
 Emaitza bakoitza birritan agertzen da

Ordena: aurreko urtetakoa
 Sailkapenik ez, aurreko emaitza hartzen da kontutan aurten

Bi bueltak batera
 Lauki bakoitzaren espazioa bitan banatzen joana eta etorriaren, bi emaitzak, adierazteko gai da taula berriak

Puntuen totalik ez
 Lehenengo buelta eta bigarreneko puntuak ezberdintzen dira.

Lauki beltzak ezinezkoak
 diren norgehiagokak adierazteko ('X', ordea, taldea deskalifikatua izan dela)

1915eko otsailak 15

1916tik aurrera grafiko berritzaile hau ez zen berriro argitaratu, ezta antzekorik 1960. hamarkada arte.

d) Grafikoen bi erabilera bitxi

Orain arte ikusi ditugun lehen infografiko aitzindari haiek zientzietan zeukaten jatorria. Bai Ekonomian zein Kartografian, hain zuzen, kazetaritza munduko produktu informatiboetan edota irakurtzeko erraztasuna baino. Hauek izango dira mende hasierako infografikoen joera baldintzatuko duten erizpideak oro har.

1912ko abenduak 17



Eraberean, Arkitekturaren eragina aurkitzen dugu 1912an zehar lau hilabetez publikatu zen ondorengo infografiko honetan. 'El Pueblo Vasco'-k harpidedunen artean zozketatu zuen etxe bat promozio gisa eta orrialdearen zabalera osoa betetzen zuen grafikoak arkitektura planoaren itxura zeukan. Bi solairuen planua agertzen da, neurri guztiak indikatuta. Irudiak ilustratzaile baten sinadura darama, baina behekaldeko testuaz aparte, inolako azalpen gehiagorik ez. Denbora aurrera joan ahala, grafikoak beste tamainu ezberdinetara egokitua agertu zen ere.



Mende hasieran jaio berria zen 'foot-ball' izeneko kirol bitxi hark ere arreta galanta pizten hasi zuen. Jokoz kanpoko arauaren aplikazioa esplikatzeko, "Algo sobre el 'Off-side'" titulupean orrialde erdi osoa dedikatu zioten gai honi 1913ko azaroaren 11ko edizioan. Bertan, arauaren garapenarekin batera 25 mini grafiko prestatu zuten beste hainbeste kasu konkreturi aplikatuz eta bakoitzaren arrazoimena azalduz. Guztiak eskuz prestatuta dagoz eta 'Fig.X' formulapean identifikatuta.

Garai hartako muntai esfortzu galanta suposatu zuen halako erreportaia prestatzea, 25 irudi txikiak testu paragrafoekin tartekatuta agertzen baitira. Jokalariak bi taldetakoak izanik zirkulu zuriak eta beltzak erabiltzen ditu erredaktoreak, eta atea indikatzeko lerro oso sinplea marraztu ere. Jokaldiaren eboluzio eta ordena 'A', 'B' eta 'C' letrekin, ordea.


Halako konplexutasunezko erreportairik ez zen berriro argitaratu hamarkada osoan.



1913ko azaroak 11

Publikatutako fotograbatuak

Hilabetero informazioko artikuluetan argitaratutako fotograbatuaren kopuru ertaina lehenengo 20 urteetan



Nahiz eta lehenengo bi urteetan zehar 'El Diario Vasco'-ren orrialdeetan argazkien presentzia altua izan zen, 1912tik aurrera fotograbatuaren agerpen hori jeisten da. Ia desagertzen direla esan daiteke. Publizitateko orrialdeetan ere irudiak desagertuko dira lehenengo aldiz. Ilustrazioen kopuruari ere antzeko efektua gertatzen zaie. Infografikoek oraindik ez zeukaten presentzi erregularrik, beraz, haien desagertzea ere normalagozat jo dezakegu. Zulo honek zortzi urte luzez irauten du, non infografikoak eta ilustrazioak ia irudi bakarrak diren. 1920tik aurrera berriro argazkiak bueltatzen dira orrialdeetara.

e) Lehen mundu Gerra

Urte horien artean, hain zuzen, Lehen Mundu Guda jazo zen. 1914ko ekainetik 1918ko azarora arte garatu zen gatazkaz informatzerakoan zenbait mapa erabili zuten 'El Pueblo Vasco'-k. Lau urte haietan guztira, 35 mapa publikatu ziren, hala ere, hauek gehienak -22- atzerriko komunikabideek sortu eta Bilboko egunkariak kopiatu baino ez zuten egin. Irudietan ikusi daitekeenez, hizkuntza frantzesez zein ingelesez idatzita daude eta erre-daktoreek azalpentxo batez lortzen zuten irakurle bilbotar batek berarek ulertzea.

Gudaren inguruko informazioarekin publikatutako grafiko gehienak egunkariaren azalorrian agertzen zaizkigu. 'Gráficos de la Guerra' titulupean gatazkaren eboluzioaren inguruko informazioak zenbait azalpen geografikorekin aberasten ziren.



1916eko azaroak 8


Urriak 29tik azaroak 3ra itsaspeko alemaniarrek 45 itsasontzi hondoratu zuten. Sei egun haietan gertatutako urperatze guzti horien kokapena banan banan zenbakiz adierazi du infografiko honetako egileak. Beheko legenda berauen datuak eskaintzen dira testu tipografikoan.



Publikatutako infografikoen eboluzioa

Hilabetero informazioko artikuluetan argitaratutako infografikoen kopuru ertaina lehenengo 20 urteetan

■ I Munduko Guda ■ Gainontzekoak



Lehen Mundu Gudak bultzakada galanta eman zion 'El Pueblo Vasco'-ren infografikoen ekoizpenari. 1910etik 1913ra urtero batzbeste laupabost grafiko argitatzten baziren baka- rrik, Guda hasi eta bapatean kopuru ertain hori hirukoizten da. Gero, gudari dedikatutako infografikoak hilabetero ia lau arte igotzen dira, baina aldi berean gainontzeko gaien inguru-koak ere hazten dira. 1915tik aurrera tokiko gaien ingurukoak multiplikatzen hasten direla esan dezakegu.

Guztira, 1918an 60 grafiko inguru publikatuko dira, hamarkada hartako markarik altuena, eta goiko eboluzioan adierazten den bezala, ohitura hori hartuta, infografikoen ekoizpen altutuagoa mantenduko da hurrengo urteetan zehar. Lehenengo aldiz, beraz aurkitzen dugu tendentzia hau; gatazka armatu baten ondorioz kartografia eta infografikoen beharrak bultzatu egiten du egunka-riek mota honetako irudiak sortzen.

Hala ere, nabaritzekoa da ere estilu propio falta. Gudaren inguruko mapa bakoitzak errotulu, kon- traste eta itxura erabat ezberdina baizeukan, eta oraindik sinatzeke agertzen ziren guztiak.



1917ko abuztuak 5



1921ko martxoak 9

f) Gerrarteko infografikoak

Infografiarekiko esperientzia hazten dihoa. Pixkanaka egunkariak ohitzen dihoa forma berri hau bere orrialdeetan onartzen. 'Grafikoa' hitza agertzen hasten da eta 'croquis' hura desagertzen. Notizia hurbilak eta gai propioek infografikoekin argitaratzen hasten dira. Jauzi kualitatiboa nabaritzen da hemen. Arrazoi ezberdinengatik 20. hamarkada horretan argitaratutako hiru infografiko hauek esanguratsuak ditugu. Hirurok Bilboko hiriaren inguruko gaiak jorratzen dute eta ondorioz egunkarian berta landuak izan behar izan ziren.

1921ean nazioarteko 'Cross Country'-aren ibilbidea indikatze-ko infografiko oso honetan hiriaren kaleak difuminatu egin dira zenbait puntutan lasterketaren bidearekin kontrastatzeko. Grafikoaren irudi nagusiaren albotik agertzen diren beste xehetasu batzuk (luzeera totala, iparrorratza, titulua, eskala) baita erabilitako ikonoek (ikurra, arbolak baita zenbait eraikin esanguratsuk) argi uzten dute infografiko oso baten aurrean gaudela. Aste hartan bi aldiz izan zen publikatua.




1921eko apirilak 29

Bilboko Begoña auzoan proiektatutako institutu berriaren plano azalorria guztiz baldintzatu zuen. Erreportaiaren testu kuxkak moldatu egin ziren erabat eraikinaren planoaren forma irregularrari. Lehenengo aldiz testuek eskailera itxura hartu beharra zuten infografiko ez errektangular baten formari egokitzeko.

Grafikoaren tamaina ahalik eta handien izaeko asmoarekin, kanpoko azalpenak eta kokatzeko balio duten indikazioak bi zutabeetatik kanpo jarri ziren.

Guztira, azalorriaren elementu grafikorik handiena izan zen eta tipografia konposaketa esfortzu itzela suposatzen.




1924eko martxoak 9


Pedro Calvo erandiotarraren bidaiaren laburpen gisa honako 'croquis' hau publikatu zen 1927. Ez zen antzeko maparik marraztu urte hartan (itsasoa eta lurra ezberdindu barik eta kostaldearen mugak difuminatzen)



1927eko ekainak 15




1927eko irailak 15



Bilboko portuaren handitze proiektuaren norabideak azaltzeko argazki handi hau –orrialdearen zabalaera osoa betetzen– publikatu zuteanean, muga zehatzak ondo definitzeko taillerretako langileek beronen marra naturalak zuriz pintatu zuten berauek destakatzeko. Hementxe dugu 'hitzegindako fotografien' lehen aurrekaria 'El Diario Vasco'-n.

1928ko maiatzak 1

Bilbon eraikitze prozesuan zeuden eraikin garrantzitsuenen soslaik konparaten dira infografiko honetan. Deditutako espazioa, titularrak eta sinpletasunak pertsonalitate propioa eta ikerketa lan mordoa suposatzen zuten infografiko erabat modernuak egiten ari zirela konfirmatzen digu. guztira, orrialdearen sei zutabeetatik bost hartzen zuten irudiaren zabalera.



'El Diario Vasco'-ren desagertzea arte –1936an– hurrengo zortzi urteetan egunkariak erabilitako errekurtsu grafikoak ia desagertzen dira. Publizitateko iragarkietan agertutako fotograbatu eta ilustrazioetatik aparte oso gutxi izan ziren ez bakarrik infografikoak, argazkiak ere. Oso gutxitan –eta gehienetan azalorrian bakarrik– ikusi ahal izango dugu. Berez, datu taulak ere desagertuztat eman beharko ditugu. Burtsako baloreen eboluzioari deditutako espazio urria albo batera utzita, 1928tik 1936ra arteko epealdian elementu grafiko guzti hauek ia desagertzen dira. Eskelak dira irudirik handienak urte hauetan zehar.

Infografikoen aldetik, norabide zuzenik gabe jarraitzen da infografia. Gai solteek daramate grafikoak bakarrik eta faltan nabaritzen da 'esku' bakar baten presentzia, estilo edo irizpide propioekin. Azken hiru adibide erabat ezberdin hauek honela erakusten dute:




1929ko martxoak 12



Ozeano Atlantikoko mapa honetan ez da erredaktorearen istorioa isladatzen, baizik eta aipatutako area nagusiak bakarrik. Mapa 'hutsa' kontsideratu dezakegu, infografiko baino. Berez, hiru zutabeko espazioa bete baino ez du egiten, gaiarentzat argazkaririk aurkitu ezinean. Egile ezezagunekoa dugu.




1929ko urriak 24



Kontrako akatsak leporatu diezazkiokegu ondorengo honi. Krokis hutsa baitugu, inolako erreferentzia geografikorik gabe. 'Cross' huraren ibilbidea isladatu nahian, egileak ahaztu du adierazbide kartografikorik sartu. 1929ko urriak 24eko orrialde huraren elementu grafiko bakarra zen infografiko hau eskuz eta erabat informalki burutua izan zen. Esfortzu edota denborarik eza garbia transmititzen du, egileak lehenengo eskutik ezagun behar zuen informazioa baizen, eta, hala ere, elementu adierazgarri minimoak sartu baititu.



1930eko irailak 17



Hurrengo urtekoa dugu azken adibide hau. 'Amerika' Koparen ibilbidearen islada. Infografikoa ingelesez idatzita dago, hala ere, testuan ez da adierazten zen den elementu grafiko honen iturri atzeritarra. Distantzietako informazioak miliatan adierazita agertzen dira.

Lurra eta itsasoa ezberdintzerakoan, zuritan utzi du egileak testu informatiboak daramana -ura- eta griszeko trama batez bete du gainontzeko espazioa.

Argi eta garbi infografikoa zuzenduta dago irakurle amerikar bati, Massachussetse Estatuko kostaldea isladatzen baita bertan inolako kokatzaile edo esplikazio gehigarririk gabe.

1935tik aurrera argazkien kopurua pixka bat berriro igotzen da, ala ere, inolaz ere aurreko hamarkadetan erabilitakoak bezala.

4.2.- 'El Correo Español - El Pueblo Vasco'-ren infografiaren hastapenak

1936ko abenduak 11ean 'El Pueblo Vasco' inkautatu eta itxi egin zuen Gobernu errepublikar berriak. Urte bat eta erdi publikatzeke eta gero, 'El Correo Español' egunkari bilbotar berriarekin fusionatu zen. 1938ko apirilieko berragerpenean errotatiba eta egoitza berria erabiliz, egunkariak argazki ugari argitaratzen hasi zen. Honen adibide dugu 'Batasunaren Urtekaria' ospatzeko Bilbon antolatutako ekimenei buruzko argazki muntai hauek, non, azalorri osoa ez bakarrik, azken orrialdea ere bete egiten zen. Egunkari jaioberriak ideia eta proposamen berritzaileekin hasten zuen fusioaren osteko garai hura. Espainiako Guda Zibilar oraindik urtebeteko gatazka geratzen zitzaion eta egoera horrek baldintzatu zuen lehenengo urte horiek. Publikatutako artikulu gehienek gudaren ingurukoak ziren eta, era berean, argazki gehienak ere. Hauetako asko Gobernuaren buruarenak, Francisco Francorenak.



1938ko apirilak 20

4.2.1.- Lehenengo mapak

Eta etapa berri honen lehenengo astean aurkitzen dugu lehen mapa egunkarian. Araneko aranean gertatutako tropen aurrerakadak ditu. Kokapenen izendapena eta elementu geografikoetatik aparte ez du inolako testu gehigarri edota indikazio informatiborik erabiltzen.



1938ko apirilak 21




Itxura berdinekoa izango dugu hurrengo asteetan zehar erabilitako infografikoak. Ia egunero ejerzitoen gorabeherak isladatuko dute mapen bitartez, hain zuzen. Lehenengo Mundu Guduan gertatu zen bezala, gatazkaren inguruko infografikoek ilustratzaileen beharra piztu zuten eta joera horrek berriro infografikoen presentziaren igoerari lagundu zion. Ia egunero egunkariaren azalorrian mapa bat agertu zen hurrengo urte osoan zehar.

Itsasoa trama batez ezberdintzen du eta sinadurarik ez dakar.

Honen adibidea dugu hurrengo hilabeteen argitaratutako Bilboko Deustu auzoko kaleen eraldaketaren inguruko infografiko hau. Itxura tridimentsionala bilatuz, egileak ikuspegi axonometrikoa erabili du eraikinen etorkizunezko antza islatzeko. Lehenengo aldiz ilustratzaile batek erabiltzen zuen egunkarian halako teknika. Guzti hau apurtzailea iruditu zitzaion erredaktoreari ere, zeinek honela idatzi zuen beheko testuan, irudi berritzailea aurkezpena beharko bazuen bezala, zertan zetzan marrazki hura, irakurlea agian ohitua ez



1938ko maiatzak 19



Pertsona beraren esku eginda dirudite egun haietan publikatzen ziren mapa gehienak. Hiru hauek, kasu. Errotulazioari begiratu, idazkera bera erabiltzen dute eta inoiz ere sinadura indikatu. Infografikoen kanpoko lauki beltza gero eta gehiago erabiliko da ere. Elementu kartografikoei begira, amankomuna dira ere beste zenbait joera. Adibidez, eskala indikatzea ez zaio ia inoiz ahazten gure marrazkigile ezezagun honi. Mugen marra 'gidoi-gurutze-gidoi' formula kartografiko ohia erabiliz marraztuta daude. Mendiak eta erliebeo irregulartasun fisikoak adierazteko zonalde ilunak egiten zituen marra laburrez beteta.



1938ko ekainak 20



1938ko uztailak 12

Castelló eta Saguntoren arteko zonaldeari dedikatutako infografikoan itsasertza adierazterakoan formula berritzaileaz esperimentatu zuen marra beltz batzuren lodiera progresiboa erabiliz. Mapa honetan ere beste elementu berritzailea eskalaren kokapena dugu. Grafikoaren kanpoko laukiaren marra beltza erabili da berau txertatzeko. Halakorik ez da berriro ikusiko ondorengo urteetan zehar.



1938ko irailak 7

Bi hilabete geroago zonalde beraren inguruan prestatutako beste mapa batean berriro marra beltzen lodiera progresiboaren bitartez indikatzen du ura, baina kasu honetan elementurik berriena kolore beltza dugu. Ejerzito Nazionalaren aurrerakadak indikatzeke gezi beltz bat erabili zuen, eta kolore indartsu honekin ere 'arerio errepublikarraren menpe' mantentzen zen zonaldea.

1938 urtearen amaieran Guda Zibila bukatzeaz dago eta beronen gaineko interesa eta dedikatutako orrialde kopurua jeisten da ere. Gauza berbera gertatzen da infografiko eta mapekin. Berez, ejerzitoen kokapen eta aurrerakuntzen inguruko mapen kopurua pixkanaka gutxituz dihoa.

4.2.2.- Lehen mapa estatistikoa

1938ko urriak 30an aurkitzen dugu lehen mapa estatistikoa. Bertan, Espainian Laguntza Soziala eskaintzen zuten 1.845 erakundeak agertzen dira. Bakoitzari puntu bana egotziz, infografikoak argi uzten du zein areatan ia ez dago halako instituziorik. Azpimarratzekoa da nola egileak ez duen inolako elementu kartografikorik izendatu ezta bestelako errotulu edota elementu tipografikorik. Asmoa, beraz, estatistikoki non gehiago eta non gutxiago zegoen mapa mutu batean grafiko ki azaltzea baino ez zen. Berriro sinatzeke agertzen zaigu grafikoa.



1938ko urriak 30

4.2.3.- Ilustrazioak

Testu nagusian txertatuta, ikono txiki hauek 1939an agetzen dira lehenengo aldiz. Mota guztietako gaiak ilustratzen zituzten eta orrialdeen itxura alaiagoa bihurtzea zuten helburu. Eguneroko berriei moldatzeko gaitasuna, eta malgutasuna argi eta garbi demostratzen dute ilustratzaile batek marraztuta zeuden. Lehenengo asteetan zehar ugari eta ezberdinak aurkitzen ditugu interes orokorreko berrien orrialdeetan zehar. 1940tik aurrera Kiroletako orrialdeetan agertuko dira batez ere baina marrazki hauek egunero marraztu behar, estandarizatu egingo dira eta berrerabiliak izango dira gehienez. Kiroletako orrialdeetan 1960 arte oso ohikoak izango dira.




1939ko ekainak 2

Gerra Zibilaren interpretazio alegoriak ere agertzen hasten dira gudaren azken urte hauetan. Batzuetan, bana bi astero baino ez ziren publikatzen. Gehienak 'Salinas' sinadurapean. Ilustratzaile honek Alde Nazionalaren aldeko kroniken garai hartako esajerazio literarioak handitu egiten zituen. Egunkariak hartutako posizio ideologikoari lagundu egiten zioten elementu grafiko hauek, askotan, ez argazkirik ezta maparik ere publikatzeko posibilidadea ez zegoenean. 'Salinas' sinadurapean gehienak -sinadurarik gabe gainontzekoak- izen hau ez zen berriro agertu 1939ko udaren ostean, non -azkenik- lehen infografiagile eta ilustratzaile finkoa agertuko zen egunkariaren langile bezala.



1938ko maiatzak 19



4.3.- 'Benedí'. lehen infografiagile osoa 'El Correo'-n

1939ko irailean lehenengo aldiz infografiagile finkoa agertuko da egunkarian. Aurretik 'Manresa' ilustratzailearen zenbait lan esporadiko argitaratu bazuen, baina 'Salinas' izena agertzen den ere; egunkariko lehen infografiagile osoa 'Benedí' sinadurapean agertuko zaigu. Egile honek Alemaniak Poloniari egindako inbasioaren inguruko mapak egiten hasi zen egunkarian eta jarraian Finlandiako inbasioa Errusiarengatik zein Bigarren Munduko Guda ere ilustratu egin zuen infografikoekin. Hauxe dugu lehen langile egunkarian bakarrik infografikoetara dedikatua oso osorik. Bere sinadura agertu arte ia ez ziren grafikorik publikatzen 'El Correo Español'-en. Azken adibideak honako hauek ditugu; mapatxo sinpleak eta marra biluzik osatuak. Errekurtso infografikorik ia ez zen aprobetxatzen.



1939ko irailak 10



1939ko irailak 6

Europako zonaldeetako mapak ditugu hauek. Herrialdeen arteko mugak, errepideak eta ibaiak konfunditu egiten dira. Errotuluak ezin txikiagoak ere badira eta ez dirudite prestatuak izanda publikatuak izan ziren tamaina horretara.

4.3.1.- Benediren lehenengo lanak

1939ko irailak 12an sinadura berri hau agertzen zaigu lehenengo aldiz. Ia grafikorik ez agertzetik, bapatean lau mapa jarraian aurkitzen ditugu (12tik 15era) Europako herrialdeen mugak eta 'Maginot' marraren tirabirak Frantziaren Nazien presioaren kontra. Azpimarratzekoa da nola lehenengo momentutik infografiagile honek lauki batez nabarmenduko duen bere marrazkiak. Orrialdearen gainontzeko elementuetatik ezberdintzeko, errekuadro beltzak markatuko du ia beti bere lana. Eraberean, logotipoak eta tramak erabiltzeko asmoa agertarazten du ere lehenengo grafiko hauetatik. Baina elementurik azpimarragarriena 'beltza' indartsuen presentzia izango da.


Gogor markatutako lerro eta area horiek mezuaren gako transmititu nahi dutela. Lehenengo aldiz 'margotzailea'-k berriaren mamia irakurri eta horren arabera bere mapa prestatua zuela demostratuko da. Mapek 'mezua' badaramatela argi uzten dute.



Sinadura bezala 'Benedí' erabili zuen bere grafikoetan landutako lau urte eta erditan zehar

1939ko irailak 12

- Lehenengo mapa hauetatik jadanik ezaugarri nagusi horiek somatzen ditugu jada:
- 1- Mezu nagusia beltz indartsuez azpimarratua ('Maginot' defentsa marra)
 - 2- Ura eta luraren arteko ezberdintzapen argia eta tinta gehiegirik erabili gabe.
 - 3- Apaindurako elementurik ez




1939ko irailak 14

Bapatean, lehen infografiagile finko honen agerpenarekin, egunkarian ia mapa eta grafikorik ez agertzetik pasatuko gara ekoizpen oso handi batetara. Egunero grafiko bat –eta batzutan bizpahiru ere– publikatzen hasiko da. Ekoizpen erraldoia garai hartako.


Publikatutako infografikoen eboluzioa

Hilabetero informazioko artikuluetan argitaratutako infografikoen kopuru ertaina 1930tik 1949ra




Lehenengo bost egun horietan azken orrialdean agertu eta gero, seigarrenean bere lanaren garrantziaz ohartarazita, erredaktoreak 'Benedí'-ren lana azalorrira pasatuko dute. Honela 1939ko irailak 16tik aurrera gudaren inguruko mapak lehen orrialdean publikatuko dira. Egun horretan agertzen bazaigu bere sinadura berezia lehenengo aldiz azalorrian. Eta hortxe geratuko zen hurrengo lau urtetan zehar. Hasieran gainontzeko argazkiekin batera, eta hilabeteak aurrera joan ahala, ia elementu grafiko bakarra bezala. Har dezagun kontutan nola testu gehienak sinatu gabe agertzen ziren –erredaktorearen hiria edo lekua baino ez zen esplizitatzen-, beraz, marrazkigilearen izena agertzea garrantzi handikoa da.

Grafikoen kokapena 1939an zehar



Lau egunez azken orrialdean agertu eta gero, 1939ko irailak 16an 'Benedí'-ren eguneroko infografikoa lana azalorrira pasatzen da lehenengo aldiz. hemendik aurrera kokapen horretan mantenduko zen gehienetan

Eraberean, 'Correo Español-Pueblo Vasco' errutuluarekin batera, arranoaren irudia agertzen zen erronbo baten barruan. Halakorik ez zen argitaratu 1939 arte eta Benedíren agerpenarekin batera koinziditu egiten du. Urtebetez agertzen jarraitu zen. 1940 urtearen bukaeratik aurrera pixkanaka desagertuz dihoa eta 1941tik aurrera ia ez zen berriro erabili.




1939ko irailak 19



1,2 x 1,0 zentimetroko irudi hau bakarrik infografikoetan erabili zen. Ez argazkiez ezta inolako testu zutabeetan. Nahiz eta askotan eskuz marraztua izanda, gehienetan kautxozko sigilu fisikoa ere bazela ematen du. Mapa oso txikia zenean, formatu borobilean eta txikiagoan publikatu zen sigilutxo hau ere.

Infografiagile honen bilakaera oso azkarra eta harrigarria izango da. Argi nabaritzen da nola lehenengo momentutik bere mapak finkatu egiten diren eta ia ezer ez argitaratzen, bapatean egunero mapa bat, bi eta batzutan gehiago ere egiten dira erregulariki. Gehienak azalorrian eta batzutan, azken orrialdean beste batzuk.

Hasiera hasieratik bere lan informatiboaren garrantziaz jabetzen da eta 'Benedí' eta horregatik ez du nahasiko marrazkigile bezala bere trebetasunak informazio grafikoetan. Ejerzitoen aurrerakadak adierazteko geziak eta zenbait errotulu baino ez ditu erabiltzen. Nabarmentzekoa da, beraz, nola esfortzurik handiena maparen argitasunean inbertitzen duen. Informatzean, hain zuzen, eta ez infografikoa apaindu edo dotoretzean. Hau argi ikusiko dugu hurrengo urteetan karikaturak eta ilustrazioak –oso gutxitan agertuko direnak– bere esku ere eginda, ez direla uztartzen bere lan informatiboarekin. Beraz, argi uzten digu bere trebetasunak oso altuak zirela marrazkigile bezala, eta hala nahi izanez gero, soldaduak, itsasontziak, etab. marrazteko gai bazela, beraz, elementu hauek ez sartzeko aukera hartua zuen berak konzienteki hala nahi izanda.



1939ko irailak 28

Bere lehen hilabete honetan ere aurkitzen ditugu jadanik, tramak, grisak, area beltzak eta marrez bitarteko zonaldeak indikatutako informazioak. Mapak 'hitz egiten' hasten zaizkigu lehenengo aldiz erregulariki 'El Correo Español'-en.

Mapa honek alde batetik Errusia eta bestetik Ingalaterrako koloniak Asian erakusten ditu kolore ezberdin banarekin. Erabilitako bi tonu hoiien leienda espezifikatzen da behean.

1939ko irailak 20



1939ko irailak 21



Bi egun jarraian egindako mapa hauek esku bereak marraztuta izan arren, bakoitzean estilo eta errekurto grafikoak erabat ezberdinak dira. Gezian erabilera batean eta hiru binetetako zatiketa bestean. Erabilitako letra tamainen arteko oreka eta, batez ere, kolore beltzaren funtzioa; ezkerrekoan geziak eta herrialdeen izenak azpimarratzeko, eskuinekoan, ordea, hiru binek-tak direla eta ondorioz, mapa bakarra baino, prozesu bat dela adierazteko. Guzti hau, egunkarian lanean hasi eta hilabete bakarrak pasatu baino lehen.

4.3.4.- Mapen garaia

Irailak 30an beste hito gertatzen da Benedíren ibilbide profesionallean eta El Correo-ren infografian; orrialde berean bi mapa ezberdin publikatu eta sinatu egingo ditu infografiagile honek. Mapa bakoitza gai eta testu batekin eta itxura grafiko ezberdin batekin. Argazkirik ez egun hartako azalorrian eta, hiru astetan gure marrazkigilearen lana erabat finkatu dela argi gertatzen da. Pentsatu behar dugu 1939ko egunkariak bizpahiru argazki baino ez zituela argitaratzen egunero. Itxura gris hartan mapa hauen presentziak asko destakutzen zuen.

1939ko irailak 30

Tres acuerdos, firmados en Moscú entre Von Ribbentrop y Molotoff

Primero Esfuerzos comunes, de acuerdo con otros países, para terminar la guerra con Inglaterra y Francia
Segundo Delimitación de fronteras en Polonia
Tercero La Unión Soviética entregará a Alemania primeras materias y cambio de suministros industriales

Si el primer propósito fallara, nuevas consultas entre los dos países para adoptar las medidas necesarias

No habrá cambio de política exterior en Rumania

BUCARESTE, 29.—El nuevo Gobierno ha prestado juramento ante el rey el jueves, por la noche.

Los medios políticos dicen que el señor Argenteanu, actual presidente del Gobierno, propondrá el viernes la continuación de la política exterior de Rumania. En relación con este asunto los primeros comentarios de prensa relativos a la nueva organización ministerial reflejan que se prevé que el señor Goguța, ministro de Negocios Exteriores, continúa desempeñando la cartera. (D. N. B.)

La frontera de relaciones entre Rusia y Polonia ha terminado con la firma de un acuerdo de asistencia mutua para diez años y en virtud del cual, a cambio de la producción soviética, Polonia, sin perder su soberanía, concede al Gobierno de Moscú el derecho de establecer bases navales y aéreas en determinados puntos de su territorio.


Tarazona.—El presidente del Consejo de Ministros del Pueblo y




1939ko urriak 4

Ia salbuespen bezala, Estoniaren mapa honetan titulua agertzen zaigu. Hala ere, oso gutxitan agertuko da.


Hurrengo hilabetean zehar geziak eta adierazpen esplizituak multiplikatu egingo dira. Egilearen hitzak eta lan informatiboa agerikoagoa bihurtzen da. Infografikoen kopurua handituz dihoan ehinean askatasun handiagoz ere sentitzen da indikazio kartografikoetatik aparte egindako kazetaritza-azalpen gero eta gehiago sartzeko.



1939ko urriak 5



1939ko urriak 6



1939ko urriak 8

Argi eta garbi nabaritzen da egunkariaren eguneroko lanean erabat finkatu egin direla Benedíren mapak. Honela, urriak 18an irakurtzen dugu nola erredaktoreak bere testuan, mapari buruz hitz egitean "...gure grafikoa..." deitzen du. Maparen behetik zein batzutan alboan ere agertzen ziren testuak bere mamia esplikatzen zuten. Eta testu horren beharra desagertzen dihoa ere erredaktoreak konturatzen direnean mapak berak 'hitz egiten' duela.

Guzti honen adibide argia dugu 1939ko urriak 19an argitaratutako Britaina handiko mapa. Orrialde honek balio digu Benedí infografiagilearen agerpenak suposatu zituen lehenengo aldaketak laburbiltzeko:

1939ko urriak 19



- 1- Infografikoaren presentzia zabala; orrialdearen elementu grafiko bakarra eta tamaina handikoa.
- 2- Lauki beltza infografikoa gainontzeko elementuetatik bereizteko
- 3- Tramen erabilera lurra eta ura ezberdintzeko
- 4- Errotulu kartografikoak ez ezik; erredaktutako informazio testu osoak datuak azalarazten, baina titulurik eza.
- 5- Ikono edota apaintze hutseko elementurik eza. Geziak eta zenbait lauki baino ez.
- 6- Sinadura garbiki ezberdinduta.
- 7- Egunkariaren ezkutua argiki marraztuta.
- 8- Argazki oinik eza. Azkenik infografikoa independizatu egiten da eta 'berez' esplikatzen dela onartzen da. Zenbait infografiko argazki oinarekin publikatzen jarraitu baziren ere, beste asko autoesplikatiiboak ziren eta azkenez kanpoko testu-elementu hori gabe publikatuko dira. Honen adibideak ditugu hurrengo hauek.


Azpimarratzekoa da ere nola 1939-1944 aldi horretan infografikoen kopurua oso altua izan arren, Benedirena baino beste sinadurarik ez zen agertu. Hau da, mapen ekoizpena multiplikatu egingo da, baina pertsona bakar honen lanetatik, beste inolako marrazkilariren laguntzarik gabe.



1939ko urriak 27




1939ko urriak 18



1939ko azaroak 2




1939ko urriak 26



1939ko azaroak 3

1939ko urriak 31an Alemaniako ejerzitoaren presioa Frantziaren mugaren gainean eta 'Sigfrido' marraren kokapena azaltzeko lehenengo aldiz perspektibako mapa hau pres-tatzen du Benedí. Berriri, mapak egiteko irizpide informatiboekin –bakarrik marrak, geziak eta zenbait ikono simple, dekorazio hutsik gabe– eta oso lan txukuna eta ondo gor-puztua dugu. Agian erredakzioan gustokoa izan zutelako, hurrengo egunean berriri ere publikatua izango zen.



1939ko urriak 31



Mapaz aparte, oso infografiko gutxi aurkitzen ditugu beste motatakoak. Beste mota hauen adibide exkas hoiere artean bi hauek aurkitzen dugu Benedíren lehen bi hilabetetan eginda.

1939ko azaroak 4

1939ko azaroak 17



Benedik oso gutxitan erakusten zituen marrazteko bere gaitasunak infografikoetan. Argi eta garbi banatzen zuen ilustrazioa eta informazioa. Infografiko honetan marrazteko bere abilitate horiek erakusten dizkigu. 'Deutschland' korazatuaren itxura eta oinarriko datuak azaltzen dira bertan

Ejerzitoen indarrak kuantitatiboki adieraztea eta herrialdeen boterea konparatzeko ohikoa zen ikono eta zifren bitarteko halako koadroak. Hala ere, honako hau oso berezia da, beheko aldean Ingalaterrako itsasontzi lurperatuen proportzioa adierazteko erabilitako koadroen bitarteko infografikotxoak.

4.3.5.- Kolorearen agerpena

1939ko azaroak 25an lehenengo aldiz 'El Correo Español'-eko azalorrian kolore gorria agertzen da. Errotatibaren hobekuntza eta orrialdeen tamaina aldaketetaz informatzen dute azalorri historiko hartan kolore horretan inprimatutako ohar txo batean. Horrekin batera, azalorriko titular nagusia zein azkenengoa -plantxa berbera izanda posiblea baizen- tonalitate horrekin ere inprimatua zegoen. Lehenengo egun haietan titular nagusietan erabili zen tinta gorria. Gero paragrafoak azpimarratzeko ere. Posibilidade berri anitz eskeintzen zituen errekurtsio grafiko hark ez zuen bere lekua aurkitzen eta lehenengo aste haietako azalorrietan ez dugu aurkitzen estabilitaderik.

Berez, nahiz eta aste hartako azalorri gehienetan mapak argitaratzen jarraitzen baziren ere, ez zen abenduak 3ra arte, igandea, lehenengo aldia Benedík gorri kolorea erabili zuen mapa baterako. Eta emaitza ezin arraroagoa izan zen:

1939ko azaroak 25



1939ko abenduak 3



Grafiko honek argi uzten digu 'El Correo Español'-eko gure lehen infografiagilea ez zegoela ohituta errekurtsio grafiko berri honi. Finlandia eta Errusiarren arteko gatazkaren inguruko mapa honetan destakatu egia geratzen da lehen herrialdea. Eta ez bakarrik albokoe-kin konparatuz, orrialdearen osotasunean ere.

Baina oso azkar konturatzen da infografiagilea tinta berriak eskeintzen dituen posibilidadeetaz. Lehen saiakera huraren ostean kolore gorria ez zen berriro erabili modu honetan, eta jarraian ikusten dugu aldaketa garbiak. Abenduak bostean, asteartean, -hau da, hurrengo egunkarian, astelehenean ez baizen publikatzen- ikusten dugu nola kolorearen erabilera erabat normalizatu den eta bakarrik koloreatuko dira esparru txikiak -informatiboena-. Nabaritzekoa da zein azkar hasten den Benedík errekurtsio honetaz ondo aprobetxatzen. Aurreko hilabeteetan kolore beltz gogorra erabiltzen zituen zonaldeetan orain gorriaren posibilidadeekin sustituitu egin dezakeela konturatzen da.

Hona hemen lehen hiru egun haietan publikatutako bost mapak. Bakoitzean erabileraz ezberdina eman dio koloreko tintari;

1

1939ko abenduak 5

1

2

3

1939ko abenduak 6

2

4

2

7

6

5

1939ko abenduak 7

2

7

4

5

6


7

- 1-Destakatutako area batzuri (Finlandiaren esku geratuko diren eremuak zein Errusiak hartuko dituenak, baita 'Besarabia'-ren kokapena indartzeko).
- 2-Azpinarratutako herrialdeen izenak markatzeko (Finlandia eta Suedia, adibidez, non Errusia beltzez geratzen den)
- 3-Azpinarratutako lekuen izenak indikatuzeko ('Island') ('Island')
- 4-Erredaktutako testu informatiboak eta berauen laukiak ('Ocupado por las tropas rusas')
- 5-Muga bat indikatuzeko (Errusia eta Finlandiaren artekoa)
- 6-Itsasoaren izenak
- 7-Egunkariko ezkutua ere

Nolabaiteko esperimantu normalak ditugu honako lehen mapa hauek. Argi dago egileak behin eta berriz erabilera berriak frogatu nahi zituela eta oraindik ohitzeke zegoen tinta berriaren efektu bisualera. Baina deigarria da erabat garai hartan egunkariak agertarazten zuen ideologia eta Errusiako komunismoaren kontrako jarrera garbia –zeini 'gorriak' ere deitzen zitzaion askotan titular ezin argiagoetan– kolore hau ez erabiltzea herrialde sobietarra indikatzeko.

4.3.6.- Dibertsifikazioa


Benedíren grafikoaren ekoizpena nagusiki nazioarteko informazioetarako izan zen. Ia esklusiboki informazio hauek ilustratzeko mapak egin zituen*, hala ere aste honetan berean ere aurkitzen du infografiagilearen lehen estatistika grafikoa. Bertan urperatutako itsasontzi ingelesaren eboluzioa konparatzen da eta nabaritzekoa da zenbait aspekturen zuzentasuna. Alde batetik hiruhilabete baten datuak izanda (1939ko iraila, urria eta azarokoak) bakarrik konparatzen ditu aurreko Mundu Gerrako beste bi hiruhilabeteekin (1917 eta 1918ko hiruhilabete berberekin). Marra gorria erabili du eboluzio nagusiaren itxura indartzeko, baita eskalaren hitoak indikatzeko. Eskala, tonatan adierazita, zerotik hasten da eta ez dauka goikaldetik marrarik soberan. Koadroak titularra badarama nahiz eta beronen gaintetik atal nagusiarena ere: 'La Guerra en Occidente'). Ezkutua ere agertzen zaigu eta, beroni ere kolore gorria egotzio dio.



1939ko abenduak 9

* 1940ko urtarrilak 22an Bilboko hiltegi berriaren infografikoa publikatzen du egunkariak. Denbora askotan zehar tokiz-tokiko informazioko lehen grafikoa izan zen eta ez zuen Benedik egin. Honek argi uzten digu zein lotura estua zeukan infografiagilea eta nazioarteko informazioa erredaktoreentzat.

Eraberean, 1940ko ekainak 2an aurkitzen dugun beste mapa txiki hau, beste pertsona batek marraztuta eta bere itxura simple eta ezberdinetatik argi geratzen da Benedíren lekua hartzeko edota sustutuitu ahal izateko ez zegoela beste langile edota kolaboratzailek egunkarian. Eraberean, bere presentziaren garrantziaz ohartarazten gaitu bere ezegotealdiak. Oporraldiak edota gaixotasunagatik zenbait egun lan egin gabe bazegoen, hau argi nabaritzen zen produkzioan. Adibidez, 1940ko urriaren hamar egun agertzeke egon zen eta ez zen inolako maparik argitaratu epe oso horretan zehar.




1940ko ekainak 2

Hurrengo egunean, abenduak 10ean, igandea, urpeko bonbak instalatzeko prozedura esplikatzen du bere lehen diagramean. Mina batek nola funtzionatzen duen eta itsaspekoak nola instalatzen dituen era ezin argiagoan marraztu zuen. Grafikoa hiru ataletan zatitua dago eta ezin argiagoa da;



- Goian; minaren barneko zatiak eta funtzionamendua
- Behean; itsaspekotik ateratzeko prozedura
- Eskuinaldean; itsas lurtean nora finkatzen direneko faseak



Kolorea erabiltzen hasi zenetik lehenengo aldiz ez da ausartzen Benedi tinta gorria infografiko batean.

Hala ere, hurrengo egunean berriro Gerrako mapa prestatzean, kolorea bueltatzen da eta beste berrikuntza bat ere agertzen zaigu; 'zoom'-en erabilera. Arreta deitzekoa da nola gorri kolorea dedikatu dion handitutako laukiaren eremuaren indikazioa. Agian errekurtsu grafikoa berriegizat jotzeagatik esku bat marraztu indikazio hori esplizitua bihurtzeko. Infografiko honetan bost elementu erabat ezberdin koloratu ditu.

- Erredaktutako esaldi nagusia
- Norabide gezia
- 'Zoom'-aren laukia eta indikatzailea,
- Zirkulua eta bigarren esaldiarekin batera beste gezi hori ere, eta, azkenik
- Sinadura txikia -'B' bakar hori-.



Egunkariaren ezkuak garrantzi pixka bat galdu eta berriro beltzeko tintara bueltatu da. Hala ere, elementu honen kolorea ez da inoiz erregularrik izango. Batzutan gorriz, beste-etan beltzez agertzeaz gain, bi bertsio ezberdin agertuko dira ere –tamaina handi edo txikiagorentzako espazioa dagoenentz arabera–.

1939ko Azaroak 26



1939ko Azaroak 27



1939ko Azaroak 28



4.3.7.- Grafikoen txikitzea


Lehenengo bi hilabetetan bere berritasunare erakargarria galdu eta bapatean mapen presentzia eta tamaina txikiagoa bihurtzen da. Urte horretako abenduan zehar map askoren tamaina zutabe batetara jeisten da. Haien artean azpimarratzekoa da, Heligoland irlari dedi-katutako esfortzua –zehetasun handiz prestatuta dagoela nabaritzen da– eta tamaina eska-sa –modulu bakar bat inguru–. Halako ez proportzio nabaria ez zen aurretik inoiz gertatu.

1939ko abenduak 20




Tamaina ertainaren eboluzioa

Zentimetro karratutan





Abendua bukatzean urtearen balantze ezin arrarago hau aurkitzen dugu. Bertan, eboluzio moduko 'sukarra' erabili du egileak Gerrako gorabeherak azaltzeko, nahiz eta inolako balio kuantitatiborekin ez isladatu. Tamaina txiki eta ia irakurtzezinezko esaldi hutsekin erredaktoreak kontatutako gertakariak agertzen dira 'Bakea' -behean- ala -erdian- 'Gerra'-tik hurbilago ala urrunago kontsideratzen duen arabera. Goikaldean, ordea, galdera-marka batez indikatu du ziurgabetasunerantz aurrera joaten dela urtea. Grafikoaren gaitetik urtearen zenbakia letra erraldoi eta gorritz gehituta agertzen dira. Ezkerreko testu esplikatzailan 'diagrama' deitzen da laukia. Azpimarratzekoa da ere nola, nahiz eta errozulazioaren bidez eta ezkuatuaren presentziarekin deduzitu dezakegun Benedik burutu zuela, estraineko aldiz berak ez zuen sinatu nahi infografiko hau. Oso arraroa den sinadura falta hori, beti sinatzen baizituen bere lanak.



Egun bereko edizioaren azken orrialdean ere Europak azken bi hamarkadetan pairatutako bilakaera bi mapen bitartez esplikatzen zen. 'Lehen' eta 'orain' formulapean kontinentearen 1919ko mugak 1939koekin konparatzen dira.



Bi egun geroago, 1940ko urtarrilak 2an estatistika infografiko oso bitxia argitaratu zen egunkarian. Konparaketa kuantitatibo honen bitartez Errusiako populazioa Finlandiarenarekin alderatzen da. 'El Correo Español'-en jarrera politikoa Errusiako presioaren kontra agerikoa zen, eta aurriritzi politiko horiek zeuden halako konparazio esajertuaren oinarrian, grafikoki ez baizuen garapen interesgarri askorik bi zifra horien arteko konparaketa hutsa.



Errusiako populazioak (180 milioi pertsona) segidan jarriko balira Finlandiako mugako 1.000 kilometroetan zehar, 90 iladako marra burutuko lukete. Finlandiarrek, ordea (3 milioiko populazioa) ezkerreko hilada eta erdi baino pixka bat gutxiago bakarrik. Halako konparaketa kuantitatiboa ez zen oso ohikoa garai hartan eta ez zen berriro egin Benedíren garaian

Hamarkadaren aldetarekin egunkariaren itxura grafiko oso aspergarria izaten jarraitzen da. Deigarria da ikustea nola datu taularik ere ia ez diren agertzen. Aipatu Benedíren mapetaz aparte ia ez dago garapen grafikoko elementuak. Burtsako kotizazioak taula arraro baten bidez publikatzen da baina, bestaldetik, gainontzeko datuek ez dute inolako orden bisualik. Orrialde honetan, adibidez sozietate anonimo baten akzioen zerrenda bat agertzen zaigu. Ikusten denez, zenbakiak bata bestearen atzetik ipintzea baino ez da egin.



| | | |
|----|---|-----|
| 76 | — 37.884 — 37.891/92 — 37.897/01 — | 602 |
| 61 | 37.929/46 — 37.959 — 37.977/78 — 37.985 | 607 |
| 77 | 37.993 — 38.018 — 38.036 — 38.057/58 | — |
| 03 | — 38.060 / 61 — 38.077 — 38.086 — | — |
| — | 38.314/23 — 38.327/28 — 38.363/64 — | 619 |
| 45 | 38.368/69 — 38.376 — 38.378 a 79 — | 632 |
| — | 38.392 / 94 — 38.609/13 — 38.733 a 34 | 634 |
| 51 | — 38.741/42 — 38.795/800 — 38.971 a | 635 |
| — | 72 — 38.975/77 — 38.982/83 — 38.998 | — |
| 50 | a 99 — 39.103/05 — 39.118/22 — 39.138 | — |
| — | — 39.143 — 39.149 — 39.158 a 66 — | 64 |
| 65 | 39.169 / 71 — 39.174 a 75 — 39.252 | — |
| — | — 39.277 — 39.294 — | 96 |


Argazkien kopurua ere jeisten da. Mapek bere leku nagusi hori hartuta –batez ere azalorrian–, gero eta fotografia gutxiago argitaratzen joaten da 1939tik 1941ra epean. Grafikoek nagusitzen hasten dira eta honen adibidea dugu orrialde hau, non hiru notizia ezberdinekin mapa txiki bana publikatu zen. Azpimarratzekoa da ez bakarrik mapen ekoizpenaren igoeraren froga bezala, baizik eta bakoitzaren tratamendu informatiboa indibidualagatik ere. Hiruiek fokapen eta eskala ezberdina darabilten arren, estilo berberarekin eginda daude. 'El Correo Español'-eko infografikoek berezko nortasuna bereganatzen hasi direla argi dago.



1940ko martxoak 6

Azalorrietan publikatutako grafikoen proportzioa

Argazkiekin konparatuta



4.3.9.- Benedíren lehen ilustrazioa

Bestaldetik, abenduak 28an Benedík lehen ilustrazio alegorikoa marrazten du egunkarirako. Bertan komunismoaren aurreratzea isladatzeko zahato militarra erraldoiaren irudia erabili zuen. Hau da, lanean hasi eta hiru hilabete eta erdi pasatu arte gure 'margolaria'-k ez zuen inolako ilustraziorik egin. Eta hemendik aurrera ere burutu egin zituenak beti grafikoetatik urrun geratu ziren, inoiz ez baituzten berriro nahastu bi lan hauek.

1939ko abenduak 28



4.3.10.- Grafikoen heldutasuna

1940ean zehar -lanean hasi eta bost hilabete inguru pasata- Benedík prestatutako mapetan lau hobekuntza mota ezberdin nabarmenduko dira.

- 1- Tonalitateen kontraste grafikoaren barruan eta pisu handiagoa orrialdean
- 2- Ura eta luraren arteko ezberdintze bisualaren hobekuntza
- 3- Orrialdearen kokapena eta gainontzeko elementuekiko muntai zainduagoa
- 3- Tinta gorriaren erabileraren egonkortasuna

1.- 1940ko otsailetik aurrera mapek itxura helduagoa agertarazten dute. Benedík bere lanarekin seguruago sentituko balitz bezala, infografikoek kontraste altuagoa aurkezten hasiko dira. Tinta gorria eta beltza era indartsuagoz erabiliko du eta honek aberastuko du grafikoaren presentzia orrialdean, baita une bakoitzean transmititu beharreko mezua argitasuna. Ikus dezagun nola, are gehiago, trama beltz ausart batez ere baliotzen hasiko da, adibidez, itsasoak indikatzen.



Ante la
soviética
defensa
PALM
han ten
replegi
vas pos



1940ko maiatzak 2

1940ko maiatzak 10



1940ko maiatzak 4



1940ko maiatzak 9

2.- Hobetze prozesu horren barruan ere azpimarratzekoa da ura eta lurra ezberdintzerakoan erabilitako irizpidea lehenengo aldiz egunkarian bateratu egiten dela. Zein zuriz eta zein trama batez adierazterakoan, erantzun bakarra eta itxia eman beharrean, irizpide erabakigarria infografikoak kontatzen duen istorioaren mamia izango da. Hau da, indikatu beharreko testuak eta informazio gehiena lurrean dagoenean –adibidez ejerzito baten aurreratzea– beratu mantenduko da zuritan, eta ura, ordea, trama batekin. Ordea, istorio nagusia itsasoaren gainean gertatzen denean, ura izango da zikindu gabe geratuko dena aipatu testu horiei leku garbia uzteko. Honen adibide hauek garai hartakoak ditugu.



1940ko maiatzak 2



1940ko maiatzak 11

Lehen bi mapa hauetan kontatu beharrekoak lurrean gertatzen da. Ondorioz, izenak, toponimikoak eta destakatu beharreko istorioaren gehien testu gehienak libre uzteko, itxasoa markatu da trama batez.

Beste bi hauetan kontatu beharreko istorioa itxasoaren gainean gertatzen da, beraz, kasu honetan horixe da zuritan geratu den aldea. Lurra, ordea, trama horretaz mantxatu du.



1939ko azaroak 9



1940ko maiatzak 10

3.- Orrialdearen diseinua eta gainontzeko elementuekiko integrazioa zainduagoa izaten hasiko da. Hasteko; erredaktoreak izen propioa ipintzen diote atalari; '**Perfil de la jornada**' titulupean. Horrek finkotasuna ematen dio eguneroko artikuluari eta, aldi berean, maparen presentziari. Bigarren aurrera pausua mapa berezien formatu bertikal esajertuan aurkitzen dugu. Hor ikusten dugu argi eta garbi infografiagilearen iritzia kontsultatzen zela mapen tamaina erabakitzerakoan. Baina, are gehiago, 1940an lehenengo aldiz infografikoek forma errektangularrak atzera utzi eta molde irregularraren lehenengo adibideak agertzen hasten dira. Hurrengo hiru urtetan zehar dozena bat aldiz inguru baino ez zen hau gertatu. Hala ere, oso deigarria suertatzen da ez bakarrik berrikuntza izateagatik, garai hartan zutabeak honela partitzeko zegoen zailtasuna zela eta hau ez zela normalean honela egiten, adibidez, argazkiekin. Beraz, infografiagilea eta tailerreko muntatzaileen arteko etengabeko erlazio estuaren froga dugu. Hauexek ditugu, besteak beste, zenbait adibide:

1940ko azaroak 12



Forma irregularra hau ikusita, lehenengo ikuspegian pentsa genezakeen Benedik grafikoa-ren forma arraroa prestatu duela zutabeen ertza ekiditzeko eta honi moldatuz egin behar izan duela mapa. Baina gehiago fijasen bagara, azkar konturatu gaitzake nola aldrebes gertatu den: Japon, Txina eta Tailandia indikatu beharreko mapa, espaziorik txikiena halaxekoa izan behar zuen derrigorrez, beraz, zutabeak grafikoari moldatu egin dira. Infografiagile eta muntaigile-en arteko koordinazio adibide garbia dugu hau.

1940ko azaroak 14



Honako bigarren kasu honetan, ordea, mapa ez da moldatu behar izan, baizik eta espazioa irabazi nahian, infografiagileak zentimetro batzuk nondik aurreztu zezakeen esan die muntaigileei -itxasoaren aldea-, eta berauek izkina hori aprobetxatu ahal izan dute grafikoaren esplikazioa sartzeko

4.- Azkenik, kolore gorriaren erabilera orekatu eta egonkorragoa lortu zuen. Nahiz eta mapa bakoitza istorio ezberdina kontatu eta beraz erabilitako elementu grafikoak aldatu ere, joera nabarmena hedatuz joango da; kolore gorria Alemaniarren aurrerakadak isladatzeko. Gune 'beroak' bezala trama gorri batez ezberdintzen hasiko da lurra non naziek inbaditu egin duten edota kasu bakoitzean herrialde erasotzaileak okupatu duen area. 1940tik aurrera kolore gorria gehienetan era honetan erabiliko da azalorrietan. Aldi berean, lehen baino titular gutxiagoren testuan, beraz, mapen kontrastea eta presentzia igotzen da azalorrietan.

Nahiz eta egonkortasun osoaz ezin hitz egin, bai kontsideratu daiteke urte honetatik aurrera plantxa gorriak eskusiboki erabiltzen hasten dela hiru elementutan:

- Titular nagusiaren letretan edota apainduretan
- Orrialdearen goikaldean, igandetako egunaren zenbakirako
- Infografiakoaren zonalde destakatuan



1940ko maiatzak 16



1940ko maiatzak 26




1940ko maiatzak 21

Mapen luxuzko kokapen horrek –gehienetan azalorrian agertzeagatik– permitituko dio gorri kolorearen erabilera Benediri. Hori dela eta, esan dezakegu mapek izan zirela kolorearen erabilera gehien jorratu eta berritu zuten elementuak.

1940ko abuztuak 22

Kontutan hartu behar dugu gorriz inprimatu beharreko zonaldeak aparteko plantxa baterako prestatuak izan behar zirela. Hori dela eta, oso ondo pentsatuak eta, kontu handiz montatuta, bestela, abuztuak 22eko mapa honetan gertatu zen bezala, inprimatzerakoan mugitu egiten bazitzaion infografiko osoaren itxura zein zentzua galdu egiten zen.



Benedíren lana eta presentzia orrialdeetan jadanik ziurtatuta dugu 1939tik aurrera, baina ez da izango 1940 urtearen erdiraino lehen ilustrazio finkoak egiten dituen arte. Oso gutxi burutu zituen arren, batez ere Bigarren Mundu Gerrako pertsonai nagusien karikaturak –Benito Mussolini, Franklin Delano Roosevelt, Adolf Hitler, etab.–, askotan publikatuak izan ziren, behin eta berriz errepikatuta. Garai honetan ere 'El Correo Español'-eko ezku hura desagertzen hasten da ere. Urtebete baino gutxiago iraun zuen, beraz.

1940ko abuztuak 21



Hala ere, goian aipatu bezala, Benedík ez zuen inoiz ilustratzaile bezala egindako bere lanak infografiagile bezala egindakoekin nahasi. Lehen momentutik azkeneraino bi produktu horien arteko marra argia zeukala nabaritzen da.

4.3.11.- Errepikatzea ekidin saiatzen etengabe

Gainera, lan bakoitzari tratamendu berezia eta bere esfortzua dedikatu ziola argi uzten zuen egunero. Adibidez, lau egun jarraian –maiatzaren 11, 14, 15 eta 16an– Belgikako zonalde beraren inguruko bost mapa –bi lehenengo egunean eta bana beste hiruretan– prestatu behar izan zuen eta ikusten denez, bakoitza zerotik hasita marraztu egin zituen, berrerabili egin beharrean.

1940ko maiatzak 11



1940ko maiatzak 12



1940ko maiatzak 13



1940ko maiatzak 14

